BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA

BAO

248. zk. 2022, abenduak 30. Ostirala 

I. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

Bizkaiko Foru Aldundia

## Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saila

### Ahaldun Nagusiaren 263/2022 FORU-DEKRETUA, abenduaren 22koa, zeinaren bidez onesten baitira Administrazio Orokorreko eta Bereziko eskaletan sartzeko deialdiak, egonkortze prozesu bereziaren eta prozesu arruntaren bidez.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

**FORU-DEKRETUA, ZEINAREN BIDEZ ONESTEN BAITIRA ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA BEREZIKO ESKALETAN SARTZEKO DEIALDIAK, EGONKORTZE-PROZESU BEREZIAREN ETA PROZESU ARRUNTAREN BIDEZ.**

I

Euskal Funtzio Publikoari buruzko 1989ko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 22tik 24ra bitarteko artikuluetan, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege

**DECRETO FORAL POR EL QUE SE APRUEBAN LAS CONVOCATORIAS DE ACCESO A LAS ESCALAS DE ADMINISTRACION GENERAL y ESPECIAL, PROCESO ESPECIAL DE ESTABILIZACION Y ORDINARIO.**

I

En cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 22 a 24 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca; 70 del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público; y 14 de la Norma Foral 8/2021, de 30

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Dekretuaren 70. artikuluan eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2022. urteko aurrekontu orokorrei buruzko abenduaren 30eko 8/2021 Foru Arauaren 14. artikuluan xedatzen dena betetzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak 2022ko ekitaldirako enplegu publikoaren eskaintza onetsi zuen 2022ko maiatzaren 17an (95. BAO, maiatzaren 19koa), ezohiko eta salbuespeneko egonkortze-prozesuari dagokiona, zeina araututa baitago abenduaren 28ko 20/2021 Legean (Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa), erabakian ezarritako moduan. Aipaturiko erabakiaren 2. eta 3. eranskinetan ageri dira aurrekontuetan diruz hornitutako lanpostu hutsak eta haien kuantifikazioa, eskala, azpieskala, mota eta espezialitateetan sailkatuta. Eskaintza hori 2022ko urriaren 4ko Erabakiaren bidez zuzendu zen. (2022ko urriaren 5eko BAO).

de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2022, la Diputación Foral de Bizkaia aprueba el 17 de Mayo de 2022 la primera oferta de empleo público de la Diputación Foral de Bizkaia del ejercicio 2022, BOB de 19 de mayo, (nº 95) , correspondiente al proceso de estabilización, de carácter extraordinario y excepcional, regulado e la Ley 20/2021 de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público, en los términos que se establecen en dicho Acuerdo. Las plazas vacantes dotadas presupuestariamente cuya cuantificación, clasificada en Escalas, Subescalas, Clases y Especialidades figuran en los Anexos 2 y 3 del citado Acuerdo. Esta oferta ha sido corregida mediante Acuerdo de 4 de octubre de 2022. (BOB de 5 de octubre de 2022).

Hirugarren eranskinean, 2021eko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapenei buruzkoan, egonkortze plazak deiturikoak jasotzen dira. Guztira, 20 kategoria biltzen dira han, 107 plaza. Horiek guztien deialdiak eginak daude jada, eta 20 prozesuok martxan.

Las plazas incluidas en el tercer Anexo, el relativo a las disposiciones 6ª y 8ª de la ley 20/2021 de 28 de diciembre, denominadas de consolidación, que recoge un total de 20 categorías y 107 plazas, ya han sido convocadas, y los 20 procesos están en desarrollo.

Beste alde batetik, 2022ko abenduaren 7an, Bizkaiko Foru Aldundiaren erabaki baten bidez, 2022rako bigarren lan-eskaintza publikoa onartu zen, legeria arruntaren babesean, eta 2022ko 233. BAOn publikatu, abenduaren 9an. Eskaintza horretan, deitu daitezkeen plaza huts guztiak jasotzen dira, behin-behinekotasun tasa ahalik eta gehien murrizteko.

Además, el 7 de diciembre de 2022 se aprueba, mediante acuerdo de la Diputación Foral de Bizkaia la segunda oferta de empleo público para 2022 al amparo de la legislación ordinaria, que se publica BOB de 9 de diciembre, nº233. En ella se recogen todas las plazas vacantes que se pueden convocar con el fin de reducir al mínimo la tasa de temporalidad.

Plaza horien zuzkidura ekonomikoa, berriz, Ekonomia Kontrolerako Unitatearen maiatzaren 9ko 2022/0066 eta maiatzaren

Su dotación económica consta en los informes 2022/0066 de 9 de mayo y 2022/0070 de 10 de mayo de la Unidad de

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

10eko 2022/0070 txostenetan eta azaroaren 25eko 2022/140ean jasota dago.

Berrikuntza- eta eraginkortasun-ariketa berritzaile bat baliaturik, batera egin nahi dira deialdiak, kategoria berean suertatzen direnean egonkortze-plazak eta lanpostu arruntak. Izan ere, horri esker, minimoetan minimoena da behin-behinekotasun tasa, ez zaielako «zahartzen» uzten deialdi arruntei, eta eraginkortasun handiena lortzen da, azterketa bakarrean ebatzirik kasu biok. Hala, bada, Foru Aldundiaren zenbait erabakitatik datozen eskaintzak gauzatuko dira: 2019ko apirilaren 9ko Erabakia, 2019ko lehen eskaintza onartzen duena (apirilaren 11ko BAO, 71. zk.) eta urte bereko abenduaren 3koa, bigarrena onartzen duena (abenduaren 9ko BAO, 234. zk.); 2020ko abenduaren 22ko Erabakia, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2020rako bigarren lan-eskaintza publikoa onartzen duena (abenduaren 24ko BAO, 247. zk.); 2021eko uztailaren 13ko Erabakia, 2021eko lehen lan-eskaintza onartzen duena (uztailaren 22ko BAO, 139. zk.) eta urte bereko abenduaren 21ekoa, bigarren lan-eskaintza onartzen duena (2021eko abenduaren 30eko BAO, 250. zk.), eta, azkenik, goian aipatutako 2022ko abenduaren 7ko Erabakia (abenduaren 9ko BAO, 233. zk.), 2022ko bigarren eskaintzako txanda arrunteko plazei dagokiena.

Kategoria horiek 17 dira: zelataria, zergen ikuskatzaileordea, antolaketako teknikaria, basoetako ingeniari teknikoa, beharginak, hainbat zerbitzutarako langileak, zerbitzuetako langileak, peoia, bide, ubide eta portuetako ingeniaria, industria ingeniaria, psikologoa, basoko agenteak, topografiako ingeniari teknikoa, administrazio-azpieskala,kudeaketa

control económico y 140/2022 de 25 de noviembre.

En un ejercicio novedoso de innovación y eficacia se propone realizar de forma conjunta cuando coexisten categorías en las que hay plazas de estabilización y ordinarias, las convocatorias de las mismas. Y ello porque así se reduce a la mínima expresión la tasa de temporalidad porque no se dejan “envejecer “las convocatorias ordinarias y se procura la máxima eficacia ya que en exámenes únicos se resuelven los dos supuestos. Y así se ejecutan ofertas derivadas de los siguientes Acuerdos de la Diputación Foral: de 9 de abril de 2019, por el que se aprueba la primera oferta de 2019(BOB nº71 de 11 de abril) y 3 de diciembre del mismo año , por el que se aprueba la segunda (BOB de 9 de diciembre nº234),de 22 de diciembre de 2020 por el que se aprueba la segunda oferta de empleo público de la Diputación Foral de Bizkaia para 2020 (BOB de 24 de diciembre, nº247), 13 de Julio de 2021 por el que se aprueba la primera oferta de empleo para 2021 (BOB de 22 de Julio nº139) y acuerdo de 21 de diciembre del mismo año por el que se aprueba la segunda oferta de empleo (BOB nº250 de 30 de diciembre de 2021) y el ya citado Acuerdo de 7 de diciembre de 2022 (BOB de 9 de diciembre, nº233), para las plazas de turno ordinario de la segunda oferta de 2022.

Estas categorías son 17: celador o celadora, Subinspección de tributos, técnico o técnica de organización, I.T. forestal, operarios u operarias, personal de servicios múltiples, personal de servicios, peón o peona, ingeniería de caminos canales y puertos, ingeniería industrial, psicología, agentes Forestales, I.T. topográfica, subescala Administrativa, T.M. gestión administrativa

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

administratibo finantzarioko teknikari ertaina, ekonomialaria eta enpresa-medikua

financiera, economista, y medicina de empresa.

II

Bestalde, 2022ko maiatzaren 17ko Erabakiaren laugarren artikuluan eta abenduaren 7ko Erabakiaren hirugarren artikuluan, desgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuen erreserba jasotzen da, zeina deialdien bidez gauzatuko baita. Garatu beharreko eginkizunak eta deialdiko lanpostu-kopurua kontuan hartuta eskainiko dira lanpostuak, deialdi horien bidez. Hain zuzen, plazen erreserba % 7 da, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen aldaketa dela bide, eta, ehuneko horretatik, % 2 desgaitasun intelektuala duten pertsonei aplikatu behar zaie.

II

El artículo cuarto del acuerdo de 17 de mayo y el tercero del Acuerdo de 7 de diciembre de 2022 recogen la reserva para personas con discapacidad que se materializara en las convocatorias de las plazas ofertadas donde su implementación resulte más factible en función de las tareas a desarrollar y el número de plazas convocadas. Hay que señalar que la reserva es del 7%, por mor de la Modificación de la Ley 7/2007, de 12 de abril, del Estatuto Básico del Empleado Público", de la que un 2% se debe aplicar a personas con discapacidad intelectual.

Aurreko deialdietan, erreserbak bete dira, eta plaza bat geratzen zen esleitzeko. Egonkortze-eskaintzatik 3 ateratzen dira, eta eskaintza arruntetik 10; beraz, lehendik «zorretan» zegoenarekin, 14 dira.

En convocatorias anteriores, se han cumplido las reservas, y quedaba pendiente de asignar una plaza. De la oferta de estabilización resultan 3 y de la ordinaria 10, con la que se "debe" hacen 14.

Honela esleitzen dira: egonkortze-prozesuan: 2 plaza erreserbaturik administrazio-azpieskalan eta bat bide, ubide eta portuetako ingeniaritzan eta bat behargineneAn. Prozedura arruntean: 5 administrazio-azpieskalan, 3 kudeaketa administratibo finantzarioko teknikari ertainenean eta bat antolaketako teknikarian.

Se asignan de la siguiente forma: en la parte de estabilización: 2 plazas reservadas en la subescala administrativa y una en ingeniería de caminos canales y puertos y una en operarias u operarios. En la parte ordinaria: 5 en la subescala administrativa, 3 en la categoría de T.M. GAF y una en técnico técnica de organización.

Esleipen horiekin, betetzen da erreserba-tasari dagokion eginbeharra azken lan-eskaintza publiko horretara arte, 2022ko bigarrena barnean harturik. Nabarmendu behar da maiatzaren 27ko 78/2021 Foru

Con estas asignaciones, se cumple con la tasa de reserva hasta esta última oferta de empleo público, segunda de 2022, incluida. Es preciso destacar que mediante Decreto Foral 78/2021 de 27 de mayo se realizó una

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Dekretuaren bidez 5 plazako deialdi espezifiko bat egin zela desgaitasun intelektuala duten pertsonentzat; halako bigarrena izan zen, eta, guztira 10 plaza erreserbatu dira txanda espezifiko horretarako.

III

Prozesuaren izapide legez, arrazoiak azaltzen dituen txostena eta generoaren eraginaren aurretiazko txostenak erantsi dira, bai eta Aurrekontu eta Kontabilitate Zerbitzuaren abenduaren 15eko 07/2022/047 txostena ere.

Oinarri berezien inguruko proposamena Administrazio Publikoen Ordezkaritza Organoen Legean eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan ezarritakoarekin bat egin da, eta Bizkaiko Foru Aldundiko negoziazio-mahaiaren eguneko gai- zerrendan sartu da. ELA-STV, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek dihardute mahai horretan. Irizpide orokorrak hainbat batzorde teknikotan eta negoziazio-mahaiaren azaroaren 17ko eta 25eko bileretan negoziatu dira. ELAren aldeko botoarekin onartu dira, eta hala jasota dago idazkariak 2022ko azaroaren 30ean emandako ziurtagirian. Era berean, egonkortze prozezurako eta prozezu arrunterako deitutako kategori guztien oinarri espezifikoak ere goian aipatutako bileretan negoziatu dira, bai eta abenduaren 2ko Negoziazio Mahaian ere, mahaiko idazkariak 2022ko abenduaren 13an emandako ziurtagirian agertzen den bezala.

Eta 5/2015 LEDen 38. artikulua aplikatzeko, eskumena duen gobernu-organoari, hau da, ahaldun nagusiari proposamena egiten zaio aipatutako deialdiak onesteko.

convocatoria especifica de 5 plazas para personas con discapacidad intelectual, siendo ya la segunda de tal carácter y haciendo un total de 10 plazas reservadas a este turno específico.

III

Como tramitación del proceso se incorporan el informe motivador y los informes previos de impacto de género, así como el informe 07/2022/047 de 15 de diciembre, emitido por el Servicio de Presupuestos y Contabilidad.

La propuesta que se formula, en lo relativo a las bases específicas, en cumplimiento de lo dispuesto en la LORAP y el EBEP, ha sido incorporada al Orden del Día de la Mesa de Negociación de la Diputación Foral de Bizkaia integrada por las Centrales Sindicales operantes en la misma, esto es ELA-STV, LAB, CCOO y UGT. Los criterios generales se han negociado en diversas comisiones técnicas y en reuniones de 17 y 25 de noviembre de mesa de negociación. aprobándose con el voto favorable de ELA, según consta en la certificación expedida por la secretaria de la misma, de fecha 30 de noviembre de 2022. Asimismo, las bases específicas de todas las categorías convocadas para el proceso de estabilización y ordinario se han negociado también las sesiones arriba referenciadas, así como en la Mesa de Negociación del 2 de diciembre tal y como consta en la certificación expedida por la secretaria de la mesa el 13 de diciembre de 2022.

Y en aplicación del art. 38 del RDL 5/2015 de 30 de octubre se procede a proponer al órgano de gobierno competente, esto es el Diputado General aprobación de las convocatorias referenciadas

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Oinarri orokorrak, berriz, 2022ko urtarrilean negoziatu, eta 2022ko urtarrilaren 31n onetsi ziren behin betiko, Negoziazio-mahaiko idazkariak 2022ko otsailaren 3an emandako egiaztagirian eta azken aldaketetan jasotzen denez. Aldaketok azaroaren 20an eta otsailaren 12an onetsi ziren (aldatutakoak: seigarren oinarria, eta hirugarrena eta bederatzigarrena, hurrenez hurren).

Las Bases Generales fueron negociadas en enero de 2022 y aprobadas definitivamente el día 31 de enero de 2022, según consta en la certificación expedida por la secretaria de la Mesa con fecha 3 de febrero de 2022 así como sus los últimos cambios (bases sextas, aprobada el 20 de noviembre y tercera y novena en sesión de 12 de febrero).

Azkenik, proposamen osoak betetzen du arlo honetan aplikatu beharreko indarreko araudian xedatutakoa; bereziki, manu hauetan ezarritakoa: Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legean, abuztuaren 2ko 30/1984 Legean, ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretuan, Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 15eko 86/97 Dekretuan, eta aplikatu behar eta indarrean den gainerako legerian. Hala dago jasota administrazio orokorreko oposizio-sistemarako oinarri orokorrei buruzko txostenean (271. zk., 2007ko apirilaren 3koa), iruzurrezko jokabideei eta lehia desleiala sortzen dutenei buruzko oinarriari dagokionez egindako txostenean (2014ko apirilaren 16koa) eta administrazio-sinplifikazioari buruzkoan (47. zk., 2015ko urtarrilaren 23koa). Gainera, oinarri orokorrei buruzko beste bi txosten egin dira: bat, ezarri den tasari buruzkoa, 207. txostena, uztailaren 20koa, gero gauzatu diren ekarpen batzuk dakartzana, eta, bestea, desgaitasuna duten pertsonen txandari buruzkoa, 210. txostena, 2021eko uztailaren 21ekoa.

Por último, toda la propuesta se ajusta a lo dispuesto en la normativa vigente aplicable a esta materia, sobre todo Ley de Función Pública Vasca, Ley 30/84 de 2 de Agosto, Real Decreto 896/1991 de 7 de junio y Decreto del Gobierno Vasco 86/97, de 15 de abril, además de toda la legislación vigente de aplicación, como así consta en el informe núm. 271 de fecha 3 de abril de 2007 sobre las bases generales de administración general, sistema de oposición y el de 16 de abril de 2014 en referencia a la base relativa a las conductas fraudulentas o de competencia desleal y en el informe de la simplificación administrativa nº 47 de 23 de enero de 2015. Además, ha habido dos nuevos informes relativos a las bases generales, uno específico para la tasa que se ha implantado, el 207 de 20 de julio, con aportaciones que se han materializado y el relativo al turno de discapacidad, número 210 de 21 de julio de 2021.

Eta deialdi honi dagozkionak, abenduaren 20ko 307 txostenean. Oinarri bereziak direla eta, berriz, nahitaezko legezkotasun-txostena egin zen, 308 zenbakia duena eta abenduaren 20koa.

Y las propias de esta convocatoria en el informe número 307 de 20 de diciembre. Por su parte las bases específicas obtuvieron su preceptivo informe, el número 308 de 20 de diciembre de 2022.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Jarraibide gisa harturik Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 34.1.g eta 39. artikuluetan Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 27.3.a) artikuluari dagokionez xedatzen dena, Ahaldun Nagusiari dagokio karrerako funtzionarioak hautatzeko deialdia eta oinarriak onestea.

Hori dela-eta, aipatutako arau horietan jasotako ahalmenak aplikatuz eta Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak proposatuta, hau

XEDATZENDUT:

**Lehena**.- Aintzat harturik jarraian aipatzen diren Foru Aldundiaren erabakiak, hautaproben deialdia egitea xedatzen da, lehiaketa-oposizioaren bidez hornitzeko behean aipatzen diren karrerako funtzionariotzako plazak. Hona zer erabaki diren: Bizkaiko Foru Aldundiaren Erabakia, 2022ko maiatzaren 17koa, abenduaren 28ko 20/2021 legea egonkortzeko prozesuari dagokion Bizkaiko Foru Aldundiaren 2022ko aurrekontu-ekitaldirako enplegu publikoaren eskaintza onartzen duena (2022ko 95. BAOn argitaratua, maiatzaren 19an) eta haren zuzenketa, 2022ko urriaren 4ko Erabakiaren bidez onartua (urriaren 5eko BAOn); 2019ko apirilaren 9ko Erabakia, 2019ko lehen eskaintza onartzen duena (apirilaren 11ko BAO, 71. zk.) eta urte bereko abenduaren 3koa, bigarrena onartzen duena (abenduaren 9ko BAO, 234. zk.); 2020ko abenduaren 22ko Erabakia, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2020rako bigarren lan-eskaintza publikoa

Conforme a lo dispuesto en los arts. 34.1. g y 39 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, en relación al art. 27.3 a) de la Norma foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Comunes del Territorio Histórico de Bizkaia, la aprobación de la convocatoria y de sus bases, para la selección en el funcionariado de carrera, corresponde al Diputado General.

En su virtud, en aplicación de las facultades recogidas en las normas citadas a propuesta de la Diputada Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales,

DISPONGO:

**Primero**.- De conformidad con el Acuerdo de la Diputación Foral de Bizkaia, de 17 de mayo de 2022 publicado en el BOB de 19 de mayo, numero 95, por el que se aprueba la oferta de empleo público de la Diputación Foral de Bizkaia del ejercicio 2022 correspondiente al proceso de estabilización, de carácter extraordinario y excepcional, regulado e la Ley 20/2021 de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público, y su corrección aprobada mediante Acuerdo de 4 de octubre de 2022(BOB de 5 de octubre) y los Acuerdos de la Diputación Foral: de 9 de abril de 2019, por el que se aprueba la primera oferta de 2019(BOB n71 de 11 de abril) y 3 de diciembre del mismo año , por el que se aprueba la segunda (BOB de 9 de diciembre nº234),de 22 de diciembre de 2020 por el que se aprueba la segunda oferta de empleo público de la Diputación Foral de

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

onartzen duena (abenduaren 24ko BAO, 247. zk.); 2021eko uztailaren 13ko Erabakia, 2021eko lehen lan-eskaintza onartzen duena (uztailaren 22ko BAO, 139. zk.) eta urte bereko abenduaren 21ekoa, bigarren lan-eskaintza onartzen duena (2021eko abenduaren 30eko BAO, 250. zk.), eta, azkenik, goian aipatutako 2022ko abenduaren 7ko Erabakia (abenduaren 9ko BAO, 233. zk.), 2022ko bigarren eskaintzako txanda arrunteko plazei dagokiena. Hona deialdian hornitzekoak diren plazak:

Bizkaia para 2020 (BOB de 24 de diciembre, nº247), 13 de Julio de 2021 por el que se aprueba la primera oferta de empleo para 2021 (BOB de 22 de Julio nº139) y acuerdo de 21 de diciembre del mismo año por el que se aprueba la segunda oferta de empleo (BOB nº250 de 30 de diciembre de 2021) y el ya citado Acuerdo de 7 de diciembre de 2022 ( BOB de 9 de diciembre, nº233) para las plazas de turno ordinario de la segunda oferta de 2022 disponer la convocatoria de pruebas selectivas, por el sistema de concurso oposición, para la provisión, en el Funcionariado de Carrera de las siguientes plazas:

**Administrazio Orokorreko Eskala: Administrazio Azpieskala**

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ADMINISTRARIEN azpieskala | Egonkortzea | 18 | Arruntak | 132 | Guztira | 150 |

**Administrazio Orokorreko Eskala: Lanbide-taldea**

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| BEHARGINAK | Egonkortzea | 3 | Arruntak | 0 | Guztira | 3 |
| HAINBAT ZERB. LANGILEA | Egonkortzea | 1 | Arruntak | 16 | Guztira | 17 |
| ZERBITZUETAKO LANGILEA | Egonkortzea | 2 | Arruntak | 0 | Guztira | 2 |

**Administrazio Bereziko eskala, Azpieskala Teknikoa, mota: goi-mailako teknikariak:** espezialitateak

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ANTOL. TEKNIKARIA | Egonkortzea | 1 | Arruntak | 18 | Guztira | 19 |
| BIDEETAKO INGENIARIA | Egonkortzea | 4 | Arruntak | 2 | Guztira | 6 |
| INDUS. INGENIARIA | Egonkortzea | 1 | Arruntak | 4 | Guztira | 5 |
| PSIKOLOGOA | Egonkortzea | 1 | Arruntak | 9 | Guztira | 10 |
| EKONOMIALARIA | Egonkortzea | 1 | Arruntak | 6 | Guztira | 7 |
| ENPRESAKO MEDIKUA | Egonkortzea | 1 | Arruntak | 0 | Guztira | 1 |

**Administrazio Bereziko Eskala, Azpieskala Teknikoa, mota: erdi-mailako teknikariak:**espezialitateak

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ZERGEN IKUSKATZAILEORDEA | Egonkortzea | 4 | Arruntak | 10 | Guztira | 14 |
| BASOETAKO ING. TEKNIKOA | Egonkortzea | 1 | Arruntak | 3 | Guztira | 4 |
| HERRI. LAN. ING. TEKNIKOA | Egonkortzea | 1 | Arruntak | 3 | Guztira | 4 |
| KAFTE | Egonkortzea | 3 | Arruntak | 44 | Guztira | 47 |

**Administrazio Bereziko Eskala, Azpieskala Teknikoa, mota: laguntzaileak:** espezialitateak

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| BASOKO AGENTEA | Egonkortzea | 2 | Arruntak | 8 | Guztira | 10 |

**Administrazio Bereziko Eskala; Zerbitzu Berezien Azpieskala; mota: zeregin bereziak:**

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ZELATARIA | Egonkortzea | 6 | Arruntak | 5 | Guztira | 11 |

**Administrazio Bereziko Eskala, Zerbitzu Berezien Azpieskala, mota: hainbat lanbidetako langileak:**

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| PEOIA | Egonkortzea | 1 | Arruntak | 0 | Guztira | 1 |

**Escala de administración general: Subescala Administrativa**

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ADMINISTRATIVA | Estabilización | 18 | Ordinarias | 132 | Total | 150 |

**Escala de administración general: Agrupación profesional**

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| OPERARIOS y OPERARIAS | Estabilización | 3 | Ordinarias | 0 | Total | 3 |
| PERSONAL SERV MULTIPL | Estabilización | 1 | Ordinarias | 16 | Total | 17 |
| PERSONAL DE SERVICIOS | Estabilización | 2 | Ordinarias | 0 | Total | 2 |

**Escala de Administración Especial, Subescala Técnica, clase técnicos y técnicas superiores:** especialidades

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| TECN ORGANIZACIÓN | Estabilización | 1 | Ordinarias | 18 | Total | 19 |
| ING. CAMINOS, C y P | Estabilización | 4 | Ordinarias | 2 | Total | 6 |
| INGEN INDUSTRIAL | Estabilización | 1 | Ordinarias | 4 | Total | 5 |
| PSICOLOGIA | Estabilización | 1 | Ordinarias | 9 | Total | 10 |
| ECONOMISTA | Estabilización | 1 | Ordinarias | 6 | Total | 7 |
| MEDICINA DE EMPRESA | Estabilización | 1 | Ordinarias | 0 | Total | 1 |

**Escala de Administración Especial, Subescala Técnica, clase técnicos y técnicas medias:** especialidades

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| SUBINSPECCION DE TRIBUTOS | Estabilización | 4 | Ordinarias | 10 | Total | 14 |
| INGEN TECN FORESTAL | Estabilización | 1 | Ordinarias | 3 | Total | 4 |
| INGEN TECN OOPP | Estabilización | 1 | Ordinarias | 3 | Total | 4 |
| TMGAF | Estabilización | 3 | Ordinarias | 44 | Total | 47 |

**Escala de Administración Especial, Subescala Técnica, clase técnicos y técnicas medias:** especialidades

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| AGENTE FORESTAL | Estabilización | 2 | Ordinarias | 8 | Total | 10 |

**Escala de Administración Especial, Subescala de servicios especiales, clase: cometidos especiales:**

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| CELADOR/A | Estabilización | 6 | Ordinarias | 5 | Total | 11 |

**Escala de Administración Especial, Subescala de servicios especiales, clase: personal de oficios:**

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| PEON-PEONA | Estabilización | 1 | Ordinarias | 0 | Total | 1 |

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

**Bigarrena.-** Deialdi horiek arautuko dituzten oinarri orokorrak eta bereziak onestea. Oinarri horiek, jasota gera daitezen, dekretu honi eranskin legez batu zaizkio.

**Hirugarrena.** Oinarriak argitara daitezela agintzea: oso-osorik Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (www.bizkaia.eus); laburpena, berriz, Estatuko Aldizkari Ofizialean.

**Laugarrena-** 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 61.2.a) artikuluaren arabera, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatuak emango ditu deialdia tramitatzeko beharrezkoak diren ebazpenak, karrerako funtzionario-izendapena izan ezik, izendapena egitea Foru Aldundiari dagokio eta, aipaturiko foru-arauaren 17. artikuluaren 1. zenbakiko 33. zenbakian ezartzen denaren arabera.

**Segundo.-** Aprobar las Bases Generales y específicas que regirán las convocatorias que, para su constancia, se incorporan a continuación.

**Tercero. -** Disponer la publicación de las Bases íntegras, en el Boletín Oficial de Bizkaia, (www.bizkaia.eus) y en extracto, en el Boletín Oficial del Estado.

**Cuarto-** De conformidad con el art. 61.2.a) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, la diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales adoptará las resoluciones pertinentes para la tramitación de la convocatoria, excepto el nombramiento en el funcionariado de carrera, por corresponder a la Diputación Foral conforme a lo dispuesto en el nº 33 del apartado 1º) del art. 17 de la citada Norma Foral.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

HAUTAPROBETARAKO DEIALDIA, OPOSIZIO-LEHIAKETA BIDEZ KARRERAKO FUNTZIONARIO SARTZEKO HONAKO ESKALA HONETAN
ADMINISTRAZIO OROKORRA ETA BEREZIA – EGONKORTZE-PROZESUAK ETA PROZESU ARRUNTAK

OINARRI OROKORRAK

LEHENENGOA.- Xedea.

1.- Oinarri hauen xedea da bi motatako hautaketa-prozesuak arautzea: batetik, enplegu publikoa egonkortzeko prozesuak, zeinek babes hartzen duten azaroaren 11ko 7/2021 Legearen bigarren xedapen gehigarrian (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko Legea) abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarriekin lotuta (Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien Legea), eta, bestetik, hautaketa-prozesu arruntak; guztiak ere, karrerako funtzionario legez betetzeko Administrazio Orokorreko eta Bereziko zenbait plaza, deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan jasotzen direnak.

2.- Bi mota horietako prozesuen bidez (egonkortze-prozesuak eta prozesu arruntak) betetzekoak diren plazak daudenean, plaza horietako bakoitzerako bi motetako prozesuak deituko dira, aldi berean eta bereziturik. Prozesu-mota bakar baten bidez betetzekoak diren plazetarako, kasuan-kasuan dagokion prozesu mota bakarrik deituko da, onartutako lan-eskaintza publikoan xedatutakoaren arabera.

3.- Onartutako enplegu publikoaren eskaintzaren arabera, lau txanda-mota egon ahal izango dira bi prozesu-motetan: a) txanda irekia, b) barne-sustapeneko txanda, c) desgaitasuna duten pertsonen txanda eta d) desgaitasuna duten pertsonen barne-sustapeneko txanda; prozesu-mota bakoitzean, txanda bakar batean baino ezingo da parte hartu.

Barne-sustapeneko txandetarako gordetako plazetara aurkezten diren izangaiek, dagozkien probak gainditzen badituzte, gainerako izangaien aldean lehentasuna izango dute, beti, deialdiko lanpostu hutsak betetzeko.

Barne-sustapen arrunteko txandarako gordetako plaza hutsak bete gabe gelditzen badira (inor aurkezten ez delako, inork ez duelako lortzen probak gainditzeko eskatzen den gutxieneko puntuazioa edo inork ez dituelako betetzen bigarren oinarriko baldintzak), orduan plaza horiek txanda irekian eskainitakoei gehituko zaizkie.

Desgaitasuna duten pertsonen barne-sustapeneko txandarako gordetako plazaren bat bete gabe geratzen bada, barne-sustapeneko txanda arruntean eskaintzen diren plazei gehituko zaie.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

4.- Desgaitasuna duten pertsonen txandan aurkezten den izangai batek dagozkion ariketak gainditu bai baina plazarik lortzen ez badu, eta txanda irekiko beste izangai batzuek baino puntuazio hobea lortzen badu, puntuazio horrekin sartuko da txanda irekian.

Desgaitasuna duten pertsonentzat gordeta dauden plazen artean betetzen direnak ez badira deialdiko plaza guztien ehuneko hirura heltzen, bete ez diren plazak hurrengo lan-eskaintza publikoaren ehuneko zazpiko kupoari batuko zaizkio, ehuneko hamarreko gehieneko mugarekin.

5.- Derrigorrezko hizkuntza-eskakizun jakin bat ezarrita duten lanpostuei lotutako plazak bete ahal izateko, nahitaezkoa izango da izangaiek hizkuntza-eskakizun hori egiaztatuta izatea deialdiaren oinarrietan ezartzen den eran.

6.- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina (aurrerantzean, EPOE) onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 61.8 artikuluaren arabera, epaimahaiak ezin izango ditu hautatutzat jo deialdiko plazen kopurua baino izangai gehiago, hamabigarren oinarrian zehaztutako kasuetan izan ezik.

7.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioarekiko konpromisoa deklaratzen da, printzipio horrek gidatzen baitu Aldundiaren zerbitzura dauden langileen lanpostuak betetzeko prozedura.

BIGARRENA.- Izangaiek bi motetako hautaketa-prozesuetan parte hartzeko bete behar dituzten baldintzak edo betekizunak.

1.-Hauek dira:

a) Egoera hauetako bat gertatzea:

- Europar Batasuneko herritarra izatea, edo haren ezkontidea (betiere, zuzenbidez banatuta ez badaude); lehenaren ondorengoa izatea, edo ezkontidearena (betiere, zuzenbidez banatuta ez badaude), hogeita bat urtetik beherakoa, edo, adin horretatik gorakoa izanda ere, gurasoen kontura bizi dena.

- Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko tratatuen aplikazio-eremuaren barruan egotea, baldin eta tratatu horietan langileen zirkulazio-askatasuna ezar badaiteke.

b) Hamasei (16) urte beteta izatea, baina nahitaezko erretirorako adinik oraindik ez izatea.

c) Zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.

d) Diziplinazko espediente bidez bereizita ez egotea ezein administrazio publikoren zerbitzutik edo ezein autonomia-erkidegotako konstituzio- edo estatutu-organoetako zerbitzutik. Halaber, ebazpen judizial bidez, erabateko desgaikuntza edo desgaikuntza berezia adierazita ez izatea enplegu edo kargu publikoak betetzeko edo funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko. Beste estatu bateko nazionalitatea izanez gero, ez egotea desgaituta edo pareko egoera batean, eta ez

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

egotea dagokion estatuan baldintza beretan enplegu publikoa betetzea eragozten duen diziplina-zehapenaren mende edo pareko egoera baten mende.

e) Deialdian eskatzen den titulazioa izatea edo eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik titulazio hori eskuratzeko modua izatea. Tituluak atzerrian lortu dituzten izangaiek egiaztatu beharko dute badutela dagokion baliozkotzea edo badutela, behintzat, homologazioaren ziurtagiria.

f) Oinarri espezifikoetan ezarritako gainerako baldintzak betetzea.

g) Ezingo dira aurkeztu administrazio honetako kategoria bereko karrerako funtzionarioak.

2.- Barne-sustapenerako (horizontalerako edo bertikalerako) gordetako plazetara aurkezten diren izangaiek zerbitzu aktiboan edo zerbitzu berezietan egon beharko dute jatorrizko plazan, eta baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Bizkaiko Foru Aldundiko karrerako funtzionario izatea gaur egun dauden eskaletariko batean, lortu nahi duten plazaren azpiko lehen sailkapen-taldeko edo -azpitaldeko plaza batean, edo talde edo azpitalde bereko plaza batean, deialdiaren oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera.

b) Bizkaiko Foru Aldundian karrerako funtzionario legez jatorrizko plazan bi urte beteta izatea.

c) Lortu nahi den plaza eskuratzeko eskatzen den titulazioa izatea edo eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik titulazio hori eskuratzeko modua izatea, eskatzen den antzinatasuna izatea eta oinarri espezifikoetan eskatzen diren gainerako baldintzak betetzea.

3.- Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazetara aurkezten direnek % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-gradua izan behar dute aitortua, eta eskabidea aurkezteko unean egiaztatu beharko dute hori Bizkaian bizi ez diren pertsonek.

Nolanahi ere, honako kasu hauetan joko da baldintza hori betetzen dela: ezintasun iraunkor osoagatik pentsioa aitortuta duten Gizarte Segurantzako pentsiodunen kasuan, eta zerbitzurako ezintasun iraunkorragatik edo desgaitasunagatik erretiro-pentsioa aitortuta duten klase pasiboetako pentsiodunen kasuan.

4.- Hautaketa-prozesuan barne-sustapenerako edo desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazetan lehiatzeko parte hartzea eskatu dutenek aurkeztutako eskabideak aztertuta ondorioztatzen bada ez dituztela betetzen horretarako baldintzak, ofizioz onartuko dira txanda ireki arruntean, betiere txanda horretan onartuak izateko baldintzak betetzen badituzte.

5.- Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira baldintza horiek guztiak, bai eta hautaketa-prozesuan zehar ere, harik eta izendapena egin arte. Hala ere,

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

oinarri espezifikoek geroratu egin dezakete baldintza espezifikoren bat bete behar izateko unea.

HIRUGARRENA.- Eskabideak.

1.- Forma.

Deitzen diren bi prozesu-motetako edozeinetan (egonkortzekoa eta arrunta) parte hartu nahi duten pertsonek eskabide bat aurkeztu beharko dute parte hartu nahi duten hautaketa-prozesu bakoitzeko, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan ezarritakoarekin bat egoitza elektronikoan deialdien fitxan argitaratutako inprimakien araberakoa; tasa, baina, behin bakarrik ordaindu beharko dute, salbuespen kasuetan izan ezik, 1/2021 Foru Arauaren arabera.

Horrez gain, eredu ofizial eta normalizatu bat ere egongo da eskuragarri; eredu hori I. eranskinean dago jasota, eta www.bizkaia.eus webgunean (Lan Publikoaren Eskaintza) eta Bizkaiko Foru Aldundiko edozein erregistrotan eskura daiteke, bai eta Laguntza – Erregistroa eta Herritarrenganako Laguntza Bideratzeko Bulegoan (Diputazio kalea 7, 48008 Bilbo) eta Durango, Bermeo, Gernika eta Balmasedako eskualde-bulegoetan ere (https://web.bizkaia.eus/eu/eskualde-bulegoak).

Onartuak izateko eta kasuan kasuko hautaketa-prozesuetan parte hartu ahal izateko, izangaiek eskabidean adierazi beharko dute, euren erantzukizupean, eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean; horretarako, eskabide telematikoan zein aurrez aurre egiteko eskabidearen III. eranskinean jaso den erantzukizunpeko adierazpena erabiliko da.

Eskabidearekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dira:

a) Barne-sustapeneko txandetan (txanda arrunta zein desgaitasuna duten pertsonena) parte hartzen duten izangaiek, bai eta bitarteko funtzionarioek ere, Langileak Kudeatzeko Zerbitzuak emandako «Hautaketa-prozesuetarako datuen ziurtagiria» baino ez dute aurkeztu beharko. Izangai bakoitzak bere erregistro pertsonalean eskura dezake ziurtagiri hori.

   Hala ere, ziurtagiri horretan agertzen ez diren baldintzak eskabidean agerrarazi beharko dira, eta harekin batera aurkeztu, hala egiten ez bada eta haietakoren bat falta bada, ezinezkoa izango baita hautaketa-prozesuan parte hartzea.

b) Dagokion deialdian eskatzen den titulua (edo, bestela, eskabideak aurkezteko epea amaitzerako titulua eskuratzeko modua badela egiaztatzen duen agiri bat), bai eta deialdiko oinarri espezifikoetan eskatzen diren gainerakoak ere.

c) Alegatzen diren merezimenduen zerrenda (barne-sustapeneko txandetan parte hartzen dutenek eta bitarteko funtzionarioek «Hautaketa-prozesuetarako datuen ziurtagiria»n agertzen ez diren merezimenduak alegatu beharko dituzte).

d) Desgaitasuna duten pertsonen txandetakoren batean parte hartzen duten izangaiek desgaitasunaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute eskabideak aurkezteko epea

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

amaitu baino lehen. Hala ere, desgaitasuna Bizkaiko Foru Aldundiak aitortu badie, ez dute inolako ziurtagiririk aurkeztu beharko; zer txandatan parte hartzen duten besterik ez dute adierazi beharko, eta baimen espresua eman Bizkaiko Foru Aldundiari egoera hori Desgaitasuna Ebaluatzeko Atalean egiazta dezan.

Eskabidean, dagokion laukian, zein txandatan parte hartu nahi den adierazi beharko da.

Euskarari buruzko informazioaren atalean bakoitzak egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna jaso beharko da; horrez gain, euskara-azterketarik egin nahi den ere adierazi beharko da, eta egitekotan, zer hizkuntza-eskakizunekoa egin nahi den. Ariketa hori egiteko, desgaitasuna duten pertsonen txandetakoren batean lehiatzen direnek denbora edo/eta baliabiderik egokitzea behar badute, hala adierazi beharko dute, eta horretarako arrazoia azaldu beharko dute.

2.- Eskabideak aurkezteko tokia.

2.1. Eskabideak eta haiekin batera aurkeztu beharreko agiriak toki hauetan aurkeztu ahal izango dira, agerraldia eginez:

a) Eskabide elektronikoa, egoitza elektronikoan:

www.ebizkaia.eus
Eskabide elektronikoa egin nahi izanez gero, egoitza elektronikoan onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bitarteko bat beharko da.

b) Aurrez aurreko eskabidea:
Laguntza – Erregistroa eta Herritarrenganako Laguntza Bideratzeko Bulegoan (Diputazio kalea 7, 48008 Bilbo) eta Durango, Bermeo, Gernika eta Balmasedako eskualde-bulegoetan (https://web.bizkaia.eus/eu/eskualde-bulegoak).
Eskabidea herritarrei laguntzeko gure bulegoetako batean aurkeztu nahi izanez gero, hitzordua eskatu behar da aldez aurretik https://web.bizkaia.eus/eu/aurretiko-hitzordua atalean edo 94 406 8000 telefonoan.

2.2. Halaber aurkeztu ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren lekuetan.

2.3. Eskatzaile bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu ahal izango du kategoria bakoitzeko. Eskatzaileak eskabide gehiago aurkezten baditu gehienez aurkez daitezkeenak baino, organo instrukzio-egileak jasotako azken eskabidea baino ez du ebaluatuko, eta gainerako eskabideak automatikoki baztertuko dira.

3.- Tasa ordaintzea.

3.1. Tasaren ordainketa nominala eta indibidualizatua izango da hautaketa-prozesu bakoitzerako eta kuota 12 euro izango da.

3.2. Tasa autolikidazio bidez eskatuko da eta zerga-bilketan laguntzaile diren erakundeetako edozeinetan ordaindu ahal izango da, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Bilketaren Erregelamenduan ezarritakoa beteta.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

3.3. Tasa ordaintzetik salbuetsita daude:

a) % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-gradua egiaztatzen duten pertsonak. Horretarako, eskabidearekin batera, hori egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Ez dute ziurtagiririk aurkeztu beharko Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoan eskura dauden zerbitzuen bitartez datuak trukatzeko moduan dituzten pertsonek. Zerbitzu horiek Bizkaiko egoitza elektronikoan aurki daitezke.

b) Familia ugariak, Familia Ugaria Babesteari buruzko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen 12.1.c) artikuluan ezarritakoaren arabera. Horretarako, eskabidearekin batera, familia ugariko kide direla egiaztatzeko agiria aurkeztu beharko dute. Ez da familia ugariaren titulua aurkeztu beharko titulu hori Euskal Autonomia Erkidegoan lortu bada; horren gaineko egiaztapena dauden datu-bitartekaritzarako sistemen bidez egingo da.

c) Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonak edo, hala badagokio, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren onuradunak —prestazio horiek aipatzen dira, hurrenez hurren, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 11. artikuluan eta Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera ezartzen duen maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan—.

d) Genero-indarkeriaren biktimak, arloan indarrean dagoen araudiaren arabera.

e) Guraso bakarreko familiak.

3.4. Langileak hautatzeko eskumena duen Bizkaiko Foru Aldundiko organoak beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu administrazioak interesdunei buruz dituen datuen gainean. Horretarako, Bizkaia Nodoaren elkarreragingarritasun-zerbitzuak erabiliko ditu, salbu eta egiaztapena datu-bitartekaritzako sistemen bidez egitea ezinezkoa bada edo interesdunak horren aurka dagoela espresuki adierazten badu; halakoetan, eskatutako salbuespena justifikatzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira eskabidearekin batera.

3.5. Eskabideak aurkezteko epearen barruan tasa ez ordaintzeak edo osorik ez ordaintzeak hautaketa-prozesutik baztertuta geratzea ekarriko du.

4.- Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko, hogei (20) egun balioduneko epea egongo da, deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

5.- Eskabideetako akatsak.

Eskabidea garaiz eta forma egokian ez aurkezteak izangaia baztertuta geratzea ekarriko du.

Hala ere, 39/2015 Legearen 68. artikuluarekin bat, eskabideetan akatsik egonez gero, iragarkia jarriko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Foru Aldundiaren iragarki-taulan eta www.bizkaia.eus webgunean (Lan Publikoaren Eskaintza), interesdunari eskatzeko falta den

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

dokumentazioa aurkez dezala behar bezala sinatutako erantzukizunpeko adierazpenean jasotakoaren arabera hamar egun balioduneko epean. Halaber, ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskabidean atzera egindakotzat joko dela, horretarako ebazpena eman ondoren.

Tasa ez ordaintzeari edo osorik ez ordaintzeari dagokion akatsa kasu honetan baino ezingo da zuzendu: eskatzaileak ordaintzetik salbuetsita dagoela alegatu duenean, baina okerra egin duenean salbuespen horretarako baldintzak betetzeari dagokionez. Zuzenketa egiteko, hamar eguneko epea emango zaio.

LAUGARRENA.- Izangaien onarpena.

1.- Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatuak onartuen, baztertuen eta atzera egin dutenen zerrendak onartuko ditu, foru-agindu baten bidez. Agindu hori toki hauetan argitaratuko da: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Bizkaiko Foru Aldundiaren iragarki-taulan (Kale Nagusia 25, Bilbo) eta www.bizkaia.eus webgunean.

Zerrenda horietan, izangaien izen-abizenak eta Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia agertuko dira (aintzat harturik zer ezartzen duen bere zazpigarren xedapen gehigarrian 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babestekoak eta Eskubide Digitalak Bermatzekoak), eta orobat agertuko da, hala dagokionean, izangaiak ez onartzearen arrazoia.

2.- Onartuen, baztertuen eta atzera egin dutenen zerrendak onartzeko foru-aginduaren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatuaren aurrean, hilabeteko (1) epean, foru-agindu hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Errekurtso hori ez bada ebatzi probak egiten diren egunerako, interesdunak proba horietara aurkeztu ahal izango dira, kautelaz. Kautelaz egindako ariketek ez dute baliorik izango errekurtsoa ezetsiz gero.

3.- Onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi interesdunei hautaketa-prozesuan eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela aitortzen zaienik. Izendapena egin baino lehen aurkeztu behar diren agirietatik ondorioztatzen bada azkenean hautatua izan den pertsonaren batek ez duela baldintzetakoren bat betetzen, prozedura honetan parte hartzeak berekin dakartzan eskubide guztiak galduko ditu.

Hautaketa-prozesuaren edozein unetan, epaimahaiak jakinez gero izangairen batek deialdiko baldintzak ez dituela betetzen, proposamena egin beharko dio organo eskudunari izangai hori bazter dezan, betiere interesdunari entzunaldia eman ondoren, eta parte hartzeko eskabidean pertsona horrek zehaztasunik gabe eman dituen edo faltsutu dituen datuen berri eman beharko du.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

BOSGARRENA.- Epaimahai kalifikatzailearen osaera, eraketa eta jarduna.

1.- Osaera.

1.1. Izangaien hautaketa epaitu behar duten epaimahaiek kide titularrak eta ordezkoak izango dituzte, era honetara:

Epaimahaiburua:

- Bizkaiko Foru Aldundiko karrerako funtzionario bat.

Epaimahaikideak:

- Bizkaiko Foru Aldundiko karrerako hiru funtzionario.
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako pertsona bat.

Idazkaria:

- Bizkaiko Foru Aldundiko karrerako funtzionario bat.

1.2. Epaimahaiak osatzeko orduan, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 31.2 artikuluan (aurrerantzean 6/1989 Legea) jasotako espezialitatearen printzipioa bermatuko da, baita Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4 artikuluan (aurrerantzean 4/2005 Legea) ezarritako ordezkaritza orekatuarena ere.

1.3. Ezin izango dute epaimahaian parte hartu deialdia argitaratu aurreko bost (5) urteetan hautaketa-prozesuetarako izangaiak prestatzeko zereginetan ibili direnek.

1.4. Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatuak izendatuko ditu epaimahaia osatuko duten pertsonak, foru-agindu bidez, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da haien zerrenda, onartuen, baztertuen eta atzera egin dutenen zerrendak onartzeko foru-aginduarekin batera.

1.5. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, epaimahai kalifikatzaileko kide izango den pertsona izendatzeaz gain, deialdian eskatzen diren hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetako epaimahaietan parte hartuko duten kideak ere izendatuko ditu.

1.6. Epaimahaiak, edozelan ere, aholkulari espezialistak hartu ahal izango ditu. Hala ere, lankidetza hori nork bere espezialitate teknikoetan jardutera mugatuko da.

2.- Abstentzioa eta errekusazioa.

Epaimahaikideek uko egin beharko diote parte hartzeari baldin eta Sektore Publikoaren araubide Juridikoari buruzko 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan aipatzen diren egoeretakoren bat gertatzen bada. Era berean, halako egoeraren bat gertatuz gero, izangaiek kide horien errekusazioa eskatu ahal izango dute Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatuaren aurrean.

3.- Eraketa.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Epaimahaia ezin izango da eratu, ezta jardunean aritu ere, gutxienez epaimahaiburua eta idazkaria —edo haien ordezkoak— eta kideen erdiak bertaratzen ez badira. Idazkaria ez da kontuan hartuko zenbaketa hori egiteko.

4.- Jarduna.

4.1. Epaimahaikide guztiek hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute, idazkariak izan ezik; hark hitz egiteko eskubidea izango du, baina ez botoa ematekoa.

4.2. Botoen gehiengoz hartuko dira epaimahaiaren erabakiak.

4.3. Komunikazioetarako eta gainerako gorabeheretarako, Foru Jauregian izango du epaimahaiak egoitza (Kale Nagusia 25, 48009 Bilbo).

4.4. Epaimahaiak ahalmena izango du oinarri hauetan eta *Epaimahaien Jardunbideari buruzko Eskuliburuan* aurrez ikusita ez dauden zalantzak ebazteko, bai eta deialdi hau egoki bideratzeko beharrezko erabakiak hartzeko ere.

4.5. Epaimahaiak nortasuna egiazta dezatela eska diezaieke izangaiei hautaketa-prozesuan zehar, edonoiz.

4.6. Epaimahaiak, hautaketa-prozesuan zehar, nork bere espedientearen berri izateko eskubidea bermatuko die izangaiei.

4.7. Epaimahaiaren ebazpenen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango da Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

4.8. Jarraibide harturik 39/2015 Legearen 45. artikuluan xedatutakoa, hautaketa-prozesutik eratorritako administrazio-egintzak Foru Jauregiko iragarki-taulan (Kale Nagusia 25) eta Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean (www.bizkaia.eus) argitaratu beharko dira; argitalpen horiek jakinarazpenaren ordezko izango dira eta haren ondorio berak izango dituzte.

5.- Kalte-ordainak.

Epaimahaietan parte hartzea dela-eta egin beharreko egonaldiek eta lankidetzek zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan xedatutako kalte-ordainak jasotzeko eskubidea sortuko dute.

SEIGARRENA.- Hautaketa-prozedura.

1.- Egonkortze-prozesurako erabiliko den hautaketa-prozedura oposizio-lehiaketa izango da, txanda guztietan, deialdiaren oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera.

2.- Prozesu arrunterako erabiliko den hautaketa-prozedura oposizio-lehiaketa izango da, txanda guztietan, deialdiaren oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera.

3.- Bi prozesu-motetan, deialdiaren oinarri espezifikoetan adierazitako ariketek osatuko dute oposizio-fasea, eta jakin beharreko araudia, eskatuko dena, deialdiaren iragarkia

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean indarrean dagoena izango da. Fase hau gaindituko dute bakarrik hura osatzen duten ariketak oinarri espezifikoetan ezarritako moduan gainditzen dituztenek.

4.- Lehiaketa-fasea ez da baztertzailea izango, ezingo da kontuan hartu oposizio-faseko ariketak gainditzeko, eta bertan oposizio-fasea gainditu duten izangaiek alegatu eta egiaztatu dituzten merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari puntuazio bat emango zaio deialdiko baremo zehatzen arabera.

Ez dira kontuan hartuko emandako epearen barruan egiaztatu arren eskabidean alegatu ez diren merezimenduak, ezta eskabidean alegatu arren egiaztagiriak aurkezteko epearen aurretik edo ondoren egiaztatu diren merezimenduak ere.

Nolanahi ere, alegatutako merezimenduak zenbatzeko mugako erreferentzia-data beti izango da deialdiaren oinarriak Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu diren eguna.

Bi prozesuetan, euskara-azterketa nahitaezkoa eta baztertzailea izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazetan, eta borondatezkoa eta ez-baztertzailea, berriz, gainerako plazetan. Euskara-azterketa nahitaezko eta baztertzailea gainditzen edo egiten ez duten izangaiek derrigorrezko eskakizun hori ezarrita duen lanposturik lotuta ez duten gainerako plazetarako hautaketa-prozesuan jarraituko dute; ariketa horretan lortutako kalifikazioa, hala badagokio, merezimendu gisa zenbatuko da.

Bizkaiko Foru Aldundian hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Era berean, ez da ziurtagiri akademikorik aurkeztu beharko 2012ko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan jasotako egiaztatze-salbuespenen kasuan (*47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko dena*), baldin eta salbuespen hori Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan ageri bada.

Hala ere, ezingo da aukera hori baliatu 47/2012 Dekretuan jasota egon arren Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan ageri ez diren egiaztatze-salbuespenetan, eta kasuan-kasuan dagozkion ziurtagiri akademikoak aurkeztu beharko dira.

Behar diren egiaztapenak egin ahal izateko, interesdunak baimen espresua emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari beraren ziurtagiriak edo salbuespenak erregistro horretan begira ditzan.

Nolanahi ere, interesdunak aukera du Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan bere datuak kontsultatzeko, honako esteka honetan: https://www.euskadi.eus/euskara-tituluen-eta-ziurtagirien-erregistro-bateratua/web01-a2etzeb/eu/

Hizkuntza-eskakizuna deialdiko euskara-azterketa egiten den egunera arte egiaztatu ahal izango da. Eta azterketa horretara eskabidean hala eskatu dutenak bakarrik aurkeztu ahal izango dira.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

ZAZPIGARRENA.- Oposizio-fasearen hasiera eta garapena.

1.- Oposizio-fasearekin hasiko da hautaketa-prozesua. Horretarako, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatuak onartuen, baztertuen eta atzera egin dutenen zerrendak onartzeko foru-aginduan emango du jakitera zer egunetan, ordutan eta lekutan egingo den lehen ariketa.

Ariketak teorikoak eta praktikoak izango dira eta egun berean egin ahal izango dira, bata bestearen ostean; epaimahaiak atsedenaldia eman ahal izango die izangaiei ariketen artean.

2.- Izangaien jardute-ordena, hala badagokio, Herri Administraziorako Estatu Idazkaritzak martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoarekin bat egingo duen zozketaren bidez ezarriko da —dekretu horren bidez, Estatuko Aministrazio Orokorraren zerbitzuko langileriaren sarrerari buruzko eta Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen lanpostu-hornikuntzari eta lanbide-sustapenari buruzko Erregelamendu Orokorra onartzen da—.

3.- Deialdian ez badago inor zozketan ateratako letraz hasten den abizenik duenik, alfabetoko hurrengo letren bidez ezarriko da hurrenkera.

4.- Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo zaie izangaiei, eta bertaratzen ez direnak baztertuta geratuko dira, behar bezala justifikatu eta epaimahaiak askatasunez aintzat hartutako kasuetan izan ezik.

Errekurtso hori ez bada ebatzi probak egiten diren egunerako, interesdunak proba horietara aurkeztu ahal izango dira, kautelaz. Kautelaz egindako ariketek ez dute baliorik izango errekurtsoa ezetsiz gero.

5.- Haurdunaldian edo edoskitzaroan daudenek egokitzapen materialak eskatu ahal izango dituzte; horretarako, beren egoeraren berri eman beharko diote Langileen Aukeraketarako eta Trebakuntzarako Zerbitzuari, probak egin baino bost egun baliodun lehenago gutxienez.

Haurdunaldiaren edo erditzearen kasuan (behar bezala egiaztatu beharko da kasua) izangai batek hautaketa-prozesua ezin badu amaitu edo prozesuko ariketaren bat ezin badu egin, beharrezkoa izango da izangai horrek prozesua amaitzea eta geroratutako faseak gainditzea. Baina faseok ezin dira gehiegi atzeratu, ez, behintzat, gainerako izangaiek zentzuzko garai batean ebazpena jasotzeko duten eskubidea kaltetzeko moduan (epaimahaiak ebaluatuko du noiz den zentzuko garaia). Edonola ere, hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda argitaratu aurretik egin beharko dira fase horiek.

Goian ezarritakoaren salbuespen gisa, eta hautaprobetan aukera- eta tratu-berdintasuna bermatzeko, epaimahai kalifikatzaileak egokitu egin ditzake probak egiteko egunak eta/edo lekuak haurdunaldian dauden, erditzen dauden, edo erditu aurreko edo ondorengo egoeretan dauden emakumeen kasuan, betiere inguruabar horiek proba edo ariketa egin baino lehen jakinarazten bazaizkio epaimahai kalifikatzaileari eta medikuaren ziurtagiriaren bidez egiaztatzen bada egoera hori. Edonola ere, hautatutako pertsonen zerrenda argitaratu aurretik egin beharko dira egokitutako proba horiek.

Proba fisikoak egonez gero, aukera egongo da probok geroratzeko mediku-ziurtagiri batek adierazten duen arte, eta emakume bat praktiketako funtzionario izateko hautatua izan

daiteke, hala badagokio eta gaindituak baditu hautaketa-prozesuko gainerako probak, baina proba fisiko horiek gainditu beharko ditu geroago. Ez badagokio praktiketako funtzionario izateko hautatua izatea, lan-poltsarako zerrendan sartuko da, puntuazioaren arabera. Probak eta praktikaldia gaindituta, karrerako funtzionario izendatzeko hautatua izan daiteke. Aipatutako proba fisikoak gainditzen ez baditu, baliogabetuta geratuko dira gainerako izangaientzako ariketa egin zen uneaz gero egindako jarduketak.

Haurdunaldia edo erditzea dela-eta izangaiak ezin badu praktikaldian parte hartu, praktikak lanpostuan egitekoak badira, medikuak baimendutakoan egin ahal izango ditu, eta, ikastaro batean egitekoak badira, aurrerago egingo ditu, eskala, azpieskala, mota eta kategoria bererako hurrengo ikastaroan.

6.- Behin hautaprobak hasita, ez da nahitaezkoa izango hurrengo iragarkiak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Foru Aldundiaren iragarki-taulan eta Aldundiaren webgunean (www.bizkaia.eus) argitaratuko ditu epaimahaiak iragarkiak, probak hasi baino hamabi (12) ordu lehenago gutxienez, baldin eta ariketa bera bada, edo hogeita lau (24) ordu lehenago, beste ariketa bat bada.

7.- Epaimahai kalifikatzaileek ariketak egiteko denbora eta baliabideak egokituko dizkiete desgaitasuna duten izangaiei, bermatzeko gainerako parte-hartzaileen aukera berak dituztela, betiere egokitzapenon bidez ariketen edukiari garrantzirik kentzen ez bazaio edota ariketetan eska daitekeen gaitasun-maila jaisten ez bada.

8.- Oposizio-faseko ariketa bakoitzaren zuzenketa amaitutakoan, epaimahaiak Bizkaiko Foru Aldundiaren iragarki-taulan eta webgunean (www.bizkaia.eus) argitaratuko ditu gainditu dutenen zerrendak, bakoitzaren kalifikazioak eta guzti. Zerrenda horiek deialdiaren oinarri espezifikoetan zehaztutako txandetako bakoitza bereiziz osatuko dira.

a) Barne-sustapen arrunteko txandako ariketak gainditu dituztenen zerrenda.

b) Desgaitasuna duten pertsonen barne-sustapeneko txandako ariketak gainditu dituztenen zerrenda.

c) Txanda irekiko ariketak gainditu dituztenen zerrenda.

d) Desgaitasuna duten pertsonen txandako ariketak gainditu dituztenen zerrenda.

Zerrenda horiek, euskara-azterketa egin ondoren, bereizita argitaratuko dira, plazek ezarrita duen hizkuntza-eskakizunaren arabera eta plaza bakoitzari ezarritako eskakizuna nahitaezkoa den edo ez kontuan hartuta.

9.- Azken proba gainditu duten izangaien zerrenda argitaratzen denean amaituko da oposizio-fasea.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

ZORTZIGARRENA.- Nola tratatuko diren iruzurrezko jokabidea eta lehia desleiala.

Epaimahaiak hautaketa-prozesutik kanpo utzi ahal izango du iruzurrez jokatzen duen edozein izangai, jokabide horrek edozein proba normal garatzea eragozten badu edo, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera, lehia desleiala sortzen badu. Epaimahaiburuak berehala emango dio jokabide horren berri Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari, eta gertatukoa jasoko du dagokion bilera-aktan. Halaber, hautaketa-prozesuko edozein proba egiten den bitartean, ezin izango da eduki edo erabili lehenago aipatutako printzipioak ekiditeko erabili ahal den gailu edo baliabide teknologikorik, eta kasu bakoitzean argitaratzen den jarraibide-orria izango da atal honetan ezarritakoa zehazteko eta garatzeko epaimahaiak erabiliko duen tresna.

Izangai batek agindu horiek betetzen ez baditu, probatik eta hautaketa-prozesutik kanporatua izango da, berehala, eta, beraz, ez da sartuko prozesu horretatik sortzen den lan-poltsan.

BEDERATZIGARRENA.- Lehiaketa-fasearen hasiera eta garapena.

Lehiaketa-fasea behin oposizio-fasea amaitutakoan hasiko da.

Oposizio-fasea gainditzen duten izangaiek hamar (10) egun balioduneko epea izango dute, azken proba gainditu duten izangaien zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eskabidean alegatutako merezimenduen egiaztagiriak aurkezteko. Ondorio horietarako, oposizio-fasea gainditu duten izangaien zerrendarekin batera, eskabidean alegatutako merezimenduak egiaztatzeko agiriak aurkezteko epea noiz amaituko den argitaratuko da. Lehiaketa-fasea baloratzeko orduan, epe horren barruan eta hurrengo paragrafoan zehaztutako moduan eta tokietan aurkeztutako dokumentazioa baino ez da kontuan hartuko.

Interesdunek jatorrizko dokumentazioa aurkeztu beharko dute, edo, bestela, horretarako eskumena duen organoak behar bezala erkatutako kopia. Dokumentazioa Bizkaiko Foru Aldundiaren saileko erregistro orokorretan aurkeztuko da, edo, bestela, 39/2015 Legearen 16. artikuluan aipatutako tokietan. Betekizun eta baldintza horiek beteta, oposizio-fasea gainditu ez duten baina errekurtsoa jarri duten pertsonek ere aurkeztu ahal izango dute dokumentazioa, kautelaz, errekurtso horri buruzko ebazpenak hasierako fase hori gainditzea ekar badezake.

Barne-sustapeneko txandetan (txanda arrunta zein desgaitasuna duten pertsonena) parte hartzen duten izangaiek eta bitarteko funtzionarioek «Hautaketa-prozesuetarako datuen ziurtagiria»n agertzen ez diren merezimenduak alegatu badituzte, lehiaketa-fase honetan egiaztatu beharko dituzte.

39/2015 Legearen 68. artikuluarekin bat, alegatutako merezimenduak egiaztatzeko agirietan akatsik egonez gero, iragarkia jarriko da www.bizkaia.eus (Lan Publikoaren Eskaintza) webgunean, interesdunari eskatzeko zuzen dezala akatsa hamar (10) egun balioduneko epean. Halaber, ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, merezimenduak ez direla baloratuko lehiaketa-fasean.

Era berean, oposizio-fase guztia gainditu ez dutenek ere aurkeztu beharko dituzte zenbatzekoak diren merezimenduen egiaztagiriak, horrela deialditik ateratzen den lan-

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

poltsaren lehentasun-hurrenkera zehazteko; hori, ohiko prozesuetan parte hartzen ari badira bakarrik.

HAMARGARRENA- Hautaproben kalifikazioa.

1.- Oposizio-fasea.

Oposizio-faseko ariketak deialdiaren oinarri espezifikoetan adierazi den eran kalifikatuko dira.

2.- Lehiaketa-fasea.

Deialdiaren merezimenduen baremoaren arabera emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketa-fasearen kalifikazioa.

3.- Azken kalifikazioa.

3.1. Hautaproben azken kalifikazioa lehiaketa- eta oposizio-faseetan eta —hala badagokio— praktikaldian edo trebakuntzako hautaketa-ikastaroan lortutako puntuazioen batura izango da.

3.2. Jarraibide gisa harturik Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 27.2 artikuluak ezartzen duena —Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak emandako idazkeran—, izangaiek gaitasun berak izanez gero, emakumeei emango zaie lehentasuna emakumeak % 40 baino gutxiago diren administrazioko kidego, eskala eta kategorietan. Salbuespena izango da beste izangaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duen arrazoiren bat izatea (sexu-diskriminaziorik eragiten ez duena), hala nola lana lortzeko zailtasunak dituen kolektibo bateko kidea izatea.

Horrez gainera, eta aurreko paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe, egonkortze-prozesuetarako, berdinketarik badago, hauek izango dute lehentasuna hurrenkera ezartzerakoan: lehenik, Bizkaiko Foru Aldundiaren zerbitzuan deitutako kategoria berean denborarik luzeena egin duenak (ondorio horietarako, Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Sailaren —gaur egun, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saila— Egitura Organikoari buruzko Araudia onesten duen otsailaren 19ko 14/2008 Foru Dekretuaren 4. artikulua betez hartutako 2008ko uztailaren 9ko Erabakian ezarritakoa aplikatuz kategoria hauetan emandako zerbitzuak zenbatuko dira: menpekoa, zerbitzari-garbitzailea eta jagole garbitzailea; horrez gain, aintzat harturik zer ezartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Lehen Programaren Bosgarren Jarduketa Zikloak, 2021eko abenduaren 21ean onartuak, kategoria hauetan emandako zerbitzuak ere zenbatuko dira: gidaria, behargina, zerbitzuetako langilea eta menpekoa); bigarrenik, Bizkaiko Foru Aldundiaren zerbitzuan denborarik luzeena egina duenak; hirugarrenik, beste administrazio publiko batzuen zerbitzuan denborarik luzeena egina duenak, eta, azkenik, zaharrenak.

Horrez bestalde, prozesu arruntetarako, berdinketarik badago, hauek izango dute lehentasuna hurrenkera ezartzerakoan: lehenik, oposizio-fasean punturik gehien lortu duenak; bigarrenik, Bizkaiko Foru Aldundiaren zerbitzuan denborarik luzeena egina duenak; hirugarrenik, Euskal Administrazio Publikoaren zerbitzuan denborarik

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

luzeena egina duenak; laugarrenik, beste administrazio publiko batzuen zerbitzuan denborarik luzeena egin duenak, eta, azkenik, zaharrenak.

HAMAIKAGARRENA.- Hautatutako pertsonen zerrenda eta pertsona horiek karrerako funtzionario izendatzeko proposamena.

1.- Hautaketa-prozesua amaitu ondoren, epaimahaiak argitara emango ditu hautatutakoen zerrendak, puntuazio-hurrenkeraren arabera egingo direnak. Horrez gainera, deialdi mota bakoitzerako, hau da, egonkortze prozesurako eta prozesu arrunterako, hautatutako pertsonak karrerako funtzionario izendatzeko proposamena egingo du epaimahaiak.

Aurrekoa gorabehera, pertsonaren batek bi prozesu-motetan plaza lortzen badu, egonkortze-prozesuan lortutako plazak izango du lehentasuna.

2.- Erabateko lehentasuna izango du derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten plazak betetzeak, eta, izangaiak hautatzeko orduan, hizkuntza-eskakizunik altuena egiaztatuta izatea lehenetsiko da. Hori kontuan hartuta, epaimahaiak hautatutakoen zerrendak egiteko, lehenik, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazen zerrendak erabiliko ditu, hizkuntza-eskakizun altuenetik txikinera; ondoren, berdin jardungo du derrigorrezkoa ez den hizkuntza-eskakizuna duten plazen zerrendekin. Derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna oinarri hauetan ezarritako eran egiaztatu ez duten izangaiek ezin izango dituzte inola ere bete derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten plazak.

3.- Era berean, EPOEren 61.8 artikuluan ezarritakoa betetzeko, epaimahaiak karrerako funtzionarioak izendatzeko proposamen osagarri bat egingo du, honako kasu hauetan erabil dadin: izangairen batek agiriak aurkezten ez dituenean edo faltsutzen dituenean, bere plazaz jabetzen ez denean edo plazaz jabetu eta berehalako eszedentzia eskatzen duenean, jabetzeari uko egiten dionean edo eskatutako baldintzak eta betekizunak egiaztatzen ez dituenean.

HAMABIGARRENA.- Agiriak aurkeztea.

1.- Eskatzen diren agiriak.

1.1. Proposatzen diren izangaiek deialdi honetan eskatzen diren gaitasun-baldintzak eta betekizunak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztuko dituzte; zehazki, honako hauek:

a) Bizkaiko Foru Aldundiko Lan Osasuneko Unitatearen ziurtagiria, non egiaztatzen den izangaiak baduela dagozkion eginkizunetarako lan-gaitasuna, oinarri hauen eta deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoen arabera. Horretarako, hautatutako pertsonek dagozkien probak eta azterketak egingo dituzte. Proba-azterketok egiteari uko eginez gero, prozesutik kanpo geratuko dira.

b) Izangaiak diziplinazko espediente baten bitartez ezein administrazio publikoren zerbitzutik bereiziak izan ez direlako adierazpena; bai eta Administrazio Publikoen Zerbitzupeko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean ezarritako bateraezintasuneko kasuetako batean ere ez daudenekoa ere, eta, hala denean, bateragarritasun-eskabidea.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

c) Deialdiaren oinarri espezifikoetan eskatzen diren tituluen fotokopiak (edo tituluok eskuratzeko ordaindutako eskubideenak) eta gainerako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko agirien fotokopiak, denak behar bezala konpultsatuta.

1.2. Izangairen batek ezin baditu aurkeztu aurreko paragrafoan zehaztutako agiriak, eta behar den moduan justifikatzen badu hori, zuzenbidean onargarria den edozein frogabide erabiliz egiaztatu ahal izango du deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituela.

2.- Agiriak aurkezteko lekua.

Aurreko agiriok Bizkaiko Foru Aldundiko Langileak Kudeatzeko Zerbitzuan aurkeztuko dira (Kale Nagusia 25, Bilbo, 48009).

3.- Agiriak aurkezteko epea.

Hogei (20) egun balioduneko epea egongo da agiriak aurkezteko, hautatutakoen zerrendak argitaratzen direnetik aurrera.

4.- Salbuespenak.

Funtzionario publikoek ez dituzte aurkeztu beharko aurreko izendapenean egiaztatu behar izan zituzten baldintza eta betekizunei buruzko agiriak. Atxikita dauden organismoaren ziurtagiri bat baino ez dute aurkeztu beharko, funtzionario-izaera eta espediente pertsonalean agertzen diren gainerako inguruabarrak egiaztatuko dituena.

5.- Agiriak ez aurkeztea.

Ezinbesteko kasuak alde batera utzita, aipatutako epearen barruan agiriak aurkezten ez dituztenak edo aurkeztu dituzten agirien arabera bigarren oinarrian adierazitako baldintzaren bat betetzen ez dutenak ezin izango dira izendatuak izan, eta baliogabetuta geratuko dira haien jarduketa guztiak, hargatik eragotzi gabe eskabidea faltsutzeagatik izan dezaketen erantzukizuna. Hala gertatzen bada, hamaikagarren oinarriaren 3. apartatuan aipatzen den izendapen-proposamen osagarrira joko da, baliogabetze horren ondorioz deialdiko plaza-kopuruan sar daitezkeen izangaien aldeko izendapen-proposamena egiteko, puntuazio-hurrenkeraren arabera.

HAMAHIRUGARRENA.- Karrerako funtzionarioen izendapena.

1.- Organo eskuduna.

Jarraibide gisa harturik Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 3/1987 Foru Arauaren 17.1 artikuluaren 33. apartatua, Foru Aldundiak karrerako funtzionario izendatuko ditu epaimahaiak proposatutako izangaiak.

2.- Izendapenak jakinaraztea eta argitaratzea.

Izendapenak interesdunei jakinaraziko zaizkie, eta iragarki-taulan, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean argitaratuko dira (www.bizkaia.eus).

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

HAMALAUGARRENA.- Plazaz jabetzea.

1.- Baldintzak.

EPOEren 62.1.c) artikuluan ezartzen den baldintza plazaz jabetzeko egintzan bertan beteko da.

2.- Epea.

Plazaz jabetzeko epea hilabete (1) izango da, izendapena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

3.- Epea luzatzea.

Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatuak plazaz jabetzeko epea luzatu ahal izango du, interesdunak hala eskatuta, baina inoiz ere ez adierazitako epearen erdia baino gehiago.

4.- Plazaz ez jabetzea.

Izangai batek plazari uko egiten diola joko da baldin eta, arrazoi justifikaturik gabe, ez badu hura jabetzan hartzen oinarri honen 2. zenbakian adierazitako epearen barruan edo, hala badagokio, emandako luzapenaren barruan. Halakoetan ere, hamaikagarren oinarriaren 3. apartatuan aipatzen den izendapen-proposamen osagarrira joko da, uko-egite horren ondorioz deialdiko plaza-kopuruan sar daitezkeen izangaien aldeko izendapen-proposamena egiteko, puntuazio-hurrenkeraren arabera.

5.- Plazaz jabetzea eta berehalako eszedentzia eskatzea.

Baldin eta karrerako funtzionario izendatutako pertsonek lanpostua gordetzeko eskubiderik gabe eszedentzia eskatzen badute plazaz jabetzean, haiek hutsik uzten dituzten plazak adjudikatu ahal izango dira. Ondore horretarako, epaimahai kalifikatzaileak karrerako funtzionarioak izendatzeko egindako proposamen osagarria erabiliko da.

HAMABOSGARRENA.- Destinoen aukeraketa.

1.- Hautatutako pertsonek hautaketa-prozesuaren behin betiko sailkapenean duten hurrenkeraren arabera aukeratuko dute destinoa.

2.- Horretarako, kasuan kasuko prozesua amaitutakoan, hautaketa-prozesua gainditu duten izangai guztiak zerrenda bakarrean argitaratuko dira, bakoitzak lortu duen puntuazio osoaren hurrenkeraren arabera antolatuta, zein txandatan parte hartu duten kontuan hartu gabe.

3.- Zerrenda hori egoki antolatzeko, hala badagokio, derrigorrezko euskara-ariketak gainditu dituztenei, emandako «gai» kalifikazioaren ordez, deialdiaren oinarri espezifikoen arabera hizkuntza-eskakizun bakoitza egiaztatuta izateagatik ezarrita dagoen puntuazioa emango zaie.

4.- Destinoak aukeratzeko orduan ez da kontuan hartuko izangaiak zer hizkuntza-eskakizunetako lanpostuetarako izan diren hautatuak, betiere derrigorrezko hizkuntza-

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

eskakizuna duten lanpostuak beterik geratzen badira. Izan ere, erabateko lehentasuna izango du derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak betetzeak.

5.- Hala eta guztiz ere, desgaitasuna duten pertsonen txandetan onartuak izan direnek destinoa aukeratzeko lehentasun-hurrenkera aldatzeko eskaria egin diezaiokete Bizkaiko Foru Aldundiari, mendekotasun pertsonala, mugitzeko zailtasunak edo antzeko beste arrazoi batzuk direla eta (egoera horiek behar bezala egiaztatu beharko dira). Lanpostuak adjudikatzeko eskumena duen organoak aldaketa hori egitea erabakiko du baldin eta behar bezala justifikatuta badago, eta aldaketak ahalik eta eragin txikiena sortu behar du lehentasun-hurrenkeran, desgaitasuna duen pertsonak lanpostua eskuratzeko bestekoa soilik.

HAMASEIGARRENA.- Lan-poltsa.

Egonkortze-prozesutik ez da lan-poltsarik sortuko.
Prozesu arruntetik lan-poltsa sortuko da, deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan eta lan-poltsak kudeatzeko indarrean dauden irizpideekin bat etorrita.

HAMAZAZPIGARRENA.-Kexak eta iradokizunak.

Izangaiek kexak eta iradokizunak aurkez ditzakete, edonoiz, www.bizkaia.eus (Lan Publikoaren Eskaintza) webguneko «Kexak eta iradokizunak» estekaren bidez; edo Bizkaiko Foru Aldundiko sailek Bilbon dituzten erregistro orokorretan zein 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarrita dauden tokietan.

ISO 9001:2015 ziurtagiria dela bide, aurkeztutako kexa eta iradokizunak Langileen Aukeraketarako eta Trebakuntzarako Zerbitzuan dagoen kexa eta iradokizunen erregistroan sartuko dira, eta dagokien tratamendua emango zaie.

AZKEN ARAUAK

1. Oinarri hauetan xedatuta ez dagoen guztirako, honako arau hauek aplikatuko dira: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legea, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea, Funtzio Publikoa Eraldatzeko Neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, lege horiek garatzeko arautegia eta ezarri beharreko gainerako xedapenak, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Epaimahaien Eskuliburua.

2. Deialdi honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar daiteke Ahaldun Nagusiaren aurrean hilabeteko (1) epean, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke, bi (2) hilabeteko epean, txandaren arabera dagokion Administrazioarekiko Auzien Bilboko Epaitegian, baina ezin dira errekurtsoa biak aldi berean jarri.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Bete baino lehen, arretaz irakurri atzeko aldea
Antes de cumplimentar, lea con atención la parte de atrás

## 1.- Deialdia / Convocatoria

| | |
|---|---|
| Eskala/Escala | Azpieskala, kategoria, mota/Subescala, categoría, clase |

Sarbideak / Sistemas de acceso concurso- oposición

☐ Estabilización
Txanda / Turno

| Askea | Barne sustapena | Desgaitasuna duten pertsonak | Desgaitasuna duten pertsonen barne sustapena |
|---|---|---|---|
| ☐ Libre | ☐ Promoción interna | ☐ Personas con discapacidad | ☐ Promoción interna de personas con discapacidad |

☐ Ordinarias
Txanda / Turno

| Askea | Barne sustapena | Desgaitasuna duten pertsonak | Desgaitasuna duten pertsonen barne sustapena |
|---|---|---|---|
| ☐ Libre | ☐ Promoción interna | ☐ Personas con discapacidad | ☐ Promoción interna de personas con discapacidad |

☐ Ambas

## 2.- Norberaren Datuak / Datos personales

| | | | |
|---|---|---|---|
| Lehen deitura / Primer apellido | Bigarren deitura / Segundo Apellido | Izena / Nombre | |
| NAN-ANZ / DNI-NIE | Jaioteguna /Fecha nacimiento | Sexua / Sexo<br>Emakumea / Mujer ☐<br>Gizona/ Hombre ☐<br>Otros ☐ | Zeure telefono mugikorrean/posta elektronikoan notak jaso nahi dituzu? / ¿Desea recibir en su teléfono móvil/correo electrónico las notas? Bai / Si ☐ Ez / No ☐ |
| Helbidea: kalea edo plaza, zk., solairua / Dirección: calle, plaza, nº, piso | PK / C P | Herria / Localidad | Lurraldea / Territorio |
| 1. Mugikorra/Móvil | 2 Beste telefonoak/Otros teléfonos | Posta elektronikoa / Correo electrónico | |

| | |
|---|---|
| **EGOKITZAPENA**<br><br>**ADAPTACIÓN**<br><br>Bai / Si ☐<br>Ez / No ☐ | Eskatzen den **egokitzapena / Adaptación** que se solicita:<br><br>Arrazoia / motivo: ☐ Desgaitasuna / Discapacidad ☐ Beste bat / Otro: ..................................................<br><br>☐ *Bizkaian onartu zuten desgaitasunagatik eskatzen dut egokitzapena eta baimena ematen diot Bizkaiko Foru Aldundiari nire desgaitasuna egiaztatzeko (EZ da ziurtagiririk aurkeztu behar) / Solicito la adaptación como consecuencia de una discapacidad que se reconoció en Bizkaia y autorizo a la Diputación Foral de Bizkaia a comprobar mi condición (NO es necesario justificante) .*<br>☐ *Ziurtagiria aurkezten dut egokitzapena Bizkaia ez den beste toki batetan onartu zen desgaitasunagatik edo beste arrazoi bategatik eskatzen dudalako / Aporto justificante porque solicito la adaptación, o bien, como consecuencia de una discapacidad que se reconoció fuera de Bizkaia, o bien, por otro motivo diferente a la discapacidad.* |

## 3.- Aurkezten dudan dokumentazioa / Documentación que presento

| | |
|---|---|
| *Oinarri berezietan eskatzen den titulazioa*<br>Titulación exigida en las bases específicas | ☐ ........................................ |
| *Oinarri berezietan eskatzen diren beste dokumentu batzuk (gidatzeko baimena edo bestelakoak)* /Otros documentos exigidos en las bases específicas (permiso de conducir y otros) | ☐ ........................................ |
| *%33ko edo gehigogoko desgaitasuna duten pertsonen txandan parte hartzeko dokumentazioa*<br>*Documentación para participar en el turno de personas con grado de discapacidad igual o superior a 33%* | ☐ *Bizkaian onartu zuten desgaitasuna eta baimena ematen diot Bizkaiko Foru Aldundiari nire desgaitasuna egiaztatzeko (EZ da ziurtagiririk aurkeztu behar)* / La discapacidad se reconoció en Bizkaia y autorizo a la Diputación Foral de Bizkaia a comprobar mi condición (NO es necesario justificante).<br>☐ *Beste toki batetan onartu zuten desgaitasuna eta ziurtagiria aurkezten dut* / La discapacidad se reconoció en otro lugar y aporto justificante. |
| *Merituak adieraztea,*<br>*Alegación de méritos ANEXO II* | ☐ Merituen aulegazioa II Eranskina/Alegación de méritos ANEXO II |
| *Erantzukizunpeko adierazpena*<br>*Declaración responsable ANEXO III* | ☐ *Erantzukizunpeko adierazpen orria III Eranskina*/Declaración responsable ANEXO III |
| *Certificado de datos para procesos selectivos ((únicamente para el funcionariado interino foral) Modelo 050* | ☐ *Datuen ziurtagiria hautaketa prozesuetarako*/Certificado de datos para procesos selectivos (modelo 050) |
| *Tengo acreditados los siguientes perfiles lingüísticos*<br>☐ Sin perfil acreditado<br>☐ Perfil lingüístico 1<br>☐ *Perfil lingüístico 2*<br>☐ Perfil lingüístico 3<br>☐ Perfil lingüístico 4<br>Deseo realizar los exámenes de euskera de los siguientes perfiles lingüísticos<br>☐ Perfil lingüístico 1<br>☐ Perfil lingüístico 2 | *Hizkuntz-eskakizun hauek ditut egiaztatuta:*<br>☐ *Egiaztatuko hizkuntza-eskakizunik gabe*<br>☐ *Hizkuntz-eskakizuna 1*<br>☐ *Hizkuntz-eskakizuna 2*<br>☐ *Hizkuntz-eskakizuna 3*<br>☐ *Hizkuntz-eskakizuna 4*<br>*Hizkuntza-eskakizun hauetako euskara-azterketak egin nahi ditut*<br>☐ *Hizkuntz-eskakizuna 1*<br>☐ *Hizkuntz-eskakizuna 2* |

Administrazioarentzako alea / Ejemplar para la Administración

Bete baino lehen, arretaz irakurri atzeko aldea
Antes de cumplimentar, lea con atención la parte de atrás

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

| | |
|---|---|
| ☐ Perfil lingüístico 3<br>☐ Perfil lingüístico 4 | ☐ *Hizkuntz-eskakizuna 3*<br>☐ *Hizkuntz-eskakizuna 4* |

** Eskabidedearekin batera EZ da Hizkuntza Eskakizunari buruzko egiaztagirik aurkeztu behar, baina bai Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatzeko baimena ematea BFAri eta HAEEri / Junto a la instancia NO se debe acreditar el Perfil Lingüístico, pero sí autorizar su comprobación en el Registro Unificado de Títulos y Certificaciones de Euskera a la DFB y al IVAP.*

☐ Egiaztatzeko baimena ematen dut / Autorizo la comprobación

| | |
|---|---|
| Deseo conservar la nota del examen teórico inmediatamente anterior de conformidad con lo señalado en las Bases específicas. | ☐ ........................................................................................................................................ |

## 4. 1/2020 Foru Arauak ezarritako tasaren ordainketa / Abono de la tasa establecida por la Norma Foral 1/2020

☐ *Tasaren ordainketa egin dut* / He realizado el pago de la tasa

☐ *Salbuetsita nago tasa ordaintzera /Estoy exento/a del pago de la pasa*

A KONTSULTA DAITEZKEEN SALBUESPEN ARRAZOIAK/MOTIVOS DE EXENCION QUE SE PUEDEN CONSULTAR

*Langileen Aukeraketarako eta Trebakuntzarako Zerbitzuan, eskura dauden datuen bitartekaritza-sistemen bidez, Administrazioaren esku dauden interesatuen datuei buzuko beharreko egiaztapenak egingo ditu, egiaztatzeko betetzen duzula honako baldintza hauetakoen bat eta salbuespena berresteko, salbu, eta zuk berariaz kontrakoa adierazten baduzu (kasu horretan dokumentazioa aurkeztu beharko duzu) El Servicio de Seleccciónb y Formación Profesional, mediante los sistemas de intermediación de datos disponibles, va a realizar las consultas necesarias de los datos de las personas interesadas que obren en poder de la Administración, para comprobar que cumple con alguno de los siguientes requisitos y confirmar la exención, salvo que usted se oponga expresamente (en cuyo caso deberá aportar la documentación)*

☐ *%33ko desgaitasuna edo handiago/ Discapacidad de grado igual o superior al 33%*

☐ *Familia ugariko kidea nazi/Soy miembro de familia numerosa*

☐ *Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen dut/Percib la Renta de Garantía de Ingresos*

☐ *Bizitzeko Gutxieneko Errenta jasotzen dut/Percibo el Ingreso Mínimo Vital*

☐ *Nire datuak kontsultatzearen aurka nago, honako arrazoi honengatik, eta dokumentazioa aurkezten dut/me opongo a la consulta de mis datos, alegando los siguientes motivos y aporto la documentación*

--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

B BESTE SALBUESPEN ARRAZOI BATZUK EZIN KONTSULTA DAITEKEENAK/OTROS MOTIVOS DE EXENCION QUE NO SE PUEDEN CONSULTAR

| | |
|---|---|
| ☐ *Genero indarkeriaren biktima naiz eta salbuetsita nago/Soy víctima de violencia de género* | ☐ Salbuespena egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu behar du/ Es necesario presentar la documentación que acredita la exención. |
| ☐ *Guraso bakarreko familia bateko kodea nazi eta salbuetsita nago/Soy integrante de una familia monoparental/monomarental* | ☐ Salbuespena egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu behar du/ Es necesario presentar la documentación que acredita la exención. |

*Behean izenpetzen duenak eskabide honetan aipaturiko hautaketa saioetan eskuhartzea eskatzen du eta aitortzen du benetakoak direla berton adierazitako datuak eta badituela funtzio publikoan sartzeko eskatzen diren baldintzak, bereziki gorago ezarritako deialdiari dagozkionak, bide batez eskabide honetan agertzen diren datu guztiak agiri bidez egiaztatzeko hitza emanez.*

La persona abajo firmante solicita ser admitida a las pruebas selectivas a que se refiere la presente instancia y declara bajo su responsabilidad que son ciertos los datos consignados en ella y que reúne las condiciones exigidas para el ingreso en la Función Pública y las especialmente señaladas en la convocatoria anteriormente citada, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en esta solicitud.

(tokia / lugar) (urtea / año) (hilabetea / mes) (eguna / día)

Sinadura / Firma

Ahaldun Nagusi jaun txit gorena / Excmo.Sr.Diputado General

Administrazioarentzako alea / Ejemplar para la Administración

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Bete baino lehen, arretaz irakurri atzeko aldea
Antes de cumplimentar, lea con atención la parte de atrás

*Datu pertsonalen tratamenduari buruzko oinarrizko informazioa: 2016/679 Erregelamendua (EB) eta 3/2018 DPEDBLO.*
ARDURADUNA: *Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusia (BFA). Kale Nagusia, 25 (Bilbo)*
XEDEA: *Hautaketa-prozesuaren eta haren lan-poltsaren kudeaketa, eta langile arlokoa.*
ESKUBIDEAK: *Interesdunak tratamenduaren arduradunaren aurrean balia ditzake bere datuetan sartu, datuok zuzendu, aurkaratu, ezabatu edo haien tratamendua mugatzeko eskubidea, eta erabaki indibidual automatizatuen helburu ez izan; horretarako, idazki bat aurkeztu behar du, Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atalari zuzendua, toki hauetako batean: Egoitza elektronikoan, Bizkaiko Foru Aldundiko Erregistro Nagusian, sailetako erregistro orokorretan, Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan edo 39/2015 Legean ezarritako lekuetan. Era berean, erreklamazioa aurkeztu ahal izango du Datuak Babesteko Euskal Bulegoan.*
*Argibide gehiago:*
*http://www.bizkaia.eus/herri_administrazioa/ope/oferta_publica.asp?Idioma=EU&Tem_Codigo=152&Dep=7*

Información básica tratamiento de datos personales: Reglamento (UE) 2016/679 y LO 3/2018 PDPGDD.
RESPONSABLE: Dirección General Función Pública (DFB). Gran Vía 25-Bilbao
FINALIDAD: Gestión del proceso selectivo, su Bolsa de Trabajo y materia de personal.
DERECHOS: Ejercer ante el responsable los derechos de acceso, rectificación, oposición, supresión, limitación del tratamiento y no ser objeto de decisiones individuales automatizadas, mediante escrito dirigido a la Sección de Asesoramiento Jurídico, Seguridad de la Información y Protección de Datos en: Sede Electrónica, Registro Central de la Diputación Foral de Bizkaia y Registros Generales Departamentales, Oficinas Comarcales de Atención Ciudadana y lugares previstos en la Ley 39/2015. También tiene derecho a reclamar ante la Agencia Vasca de Protección de Datos.
Para más información:
http://www.bizkaia.eus/herri_administrazioa/ope/oferta_publica.asp?Idioma=CA&Tem_Codigo=152&Dep=7

## Jarraibide orokorrak

a) Ale guztietan datuak argi irakur daitezkeela ziurtatu.

b) Ez ezazu orririk tolestu eta zuzenketa, hobekuntza edo ezabaketarik egin.

c) Interesduna hautaketa-prozesuan onartua izateak prozesuan eskainitako plaza guztietan parte hartzea eragingo du, plaza bakoitzari ezarritako hizkuntz eskakizuna eta eskakizuna nahitaezkoa den edo ez alde batera utzita, oinarri arautzaileetan ezarritakoaren arabera.

d) Inprimakia izenpetu egin behar duzu.

## Interesatuarentzako jarraibideak

a) Deialdiaren oinarrien arabera, eskaerarekin batera, dagokion titulu akademikoa edo hura lotzeko modua baduzula egiaztatzeko dokumentazioa eta oinarrietan eskatutako gainerako agiriak aurkeztu beharko dituzu.

b) Aurkeztu beharko dira oinarri berezietan eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzen dituzten dokumentuak (gidabaimena...).

c) Desgaitasuna duten pertsonen txandan parte hartuko duten hautagaiek ez dute inolako ziurtagiririk aurkeztu behar, baldin eta Bizkaiko Foru Aldundiak desgaitasuna aitortua badie. Zer txandatan parte hartzen duten besterik ez dute adierazi behar, eta, horretarako, baimena eman behar diote beren-beregi Bizkaiko Foru Aldundiari egoera hori Desgaitasuna Ebaluatzeko Atalean egiazta dezan. BFAk ez badio desgaitasuna aitortu, interesdunak duen desgaitasuna egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko du.

d) Lehiaketa-oposizioetan, merezimenduak horretarako beren-beregi prestatutako ereduan aurkeztu behar dira.

Barne-igoerako txandetan (txanda arrunta izan zein desgaitasuna duten pertsonena) parte hartzen duten hautagaiek edo bitarteko funtzionarioek, Langileak Kudeatzeko Zerbitzuak emandako *"Hautapen-prozesurako datuen ziurtagiria"* baino ez dute aurkeztu beharko. Hautagai bakoitzak bere erregistro pertsonalean eskura dezake ziurtagiri hori.

Hala ere, ziurtagiri horretan agertzen ez diren betekizunak eskaera-orrian agerrarazi beharko dira, hala egiten ez bada ezinezkoa izango baita hautaketa-prozesuan parte hartzea betekizun hori falta bada.

Merezimenduen kasuan, eskaera-orrian aipatu beharko dira ziurtagirian agertzen ez diren merezimenduak, bestela ezin izango baitira baloratu.

## Instrucciones generales

a) Asegúrese de que los datos resultan claramente legibles en todos los ejemplares.

b) Evite doblar el papel y realizar correcciones, enmiendas o tachaduras.

c) La admisión en el proceso selectivo de la persona interesada implica su participación en él para todas las plazas ofertadas, con independencia del perfil lingüístico asignado a las mismas y de su carácter preceptivo o no preceptivo, de conformidad con las bases rectoras.

d) No olvide firmar el impreso.

## Instrucciones para la persona interesada

a) Según las bases de la convocatoria deberá aportar junto con la instancia, el título académico correspondiente o documentación acreditativa de estar en condiciones de obtenerlo, así como aquellos otros que se exigieran en las mismas

b) Se deberán aportar aquellos documentos que acrediten los requisitos exigidos por las bases específicas (permiso de conducción, etc.).

c) Los y las aspirantes que participen por el turno de personas con discapacidad que hayan sido declaradas por la Diputación Foral de Bizkaia no deberán aportar nada, simplemente indicar el turno por el que participa, para lo cual la persona participante autoriza expresamente a la Diputación Foral de Bizkaia a su comprobación en la Sección de Valoración de la Discapacidad. Las personas a quienes no se les haya reconocido esta condición la DFB, deberán aportar la documentación acreditativa.

d) En el supuesto de concurso-oposición los méritos se alegan en el modelo específico ("Hoja de Méritos").

Las personas que participen por alguno de los turnos de promoción interna (ordinario y de personas con discapacidad), o sean funcionarias interinas, únicamente deberán aportar el *"Certificado de datos para procesos selectivos"* expedido por el Servicio de Gestión de Personal, y que cada aspirante podrá obtenerlo en su Registro Personal.

No obstante, cualquier requisito no incluido en dicho certificado deberá constar en la instancia, ya que de lo contrario no se podrá participar en el proceso selectivo en el caso de falta del mismo.

En el supuesto de méritos, de igual modo deberán alegarse en la instancia aquellos que no aparezcan en dicho Certificado, ya que, en caso contrario, no podrán ser valorados.

Administrazioarentzako alea / Ejemplar para la Administración

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Bete baino lehen, arretaz irakurri atzeko aldea
Antes de cumplimentar, lea con atención la parte de atrás

Bizkaia foru aldundia diputación foral

## Merezimenduak / Méritos

2. Norberaren datuak / Datos personales

| NAN / DNI | Lehen deitura / Primer apellido | Bigarren deitura / Segundo apellido | Izena / Nombre |
|---|---|---|---|
| Eskala / Escala | Espezialitatea / Especialidad | | |

Aurkeztutako merezimenduaren zerrenda / Relación de méritos alegados

| |
|---|
| 1) |
| 2) |
| 3) |
| 4) |
| 5) |
| 6) |
| 7) |
| 8) |
| 9) |
| 10) |
| 11) |
| 12) |
| 13) |
| 14) |
| 15) |
| 16) |
| 17) |
| 18) |
| 19) |
| 20) |

tokia / lugar urtea / año hilabetea / mes eguna / día

n, 20 (e)ko k

Sinadura / Firma

Administrazioarentzako alea / Ejemplar para la Administración

Bete baino lehen, arretaz irakurri atzeko aldea
Antes de cumplimentar, lea con atención la parte de atrás

Bizkaia foru aldundia diputación foral

## Merezimenduak / Méritos

2. Norberaren datuak / Datos personales

| NAN / DNI | Lehen deitura / Primer apellido | Bigarren deitura / Segundo apellido | Izena / Nombre |
|---|---|---|---|
| | | | |

| Eskala / Escala | Espezialitatea / Especialidad |
|---|---|
| | |

Aurkeztutako merezimenduaren zerrenda / Relación de méritos alegados

| |
|---|
| 1) |
| 2) |
| 3) |
| 4) |
| 5) |
| 6) |
| 7) |
| 8) |
| 9) |
| 10) |
| 11) |
| 12) |
| 13) |
| 14) |
| 15) |
| 16) |
| 17) |
| 18) |
| 19) |
| 20) |

tokia / lugar urtea / año hilabetea / mes eguna / día
n, 20 (e)ko k

Sinadura / Firma

Interesadunarentzako alea / Ejemplar para la persona interesada

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

## Onarpen eskabidea / Solicitud de admisión

*Garrantzitsua: zehaztasunak idatzi baino lehen irakur itzazu atzeko orrialdeko azalpenak.*
Importante: Antes de consignar los datos consulte las instrucciones al dorso.

Alegatutako merezimenduak

Lehiaketa-oposizioaren kasuan, merezimenduak horretarako beren-beregi prestatutako ereduan aurkeztu behar dira (merezimenduen orria).
Merezimenduei dagokienez, deialdiaren oinarri berezietan adierazitako merezimenduak alegatu beharko dira (emandako zerbitzuak, prestakuntza-ikastaroak, hizkuntzak ...).

Merezimenduak egiaztatzea

Oposizio aldia gainditzen dutenek 10 egun balioduneko epea izango dute, azken ariketa gainditu duten hautagaien zerrenda argitaratu eta biharamunetik zenbatuta, eskaera- orrian aipatu zituzten merezimenduen egiaztagiriak aurkezteko. Horretarako, oposizio aldia gainditu duten hautagaien zerrendarekin batera eskaera-orrian aipatutako merezimenduen egiaztagiriak aurkezteko epea zein egunetan amaitzen den argitaratuko da. Lehiaketa aldia baloratzeko orduan, epe horren barruan eta hurrengo lerroaldean zehaztuko den moduan eta tokietan aurkeztutako agiriak baino ez dira kontuan hartuko.

"Merezimenduen orrian", jarritako egindako zerbitzuak Aurretiaz zerbitzuen ziurtagiria – I. eranskina" eredua erabilita aurkeztuko dira, dagokion Administrazio publikoak ziurtaturik.

Barne-igoerako txandetan (txanda arrunta izan zein desgaitasuna duten pertsonena) parte hartzen duten hautagaiek edo bitarteko funtzionarioek, Langileak Kudeatzeko Zerbitzuak emandako «Hautaketa-prozesuetarako informazioa ematen duen ziurtagiria» baino ez dute aurkeztu beharko. Hautagai bakoitzak bere erregistro pertsonalean eskura dezake ziurtagiri hori.

Hala ere, ziurtagiri horretan agertzen ez diren betekizunak eskaera-orrian agerrarazi beharko dira, hala egiten ez bada ezinezkoa izango baita hautaketa-prozesuan parte hartzea betekizun hori falta bada.

Merezimenduen kasuan, eskaera-orrian aipatu beharko dira ziurtagirian agertzen ez diren merezimenduak, bestela ezin izango baitira baloratu bederatzigarren oinarrian xedatutakoaren arabera.

Alegación de méritos

En el supuesto de concurso-oposición los méritos se alegan en el modelo específico ("Hoja de méritos").
En la relación de méritos alegados deberán relacionarse los méritos que se indican en las bases específicas de la convocatoria (servicios prestados, cursos de formación, conocimiento de idiomas…).

Acreditación de méritos

Los y las aspirantes que hayan superado la fase de oposición dispondrán de un plazo de 10 días hábiles contados a partir del día siguiente al de publicación de las relaciones de aspirantes que hayan superado la última prueba para presentar la documentación acreditativa de los méritos alegados en la instancia. A estos efectos, junto con la relación de aspirantes que haya superado la fase de oposición se publicará la fecha de finalización del plazo de presentación de la documentación acreditativa de los méritos alegados en la instancia. Solo será tenida en cuenta, a la hora de valorar la fase de concurso, la documenta-ción presentada en el citado plazo y del modo y en los lugares que, al efecto, se determinan en el párrafo siguiente.

Los servicios prestados alegados en la "Hoja de Méritos" deberán acreditarse mediante la Certificación de Servicios Previos-Anexo I, expedido por la Administración Pública correspondiente.

Las personas que participen por alguno de los turnos de promoción interna (ordinario y de personas con discapacidad), o sean funcionarios interinos, únicamente deberán aportar el "Certificado de datos para procesos selectivos" expedido por el Servicio de Gestión de Personal, y que cada aspirante podrá obtenerlo en su Registro Personal.

No obstante, cualquier requisito no incluido en dicho certificado deberá constar en la instancia, ya que de lo contrario no se podrá participar en el proceso selectivo en el caso de falta del mismo.

En el supuesto de méritos, de igual modo deberán alegarse en la instancia aquellos que no aparezcan en dicho Certificado, ya que en caso contrario, no podrán ser valorados.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

III. ERANSKINA

Erantzukizunpeko adierazpena

Norberaren datuak / Datos personales

| NAN / DNI | 1. deitura / 1er apellido | 2. deitura / 2° apellido | Izena / Nombre |
|---|---|---|---|
| | | | |
| Eskala / Escala | Espezialitatea / Especialidad | | |
| | | | |

Hau adierazten dut:

1. Egiazkoak direla eskabidean adierazitako datuak.

2. Hautaketa-prozesuaren oinarrietan eskatutako betekizunak eta baldintzak betetzen ditudala.

3. Alegatu ditudan merezimenduak erantsitako dokumentazioaren bidez egiaztatuta egongo direla.

(tokia / lugar) (urtea / año) (hilabetea / mes) (eguna / día)

Sinadura/Firma

| | |
|---|---|
| Datu pertsonalen tratamenduari buruzko oinarrizko informazioa: 2016/679 Erregelamendua (EB) eta 3/2018 DPEDBLO.<br><br>ARDURADUNA: Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusia (BFA). Kale Nagusia, 25 (Bilbo)<br><br>XEDEA: Hautaketa-prozesuaren eta haren lan-poltsaren kudeaketa, eta langile arlokoa.<br><br>ESKUBIDEAK: Interesdunak tratamenduaren arduradunaren aurrean balia ditzake bere datuetan sartu, datuok zuzendu, aurkaratu, ezabatu edo haien tratamendua mugatzeko eskubidea, eta erabaki indibidual automatizatuen helburu ez izan; horretarako, idazki bat aurkeztu behar du, Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atalari zuzendua, toki hauetako batean: Egoitza elektronikoan, Bizkaiko Foru Aldundiko Erregistro Nagusian, sailetako erregistro orokorretan, Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan edo 39/2015 Legean ezarritako lekuetan. Era berean, erreklamazioa aurkeztu ahal izango du Datuak Babesteko Euskal Bulegoan.<br><br>Argibide gehiago:<br><br>http://www.bizkaia.eus/herri_administrazioa/ope/oferta_publica.asp?Idioma=EU&Tem_Codigo=152&Dep=7 | Información básica tratamiento de datos personales: Reglamento (UE) 2016/679 y LO 3/2018 PDPGDD.<br><br>RESPONSABLE: Dirección General Función Pública (DFB). Gran Vía 25-Bilbao<br><br>FINALIDAD: Gestión del proceso selectivo, su Bolsa de Trabajo y materia de personal.<br><br>DERECHOS: Ejercer ante el responsable los derechos de acceso, rectificación, oposición, supresión, limitación del tratamiento y no ser objeto de decisiones individuales automatizadas, mediante escrito dirigido a la Sección de Asesoramiento Jurídico, Seguridad de la Información y Protección de Datos en: Sede Electrónica, Registro Central de la Diputación Foral de Bizkaia y Registros Generales Departamentales, Oficinas Comarcales de Atención Ciudadana y lugares previstos en la Ley 39/2015. También tiene derecho a reclamar ante la Agencia Vasca de Protección de Datos.<br><br>Para más información:<br><br>http://www.bizkaia.eus/herri_administrazioa/ope/oferta_publica.asp?Idioma=CA&Tem_Codigo=152&Dep=7 |

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

HAUTAKETA-PROZESURAKO DEIALDIA, KARRERAKO FUNTZIONARIO SARTZEKO ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAN, AZPIESKALA TEKNIKOAN. MOTA: GOI-MAILAKO TEKNIKARIAK, ESPEZIALITATEA: EKONOMIALARIA. EGONKORTZE-PLAZAK ETA ARRUNTAK.

LEHENENGOA: EGONKORTZE-PLAZAK

1.Deialdian eskainitako plazak

Deialdia egiten da EKONOMIALARI plaza bat (1) txanda irekitik betetzeko (A taldea, A1 titulazio-azpitaldea) derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna duena, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan ezarritakoaren babesean.

2. Titulazioa

Ekonomiako edo Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako lizentziatura, Ekonomiako Gradua, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua, edo baliokidea.

3. Baldintza espezifikoak

Urriaren 30eko 5/2015 ELDaren 56.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, baldintza espezifikoa izango da IT txartel hauek edukitzea: Word oinarrizkoa eta Excel oinarrizkoa (baliodunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010). Word aurreratuaren eta Excel aurreratuaren IT txartelek Word oinarrizkoarena eta Excel oinarrizkoarena baliozkotuko dituzte, hurrenez hurren.

Ziurtagiria eskuratzeko proba egin ahal izateko, egiaztatutako zentro batean eman beharko da izena. Zentroen zerrenda osoa helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke: www.it-txartela.net.

Izen-ematea www.it-txartela.net helbidean egin daiteke. Informazioa eskura daiteke aipatutako helbide elektronikoan eta bide hauetakoren bat erabilita:

a) Aurrez aurre, egiaztatutako edozein zentrotara joanda.

b) Telefonoz, 902 25 25 95 zenbakira deituta.

Baldintza espezifiko hau betetzeko, aipatutako txartelak ez dituztenei bi (2) hilabeteko epea ematen zaie, deialdi hau BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Izangaiek ez dute agiririk aurkeztu beharko, Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten.

Txartelok epe horretan eskuratzen ez dituen izangaia hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko da.

4. Hautaketa-prozedura

4.1. OPOSIZIO-FASEA

Oposizio aldiak hiru (3) ariketa ditu, hirurak nahitaezkoak eta baztertzaileak.

4.1.a) Lehenengo ariketa:

Ariketa teorikoa izango da, eta, ehun (100) minutuan, berrogeita hamar (50) galderako test bat egin beharko da, gehi erreserbako bost (5) galdera. Galderak II. eranskineko gaitegian jasotzen diren gaiei buruzkoak izango dira, eta aukerako zenbait erantzun izango dituzte, baina bat baino ez da zuzena izango. Erantzun zuzenak puntu bat (1) balioko du, eta ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik, zuriz utzitakoengatik edo erantzun bi markatzeagatik.

4.1.b) Bigarren ariketa:

Ariketa praktikoa izango da, hau da, zenbait kasu praktiko ebatzi beharko dira, idatziz. Kasuok plazari dagozkion eginkizunen araberakoak izango dira, haiei lotuak, eta II. Eranskineko gaiei buruzkoak. Ordu bi (2) izango dira ariketa egiteko.

4.1.b) Hirugarren ariketa:

Euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailea izango da; betiere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da III. hizkuntza-eskakizunari dagokion mailan.

Bizkaiko Foru Aldundian III. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Halakoetan, parte-hartzaileak baimen espresua emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala ere, aurkeztu egin beharko dituzte azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta egon badauden baina erregistro horretan sartuta ez dauden gainerako euskara-titulu edo -ziurtagiriak; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Izangaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean egiaztatu nahi badute III. hizkuntza-eskakizuna, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko da.

4.2 LEHIAKETA

Lehiaketan, izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) dagozkion puntuak emango zaizkio.

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1. Merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketaren kalifikazioa.

5.2. Oposizio-fasea:

a) Lehen ariketari zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa emango zaio.

b) Bigarren ariketari zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa emango zaio.

2021eko abenduaren 28ko 20/21 Legearen 2.4 artikulua aplikatuz, bi ariketa horiek gaindituko dituzte lehenengo ariketaren eta bigarrenaren kalifikazioak batuta hamar (10) lortzen dutenek, baldin eta ariketa bakoitzean gutxienez bi eta erdi (2,5) atera badute.

c) Hirugarren ariketan, euskarari buruzkoan, Gai edo Ez gai izango da kalifikazioa.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

6. Lan-poltsa

Egonkortzeko hautaketa-prozesutik ez da lan-poltsarik sortuko.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

I. ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOA EGONKORTZEA

ESPEZIALITATEA: EKONOMIALARIA

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan eta azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat:

1.-Esperientzia; gehienez ere 9,1 puntu, honela banatuta:

1.a) Edozein administrazio publikotan EKONOMIALARIA kategorian (A taldea, A1 titulazio-azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,0304 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere ehun (100) hilabete. 3,04 puntu

1.b) Aurreko atalean adierazitako esperientziatik bereizirik, modu espezifiko eta osagarrian, Bizkaiko Foru Aldundian EKONOMIALARIA kategorian (A taldea, A1 titulazio-azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,0608 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere ehun (100) hilabete. 6,08 puntu

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira administrazio publikotzat: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikuluetan jasotako erakundeak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 2.1 eta 2.3 artikuluetan jasoak. Orobat zenbatuko dira zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan egindako zerbitzuak, baina inola ere ez izaera publikoko beste erakunde batzuetan egindakoak, baldin eta enpresa, merkataritza-sozietate, fundazio edo elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa badute.

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbitzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatikirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

Nolanahi ere, zerbitzua lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legearen 20.1.c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientzia baloratzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ere: lehenik, zenbat denbora

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

egon den izangaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen izangaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

2.-Administrazio publikoetan, administrazio publikoko eskoletan (IVAP, HAIN, HAEI edo beste administrazio-eskola batzuetan), nortasun juridiko publikoa duten zentroetan eta unibertsitate publiko zein pribatuetan gaitegiarekin harreman zuzena duten prestakuntza-ikastaroetan eta/edo graduondo zein masterreko titulazio akademikoetan emandako nahiz jasotako ordu-kopuruagatik, 0,0225 puntu hartutako ordu bakoitzeko eta 0,03 puntu emandako ordu bakoitzeko; gehienez: 3,4 puntu.

3) Ingelesa, frantsesa edo alemana jakiteagatik, baina hizkuntza bereko mailak metatzeko aukerarik gabe, eta gehienez ere 0,5 puntu, honela banaturik:

3 a) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-1 maila (ingelesa: Trinity College-n ingeleseko Grade 9 agiria; alemana: Goethe Institutuaren ZAP– Zertifikat Deutsch als Fremdsprache agiria, edo frantsesa: DELF 1er degré maila) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 3. maila edo oinarrizko zikloa edo B1.2.: ...................................................... 0,15 puntu.

3 b) Europako erreferentzia-markoko B-2 maila: Cambridgeko First Certificate of English agiria; edo alemana: ZMP –Zentrale Mittelstufenprüfung Goethe Institutuaren agiria, edo frantsesa: DELF 2éme degré. DL - Diplôme de Langue - Alliance Française) eta Hizkuntza Eskolaren 4. maila edo B2 maila aurreratua: .................. 0,30 puntu

3 c) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-2 maila (ingelesa: Cambridge Unibertsitateko Certificate in Advanced English edo Certificate of Proficiency in English agiriak edo Trinity Collegeko Passed Grade Twelve edo Oxford Unibertsitateko Higher Level maila; alemana: ZOP – Zentrale Oberstufenprufung edo KDS – Kleines Deutsches Sprachdiplom edo GDS – Grosses Deutsches Sprachdiplom agiriak), edo frantsesa: – DALF edo DSLCF – Diplôme Supérieur Langue et Culture Française – Alliance Française) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 5. maila nahiz EBko edozein hizkuntzaren filologian lizentziatura (goi mailako unibertsitate-titulua): 0,5 puntu

GUZTIRA ........................................................................................................13 PUNTU

II. ERANSKINA

EGONKORTZE-PLAZETARAKO GAIAK

KATEGORIA: EKONOMIALARIA

I. ZATIA

1. gaia.- 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duena, eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2015. urterako aurrekontu orokorrei buruzko abenduaren 19 ko 11/2014 Foru Arauak aldatua (I). Atariko titulua: Xedapen orokorrak. Xedea eta aplikazio-eremua (I. KAP.). Eskumenak (II. KAP.).

2. gaia.- 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duena (II). Bizkaiko Foru Ogasunaren araubidea (I. TITULUA).

3. gaia.- 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, 2013ko abenduaren 3koa, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duena, eta 169/2014 Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten duena (III). (III. TITULUA): Printzipio orokorrak eta aurrekontu-programazioa (I. KAP.), edukia eta onarpena (II. KAP.). Aurrekontu luzapenaren araubidea (V. KAP.). Batzar Nagusientzako informazioa ematea (VI. KAP.).

4. gaia.- 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, 2013ko abenduaren 3koa, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duena; 169/2014 Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten duena (IV). II. TITULUA: Aurrekontu-kredituak eta haien aldaketak (III. KAP.). Foru enpresa-erakunde publikoen, merkataritzako foru sozietateen eta foru fundazioen kredituak (IV. KAP.).

5. gaia.- 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, 2013ko abenduaren 3koa, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duena; 169/2014 Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten duena (V). Aurrekontuen kudeaketa, betearazpena eta likidazioa (III. KAP. IV. ATALA).

6. gaia.- 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, 2013ko abenduaren 3koa, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duena, eta 169/2014 Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten duena (VI). Foru sektore publikoaren finantza-araubidea (IV. TITULUA). Kontrola (V. TITULUA). Erantzukizuna (VI. TITULUA).

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

7. gaia.- Bizkaiko Foru Aldundiaren 219/2011 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Kontabilitate Publikoaren Foru Plan Orokorra onartzen duena (I). Kontabilitate publikoaren kontzeptu-esparrua.

8. gaia.- Bizkaiko Foru Aldundiaren 219/2011 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Kontabilitate Publikoaren Foru Plan Orokorra onartzen duena (II). Aintzatespen- eta balioespen-arauak.

9. gaia.- Bizkaiko Foru Aldundiaren 219/2011 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Kontabilitate Publikoaren Foru Plan Orokorra onartzen duena (III). Urteko kontuak.

10. gaia.- Bizkaiko Foru Aldundiaren 219/2011 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Kontabilitate Publikoaren Foru Plan Orokorra onartzen duena (IV). Oinarrizko finantzaketa. Kontabilitate-definizioak eta -harremanak.

11. gaia.- Bizkaiko Foru Aldundiaren 219/2011 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Kontabilitate Publikoaren Foru Plan Orokorra onartzen duena (V). Aktibo ez-korrontea Kontabilitate-definizioak eta -harremanak.

12. gaia.- Bizkaiko Foru Aldundiaren 219/2011 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Kontabilitate Publikoaren Foru Plan Orokorra onartzen duena (VI). Izakinak eta salgai dauden beste aktibo batzuk. Kontabilitate-definizioak eta -harremanak.

13. gaia.- Bizkaiko Foru Aldundiaren 219/2011 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Kontabilitate Publikoaren Foru Plan Orokorra onartzen duena (VII). Hartzekodunak eta zordunak Kontabilitate-definizioak eta -harremanak.

14. gaia.- Bizkaiko Foru Aldundiaren 219/2011 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Kontabilitate Publikoaren Foru Plan Orokorra onartzen duena (VIII). Finantza-kontuak. Kontabilitate-definizioak eta -harremanak.

15. gaia.- Bizkaiko Foru Aldundiaren 219/2011 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Kontabilitate Publikoaren Foru Plan Orokorra onartzen duena (IX). Erosketak eta gastuak. Kontabilitate-definizioak eta -harremanak.

16. gaia.- Bizkaiko Foru Aldundiaren 219/2011 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Kontabilitate Publikoaren Foru Plan Orokorra onartzen duena (X). Salmentak eta diru-sarrerak. Kontabilitate-definizioak eta -harremanak.

17. gaia.- Bizkaiko Foru Aldundiaren 219/2011 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Kontabilitate Publikoaren Foru Plan Orokorra onartzen duena (XI). Ondare garbiari egotzitako gastuak eta sarrerak Kontabilitate-definizioak eta -harremanak.

18. gaia.- 10/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa (I). Definizioa. Aurrekontuen abiaburuak (I. KAP.). Aurrekontuen edukia (II. KAP.). Aurrekontu orokorren egitura (III. KAP.). Gertuketa eta onespena (IV. KAP.).

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

19. gaia.- 10/2003 Foru Araua, abenduaren 10ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa (II). Aurrekontu-kredituen araubide orokorra eta aldarazpenen araubidea (V. KAP.). Aurrekontuen betearazpena. (VI. KAP.).

20. gaia.- 10/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa (III). Aurrekontuen likidazioa. (VII. KAP.). Aurrekontuen luzamendua (VIII. KAP.). Diruzaintza (II. TITULUA). Kontabilitatea (III. TITULUA). Kontu-hartze kontrola (IV. TITULUA).

21. gaia.- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa. Aplikazio-eremua (I. KAP.). Printzipio orokorrak (II. KAP.). Aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna (III. KAP.). Neurri prebentiboak, zuzentzaileak eta hertsagarriak (IV. KAP.). Gardentasuna (V. KAP.). Aurrekontu kudeaketa. Seigarren xedapen gehigarria.

22. gaia.- 9/2005 Foru Araua, abenduaren 16koa, Toki Ogasunei buruzkoa. Aplikazio-eremua (I. TITULUA). Toki-ogasunen baliabideak (II. TITULUA). zerrendaketa, zuzenbide pribatuko sarrerak, tributuak eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera batzuk (I-III KAP.).

23. gaia.- 9/2005 Foru Araua, abenduaren 16koa, Toki Ogasunei buruzkoa. Tributu itunduetan, itundu gabeko tributuetan eta gainerako sarrera publikoetan partaidetza (IV. KAP.). Dirulaguntzak (V. KAP.), prezio publikoak (VI. KAP.) eta kreditu-eragiketak (VII. KAP.). Udalez gaindiko erakundeak (III. TITULUA) eta toki erakunde txikiak (IV. TITULUA).

24. gaia.- Toki-korporazioen azpisektorea SEC 10en arabera sailkatzeko irizpideak.

25. gaia.- Doikuntzak aurrekontu-saldo ez-finantzarioaren eta kontabilitate nazionaleko defizitaren nahiz superabitaren artean. Espainiako enpresen Kontabilitate Plan Orokorraren mende dauden unitateen defizita edo superabita zehaztea, edo plan horren egokitzapen sektorialetarikoren baten mende daudenena SEC 10en arabera.

26. gaia.- 5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena. (I) eta 2/2012 Foru Araua, otsailaren 29koa, Foru Erakundeak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridikoa arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua aldatzeari buruzkoa. Atariko titulua: Xedapen orokorrak. II. titulua: Dirulaguntzen itzulketa.

27. gaia.- 5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena. (II) eta 2/2012 Foru Araua, otsailaren 29koa, Foru Erakundeak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridikoa arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua aldatzeari buruzkoa. III. titulua: Dirulaguntzen finantza-kontrola. IV. titulua: Dirulaguntzei buruzko arau-hauste eta zehapen administratiboak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

III. ZATIA

28. gaia.- 4/1990 Foru Araua, ekainaren 26koa, Bizkaiko Foru Administrazioaren Tasa, Prezio Publiko eta Bestelako Tributu Baliabideei buruzkoa: Eremua (ATARIKO TITULUA). Tasa eta prezio publikoak (I. TITULUA). Bestelako tributu baliabideak (II. TITULUA).

29. gaia.- 2/2005 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa. Tributu-araudiaren xedapen orokorrak (I. TITULUA). Printzipio orokorrak (I. KAP.). Zergei buruzko arauak (II. KAP.).

30. gaia.- 2/2005 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa. Tributuak (II. TITULUA): Xedapen orokorrak (I. KAP.). Zergapekoak (II. KAP.).

31. gaia.- 125/2019 Foru Dekretua, abuztuaren 21ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamendua onesten duena (I). I. titulua: Xedapen orokorrak.

32. gaia.- 125/2019 Foru Dekretua, abuztuaren 21ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamendua onesten duena (II). II. titulua - Zorra, I. kapitulua - Ordainketa.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

BIGARRENA: PLAZA ARRUNTAK

1. Deialdian eskainitako plazak

Deialdia egiten da EKONOMIALARIen sei (6) plaza betetzeko (A taldea, A1 titulazio-azpitaldea) III. hizkuntza-eskakizuna dutenak, honela banaturik:

. - Barne-sustapeneko txanda: plaza bat (1), derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizunarekin.

. .- Txanda irekia: bost (5) plaza III. hizkuntza-eskakizunarekin; haietariko lau plazatan (4) derrigorrezkoa eta beste batean (1) ez-derrigorrezkoa.

2. Titulazioa

Ekonomiako edo Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako lizentziatura, Ekonomiako Gradua, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua, edo baliokidea.

Barne-sustapeneko txandan parte hartzen dutenek honako baldintza hauek bete behar dituzte: zerbitzu aktiboan edo zerbitzu berezietan egon behar dute beren jatorrizko kidegoan edo eskalan; bi urteko zerbitzua beteta izan behar dute karrerako funtzionario gisa kidego-eskala horietan; dagokion titulazioa eduki behar dute eta A2 azpitaldeko nahiz talde bereko plaza batekoak izan.

3. Baldintza espezifikoak

Urriaren 30eko 5/2015 ELDaren 56.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, baldintza espezifikoa izango da IT txartel hauek edukitzea: Word oinarrizkoa eta Excel oinarrizkoa (baliodunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010). Word aurreratuaren eta Excel aurreratuaren IT txartelek Word oinarrizkoarena eta Excel oinarrizkoarena baliozkotuko dituzte, hurrenez hurren.

Ziurtagiria eskuratzeko proba egin ahal izateko, egiaztatutako zentro batean eman beharko da izena. Zentroen zerrenda osoa helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke: www.it-txartela.net.

Izen-ematea www.it-txartela.net helbidean egin daiteke. Informazioa eskura daiteke aipatutako helbide elektronikoan eta bide hauetakoren bat erabilita:

a) Aurrez aurre, egiaztatutako edozein zentrotara joanda.

b) Telefonoz, 902 25 25 95 zenbakira deituta.

Baldintza espezifiko hau betetzeko, aipatutako txartelak ez dituztenei bi (2) hilabeteko epea ematen zaie, deialdi hau BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Txartelok epe horretan eskuratzen ez dituen izangaia hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko da, baita osatuko den lan-poltsatik ere.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

4. Hautaketa-prozedura.

Oposizio-faseak hiru (3) ariketa izango ditu: lehenengo biak nahitaezkoak eta baztertzaileak dira; hirugarrena nahitaezkoa eta baztertzailea izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazetarako, eta borondatezkoa eta ez-baztertzailea izango da gainerako plazetarako.

4.1.a) Lehenengo ariketa:

Ariketa teorikoa izango da, eta, hiru (3) orduan, laurogeita hamar (90) galderako test bat egin beharko da, gehi erreserbako hamar (10) galdera. Galderak IV. eranskineko gaiei buruzkoak izango dira, IV Zatia izan ezik, eta aukerako zenbait erantzun izango dituzte, baina bat baino ez da zuzena izango. Erantzun zuzenak puntu bat (1) balioko du, eta erantzun oker bakoitzeko 0,33 puntu kenduko dira. Ez da punturik kenduko zuriz utzitako erantzunengatik edo bi marka dituztenengatik.

Lehenago eskatu zitzaizkien ezagutzak berriro egiaztatu behar ez izateko, barne-sustapeneko txandatik datozen hautagaiak salbuetsita egongo dira aipaturiko eranskinean jasotzen den gaien zerrendako V. zatiari dagozkien probaren zatia egitetik, eta, ondorioz, proportzionalki dagokien denbora eta galdera-kopurua izango dute, hau da, IV. eranskineko gaitegiaren I, II eta III zatietako edukiei buruzko galderak besterik ez dituzte egingo. Erantzun zuzenak puntu bat (1) balioko du, eta erantzun oker bakoitzeko 0,33 puntu kenduko dira. Ez da punturik kenduko zuriz utzitako erantzunengatik edo bi marka dituztenengatik.

4.1.b) Bigarren ariketa:

Ariketa praktikoa izango da, hau da, zenbait kasu praktiko ebatzi beharko dira, idatziz. Kasuok plazari dagozkion eginkizunen araberakoak izango dira, haiei lotuak, eta IV. Eranskineko I, II eta IV. zatiei buruzkoak. Lau ordu (4) izango dira ariketa egiteko.

4.2.c) Hirugarren ariketa:

Euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailea izango da derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten lanpostuei lotutako plazetara aurkezten diren izangaientzat eta borondatezkoa eta ez-baztertzailea derrigorrezko ez den III. hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten lanpostuei lotutako plazetara aurkezten direnentzat; betiere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da dagokion mailan.

Bizkaiko Foru Aldundian III. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Halakoetan, parte-hartzaileak baimen espresua emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Hala ere, aurkeztu egin beharko dituzte azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta egon badauden baina erregistro horretan sartuta ez dauden gainerako euskara-titulu edo -ziurtagiriak; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Izangaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean egiaztatu nahi badute III. hizkuntza-eskakizuna, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko da.

4.2 LEHIAKETA

Lehiaketan, izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) dagozkion puntuak emango zaizkio.

5.Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1 Merezimenduen baremoaren arabera (III. eranskina) emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketaren kalifikazioa.

5.2. Oposizio-fasea:

a) Lehenengo ariketari zerotik (0) hamar (10) puntura bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta bost (5) puntu lortzen ez dituzten hautagaiak baztertuta geratuko dira. Hala ere, gainditutako pertsonen kopurua ez bada iristen 18ra, puntuaziorik handiena lortu duten 18 pertsonak hurrengo ariketara igaroko dira (haien puntuazioa 2,5 puntutik gorakoa bada); horretarako, parte hartzeko txanda guztiak hartuko dira kontuan. Noten mozketa-puntuan berdinketa gertatuz gero, mozketa-notaren pareko nota duten izangai guztiek gaindituko dute ariketa hau.

Izangaiek deialdi honen ostean deitzen den hurrengo deialdirako gorde ahal izango dute ariketa honetako kalifikazioa, baldin eta deialdi horretan hala ezartzen bada; horretarako, betiere, bi deialdietan txanda berean parte hartu behar dute.

Izangairen batek lehen ere parte hartu bazuen Bizkaiko Ahaldun Nagusiaren 2019ko abenduaren 20ko 227/2019 Foru Dekretuaren bidez egin zen deialdian (2019ko 248. BAO, abenduaren 30ekoa), aukera hori baliatzeko modua izango du, baldin eta idatziz adierazten badu hori eskabide-orrian eta txanda berean parte hartzen badu.

Eskubide hori baliatzeko, hautaprobetan parte hartzeko eskabidea aurkeztu beharko dute eta dagokion tasa ordaindu. Aukera hori baliatu duen izangaiak deialdi honetako azterketa egiten badu, bi prozesuetan lortutako kalifikazioetatik altuena emango zaio zuzenean. Eskubide hori baliatu eta azterketa ez egiteko aukera behin bakarrik erabili ahal izango da, eta eskubidea baliatu ondoren egiten den hurrengo deialdian azterketa osoa egin beharko da.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

b) Bigarren ariketari zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa emango zaio. Deialditik kanpo geldituko dira bost (5) puntu lortzen ez dituzten izangaiak.

c) Hirugarren ariketari *gai* edo *ez gai* kalifikazioa emango zaio, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazak lortu nahi dituztenentzat. Gainerako kasuetan, honako banaketa honen araberako kalifikazioa emango da, egiaztatutako maila kontuan hartuta:

- I. hizkuntza-eskakizuna: 1,25 puntu
- II. hizkuntza-eskakizuna: 2,5 puntu.
- III. hizkuntza-eskakizuna: 3,75 puntu

Ezingo da eskuratu lortu nahi den lanpostuaren hizkuntza-eskakizunari dagokiona baino goragoko puntuaziorik.

5,3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

6. Lan-poltsa

Hautaketa-prozesu honetatik, lan-poltsa sortuko da lehenengo ariketa (teorikoa) gainditzen dutenekin, bosgarren oinarrian xedatutakoaren arabera.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

III. ERANSKINA

PLAZA ARRUNTETARAKO MEREZIMENDUEN BAREMOA

ESPEZIALITATEA: EKONOMIALARIA

1. Edozein administrazio publikotan EKONOMIALARIA kategorian (A taldea, A1 titulazio-azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,05 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere hirurogei (60) hilabete. 3 puntu

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira administrazio publikotzat: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikuluetan jasotako erakundeak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 2.1 eta 2.3 artikuluetan jasoak. Orobat zenbatuko dira zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan egindako zerbitzuak, baina inola ere ez izaera publikoko beste erakunde batzuetan egindakoak, baldin eta enpresa, merkataritza-sozietate, fundazio edo elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa badute.

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbitzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatikirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

Nolanahi ere, zerbitzua lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legearen 20.1.c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientzia baloratzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ere: lehenik, zenbat denbora egon den izangaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen izangaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

2. Administrazio publikoetan, administrazio publikoko eskoletan (IVAP, HAIN, HAEI edo beste administrazio-eskola batzuetan), nortasun juridiko publikoa duten zentroetan eta unibertsitate publiko zein pribatuetan gaitegiarekin harreman zuzena duten prestakuntza-ikastaroetan eta/edo graduondo zein masterreko titulazio akademikoetan emandako nahiz jasotako ordu-kopuruagatik, 0,0075 puntu hartutako ordu bakoitzeko eta 0,1 puntu emandako ordu bakoitzeko; gehienez: 1,5 puntu.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

3. Europar Batasuneko hizkuntza bat edo bi jakiteagatik, baina hizkuntza beraren maila ezberdinak metatzeko aukerarik gabe. Gehienez 0,5 puntu lor daiteke, banaketa honen arabera:

3 a) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-1 maila (besteak beste, ingelesa: Trinity College-n ingeleseko Grade 9 agiria; alemana: Goethe Institutuaren ZAP–Zertifikat Deutsch als Fremdsprache agiria, edo frantsesa: DELF 1er degré maila) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 3. maila edo oinarrizko zikloa edo B1.2.: ...................................................... 0,15 puntu.

3 b) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-2 maila (besteak beste, ingelesa: Cambridgeko First Certificate of English agiria; alemana: Goethe Institutuaren ZMP -Zentrale Mittelstufenprüfung agiria, edo frantsesa: DELF 2ème degré. DL - Diplôme de Langue - Alliance Française) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 4. maila edo B2 maila aurreratua: 0,30 puntu

3 c) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-2 maila (besteak beste, ingelesa: Cambridge Unibertsitateko Certificate in Advanced English edo Certificate of Proficiency in English agiriak edo Trinity Collegeko Passed Grade Twelve edo Oxford Unibertsitateko Higher Level maila; alemana: ZOP – Zentrale Oberstufenprufung edo KDS – Kleines Deutsches Sprachdiplom edo GDS – Grosses Deutsches Sprachdiplom agiriak), edo frantsesa: – DALF edo DSLCF – Diplôme Supérieur Langue et Culture Française – Alliance Française) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 5. maila nahiz EBko edozein hizkuntzaren filologian lizentziatura (goi mailako unibertsitate-titulua): 0,5 puntu.

GUZTIRA ........................................................................................................................................5 PUNTU

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

IV. ERANSKINA

DEIALDI ARRUNTEKO GAIAK

KATEGORIA: EKONOMIALARIA

I. ZATIA

1. gaia.- 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duena, eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2015. urterako aurrekontu orokorrei buruzko abenduaren 19 ko 11/2014 Foru Arauak aldatua (I). Atariko titulua: Xedapen orokorrak. Xedea eta aplikazio-eremua (I. KAP.). Eskumenak (II. KAP.).

2. gaia.- 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duena (II). Bizkaiko Foru Ogasunaren araubidea (I. TITULUA).

3. gaia.- 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, 2013ko abenduaren 3koa, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duena, eta 169/2014 Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten duena (III). (III. TITULUA): Printzipio orokorrak eta aurrekontu-programazioa (I. KAP.), edukia eta onarpena (II. KAP.). Aurrekontu luzapenaren araubidea (V. KAP.). Batzar Nagusientzako informazioa ematea (VI. KAP.).

4. gaia.- 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, 2013ko abenduaren 3koa, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duena; 169/2014 Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten duena (IV). II. TITULUA: Aurrekontu-kredituak eta haien aldaketak (III. KAP.). Foru enpresa-erakunde publikoen, merkataritzako foru sozietateen eta foru fundazioen kredituak (IV. KAP.).

5. gaia.- 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, 2013ko abenduaren 3koa, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duena; 169/2014 Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten duena (V). Aurrekontuen kudeaketa, betearazpena eta likidazioa (III. KAP. IV. ATALA).

6. gaia.- 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, 2013ko abenduaren 3koa, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duena, eta 169/2014 Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten duena (VI). Foru sektore publikoaren finantza-araubidea (IV. TITULUA). Kontrola (V. TITULUA). Erantzukizuna (VI. TITULUA).

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

7. gaia.- Bizkaiko Foru Aldundiaren 219/2011 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Kontabilitate Publikoaren Foru Plan Orokorra onartzen duena (I). Kontabilitate publikoaren kontzeptu-esparrua.

8. gaia.- Bizkaiko Foru Aldundiaren 219/2011 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Kontabilitate Publikoaren Foru Plan Orokorra onartzen duena (II). Aintzatespen- eta balioespen-arauak.

9. gaia.- Bizkaiko Foru Aldundiaren 219/2011 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Kontabilitate Publikoaren Foru Plan Orokorra onartzen duena (III). Urteko kontuak.

10. gaia.- Bizkaiko Foru Aldundiaren 219/2011 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Kontabilitate Publikoaren Foru Plan Orokorra onartzen duena (IV). Oinarrizko finantzaketa. Kontabilitate-definizioak eta -harremanak.

11. gaia.- Bizkaiko Foru Aldundiaren 219/2011 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Kontabilitate Publikoaren Foru Plan Orokorra onartzen duena (V). Aktibo ez-korrontea Kontabilitate-definizioak eta -harremanak.

12. gaia.- Bizkaiko Foru Aldundiaren 219/2011 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Kontabilitate Publikoaren Foru Plan Orokorra onartzen duena (VI). Izakinak eta salgai dauden beste aktibo batzuk. Kontabilitate-definizioak eta -harremanak.

13. gaia.- Bizkaiko Foru Aldundiaren 219/2011 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Kontabilitate Publikoaren Foru Plan Orokorra onartzen duena (VII). Hartzekodunak eta zordunak Kontabilitate-definizioak eta -harremanak.

14. gaia.- Bizkaiko Foru Aldundiaren 219/2011 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Kontabilitate Publikoaren Foru Plan Orokorra onartzen duena (VIII). Finantza-kontuak. Kontabilitate-definizioak eta -harremanak.

15. gaia.- Bizkaiko Foru Aldundiaren 219/2011 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Kontabilitate Publikoaren Foru Plan Orokorra onartzen duena (IX). Erosketak eta gastuak. Kontabilitate-definizioak eta -harremanak.

16. gaia.- Bizkaiko Foru Aldundiaren 219/2011 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Kontabilitate Publikoaren Foru Plan Orokorra onartzen duena (X). Salmentak eta diru-sarrerak. Kontabilitate-definizioak eta -harremanak.

17. gaia.- Bizkaiko Foru Aldundiaren 219/2011 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Kontabilitate Publikoaren Foru Plan Orokorra onartzen duena (XI). Ondare garbiari egotzitako gastuak eta sarrerak Kontabilitate-definizioak eta -harremanak.

18. gaia.- 10/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa (I). Definizioa. Aurrekontuen abiaburuak (I. KAP.). Aurrekontuen edukia (II. KAP.). Aurrekontu orokorren egitura (III. KAP.). Gertuketa eta onespena (IV. KAP.).

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

19. gaia.- 10/2003 Foru Araua, abenduaren 10ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa (II). Aurrekontu-kredituen araubide orokorra eta aldarazpenen araubidea (V. KAP.). Aurrekontuen betearazpena. (VI. KAP.).

20. gaia.- 10/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa (III). Aurrekontuen likidazioa. (VII. KAP.). Aurrekontuen luzamendua (VIII. KAP.). Diruzaintza (II. TITULUA). Kontabilitatea (III. TITULUA). Kontu-hartze kontrola (IV. TITULUA).

21. gaia.- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa. Aplikazio-eremua (I. KAP.). Printzipio orokorrak (II. KAP.). Aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna (III. KAP.). Neurri prebentiboak, zuzentzaileak eta hertsagarriak (IV. KAP.). Gardentasuna (V. KAP.). Aurrekontu kudeaketa. Seigarren xedapen gehigarria.

22. gaia.- 9/2005 Foru Araua, abenduaren 16koa, Toki Ogasunei buruzkoa. Aplikazio-eremua (I. TITULUA). Toki-ogasunen baliabideak (II. TITULUA). zerrendaketa, zuzenbide pribatuko sarrerak, tributuak eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera batzuk. (I-III KAP.).

23. gaia.- 9/2005 Foru Araua, abenduaren 16koa, Toki Ogasunei buruzkoa. Tributu itunduetan, itundu gabeko tributuetan eta gainerako sarrera publikoetan partaidetza (IV. KAP.). Dirulaguntzak (V. KAP.), prezio publikoak (VI. KAP.) eta kreditu-eragiketak (VII. KAP.). Udalez gaindiko erakundeak (III. TITULUA) eta toki erakunde txikiak (IV. TITULUA).

24. gaia.- Toki-korporazioen azpisektorea SEC 10en arabera sailkatzeko irizpideak.

25. gaia.- Doikuntzak aurrekontu-saldo ez-finantzarioaren eta kontabilitate nazionaleko defizitaren nahiz superabitaren artean. Espainiako enpresen Kontabilitate Plan Orokorraren mende dauden unitateen defizita edo superabita zehaztea, edo plan horren egokitzapen sektorialetarikoren baten mende daudenena SEC 10en arabera.

26. gaia.- 5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena. (I) eta 2/2012 Foru Araua, otsailaren 29koa, Foru Erakundeak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridikoa arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua aldatzeari buruzkoa. Atariko titulua: Xedapen orokorrak. II. titulua: Dirulaguntzen itzulketa.

27. gaia.- 5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena. (II) eta 2/2012 Foru Araua, otsailaren 29koa, Foru Erakundeak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridikoa arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua aldatzeari buruzkoa. III. titulua: Dirulaguntzen finantza-kontrola. IV. titulua: Dirulaguntzei buruzko arau-hauste eta zehapen administratiboak.

II-1 ZATIA

28. gaia.- 4/1990 Foru Araua, ekainaren 26koa, Bizkaiko Foru Administrazioaren Tasa, Prezio Publiko eta Bestelako Tributu Baliabideei buruzkoa: Eremua (ATARIKO TITULUA). Tasa eta prezio publikoak (I. TITULUA). Bestelako tributu baliabideak (II. TITULUA).

29. gaia.- 2/2005 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa. Tributu-araudiaren xedapen orokorrak (I. TITULUA). Printzipio orokorrak (I. KAP.). Zergei buruzko arauak (II. KAP.).

30. gaia.- 2/2005 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa. Tributuak (II. TITULUA): Xedapen orokorrak (I. KAP.). Zergapekoak (II. KAP.).

31. gaia.- 125/2019 Foru Dekretua, abuztuaren 21ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamendua onesten duena (I). I. titulua: Xedapen orokorrak.

32. gaia.- 125/2019 Foru Dekretua, abuztuaren 21ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamendua onesten duena (II). II. titulua - Zorra, I. kapitulua - Ordainketa.

II-2 ZATIA

34. gaia.- 2/2005 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa. Tributuak (II. TITULUA): Zerga-betebehar nagusia eta egin beharreko konturako ordainketak zenbatzeko elementuak (III. KAP.). Zerga-zorra (IV. KAP.).

35. gaia.- 2/2005 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa (IV). Tributuen aplikazioa (III. TITULUA) Printzipio orokorrak (I. KAP.). Zergen arloko jarduketei eta prozedurei buruzko arau orokorrak (II. KAP.). Zergak kudeatzeko jarduketak eta prozedurak (III. KAP.).

36. gaia.- 2/2005 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa (V). Tributuen aplikazioa: (III. TITULUA) Ikuskapeneko jarduketak eta prozedurak (IV. KAP.). Zerga-bilketako jardunak eta prozedurak (V. KAP.).

37. gaia.- 2/2005 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa (VI). Zehatzeko ahala (IV. TITULUA): Zergen arloko zehatzeko ahalaren printzipioak (I. KAP.). Zergen arloko arau-hausteei eta zehapenei buruzko xedapen orokorrak (II. KAP.). Zergen arloko arau-hausteak eta zehapenak (III. KAP.). Zergen arloko zehapen-prozedura (IV. KAP.).

38. gaia.- 2/2005 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa (VII). Administrazio-bidean egindako berrikuspena (V. TITULUA): Arau orokorrak (I. KAP.). Berrikuspenerako prozedura bereziak (II. KAP.). Berraztertzeko errekurtsoa (III. KAP.). Administrazioarekiko diru-erreklamazioak (IV. KAP.).

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

39. gaia.- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga. Zergaren izaera eta aplikazio-eremua (I. titulua). Zerga-egitatea (II. titulua) Zergadunak (III. titulua).

40. gaia.- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga. Zerga-oinarria (IV. titulua).

41. gaia.- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga. Likidazio-oinarria (V. titulua). Kuota osoa (VI. titulua). Kuota likidoa eta kenkariak (VII. titulua). Kuota diferentziala (VIII. titulua). Zerga-zorra (IX. titulua) Baterako tributazioa (X. titulua). Zergaldia eta sortzapena (XII. titulua). Konexio-puntuak Ekonomia Itunean.

42. gaia.- Ondarearen gaineko Zerga Izaera eta aplikazio-eremua (I. KAP.). Zerga-egitatea (II. KAP.). Zergadunak (III. KAP.). Zerga-oinarria (IV. KAP.). Likidazio-oinarria (V. KAP.). Zergaren sortzapena (VI. KAP.). Zerga-zorra (VII. KAP.). Zergaren kudeaketa (VIII. KAP.). Testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentzien zerga-araubidea.

43. gaia.- Sozietateen gaineko Zerga (I). Zergaren izaera eta aplikazio-eremua (I. titulua). Zerga-egitatea (II. titulua). Zergaduna (III. titulua). Zerga-oinarria (IV. titulua). Zergaldia eta zergaren sortzapena (IX. titulua).

44. gaia.- Sozietateen gaineko Zerga (II). Zerga-zorra (V. titulua).

45. gaia.- Balio erantsiaren gaineko zerga (I). Zergaren izaera eta aplikazio-eremua (ATARIKO TITULUA). Zerga-egitatearen mugaketa (I. TITULUA). Salbuespenak (II. TITULUA).

46. gaia.- Balio Erantsiaren gaineko Zerga (II). Zerga-egitatearen burutzapen-lekua (III. TITULUA). Zergaren sortzapena (IV. TITULUA). Zerga-oinarria (V. TITULUA).

47. gaia.- Balio Erantsiaren gaineko Zerga. Subjektu pasiboak (VI. TITULUA). Zerga-tasa (VII. TITULUA). Kenkariak eta itzulketak (VIII. TITULUA).

48. gaia.-Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga. Kostu bidezko ondare eskualdaketak (I. TITULUA). Sozietate-eragiketak (II. TITULUA). Egintza juridiko dokumentatuak (III. TITULUA). Xedapen orokorrak (IV. TITULUA): Zerga-onurak, balioen egiaztapena. Sortzapena eta preskripzioa.

49. gaia.- Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga. Izaera eta aplikazio-eremua (I. TITULUA). Zerga-egitatea (II. TITULUA). Zergadunak eta erantzuleak (III. TITULUA). Sortzapena, preskripzioa eta iraungitzea (IV. TITULUA). Zerga-oinarria (V. TITULUA). Likidazio-oinarria (VI. TITULUA). Zerga-zorra (VIII. TITULUA). Arau bereziak (VIII. TITULUA). Betebehar formalak (X. TITULUA).

50. gaia.- Zerga bereziak (I). Zerga berezien izaera. Fabrikazioaren gaineko zerga bereziak (I. TITULUA): xedapen erkideak; alkoholaren eta edari alkoholikoen gaineko zerga guztietarako xedapen erkideak; garagardoaren gaineko zerga; ardoaren eta edari hartzituen gaineko zerga.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

51. gaia.- Zerga bereziak eta ingurumen arlokoak (II). Tarteko produktuen gaineko zerga; alkoholaren eta edari eratorrien gaineko zerga; hidrokarburoen gaineko zerga; tabakoaren egitekoen gaineko zerga

52. gaia.- Zerga bereziak eta ingurumen arlokoak (II). Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia (II. TITULUA). Ikatzaren eta elektrizitatearen gaineko zerga berezia (III. TITULUA).

III. ZATIA

53. gaia.- 4/1993 Legea, ekainaren 24koa, Euskadiko Kooperatibena. Erabaki orokorrak (I. KAP.). Kooperatibak eratzea (II. KAP.). Euskadiko kooperatiben errolda (III. KAP.): Bazkideak (IV. KAP.). Kooperatibako organoak (V. KAP.). Diru jaurpidea (VI. KAP.)

54. gaia.- 9/2016 Legea, ekainaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoa. Xedapen orokorrak. Fundazioen eraketa. Fundazioen gobernamendua. Ondarea. Fundazioen funtzionamendua eta jarduerak. Estatutuen aldaketa eta fundazioen bat-egitea, bereizketa eta azkentzea. Fundazioen eraldaketa. Administrazioaren esku-hartzea eta antolaketa fundazioen arloan. Fundazio bereziak.

55. gaia.- 22/2015 Legea, uztailaren 20koa, Kontu Auditoretzarena. (I) I. titulua. Kontu-auditoretza. II. titulua. Ikuskapen publikoa.

56. gaia.- 22/2015 Legea, uztailaren 20koa, Kontu Auditoretzarena. (II) III. titulua: Arau-hausteen eta zehapenen araubidea. Xedapen gehigarriak, iragankorrak eta azken xedapenak.

57. gaia.- Egitura- eta inbertsio-funts europarrak: Helburua. Eskualde Garapeneko Europako Funtsa (EGEF), Europako Gizarte Funtsa (EGIF), Kohesio Funtsa (KF), Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa (LGENF), Itsas eta Arrantzaren Europako Funtsa (IAEF).

IV. ZATIA

58. gaia.- Kontabilitate Plan Orokorra, azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsia: Kontabilitatearen kontzeptu-esparrua: Urteko kontuak. Urteko kontuak prestatzeko arauak. Irudi fidela. Kontabilitateko printzipioak. Urteko kontuen osagaiak. Urteko kontuen osagaiak erregistratzeko irizpideak. Ebaluazio-irizpideak. Oro har onartutako kontabilitateko printzipioak eta arauak.

59. gaia.- Ibilgetu ukiezina, ibilgetu materiala eta higiezinetako inbertsioak (KPOko 20, 21, 22, 23, 28 eta 29. azpitaldeak). Kontabilitate-definizioak eta -harremanak. Kontabilitateari buruzko Plan Orokorreko (KPO) erregistroa eta balorazioa egiteko arauak, bereziki 2, 3, 4, 5, 6, 8 eta 11. arauak. Kontabilitate eta Kontu Auditoretza Institutuaren ebazpenak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

60. gaia.- Finantza-kontuak. Finantza-inbertsioak (KPOko 24-26, 29, 53-57, 58 eta 59 azpitaldeak). Kontabilitate-definizioak eta -harremanak. Sailkapena. Kontabilitate Plan Orokorreko (KPO) erregistroa eta balorazioa egiteko arauak; bereziki, 7., 9., 19., 20. eta 21. arauak. Kontabilitate eta Kontu Auditoretza Institutuaren ebazpenak.

61. gaia.- Ondare garbia (10-13 azpitaldeak). Kontabilitate-definizioak eta -harremanak. Sailkapena. Kontabilitate Plan Orokorreko (KPO) erregistroa eta balorazioa egiteko arauak; bereziki, 18. araua. Kontabilitate eta Kontu Auditoretza Institutuaren ebazpenak.

62. gaia.- Izakinak (KPOko 3. azpitaldea). Kontabilitate-definizioak eta -harremanak. Sailkapena. Kontabilitate Plan Orokorreko (KPO) erregistroa eta balorazioa egiteko arauak; bereziki, 10, 11 eta 14. arauak. Kontabilitate eta Kontu Auditoretza Institutuaren ebazpenak.

63. gaia.- Merkataritzako eragiketen ondoriozko hartzekodunak eta zordunak (KPOko 4. taldea). Kontabilitate-definizioak eta -harremanak. Sailkapena. Kontabilitate Plan Orokorreko (KPO) erregistroa eta balorazioa egiteko arauak; bereziki, 11 eta 14. arauak. Kontabilitate eta Kontu Auditoretza Institutuaren ebazpenak.

64. gaia.- Finantza-pasiboak (KPOko 14-19, 50-52, 55 eta 56. azpitaldeak). Kontabilitate-definizioak eta -harremanak. Sailkapena. Kontabilitate Plan Orokorreko (KPO) erregistroa eta balorazioa egiteko arauak; bereziki, 9.,11., 15., 16., 17., 19., 20. eta 21. arauak. Kontabilitate eta Kontu Auditoretza Institutuaren ebazpenak.

65. gaia.- Sarrerak eta gastuak (KPOko 6, 7, 8 eta 9. taldeak) eta aldizkakotzeagatiko doiketak (KPOko 48 eta 56. azpitaldeak). Kontabilitate-definizioak eta -harremanak. Sailkapena. Kontabilitate Plan Orokorreko (KPO) erregistroa eta balorazioa egiteko arauak; bereziki, 12., 13. eta 14. arauak. Kontabilitate eta Kontu Auditoretza Institutuaren ebazpenak.

V. ZATIA

66. gaia.- Espainiako 1978ko Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubide eta betebeharrak.

67. gaia.- Estatuaren lurralde-antolaketa. Autonomia-estatutuak. Eskumenak Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean banatzeko sistema.

68. gaia.- Euskal Herriaren Autonomia Estatutua. Atariko titulua. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenak: esklusiboak, legeak garatu eta betearaztekoak, eta betearaztekoak.

69. gaia.- Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (jarraipena). Euskal Autonomia Erkidegoaren botereak. Eusko Legebiltzarra. Eusko Jaurlaritza. Lehendakaria. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioa.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

70. gaia.- 12/2002 Legea, maiatzaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duena. Arau orokorrak: lurralde historikoetako erakundeen eskumenak, printzipio nagusiak, zergak harmonizatzea, lankidetza-printzipioa eta Estatuarenak bakarrik diren eskumenak. Finantza-harremanak: printzipio nagusiak eta kupoa (kontzeptua).

71. gaia.- 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidegoko instituzio erkideen eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzkoa. Xedapen orokorrak. Lurralde historikoen eskumenak: esklusiboak, legeak garatu eta betearaztekoak, eta betearaztekoak.

72. gaia.- 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidegoko instituzio erkideen eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzkoa (jarraipena). Autonomia finantzarioa eta aurrekontu-autonomia. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusia. Foru-ogasunak. Ogasun Nagusiaren eta foru-ogasunen arteko baliabideen banaketari buruzko ideia orokorra. Herri Kontuen Euskal Epaitegia.

73. gaia.- Espainiako toki-araubidea. Konstituzio-printzipioak. Araubide juridikoa. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea: Xedapen orokorrak

74. gaia.- Udalerriaren antolaketa. Probintziaren antolaketa eta eskumenak. Foru-aldundiak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean.

75. gaia.- Administrazio-egintza. Kontzeptua. Administrazio-egintza motak. Administrazio-egintzaren osagaiak.

76. gaia.- Administrazio-egintzen eraginkortasuna eta haien baldintzapena. Betearazgarritasuna eta etetea. Betearazpena. Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna. Egintzak administrazio-bidetik berrikustea. Ofizioz berrikustea.

77. gaia.- Administrazio-prozedura erkidea: Jarduteko arau orokorrak. Epe-mugak eta epeak. Faseak: Hasiera, antolamendua, instrukzioa.

78. gaia.- Administrazio-prozedura erkidea (jarraipena): Administrazio-prozeduraren faseak. Amaiera. Atzera egitea, uko egitea eta iraungitzea.

79. gaia.- Administrazio-prozedura erkideko interesdunak: kontzeptua eta interesdunek jarduteko duten gaitasuna. Ordezkaritza. Interesdun bat baino gehiago egotea. Interesdunei baliabide elektronikoak erabiltzeko laguntza ematea.

80. gaia.- Administrazio-errekurtsoak. Printzipio orokorrak. Motak. Araubide juridikoa.

81. gaia.- Sektore publikoko kontratuak. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora: xedea eta aplikazio-eremua.

82. gaia.- Kontratu-motak zedarriztatzea. Erregulazio harmonizatuko kontratuak. Administrazio-kontratuak eta kontratu pribatuak. Kontratua burutzea eta kontratuaren forma. Baliogabetasun-araubidea. Kontratazio-arloko errekurtso berezia.

cve: BAO-2022a248-(I-1216)

83. gaia.- 5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra ezartzen duena. Dirulaguntzaren kontzeptua, dirulaguntza publikoak emateko eta justifikatzeko prozedura.

84. gaia.- Euskal enplegu publikoa: funtzionario publikoen eskubideak eta eginbeharrak. Ordainsari-araubidea.

85. gaia.- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa: Atariko titulua. I. titulua: Herritarren eta Herri Agintaritzaren eskubide eta eginbeharrak hizkuntzaren alorrean.

86. gaia.- Europar Batasuna. Europako erakundeak: Parlamentua, Batzordea, Europar Batasuneko Kontseilua eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegia. Legegintza-jarduera, zuzenbidearen iturriak. Kontzeptua: erregelamenduak, zuzentarauak eta erabakiak. 22. gaia.- 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa. Bizkaiko Batzar Nagusiak. Bizkaiko Foru Aldundia. Izaera, osaera eta kargua uztea. Eskumenak. Ahaldun Nagusia.

87. gaia.- 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa (jarraipena). Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren arteko harremanak. Xedapen orokorrak. Foru Aldundiaren erantzukizuna. Foru-arauen proiektuak egiteko prozedura. Foru-administrazioa. Arau orokorrak. Izaera orokorreko xedapenak eta administrazio-ebazpenak.

88. gaia.- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzekoa. Zioen adierazpena. Atariko titulua. 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: hitzaurrea eta atariko titulua eta I. titulua: Eskumenak, eginkizunak, antolaketa eta finantzaketa.

89. gaia.- 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: II. titulua: Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-sektore publikoan genero-ikuspegia txertatzeko neurriak. III. titulua: Emakumeen eta gizonen berdintasuna Bizkaiko foru-sektore publikoaren esku-hartzearen arloetan.

90. gaia.- 1/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa, Bizkaiko Gardentasunari buruzkoa. Publikotasun aktiboa: Aplikazio-eremua (2. art.), kontzeptua eta dimentsioak (5. art.), ez-betetzea (13. art.). Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea: Kontzeptua (18. art.), mugak (21. art.) eta ez onartzeko arrazoiak (22. art.). Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordea (27., 28. eta 29. art.). Gardentasunaren bermea eta erantzukizunak (34., 35. eta 36. artikuluak).

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

HAUTAKETA-PROZESURAKO DEIALDIA, KARRERAKO FUNTZIONARIO SARTZEKO ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAN, TEKNIKARIEN AZPIESKALAN. MOTA: GOI-MAILAKO TEKNIKARIAK, ESPEZIALITATEA: BIDE, UBIDE ETA PORTUETAKO INGENIARIA. EGONKORTZE-PLAZAK ETA ARRUNTAK

LEHENENGOA: EGONKORTZE-PLAZAK

1.Deialdian eskainitako plazak

Deialdia egiten da BIDE, UBIDE ETA PORTUETAKO INGENIARIen lau (4) plaza betetzeko (A taldea, A1 titulazio-azpitaldea), derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna dutenak, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan ezarritakoaren babesean, banaketa honen arabera:

.- Txanda irekian: hiru (3) plaza derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizunarekin

.- Desgaitasuna duten pertsonen txandan: plaza bat (1) III. hizkuntza-eskakizunarekin

2. Titulazioa

Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaritza edo baliokidea.

3. Baldintza espezifikoak

Urriaren 30eko 5/2015 ELDaren 56.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, baldintza espezifikoa izango da IT txartel hauek edukitzea: Word oinarrizkoa eta Excel oinarrizkoa (baliodunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010). Word aurreratuaren eta Excel aurreratuaren IT txartelek Word oinarrizkoarena eta Excel oinarrizkoarena baliozkotuko dituzte, hurrenez hurren.

Ziurtagiria eskuratzeko proba egin ahal izateko, egiaztatutako zentro batean eman beharko da izena. Zentroen zerrenda osoa helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke: www.it-txartela.net.

Izen-ematea www.it-txartela.net helbidean egin daiteke. Informazioa eskura daiteke aipatutako helbide elektronikoan eta bide hauetakoren bat erabilita:

a) Aurrez aurre, egiaztatutako edozein zentrotara joanda.

b) Telefonoz, 902 25 25 95 zenbakira deituta.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Baldintza espezifiko hau betetzeko, aipatutako txartelak ez dituztenei bi (2) hilabeteko epea ematen zaie, deialdi hau BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Izangaiek ez dute agiririk aurkeztu beharko, Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten.

Txartelok epe horretan eskuratzen ez dituen izangaia hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko da.

4. Hautaketa-prozedura

4.1. OPOSIZIO-FASEA

Oposizio-faseak hiru (3) ariketa izango ditu: lehenengo biak nahitaezkoak eta baztertzaileak dira; hirugarrena nahitaezkoa eta baztertzailea izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazetarako, eta borondatezkoa eta ez-baztertzailea izango da gainerako plazetarako.

4.1.a) Lehenengo ariketa:

Ariketa teorikoa izango da, eta, ehun (100) minutuan, berrogeita hamar (50) galderako test bat egin beharko da, gehi erreserbako bost (5) galdera. Galderak II. eranskineko gaiei buruzkoak izango dira, eta aukerako zenbait erantzun izango dituzte, baina bat baino ez da zuzena izango. Erantzun zuzenak puntu bat (1) balioko du, eta ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik, zuriz utzitakoengatik edo erantzun bi markatzeagatik.

4.1.b) Bigarren ariketa:

Ariketa praktikoa izango da, eta, laurogeita hamar (90) minutuan kasu praktiko bat edo batzuk ebatzi beharko dira, zerikusia izango dutenak II. eranskineko gaitegiarekin. Epaimahaiak ariketa hasi aurretxoan zehaztuko ditu kasu praktiko horiek.

4.1.c) Hirugarren ariketa:

Egonkortze-prozesuko euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailea izango da derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten lanpostuei lotutako plazetara aurkezten diren izangaientzat eta borondatezkoa eta ez-baztertzailea derrigorrezko ez den III. hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten lanpostuei lotutako plazetara aurkezten direnentzat; betiere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da dagokion mailan.

Bizkaiko Foru Aldundian III. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Halakoetan, parte-hartzaileak baimen espresua emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Hala ere, aurkeztu egin beharko dituzte azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta egon badauden, baina erregistro horretan sartuta ez dauden gainerako euskara-titulu edo -ziurtagiriak; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Izangaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean egiaztatu nahi badute III. hizkuntza-eskakizuna, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko da.

4.2. LEHIAKETA

Lehiaketan, izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) dagozkion puntuak emango zaizkio.

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1. Merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketaren kalifikazioa.

5.1.2. Oposizio-fasea:

a) Lehen ariketari zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa emango zaio.

b) Bigarren ariketari zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa emango zaio.

2021eko abenduaren 28ko 20/21 Legearen 2.4 artikulua aplikatuz, bi ariketa horiek gaindituko dituzte lehenengo ariketaren eta bigarrenaren kalifikazioak batuta hamar (10) lortzen dutenek, baldin eta ariketa bakoitzean gutxienez bi eta erdi (2,5) atera badute.

c) Hirugarren ariketari, «gai» edo «ez gai» kalifikazioa emango zaio, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazak lortu nahi dituztenentzat. Gainerako kasuetan, honako banaketa honen araberako kalifikazioa emango da, egiaztatutako maila kontuan hartuta:

- I. hizkuntza-eskakizuna: 1,25 puntu
- II. hizkuntza-eskakizuna: 2,5 puntu
- III. hizkuntza-eskakizuna: 3,75 puntu

Ezingo da eskuratu lortu nahi den lanpostuaren hizkuntza-eskakizunari dagokiona baino goragoko puntuaziorik.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

6. Lan-poltsa

6.1. Egonkortzeko hautaketa-prozesutik ez da lan-poltsarik sortuko.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

I. ERANSKINA

EGONKORTZE-PLAZETARAKO MEREZIMENDUEN BAREMOA

ESPEZIALITATEA: BIDE, UBIDE ETA PORTUETAKO INGENIARIA

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan eta azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat:

1.-Esperientzia; gehienez ere 9,1 puntu, honela banatuta:

1.a) Edozein administrazio publikotan BIDE, UBIDE ETA PORTUETAKO INGENIARIA kategorian (A titulazio-taldea, A1 azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,0304 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere ehun hilabete (100) 3,04 puntu

1.b) Aurreko atalean adierazitako esperientziatik bereizirik, modu espezifiko eta osagarrian, Bizkaiko Foru Aldundian BIDE, UBIDE ETA PORTUETAKO INGENIARIA kategorian (A taldea, A1 titulazio-azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,0608 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere ehun (100) hilabete 6,08 puntu

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira administrazio publikotzat: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikuluetan jasotako erakundeak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 2.1 eta 2.3 artikuluetan jasoak. Orobat zenbatuko dira zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan egindako zerbitzuak, baina inola ere ez izaera publikoko beste erakunde batzuetan egindakoak, baldin eta enpresa, merkataritza-sozietate, fundazio edo elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa badute.

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbitzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatikirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

Nolanahi ere, zerbitzua lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legearen 20.1.c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientzia baloratzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ere: lehenik, zenbat denbora egon den izangaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen izangaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

2.-Administrazio publikoetan, administrazio publikoko eskoletan (IVAP, HAIN, HAEI edo beste administrazio-eskola batzuetan), nortasun juridiko publikoa duten zentroetan eta unibertsitate publiko zein pribatuetan gaitegiarekin harreman zuzena duten prestakuntza-ikastaroetan eta/edo graduondo zein masterreko titulazio akademikoetan emandako nahiz jasotako ordu-kopuruagatik, 0,0225 puntu hartutako ordu bakoitzeko eta 0,03 puntu emandako ordu bakoitzeko; gehienez: 3,4 puntu.

3) Ingelesa, frantsesa edo alemana jakiteagatik, baina hizkuntza bereko mailak metatzeko aukerarik gabe, eta gehienez ere 0,5 puntu, honela banaturik:

3 a) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-1 maila (ingelesa: Trinity College-n ingeleseko Grade 9 agiria; alemana: Goethe Institutuaren ZAP– Zertifikat Deutsch als Fremdsprache agiria, edo frantsesa: DELF 1er degré maila) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 3. maila edo oinarrizko zikloa edo B1.2.: ....................................................... 0,15 puntu.

3 b) Europako erreferentzia-markoko B-2 maila: Cambridgeko First Certificate of English agiria; edo alemana: ZMP –Zentrale Mittelstufenprüfung Goethe Institutuaren agiria, edo frantsesa: DELF 2éme degré. DL - Diplôme de Langue - Alliance Française) eta Hizkuntza Eskolaren 4. maila edo B2 maila aurreratua: 0,30 puntu

3 c) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C-1 maila (ingelesa: Cambridge Unibertsitateko Certificate in Advanced English edo Certificate of Proficiency in English agiriak edo Trinity Collegeko Passed Grade Twelve edo Oxford Unibertsitateko Higher Level maila; alemana: ZOP – Zentrale Oberstufenprufung edo KDS – Kleines Deutsches Sprachdiplom edo GDS – Grosses Deutsches Sprachdiplom agiriak), edo frantsesa: – DALF edo DSLCF – Diplôme Supérieur Langue et Culture Française – Alliance Française) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 5. maila nahiz EBko edozein hizkuntzaren filologian lizentziatura (goi mailako unibertsitate-titulua): 0,5 puntu

GUZTIRA ........................................................................................................13 PUNTU

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

II. ERANSKINA

BIDE, UBIDE ETA PORTUETAKO INGENIARIEN EGONKORTZE-PLAZETARAKO GAIAK

I. ZATIA

ERREPIDEAK

1. gaia: Trafiko-ingeniaritzako elementuak II. Ahalmena eta zerbitzu-mailak ahalmen handiko bideetan: ahalmena, zerbitzu-maila eta -intentsitateak, oinarrizko autobide-segmentuak. Kalkuluak: HCM 2010: oinarrizko autobide-tarteak: sarrera, metodologia

2. gaia: Errepideen plangintza eta planeamendua. Irtenbide optimoa hautatzea: hainbat aukeraren artean hautatzeko irizpideak, kostu-onuren azterketa, irizpide anitzeko azterketa.

3. gaia: Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Hirugarren Plan Orokorra 2017-2028: planaren helburuak eta irizpideak. Bizkaiko lehentasunezko sarean eta oinarrizko sarean jarduteko proposamenak.

4. gaia: BIM (Building Information Modelling): BIM (egungo egoera). BIMen onurak jabe eta kudeatzaileentzat. BIMen dimentsioak eta erabilerak.

5. gaia: Eraikuntza-proiektuak: memoriaren eta haren eranskinen edukia eta irismena: memoria; planoen edukia; preskripzio tekniko partikularren agiriaren antolamendua eta edukia; aurrekontuaren antolamendua eta edukia

6. gaia: Obra-kontratuak.

7. gaia: Errepideen trazatua I. Trazatua aztertzeko oinarrizko datuak: abiadura, ikuspena. Oinplanoko trazatua: alderdi orokorrak, bihurgune zirkularrak (alderdi orokorrak), trantsizio-bihurguneen funtzioak eta erabilera. Altxaerako trazatua: alderdi orokorrak, sestraren inklinazioa, akordio bertikalak (alderdi orokorrak). Zeharkako sekzioa: elementuak, erdibitzailea eta albo-erdibitzailea, ponpatzea tarte zuzenean, gainzabalera bihurgunean.

8. gaia: Errepideen trazatua II. Errei gehigarriak eta trazatuko beste elementu batzuk: alderdi orokorrak, abiadura aldatzeko errei-motak, abiadura aldatzeko falka-motak, metatu eta itxaroteko erdiko erreiak, bat egiteko edo banatzeko erreiak, erreiak malda-goran eta aldapan, txirikorda-erreiak, aurreratzeko erreiak, konbergentzia- eta dibergentzia-erreiak —alderdi orokorrak eta ezarpena—.

9. gaia: Azterlan geologikoak eta geoteknikoak errepideetan. Lurraren azterketa: azterketaren irismena eta faseak, proiektuaren azterketa geoteknikoak, txosten geoteknikoa.

10. gaia: Errepide eta zubien obretarako preskripzio tekniko orokorren agiria (PG3). Lurberdinketak: indusketak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

11. gaia: Errepide eta zubien obretarako preskripzio tekniko orokorren agiria (PG3). Lurberdinketak: betelanak: lubetak.

12. gaia: Errepideetako drainatzea III. Zeharkako drainatzea: sarrera, proiektuaren oinarrizko irizpideak, zubiak (korrontearen mailaren goratzea, taularen babesa), zeharkako drainatze-obrak (zeharkako drainatze-obrak lursailean txertatzea, obra horiek betelanean txertatzea).

13. gaia: Lurpeko drainatzea. Ohar orokorrak. Bide-zoruaren eta plataformaren geruzen drainatzea: infiltrazioa, infiltratutako urak hustea. Lurpeko drainatzearen elementuak: mozketa-drainak.

14. gaia: Egitura Kodea. Aplikazio-eremua. Egituren baldintzak. Proiekturako oinarri orokorrak eta segurtasun-irizpideak. Egiturak gauzatzeko oinarri orokorrak.

15. gaia: Bide-zoruak I. Euskal Autonomia Erkidegoko Errepide Sareko bidezoruak neurtzeko araua: aplikazio-eremua, orokorrean kontuan hartu beharrekoak, proiektu-trafikoa, zelaigune hobetua.

16. gaia: Bide-zoruak II. Euskal Autonomia Erkidegoko Errepide Sareko bidezoruak neurtzeko araua: bide-zorurako materialak, bide-zoru sekzioak galtzadan (sekzioen katalogoa, sekzioen arteko konparazioa), eraikuntzako alderdiak.

17. gaia: Bide-zoruen birgaitzea I. Aplikazio-eremua. Bide-zoru baten birgaitzearen azterketa. Bide-zoruaren egoeraren eta agortze-mailaren ebaluazioa.

18. gaia: Seinale bertikalak. Oinarrizko printzipioak. Ezaugarri orokorrak. Bihurguneak seinaleztatzea eta balizatzea.

19. gaia: Obretako seinaleak. Printzipio orokorrak. Abiadura-muga. Erreiak zirkulaziorako ixtea eta behin-behineko erreietara desbideratzea.

20. gaia: Ibilgailuei eusteko sistemak. Segurtasun-hesiak eta petrilen erabilera (aurretiko gogoetak). Segurtasun-hesien eta petrilen motak, portaera eta sailkapena. Segurtasun-hesiak eta petrilak erabiltzeko irizpideak (euste-maila aukeratzea, lanaren zabalera-mota eta deflexio dinamikoa aukeratzea, gogortasun-indizea aukeratzea). Sistema aukeratzea.

21. gaia: Errepideen argiztapena I. Errepideen aire zabaleko argiztapena: errepide-tarte bat argiztatzeko irizpideak eta argiztapen-motak, argiztapen-proiektuak: (hartutako irtenbidearen justifikazioa —argiak jartzea eta kokatzea—, kalkulu luminoteknikoak, kalkulu elektrikoak, banaketa elektrikoa, analisi ekonomikoa).

22. gaia: 91/2012 FD, apirilaren 24koa, Foru Bide Sareko errepideetako tuneletako segurtasun- eta ustiapen-jarraibide teknikoei buruzkoa I. IT I-Azpiegitura: diseinu geometrikoa, oinarrizko azpiegitura, segurtasun-azpiegitura.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

23. gaia: 80/2014 Foru Dekretua, ekainaren 24koa, Bide Segurtasunari buruzkoa. Xedapen orokorrak. Bide-segurtasunaren inpaktuaren ebaluazioa azpiegiturak planifikatzeko azterketetarako. Bide-segurtasunaren auditoria. Bide-segurtasunaren ikuskapena. Zerbitzuan dauden bide-azpiegituren segurtasunaren kudeaketa.

24. gaia: Errepideen kontserbazioa I. Antolaketa: kontserbazio- eta ustiapen-jarduera orokorrak, kontserbazioa garatzeko elementuak. Kontserbazioa gauzatzeko moduak. Kontserbazio- eta birgaitze-jarduketak: Sailkapen-irizpideak, jarduketak errepidearen inguruan, jarduketak seinaleztapen- eta segurtasun-elementuetan, jarduketak fabrika-obretan, lur-obretan eta drainatze-obretan, jarduketa arruntak bide-zoru eta zoletan.

25. gaia: Errepideen kontserbazioa II. Bizkaiko Errepideei buruzko Foru Araua: errepideen sailkapen teknikoa, errepideen sailkapen funtzionala, errepide eta proiektuen plangintza (obra-multzoak, plangintzako tresnak eta proiektuak izapidetzea eta onartzea).

26. gaia: Errepideen kontserbazioa III. Kontserbazioaren kudeaketa: kudeaketa-sistemak eta haien egitura, errepideko elementuen ikuskapena, zolen ikuskapen bisuala, narriaduren katalogoak, zoruaren auskultazioa, ebaluazio- eta jarraipen-programak.

27. gaia: Errepideen kontserbazioa V. Ezponden kudeaketa-plana: kontratuaren irismena, ikuskera metodologikoa (ezponden jarraipen eta kontrolerako ikuskapenak, txosten eta dokumentu teknikoak).

28. gaia: Kontserbazio integralerako kontratuak I. Sarrera eta xedea. Egoera-agenda – kudeaketako oinarrizko elementua.

29. gaia: Errepidea eta haren ingurua II. Errepideen araubidea: Ustiapena. Errepidearen erabilera eta babesa: Errepideen erabilera, baimenen eta legeztatzeen araubide orokorra, hiri barruko tarteak eta zeharbideak.

30. gaia: 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko dena (eranskinak kenduta.

31. gaia: 10/2014 Foru Araua, ekainaren 27koa, Bizkaiko Bizikleta Bide Foralei buruzkoa I. Xedapen orokorrak eta definizioak. Bizikleta-bide foralen baldintza orokorrak. Bizikleta-bide foralen plangintza, gauzatzea eta ustiapena.

32. gaia: 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, Zaratarena. Indize akustikoak. Zarata-mapak. Kutsadura akustikoaren arloko ekintza-planak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

BIGARRENA: PLAZA ARRUNTAK

1.Deialdian eskainitako plazak

Deialdia egiten da BIDE, UBIDE ETA PORTUETAKO INGENIARIen bi (2) plaza betetzeko (A taldea, A1 titulazio-azpitaldea),derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna dutenak, honela banaturik:

. - Barne-sustapeneko txanda: plaza bat (1), derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizunarekin.

. - Txanda askea: plaza bat (1), derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizunarekin.

2. Titulazioa

Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaritza edo baliokidea.

Barne-sustapeneko txandan parte hartzen dutenek honako baldintza hauek bete behar dituzte: zerbitzu aktiboan edo zerbitzu berezietan egon behar dute beren jatorrizko kidegoan edo eskalan; bi urteko zerbitzua beteta izan behar dute karrerako funtzionario gisa kidego-eskala horietan; dagokion titulazioa eduki behar dute eta A2 azpitaldeko nahiz talde bereko plaza batekoak izan.

3. Baldintza espezifikoak

Urriaren 30eko 5/2015 ELDaren 56.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, baldintza espezifikoa izango da IT txartel hauek edukitzea: Word oinarrizkoa eta Excel oinarrizkoa (baliodunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010). Word aurreratuaren eta Excel aurreratuaren IT txartelek Word oinarrizkoarena eta Excel oinarrizkoarena baliozkotuko dituzte, hurrenez hurren.

Ziurtagiria eskuratzeko proba egin ahal izateko, egiaztatutako zentro batean eman beharko da izena. Zentroen zerrenda osoa helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke: www.it-txartela.net.

Izen-ematea www.it-txartela.net helbidean egin daiteke. Informazioa eskura daiteke aipatutako helbide elektronikoan eta bide hauetakoren bat erabilita:

a) Aurrez aurre, egiaztatutako edozein zentrotara joanda.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

b) Telefonoz, 902 25 25 95 zenbakira deituta.

Baldintza espezifiko hau betetzeko, aipatutako txartelak ez dituztenei bi (2) hilabeteko epea ematen zaie, deialdi hau BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Izangaiek ez dute agiririk aurkeztu beharko, Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten.

Txartelok epe horretan eskuratzen ez dituen izangaia hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko da, baita osatuko den lan-poltsatik ere.

4. Hautaketa-prozedura

4.1 OPOSIZIO-FASEA

Oposizio-faseak hiru (3) ariketa izango ditu, guztiak nahitaezkoak eta baztertzaileak.

4.1 a) Lehenengo ariketa:

Ariketa teorikoa izango da, eta, hiru (3) orduan, laurogeita hamar (90) galderako test bat egin beharko da, gehi erreserbako hamar (10) galdera. Galderak IV. eranskineko gaiei buruzkoak izango dira, eta aukerako zenbait erantzun izango dituzte, baina bat baino ez da zuzena izango. Erantzun zuzenak puntu bat (1) balioko du, eta erantzun oker bakoitzeko 0,33 puntu kenduko dira. Ez da punturik kenduko zuriz utzitako erantzunengatik edo bi marka dituztenengatik.

Lehenago eskatu zitzaizkien ezagutzak berriro egiaztatu behar ez izateko, barne-sustapeneko txandatik datozen izangaiak salbuetsita egongo dira IV. eranskinean jasotzen den gaitegiaren III. zatiari dagokion probaren zatia egitetik, eta, ondorioz, dagokion denbora proportzionala eta galdera-kopurua izango dute IV. eranskinean jasotako gaitegiaren I. eta II. zatietako edukiei dagokien proba egiteko.

4.1.b) Bigarren ariketa:

Ariketa praktikoa izango da, eta, lau (4) orduan kasu praktiko bat edo batzuk ebatzi beharko dira, zerikusia izango dutenak IV. eranskineko gaitegiaren I. eta II. zatiekin. Epaimahaiak ariketa hasi aurretxoan zehaztuko ditu kasu praktiko horiek.

4.1 c) Hirugarren ariketa:

Euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailea izango da; betiere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da III. hizkuntza-eskakizunari dagokion mailan.

Bizkaiko Foru Aldundian III. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Halakoetan, parte-hartzaileak baimen espresua emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Hala ere, aurkeztu egin beharko dituzte azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta egon badauden, baina erregistro horretan sartuta ez dauden gainerako euskara-titulu edo -ziurtagiriak; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Izangaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean egiaztatu nahi badute III. hizkuntza-eskakizuna, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko da.

4.2 LEHIAKETA

Lehiaketan, izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera dagozkion puntuak emango zaizkio (III. eranskina).

5.Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1 Merezimenduen baremoaren arabera (III. eranskina) emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketaren kalifikazioa.

5.2. Oposizio-fasea:

a) Lehenengo ariketari zerotik (0) hamar (10) puntura bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta bost (5) puntu lortzen ez dituzten izangaiak baztertuta geratuko dira. Hala ere, gainditutako pertsonen kopurua ez bada iristen 6ra, puntuaziorik handiena lortu duten 6 pertsonak hurrengo ariketara igaroko dira (haien puntuazioa 2,5 puntutik gorakoa bada); horretarako, parte hartzeko txanda guztiak hartuko dira kontuan. Noten mozketa-puntuan berdinketa gertatuz gero, mozketa-notaren pareko nota duten izangai guztiek gaindituko dute ariketa hau.

Izangaiek deialdi honen ostean deitzen den hurrengo deialdirako gorde ahal izango dute ariketa honetako kalifikazioa, baldin eta deialdi horretan hala ezartzen bada; horretarako, betiere, bi deialdietan txanda berean parte hartu behar dute.

Bizkaiko Ahaldun Nagusiaren ekainaren 10eko 177/2010 Foru Dekretuaren bidez egindako deialdian (ekainaren 14ko BAO, 111. zk.) parte hartu zutenek aukera hori baliatu ahal izango dute, baldin eta eskabidean idatziz adierazten badute hori egin nahi dutela; horretarako, betiere, txanda berean parte hartu behar dute.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Eskubide hori baliatzeko, hautaprobetan parte hartzeko eskabidea aurkeztu beharko dute eta dagokion tasa ordaindu. Aukera hori baliatu duen izangaiak deialdi honetako azterketa egiten badu, bi prozesuetan lortutako kalifikazioetatik altuena emango zaio zuzenean. Eskubide hori baliatu eta azterketa ez egiteko aukera behin bakarrik erabili ahal izango da, eta eskubidea baliatu ondoren egiten den hurrengo deialdian azterketa osoa egin beharko da.

b) Bigarren ariketari zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa emango zaio. Deialditik kanpo gelditukodira bost (5) puntu lortzen ez dituzten izangaiak.

c) Hirugarren ariketan, «gai» edo «ez gai» izango da kalifikazioa.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

6. Lan-poltsa

Hautaketa-prozesu honetatik, lan-poltsa sortuko da lehenengo ariketa (teorikoa) gainditzen dutenekin, bosgarren oinarrian xedatutakoaren arabera.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

III. ERANSKINA

PLAZA ARRUNTETARAKO MEREZIMENDUEN BAREMOA

ESPEZIALITATEA: BIDE, UBIDE ETA PORTUETAKO INGENIARIA

1. Edozein administrazio publikotan BIDE, UBIDE ETA PORTUETAKO INGENIARIA kategorian (A titulazio-taldea, A1 azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,05 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere hirurogei (60) hilabete 3 puntu

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira administrazio publikotzat: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikuluetan jasotako erakundeak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 2.1 eta 2.3 artikuluetan jasoak. Orobat zenbatuko dira zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan egindako zerbitzuak, baina inola ere ez izaera publikoko beste erakunde batzuetan egindakoak, baldin eta enpresa, merkataritza-sozietate, fundazio edo elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa badute.

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbitzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatikirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

Nolanahi ere, zerbitzua lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legearen 20.1.c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientzia baloratzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ere: lehenik, zenbat denbora egon den izangaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen izangaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

2. Administrazio publikoetan, administrazio publikoko eskoletan (IVAP, HAIN, HAEI edo beste administrazio-eskola batzuetan), nortasun juridiko publikoa duten zentroetan eta unibertsitate publiko zein pribatuetan gaitegiarekin harreman zuzena duten prestakuntza-ikastaroetan eta/edo graduondo zein masterreko titulazio akademikoetan emandako nahiz jasotako ordu-kopuruagatik, 0,0075 puntu hartutako ordu bakoitzeko eta 0,1 puntu emandako ordu bakoitzeko; gehienez: 1,5 puntu.

3. Europar Batasuneko hizkuntza bat edo bi jakiteagatik, baina hizkuntza beraren maila ezberdinak metatzeko aukerarik gabe. Gehienez 0,5 puntu lor daiteke, banaketa honen arabera:

3 a) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-1 maila (besteak beste, ingelesa: Trinity College-n ingeleseko Grade 9 agiria; alemana: Goethe Institutuaren ZAP–Zertifikat Deutsch als Fremdsprache agiria, edo frantsesa: DELF 1er degré maila) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 3. maila edo oinarrizko zikloa edo B1.2.: ………………………………………… 0,15 puntu.

3 b) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-2 maila (besteak beste, ingelesa: Cambridgeko First Certificate of English agiria; alemana: Goethe Institutuaren ZMP -Zentrale Mittelstufenprüfung agiria, edo frantsesa: DELF 2ème degré. DL - Diplôme de Langue - Alliance Française) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 4. maila edo B2 maila aurreratua: 0,30 puntu

3 c) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C-1 maila (besteak beste, ingelesa: Cambridge Unibertsitateko Certificate in Advanced English edo Certificate of Proficiency in English agiriak edo Trinity Collegeko Passed Grade Twelve edo Oxford Unibertsitateko Higher Level maila; alemana: ZOP – Zentrale Oberstufenprufung edo KDS – Kleines Deutsches Sprachdiplom edo GDS – Grosses Deutsches Sprachdiplom agiriak), edo frantsesa: – DALF edo DSLCF – Diplôme Supérieur Langue et Culture Française – Alliance Française) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 5. maila nahiz EBko edozein hizkuntzaren filologian lizentziatura (goi-mailako unibertsitate-titulua): 0,5 puntu.

GUZTIRA ……………………………………………………………………5 PUNTU

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

IV. ERANSKINA

BIDE, UBIDE ETA PORTUETAKO INGENIARIEN PLAZA ARRUNTETARAKO GAIAK

I. ZATIA
ERREPIDEAK (1. zatia)

1. Trafiko-ingeniaritzako elementuak II. Ahalmena eta zerbitzu-mailak ahalmen handiko bideetan: ahalmena, zerbitzu-maila eta -intentsitateak, oinarrizko autobide-segmentuak. Kalkuluak: HCM 2010: oinarrizko autobide-tarteak: sarrera, metodologia.
2. Errepideen plangintza eta planeamendua. Irtenbide optimoa hautatzea: hainbat aukeraren artean hautatzeko irizpideak, kostu-onuren azterketa, irizpide anitzeko azterketa.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Hirugarren Plan Orokorra 2017-2028: planaren helburuak eta irizpideak. Bizkaiko lehentasunezko sarean eta oinarrizko sarean jarduteko proposamenak.
4. BIM (Building Information Modelling): BIM (egungo egoera). BIMen onurak jabe eta kudeatzaileentzat. BIMen dimentsioak eta erabilerak.
5. Eraikuntza-proiektuak: memoriaren eta haren eranskinen edukia eta irismena: memoria; planoen edukia; preskripzio tekniko partikularren agiriaren antolamendua eta edukia; aurrekontuaren antolamendua eta edukia.
6. Obra-kontratuak.
7. Errepideen trazatua I. Trazatua aztertzeko oinarrizko datuak: abiadura, ikuspena. Oinplanoko trazatua: alderdi orokorrak, bihurgune zirkularrak (alderdi orokorrak), trantsizio-bihurguneen funtzioak eta erabilera. Altxaerako trazatua: alderdi orokorrak, sestraren inklinazioa, akordio bertikalak (alderdi orokorrak). Zeharkako sekzioa: elementuak, erdibitzailea eta albo-erdibitzailea, ponpatzea tarte zuzenean, gainzabalera bihurgunean.
8. Errepideen trazatua II. Errei gehigarriak eta trazatuko beste elementu batzuk: alderdi orokorrak, abiadura aldatzeko errei-motak, abiadura aldatzeko falka-motak, metatu eta itxaroteko erdiko erreiak, bat egiteko edo banatzeko erreiak, erreiak

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

malda-goran eta aldapan, txirikorda-erreiak, aurreratzeko erreiak, konbergentzia- eta dibergentzia-erreiak —alderdi orokorrak eta ezarpena—.

9. Azterlan geologikoak eta geoteknikoak errepideetan. Lurraren azterketa: azterketaren irismena eta faseak, proiektuaren azterketa geoteknikoak, txosten geoteknikoa.

10. Errepide eta zubien obretarako preskripzio tekniko orokorren agiria (PG3). Lurberdinketak: indusketak.

11. Errepide eta zubien obretarako preskripzio tekniko orokorren agiria (PG3). Lurberdinketak: betelanak: lubetak.

12. Errepideetako drainatzea III. Zeharkako drainatzea: sarrera, proiektuaren oinarrizko irizpideak, zubiak (korrontearen mailaren goratzea, taularen babesa), zeharkako drainatze-obrak (zeharkako drainatze-obrak lursailean txertatzea, obra horiek betelanean txertatzea).

13. Lurpeko drainatzea. Ohar orokorrak. Bide-zoruaren eta plataformaren geruzen drainatzea: infiltrazioa, infiltratutako urak hustea. Lurpeko drainatzearen elementuak: mozketa-drainak.

14. Egitura Kodea. Aplikazio-eremua. Egituren baldintzak. Proiekturako oinarri orokorrak eta segurtasun-irizpideak. Egiturak gauzatzeko oinarri orokorrak.

15. Bide-zoruak I. Euskal Autonomia Erkidegoko Errepide Sareko bidezoruak neurtzeko araua: aplikazio-eremua, orokorrean kontuan hartu beharrekoak, proiektu-trafikoa, zelaigune hobetua.

16. Bide-zoruak II. Euskal Autonomia Erkidegoko Errepide Sareko bidezoruak neurtzeko araua: bide-zorurako materialak, bide-zoru sekzioak galtzadan (sekzioen katalogoa, sekzioen arteko konparazioa), eraikuntzako alderdiak.

17. Bide-zoruen birgaitzea I. Aplikazio-eremua. Bide-zoru baten birgaitzearen azterketa. Bide-zoruaren egoeraren eta agortze-mailaren ebaluazioa.

18. Seinale bertikalak. Oinarrizko printzipioak. Ezaugarri orokorrak. Bihurguneak seinaleztatzea eta balizatzea.

19. Obretako seinaleak. Printzipio orokorrak. Abiadura-muga. Erreiak zirkulaziorako ixtea eta behin-behineko erreietara desbideratzea.

20. Ibilgailuei eusteko sistemak. Segurtasun-hesiak eta petrilen erabilera (aurretiko gogoetak). Segurtasun-hesien eta petrilen motak, portaera eta sailkapena. Segurtasun-hesiak eta petrilak erabiltzeko irizpideak (euste-maila aukeratzea, lanaren zabalera-mota eta deflexio dinamikoa aukeratzea, gogortasun-indizea aukeratzea). Sistema aukeratzea.

21. Errepideen argiztapena I. Errepideen aire zabaleko argiztapena: errepide-tarte bat argiztatzeko irizpideak eta argiztapen-motak, argiztapen-proiektuak: (hartutako irtenbidearen justifikazioa —argiak jartzea eta kokatzea—, kalkulu luminoteknikoak, kalkulu elektrikoak, banaketa elektrikoa, analisi ekonomikoa).

22. 91/2012 FD, apirilaren 24koa, Foru Bide Sareko errepideetako tuneletako segurtasun- eta ustiapen-jarraibide teknikoei buruzkoa I. IT I-Azpiegitura: diseinu geometrikoa, oinarrizko azpiegitura, segurtasun-azpiegitura.

23. 80/2014 Foru Dekretua, ekainaren 24koa, Bide Segurtasunari buruzkoa. Xedapen orokorrak. Bide-segurtasunaren inpaktuaren ebaluazioa azpiegiturak

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

planifikatzeko azterketetarako. Bide-segurtasunaren auditoria. Bide-segurtasunaren ikuskapena. Zerbitzuan dauden bide-azpiegituren segurtasunaren kudeaketa.

24. Errepideen kontserbazioa I. Antolaketa: kontserbazio- eta ustiapen-jarduera orokorrak, kontserbazioa garatzeko elementuak. Kontserbazioa gauzatzeko moduak. Kontserbazio- eta birgaitze-jarduketak: Sailkapen-irizpideak, jarduketak errepidearen inguruan, jarduketak seinaleztapen- eta segurtasun-elementuetan, jarduketak fabrika-obretan, lur-obretan eta drainatze-obretan, jarduketa arruntak bide-zoru eta zoletan.

25. Errepideen kontserbazioa II. Bizkaiko Errepideei buruzko Foru Araua: errepideen sailkapen teknikoa, errepideen sailkapen funtzionala, errepide eta proiektuen plangintza (obra-multzoak, plangintzako tresnak eta proiektuak izapidetzea eta onartzea).

26. Errepideen kontserbazioa III. Kontserbazioaren kudeaketa: kudeaketa-sistemak eta haien egitura, errepideko elementuen ikuskapena, zolen ikuskapen bisuala, narriaduren katalogoak, zoruaren auskultazioa, ebaluazio- eta jarraipen-programak.

27. Errepideen kontserbazioa V. Ezponden kudeaketa-plana: kontratuaren irismena, ikuskera metodologikoa (ezponden jarraipen eta kontrolerako ikuskapenak, txosten eta dokumentu teknikoak).

28. Kontserbazio integralerako kontratuak I. Sarrera eta xedea. Egoera-agenda – kudeaketako oinarrizko elementua.

29. Errepidea eta haren ingurua II. Errepideen araubidea: Ustiapena. Errepidearen erabilera eta babesa: Errepideen erabilera, baimenen eta legeztatzeen araubide orokorra, hiri barruko tarteak eta zeharbideak.

30. 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko dena (eranskinak kenduta).

31. 10/2014 Foru Araua, ekainaren 27koa, Bizkaiko bizikleta-bide foralei buruzkoa I. Bizikleta-bide foralen baldintza orokorrak. Bizikleta-bide foralen plangintza, gauzatzea eta ustiapena.

32. 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, Zaratarena. Indize akustikoak. Zarata-mapak. Kutsadura akustikoaren arloko ekintza-planak.

II. zatia
Errepideak (2. zatia)

33. Trafiko-ingeniaritzako elementuak I. Trafikoari buruzko azterlanak.

34. Trafiko-ingeniaritzako elementuak III. Ahalmena eta zerbitzu-mailak errepide eta bidegurutzeetan: bi erreiko errepideak. Kalkuluak: HCM 2010: bi erreiko errepideak: sarrera, metodologia: automobil-modua.

35. Errepideei buruzko azterlanak eta proiektuak: bakoitzaren sailkapena, helburua, edukia eta irismena.

36. Informazio-azterlan edo aurreproiektuen errentagarritasunaren azterketa: Errentagarritasunaren kontzeptua. Errentagarritasun-azterketaren xedea. Trafiko induzitua. Denboraren kostua. Istripuen kostu erantsia, bide-motaren arabera.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Ingurumen-kostuak. Adierazleen zehaztapena. Arriskuen analisia. Erabakien analisia.

37. Errepideen trazatua II. Errei gehigarriak eta trazatuko beste elementu batzuk: alderdi orokorrak, abiadura aldatzeko errei-motak, abiadura aldatzeko falka-motak, metatu eta itxaroteko erdiko erreiak, bat egiteko edo banatzeko erreiak, erreiak malda-goran eta aldapan, txirikorda-erreiak, aurreratzeko erreiak, konbergentzia- eta dibergentzia-erreiak —alderdi orokorrak eta ezarpena—.

38. Errepideen trazatua III. Errepideetarako konexioak eta sarbideak: sarbide zuzenak errepide arruntetan eta zerbitzu-bideetan. Bidegurutzeak: alderdi orokorrak, oinplanoa, altxaera. Bizikleta-bideen eta errepideen bidegurutzeak.

39. Errepideen trazatua IV. Lotuneak: alderdi orokorrak, lotura-adarrak, lotura-adarren proiektu-abiadura. Biribilguneak: alderdi orokorrak, oinplanoa, altxaera, zeharkako sekzioa, konexioa biribilgune bateko eraztun-galtzadarekin.

40. Azterlan geologikoak eta geoteknikoak errepideetan. Lurraren azterketa: prospekzio-metodoak, probak *in situ*.

41. Lurra hobetzeko tratamenduak. Lurra hobetzeko tekniken ezaugarri nagusiak: aurrekarga, injekzioak, legar-zutabeak, buloiak eta geosintetikoak.

42. Errepide eta zubien obretarako preskripzio tekniko orokorren agiria (PG3). Lurberdinketak: aurretiazko lanak.

43. Harri-lubetazko hormak: alderdi orokorrak, ezarritako harri-lubetazko hormak egin eta kontrolatzeko gomendio orokorrak.

44. Mikropiloteak: alderdi orokorrak, materialak eta produktuak, mikropiloteak egitea.

45. Errepideetako drainatzea I. Alderdi orokorrak eta oinarrizko irizpideak. Emariak kalkulatzea: alderdi orokorrak, metodo arrazionala (kalkulu-formula orokorra, arroaren azalera).

46. Errepideetako drainatzea II. Plataformaren eta ertzen drainatzea: sarrera, proiektuaren oinarrizko irizpideak, proiektuaren irizpide bereziak (plataforma, erdibitzaileak, lur-erauzketak eta betelanak).

47. Igarotzeko obrak. Proiekturako baldintzatzaileak. Materialak. Eraikuntza-prozedurak.

48. Errepideetako zubietan harrera-kargako probak egitea. Aplikazio-eremua. Proba egitea. Probari buruzko txostena. Kargako probaren akta.

49. Ikuskapen nagusiak errepide-obretan. Ikuskapen-motak. Narriadurak zimenduan. Ekipamenduekin lotutako narriadurak.

50. Bide-zoruen birgaitzea II. Bide-zoruaren egoerari buruzko diagnostikoa. Irtenbideak aztertzea eta motarik egokiena hautatzea.

51. Errepide eta zubien obretarako preskripzio tekniko orokorren agiria (PG3). Berotan egindako hormigoi bituminoso erako nahaste bituminosoak eta errodadura-geruzetarako nahaste bituminosoak (nahaste drainatzaileak eta etenak): Amaituriko unitatearen espezifikazioak, gauzapenaren mugak eta onartzeko edo baztertzeko irizpideak.

52. Seinale horizontalak. Bide-markak: helburua, kolorea, taldea (sailkapena).

53. Abiadura-murriztaileak. Jartzeko irizpideak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

54. Errepideen argiztapena II. Tunelen argiztapena: tunelak argiztatzeko irizpideak (alderdi orokorrak), argiztapen-proiektuak (hartutako irtenbidearen justifikazioa, kalkulu luminoteknikoak).

55. 135/2006 FD, abuztuaren 23koa, errepideetako tunelen segurtasunari buruzkoa. Tunelen sailkapena. Baldintza teknikoak.

56. 91/2012 FD, apirilaren 24koa, Foru Bide Sareko errepideetako tuneletako segurtasun- eta ustiapen-jarraibide teknikoei buruzkoa I. IT I-Azpiegitura: diseinu geometrikoa, oinarrizko azpiegitura, segurtasun-azpiegitura.

57. Errepideen kontserbazioa IV. Errepide-sare batean igarotzeko obrak kudeatzeko sistema. Ikuskapen-motak. Inbentarioaren egitura (fitxak).

58. Kontserbazio integralerako kontratuak II. Adjudikaziodunak egin beharreko lanak: sarrera, A-1 taldearen lanak (Kontserbazio Zerbitzuaren jarduerak: kontserbazioaren zaintza, A taldea, egoera-azterketak), A-2 taldearen lanak, B taldearen jarduerak (sarrera, sartzen diren lanak: lanak azpiegituran), C taldearen jarduerak (lanak azpiegituran).

59. Kontserbazio integralerako kontratuak III. Neguko bidezaintza: Eusko Jaurlaritzaren bidezaintzako programa (xedea eta irismena, analisia, arrisku-egoerak, balorazio-irizpideak), ekintza-plana (protokoloak, tartean sartutako eragileak, alertak), lanen ordainketa.

60. Errepidea eta haren ingurua I. Errepidearen erabilera eta babesa: Jabetzaren mugak.

61. Ondasun eta eskubideen desjabetzea. Desjabetze-espedientearen izapidetzea.

62. 2010/40/EB Zuzentaraua, errepideko garraioaren sektorean sistema adimendunak eta beste garraiobide batzuekiko interfazeak ezartzeko markoa ezartzen duena. Zuzentarauaren oinarriak. Xedea eta aplikazio-eremua. Lehentasunezko arloak. Lehentasunezko ekintzak. Definizioak.

63. 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzekoa. Xedapen orokorrak (lurzorua kutsa dezaketen jarduera eta instalazioak; definizioak; printzipioak; hondakinak uzteko jarduerak egiten diren lekuak). Lurzoruaren kalitatea ezagutu eta kontrolatzeko bitartekoak (lurzoruaren kalitatea ezagutu eta kontrolatzeko bitartekoak; lurzoruaren kalitatearen arloko deklarazioaren prozedurak; lurzoruaren kalitatearen miaketazko ikerketa; lurzoruaren kalitatearen ikerketa xehatua; arriskuen analisia; hondeaketa selektiboaren plana; lurzoruaren azken egoeraren ikerketa). Lurzoruaren kalitatearen arloko deklarazioak (lurzoruaren kalitatearen arloko deklarazioaren prozeduretatik salbuesteko kasuak).

64. 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena. Xedapen orokorrak. Betelanak. Betelanak egiteko proiektu teknikoen gutxieneko edukia.

65. 10/2014 Foru Araua, ekainaren 27koa, Bizkaiko Bizikleta Bide Foralei buruzkoa II. Bizikleta-bide foralen erabilerak eta babesa: lehenengo atala, bigarrena eta hirugarrena.

66. Ura banatzeko sareak. Banaketa-sareen sistemak. Sareen trazadurari buruzko gomendio orokorrak. Hodiak garraiatzea, maneiatzea eta jartzea. Osagarriak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

67. 305/2011 EB Erregelamendua, eraikuntzako produktuei buruzkoa. Xedapen orokorrak. Prestazioen aitorpena eta CE marka. Eragile ekonomikoen betebeharrak.

68. 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa I. Xedea eta zertarakoa. Definizioak. Plan eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa.

69. 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa II. Proiektuen ingurumen-inpaktuaren ohiko ebaluazioa eta ebaluazio sinplifikatua.

70. 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntzako obretan segurtasunaren eta osasunaren arloan bete beharreko gutxieneko xedapenak ezartzen dituena. Xedapen orokorrak. Segurtasunaren eta osasunaren arloko xedapen espezifikoak. Langileen eskubideak. Beste xedapen batzuk.

III. zatia
ZATI OROKORRA

71. Espainiako 1978ko Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubide eta betebeharrak.

72. Estatuaren lurralde-antolaketa. Autonomia-estatutuak. Eskumenak Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean banatzeko sistema.

73. Euskal Herriaren Autonomia Estatutua. Atariko titulua. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenak: esklusiboak, legeak garatu eta betearaztekoak, eta betearaztekoak.

74. Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (jarraipena). Euskal Autonomia Erkidegoaren botereak. Eusko Legebiltzarra. Eusko Jaurlaritza. Lehendakaria. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioa.

75. 12/2002 Legea, maiatzaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duena. Arau orokorrak: lurralde historikoetako erakundeen eskumenak, printzipio nagusiak, zergak harmonizatzea, lankidetza-printzipioa eta Estatuarenak bakarrik diren eskumenak. Finantza-harremanak: printzipio nagusiak eta kupoa (kontzeptua).

76. 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidegoko instituzio erkideen eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzkoa. Xedapen orokorrak. Lurralde historikoen eskumenak: esklusiboak, legeak garatu eta betearaztekoak, eta betearaztekoak.

77. 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidegoko instituzio erkideen eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzkoa (jarraipena). Autonomia finantzarioa eta aurrekontu-autonomia. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusia. Foru-ogasunak. Ogasun Nagusiaren eta foru-ogasunen arteko baliabideen banaketari buruzko ideia orokorra. Herri Kontuen Euskal Epaitegia.

78. Udalerriaren antolaketa. Probintziaren antolaketa eta eskumenak. Foru-aldundiak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean.

79. Administrazio-egintza. Kontzeptua. Administrazio-egintza motak. Administrazio-egintzaren osagaiak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

80. Administrazio-egintzen eraginkortasuna eta haien baldintzapena. Betearazgarritasuna eta etetea. Betearazpena. Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna. Egintzak administrazio-bidetik berrikustea. Ofizioz berrikustea.

81. Administrazio-prozedura erkidea: Jarduteko arau orokorrak. Epe-mugak eta epeak. Faseak: Hasiera, antolamendua, instrukzioa.

82. Administrazio-prozedura erkidea (jarraipena): Administrazio-prozeduraren faseak. Amaiera. Atzera egitea, uko egitea eta iraungitzea.

83. Administrazio-prozedura erkideko interesdunak: kontzeptua eta interesdunek jarduteko duten gaitasuna. Ordezkaritza. Interesdun bat baino gehiago egotea. Interesdunei baliabide elektronikoak erabiltzeko laguntza ematea.

84. Administrazio-errekurtsoak. Printzipio orokorrak. Motak. Araubide juridikoa.

85. Sektore publikoko kontratuak. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora: xedea eta aplikazio-eremua.

86. Kontratu-motak zedarriztatzea. Erregulazio harmonizatuko kontratuak. Administrazio-kontratuak eta kontratu pribatuak. Kontratua burutzea eta kontratuaren forma. Baliogabetasun-araubidea. Kontratazio-arloko errekurtso berezia.

87. Gastu publikoa. Kontzeptua eta motak. Gastu publikoaren ondorio ekonomikoak.

88. Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa: funtzionario publikoen eskubideak eta eginbeharrak. Ordainsari-araubidea.

89. 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Aurrekontuei buruzko 2006ko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duena. Atariko titulua: xedapen orokorrak (xedea eta aplikazio-eremua eta eskumenak). I. titulua: Bizkaiko Foru Ogasunaren araubidea (printzipio orokorrak, eskubide ekonomikoak eta betebehar ekonomikoak).

90. 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa: Atariko titulua. I. titulua: herritarren eta herri-agintaritzaren eskubide eta eginbeharrak hizkuntzaren alorrean.

91. 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa. Bizkaiko Batzar Nagusiak. Bizkaiko Foru Aldundia. Izaera, osaera eta kargua uztea. Eskumenak. Ahaldun Nagusia.

92. 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa (jarraipena). Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren arteko harremanak. Xedapen orokorrak. Foru Aldundiaren erantzukizuna. Foru-arauen proiektuak egiteko prozedura. Foru-administrazioa. Arau orokorrak. Izaera orokorreko xedapenak eta administrazio-ebazpenak.

93. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzekoa: zioen adierazpena eta atariko titulua.
4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: atarikoa eta atariko titulua. I. titulua (Eskumenak, eginkizunak, antolaketa eta finantzaketa).

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

94. 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: II. titulua: Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-sektore publikoan genero-ikuspegia txertatzeko neurriak. III. titulua: emakumeen eta gizonen berdintasuna Bizkaiko foru-sektore publikoaren esku-hartzearen arloetan.

95. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa: IX. titulua - Zehapen-araubidea (70-71 artikuluak eta 77. artikulua), X. titulua - Eskubide digitalen bermea, eskubideen aipamen orokorra eta xedapen gehigarriak: 1., 2. eta 8.a. 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa: II. titulua - Datuak Babesteko Euskal Bulegoa (10. artikulua eta 14-17 artikuluak) eta III. titulua - Zehatzeko araubidea (24. artikulua).

96. 1/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa, Bizkaiko Gardentasunari buruzkoa. Publikotasun aktiboa: aplikazio-eremua (2. art.), kontzeptua eta dimentsioak (5. art.), ez-betetzea (13. art.). Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea: kontzeptua (18. art.), mugak (21. art.) eta ez onartzeko arrazoiak (22. art.). Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordea (27., 28. eta 29. art.). Gardentasunaren bermea eta erantzukizunak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

HAUTAKETA-PROZESURAKO DEIALDIA, KARRERAKO FUNTZIONARIO SARTZEKO ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAN, AZPIESKALA TEKNIKOAN. MOTA: GOI-MAILAKO TEKNIKARIAK, ESPEZIALITATEA: INDUSTRIA-INGENIARIA. EGONKORTZE-PLAZAK ETA ARRUNTAK

LEHENENGOA: EGONKORTZE-PLAZAK

1.Deialdian eskainitako plazak

Deialdia egiten da INDUSTRIA-INGENIARIen plaza bat (1) betetzeko (A taldea, A1 titulazio-azpitaldea), txanda irekitik derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna duena, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan ezarritakoaren babesean.

2. Titulazioa

Industria-ingeniaria edo industria-ingeniaritzako unibertsitate-masterra (industria-ingeniari lanbidean jarduteko gaitzen duena).

3. Baldintza espezifikoak

Urriaren 30eko 5/2015 ELDaren 56.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, baldintza espezifikoa izango da IT txartel hauek edukitzea: Word oinarrizkoa eta Excel oinarrizkoa (baliodunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010). Word aurreratuaren eta Excel aurreratuaren IT txartelek Word oinarrizkoarena eta Excel oinarrizkoarena baliozkotuko dituzte, hurrenez hurren.

Ziurtagiria eskuratzeko proba egin ahal izateko, egiaztatutako zentro batean eman beharko da izena. Zentroen zerrenda osoa helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke: www.it-txartela.net.

Izen-ematea www.it-txartela.net helbidean egin daiteke. Informazioa eskura daiteke aipatutako helbide elektronikoan eta bide hauetakoren bat erabilita:

a) Aurrez aurre, egiaztatutako edozein zentrotara joanda.

b) Telefonoz, 902 25 25 95 zenbakira deituta.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Baldintza espezifiko hau betetzeko, aipatutako txartelak ez dituztenei bi (2) hilabeteko epea ematen zaie, deialdi hau BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Izangaiek ez dute agiririk aurkeztu beharko, Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten.

Txartelok epe horretan eskuratzen ez dituen izangaia hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko da.

4. Hautaketa-prozedura

4.1. OPOSIZIO-FASEA

Oposizio-faseak hiru (3) ariketa izango ditu, guztiak nahitaezkoak eta baztertzaileak.

4.1. Lehen ariketa:

Ariketa teorikoa izango da, eta, ehun (100) minutuan, berrogeita hamar (50) galderako test bat egin beharko da, gehi erreserbako bost (5) galdera. Galderak II. eranskineko gaitegian jasotzen diren gaiei buruzkoak izango dira, eta aukerako zenbait erantzun izango dituzte, baina bat baino ez da zuzena izango. Erantzun zuzenak puntu bat (1) balioko du eta ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik, zuriz utzitakoengatik edo bi marka dituztenengatik.

4.1.b) Bigarren ariketa:

Ariketa praktikoa izango da, hau da, zenbait kasu praktiko ebatzi beharko dira idatziz. Kasuok plazari dagozkion eginkizunen araberakoak izango dira, haiei lotuak, eta II. eranskineko gaiei buruzkoak. Laurogeita hamar (90) minutu izango dira ariketa egiteko.

4.1.c) Hirugarren ariketa:

Euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailea izango da; betiere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da III. hizkuntza-eskakizunari dagokion mailan.

Bizkaiko Foru Aldundian III. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Halakoetan, parte-hartzaileak baimen espresua emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala ere, aurkeztu egin beharko dituzte azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta egon badauden, baina erregistro horretan sartuta ez dauden gainerako euskara-titulu edo -ziurtagiriak; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Izangaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean egiaztatu nahi badute III. hizkuntza-eskakizuna, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko da.

4.2 LEHIAKETA

Lehiaketan, izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) dagozkion puntuak emango zaizkio.

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1. Merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketaren kalifikazioa.

5.2. Oposizio-fasea:

a) Lehen ariketari zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa emango zaio.

b) Bigarren ariketari zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa emango zaio.

2021eko abenduaren 28ko 20/21 Legearen 2.4 artikulua aplikatuz, bi ariketa horiek gaindituko dituzte lehenengo ariketaren eta bigarrenaren kalifikazioak batuta hamar (10) lortzen dutenek, baldin eta ariketa bakoitzean gutxienez bi eta erdi (2,5) atera badute.

c) Hirugarren ariketan (euskara), «gai» edo «ez gai» izango da kalifikazioa.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

6. Lan-poltsa

Egonkortze-plazen hautaketa-prozesutik ez da lan-poltsarik sortuko.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

I. ERANSKINA

EGONKORTZE-PLAZETARAKO MEREZIMENDUEN BAREMOA

ESPEZIALITATEA: INDUSTRIA-INGENIARIA

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan eta azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat:

1.-Esperientzia; gehienez ere 9,1 puntu, honela banatuta:

1.a) Edozein administrazio publikotan INDUSTRIA-INGENIARIA kategorian (A taldea, A1 titulazio-azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,0304 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere ehun (100) hilabete. 3,04 puntu

1.b) Aurreko atalean adierazitako esperientziatik bereizirik, modu espezifiko eta osagarrian, Bizkaiko Foru Aldundian INDUSTRIA-INGENIARIA kategorian (A taldea, A1 titulazio-azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,0608 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere ehun (100) hilabete. 6,08 puntu

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira administrazio publikotzat: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikuluetan jasotako erakundeak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 2.1 eta 2.3 artikuluetan jasoak. Orobat zenbatuko dira zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan egindako zerbitzuak, baina inola ere ez izaera publikoko beste erakunde batzuetan egindakoak, baldin eta enpresa, merkataritza-sozietate, fundazio edo elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa badute.

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbitzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatikirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

Nolanahi ere, zerbitzua lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira.

Era berean, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.1.c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientzia baloratzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ere: lehenik, zenbat denbora egon den izangaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen izangaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

2.-Administrazio publikoetan, administrazio publikoko eskoletan (IVAP, HAIN, HAEI edo beste administrazio-eskola batzuetan), nortasun juridiko publikoa duten zentroetan eta unibertsitate publiko zein pribatuetan gaitegiarekin harreman zuzena duten prestakuntza-ikastaroetan eta/edo graduondo zein masterreko titulazio akademikoetan emandako nahiz jasotako ordu-kopuruagatik, 0,0225 puntu hartutako ordu bakoitzeko eta 0,03 puntu emandako ordu bakoitzeko; gehienez: 3,4 puntu

3) Ingelesa, frantsesa edo alemana jakiteagatik, baina hizkuntza bereko mailak metatzeko aukerarik gabe, eta gehienez ere 0,5 puntu, honela banaturik:

3 a) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-1 maila (ingelesa: Trinity College-n ingeleseko Grade 9 agiria; alemana: Goethe Institutuaren ZAP– Zertifikat Deutsch als Fremdsprache agiria, edo frantsesa: DELF 1er degré maila) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 3. maila edo oinarrizko zikloa edo B1.2.: ...................................................... 0,15 puntu.

3 b) Europako erreferentzia-markoko B-2 maila: Cambridgeko First Certificate of English agiria; edo alemana: ZMP –Zentrale Mittelstufenprüfung Goethe Institutuaren agiria, edo frantsesa: DELF 2éme degré. DL - Diplôme de Langue - Alliance Française) eta Hizkuntza Eskolaren 4. maila edo B2 maila aurreratua: .................. 0,30puntu

3 c) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C-1 maila (ingelesa: Cambridge Unibertsitateko Certificate in Advanced English edo Certificate of Proficiency in English agiriak edo Trinity Collegeko Passed Grade Twelve edo Oxford Unibertsitateko Higher Level maila; alemana: ZOP – Zentrale Oberstufenprufung edo KDS – Kleines Deutsches Sprachdiplom edo GDS – Grosses Deutsches Sprachdiplom agiriak), edo frantsesa: – DALF edo DSLCF – Diplôme Supérieur Langue et Culture Française – Alliance Française) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 5. maila nahiz EBko edozein hizkuntzaren filologian lizentziatura (goi mailako unibertsitate-titulua): 0,5 puntu

GUZTIRA ..................................................................................................13 PUNTU

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

II. ERANSKINA

EGONKORTZE-PLAZETARAKO GAIAK

KATEGORIA: INDUSTRIA-INGENIARIA

1. gaia.- Eskualde-garapena: lurraldeko esku-hartze ekonomikoa. Dinamika ekonomiko globala eta espazioaren kontzeptu berria. Eskualde-politiken eboluzioa. Esku-hartzearen helburuak eta tresnak. Garapen ekonomikoari laguntzeko agente lokalak, autonomikoak, estatukoak eta Europakoak.

2. gaia.- Berrikuntza sustatzeko politikak. Eboluzio teknologikoa eta hazkunde ekonomikoa. Oinarrizko ikuspegiak berrikuntza-politiketan. Berrikuntza-sistemak. Berrikuntza sustatzeko politiken eboluzioa Europan.

3. gaia.- Berrikuntzari buruzko estatistikak. Berrikuntza neurtzeko kontzeptuak. Enpresa-berrikuntza neurtzea: berrikuntza motak. Enpresen berrikuntza-jarduerak eta -ahalmenak neurtzea. Berrikuntzaren emaitzak neurtzea. Europako berrikuntzaren neurketa. Eskualde-hedatzea: *European Regional Innovation Scoreboard*. Euskadiko Autonomia Erkidegoaren eboluzioa.

4. gaia.- Berrikuntza Euskadin. Egoera: indarguneak eta ahulguneak. Berrikuntzaren euskal sistema. Zientzia, teknologia eta berrikuntzarako euskal sarea. Enpresa-berrikuntza Bizkaian. Bizkaiko enpresen berrikuntzaren intentsitatea eta berrikuntzarako joera.

5. gaia.- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2030 Plana. RIS3 espezializazio adimentsuaren estrategia. Lehentasun estrategikoak eta aukerako lurraldeak. Helburuak, ildo estrategikoak, eragileak eta finantzaketa. Planaren hedapena.

Tema 6.- Berrikuntza produktu eta zerbitzuetan. Kontzeptualizazioa. *Design Thinking* eta prototipatzea. Diseinu industriala. Zerbitizazioa. Berrikuntza irekia.

7. gaia.- Berrikuntza prozesuetan: sistemen araberako kudeaketa-sistema. Enpresaren prozesuak identifikatzea. Funtsezko prozesuak identifikatzea. Berrikuntzaren eragileak eta oztopoak. Aginte-koadro integrala.

8. gaia.- Berrikuntza kudeaketan. Bikaintasuna kudeaketan: kudeaketako bikaintasun-ereduak, kudeaketa aurreratuaren eredua. Lidergoa: lidergoa eta kudeaketa-lana, lidergo motak, lidergo eraldatzailea, zuzendaritza-estiloa hobetzeko ekintza-plana.

9. gaia.- Berrikuntza pertsonetan: parte-hartzea. Eredu interpretatiboa. Parte-hartzearen funtsezko dimentsioak. Proiektu partekatua. Komunikazioa. Talde-lana.

10. gaia.- Berrikuntza negozio-ereduetan. Negozio-ereduen oihala. Negozio-ereduen patroiak. Negozio-eredu berritzaileen sorrera. Barne-ekintzailetza.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

11. gaia.- Berrikuntza kudeatzeko sistemak. Berrikuntza-prozesuaren ereduak. Berrikuntza-politika eta -estrategia. Zaintza. Ideien sorrera. Ideien aukeraketa. Berrikuntza-proiektuen zorroa kudeatzea. Emaitzen babesa. Ebaluazioa. Enpresan berrikuntza kudeatzeko egiturak.

12. gaia.- 4.0. industria. Kontzeptualizazioa. Teknologia gaitzaileak. Lotutako negozio-ereduak. Inplikazio teknologikoak. Pertsonentzako inplikazioak.

13. gaia.- Oinarri teknologiko aurreratuko enpresa berriak. Ezaugarriak, sorrera, hazkundea eta finkatzea. Oinarri teknologikoko enpresen arrakasta. Administrazioaren eginkizuna oinarri teknologikoko enpresen sorreran.

14. gaia.- Enpresa-berrikuntzaren sustapen publikorako tresnen ikuspegi orokorra. Dirulaguntzak. Kenkari fiskalak. Finantzaketa eskuratzeko aukera. I+G+Brako baliabideen sorrera. Enpresentzako zuzeneko zerbitzuak. *Open Innovation* eta sariak. Merkatuak sortzea produktu eta zerbitzu berritzaileetarako. Sentsibilizazioa.

15. gaia.- Finantza-laguntza enpresa txiki eta ertainei: dirulaguntzak, aurrerakin itzulgarriak eta mailegu hobaridunak. 5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena, eta 34/2010 Foru Dekretua, martxoaren 23koa, zeinaren bidez onesten baita dirulaguntzen erregelamendua, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duena. Aplikazio-eremua. Dirulaguntza publikoetarako xedapen erkideak. Dirulaguntzak emateko prozedurak. Dirulaguntzak kudeatzeko eta justifikatzeko prozedura. Dirulaguntzak itzultzea Dirulaguntzen finantza-kontrola.

Tema 16.- Estatu-laguntzak eta berrikuntzarako laguntza. Estatu-laguntzaren kontzeptua Europar Batasunaren testuinguruan. Jakinarazteko eginbeharra. Enpresaren kontzeptua. Ikerketa, garapen eta berrikuntzaren arloko Estatuaren laguntzei buruzko esparrua. Salbuespenak: Minimis araudia. Salbuespenak: 651/2014 araudia.

17. gaia.- Tunelen argiztapenerako instalazioak. Tunelak argiztatzeko irizpideak. Argiztapen-proiektuak: argiak jartzea eta kokatzea, kalkulu luminoteknikoak.

18. gaia.- Errepide-sareen argiztapenerako instalazioak. Errepide-tarte bat argiztatzeko irizpideak. Argiztapen-proiektuak: argiak jartzea eta kokatzea. Kalkulu luminoteknikoak.

19. gaia.- LED teknologia. LED teknologiari buruzko oinarrizko ezagutzak. LED teknologiaren abantailak. Bide-argien kalitatea, segurtasuna eta efizientzia.

20. gaia.- Kanpoko argiztapenerako instalazioen energia-eraginkortasunari buruzko Erregelamendua: 1890/2008 ED eta haren EA-01, EA-02, EA-04 eta EA-06 jarraibide tekniko osagarriak.

21. gaia.- 842/2002 Errege Dekretua, abuztuaren 2koa, behe-tentsiorako araudi elektroteknikoa onesten duena.

22. gaia.- ITC-BT-09: behe-tentsiorako jarraibide tekniko osagarria. Kanpoko argiztapenerako instalazioak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

23. gaia.- Mugikortasun jasangarrirako planak. Zer da hiri-mugikortasun jasangarrirako plan bat? Hiri-mugikortasun jasangarrirako planak egiteko elementu metodologikoak.

24. gaia.- GIS baten definizioa: GISa informazioa, teknologiak, pertsonak eta funtsak integratzeko sistema gisa. GIS baten osagaiak. Espazio-datuen azpiegiturak: definizioa, egitura, mailak eta osagaiak. Arrakastaren giltzak eta erabaki eta ekimen nagusiak.

25. gaia.- Errepideko garraioaren antolamendua - Lehorreko garraioak antolatzeko 16/1987 Legea: eskumenen araubidea eta koordinazioa. Administrazioen arteko koordinazio-organoak. Lehorreko garraioaren zerbitzu eta jardueren araubide ekonomiko-finantzarioa. Lurreko garraioaren ikuskapena. Garraioaren erabiltzaileak. Garraioa eta haren jarduera osagarriak egiteko baldintzak. Errepideko garraioaren zerbitzuak eta jarduerak: sailkapena. Bidaiarien garraio publiko erregularrak.

26. gaia.- Kalitatearen eredua EN-UNE 13816 arauaren arabera. Zergatik bidaiarien kalitateari buruzko arau espezifiko bat? Bezeroaren gogobetetasuna azaltzeko ereduak. UNE-EN 13816 eredua: kalitatearen zikloa. Nola ezarri kalitatea. Kalitatea Kudeatzeko Sistema UNE-EN 13816 ereduaren arabera. ISO 9001:2000 arauaren edo UNE-EN 13816 arauaren araberako ziurtagiria? Nor da zerbitzuaren kalitatearen arduraduna?

27. gaia.- Eusko Jaurlaritzaren 51/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, Errepideko Bidaiari Garraioaren Erregelamendua onesten duena: tarifen araubidea. Zerbitzu publikoa ezartzea. Emakiden araubidea. Emakidaren ustiapena. Eskualdeko emakidak. Erabilera txikiko zerbitzu publikoa.

28. gaia.- Hondakinen tipologia, ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen arabera. Hondakinen hierarkia. Tipologia eta sailkapena. Eskumen administratiboak. Ekoizlearen erantzukizun hedatua. Hondakinen ekoizlea eta edukitzailea. Ekoizleen eta edukitzaileen betebeharrak.

29. gaia.- 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena. Ingurumenaren arloko eskumenak. Ingurumen-baimenak. Ingurumen-baimen bateratuaren eta ingurumen-baimen bakarraren xedapen orokorrak. Ingurumen-ebaluazioa. Prozedurak. Eskumenak. Plan eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa. Proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa.

30. gaia.- 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena. Betelanak. V. eranskina. Betelanak egiteko proiektu teknikoen gutxieneko edukia. APM/1007/2017 Agindua, hondeatutako material naturalak betelanetan eta jatorri-obretatik kanpoko beste obra batzuetan erabiltzeko balorizazio-arau orokorrei buruzkoa.

31. gaia.- Hondakindegiak. 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena. Hondakindegi-motak. Hondakin onargarriak. Baimenen araubidea. Baimena emateko prozedura. Hondakindegiak kontrolatu eta zaintzeko prozedura ustiapen-fasean eta ondorengo mantentze-fasean.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

32. gaia.- Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030eko Plana. Printzipioak. Xede estrategikoak. Funtsezko jarduketak. Lan-ildoak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

BIGARRENA: PLAZA ARRUNTAK

1. Deialdian eskainitako plazak

Deialdia egiten da INDUSTRIA-INGENIARIen lau (4) plaza betetzeko (A taldea, A1 titulazio-azpitaldea), derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna dutenak, honela banaturik:

. - Barne-sustapeneko txanda: plaza bat (1), derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizunarekin.

. .- Txanda irekia: hiru (3) plaza III. hizkuntza-eskakizunarekin; haietariko bitan (2) derrigorrezkoa eta beste batean (1) ez-derrigorrezkoa.

2. Titulazioa

Industria-ingeniaria edo industria-ingeniaritzako unibertsitate-masterra (industria-ingeniari lanbidean jarduteko gaitzen duena).

Barne-sustapeneko txandan parte hartzen dutenek honako baldintza hauek bete behar dituzte: zerbitzu aktiboan edo zerbitzu berezietan egon behar dute beren jatorrizko kidegoan edo eskalan; bi urteko zerbitzua beteta izan behar dute karrerako funtzionario gisa kidego-eskala horietan; dagokion titulazioa eduki behar dute eta A2 azpitaldeko nahiz talde bereko plaza batekoak izan.

3. Baldintza espezifikoak

Urriaren 30eko 5/2015 ELDaren 56.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, baldintza espezifikoa izango da IT txartel hauek edukitzea: Word oinarrizkoa eta Excel oinarrizkoa (baliodunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010). Word aurreratuaren eta Excel aurreratuaren IT txartelek Word oinarrizkoarena eta Excel oinarrizkoarena baliozkotuko dituzte, hurrenez hurren.

Ziurtagiria eskuratzeko proba egin ahal izateko, egiaztatutako zentro batean eman beharko da izena. Zentroen zerrenda osoa helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke: www.it-txartela.net.

Izen-ematea www.it-txartela.net helbidean egin daiteke. Informazioa eskura daiteke aipatutako helbide elektronikoan eta bide hauetakoren bat erabilita:

a) Aurrez aurre, egiaztatutako edozein zentrotara joanda.

b) Telefonoz, 902 25 25 95 zenbakira deituta.

Baldintza espezifiko hau betetzeko, aipatutako txartelak ez dituztenei bi (2) hilabeteko epea ematen zaie, deialdi hau BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Izangaiek ez dute agiririk aurkeztu beharko, Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Txartelok epe horretan eskuratzen ez dituen izangaia hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko da, baita osatuko den lan-poltsatik ere.

4. Hautaketa-prozedura

Oposizio-faseak hiru (3) ariketa izango ditu: lehenengo biak nahitaezkoak eta baztertzaileak dira; hirugarrena nahitaezkoa eta baztertzailea izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazetarako, eta borondatezkoa eta ez-baztertzailea izango da gainerako plazetarako.

4.1.a) Lehenengo ariketa:

Hiru (3) orduan, laurogeita hamar (90) galderako test bat egin beharko da, gehi erreserbako hamar (10) galdera. Galderak IV. eranskineko gaiei buruzkoak izango dira, eta aukerako zenbait erantzun izango dituzte, baina bat baino ez da zuzena izango. Erantzun zuzenak puntu bat (1) balioko du, eta erantzun oker bakoitzeko 0,33 puntu kenduko dira. Ez da punturik kenduko zuriz utzitako erantzunengatik edo bi marka dituztenengatik.

Barne-sustapeneko txandatik datozen izangaiek inoiz lehenago eskatu zaizkien ezagutzak berriro egiazta behar izan ez ditzaten, izangai horiek ez dituzte egin beharko gaitegiko III. zatiari dagozkion galderak. Hori dela eta, proportzionalki dagokien denbora eta galdera-kopurua izango dute, gaitegiko gainerako gaiei buruzko galderak baino ez baitituzte egingo.

4.1.b) Bigarren ariketa:

Ariketa praktikoa izango da, hau da, zenbait kasu praktiko ebatzi beharko dira, idatziz. Kasuok plazari dagozkion eginkizunen araberakoak izango dira, IV. eranskineko gaitegiko gaiei lotuak (III. zatikoei ez beste guztiei) eta lau (4) ordu izango dira ariketa egiteko.

4.1.c) Hirugarren ariketa:

Euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailea izango da derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten lanpostuei lotutako plazetara aurkezten diren izangaientzat eta borondatezkoa eta ez-baztertzailea derrigorrezko ez den III. hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten lanpostuei lotutako plazetara aurkezten direnentzat; betiere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da dagokion mailan.

Bizkaiko Foru Aldundian III. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Halakoetan, parte-hartzaileak baimen espresua emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala ere, aurkeztu egin beharko dituzte azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta egon badauden, baina erregistro horretan sartuta ez dauden gainerako euskara-titulu edo -ziurtagiriak; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Izangaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean egiaztatu nahi badute III. hizkuntza-eskakizuna, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko da.

4.2. LEHIAKETA

Lehiaketan, izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera (III. eranskina) dagozkion puntuak emango zaizkio.

5.Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1 Merezimenduen baremoaren arabera (III. eranskina) emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketaren kalifikazioa.

5.2. Oposizio-fasea:

a) Lehenengo ariketari zerotik (0) hamar (10) puntura bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta bost (5) puntu lortzen ez dituzten izangaiak baztertuta geratuko dira. Hala ere, gainditutako pertsonen kopurua ez bada iristen 12ra, puntuaziorik handiena lortu duten 12 pertsonak hurrengo ariketara igaroko dira (haien puntuazioa 2,5 puntutik gorakoa bada); horretarako, parte hartzeko txanda guztiak hartuko dira kontuan. Noten mozketa-puntuan berdinketa gertatuz gero, mozketa-notaren pareko nota duten izangai guztiek gaindituko dute ariketa hau.

Izangaiek deialdi honen ostean deitzen den hurrengo deialdirako gorde ahal izango dute ariketa honetako kalifikazioa, baldin eta deialdi horretan hala ezartzen bada; horretarako, betiere, bi deialdietan txanda berean parte hartu behar dute.

Bizkaiko Ahaldun Nagusiaren irailaren 19ko 138/2019 Foru Dekretuaren bidez egindako deialdian (irailaren 26ko BAO, 184. zk.) parte hartu zutenek aukera hori baliatu ahal izango dute, baldin eta eskabidean idatziz adierazten badute hori egin nahi dutela; horretarako, betiere, txanda berean parte hartu behar dute.

Eskubide hori baliatzeko, hautaprobetan parte hartzeko eskabidea aurkeztu beharko dute eta dagokion tasa ordaindu. Aukera hori baliatu duen izangaiak deialdi honetako azterketa egiten badu, bi prozesuetan lortutako kalifikazioetatik altuena emango zaio zuzenean. Eskubide hori baliatu eta azterketa ez egiteko aukera behin bakarrik erabili ahal izango da, eta eskubidea baliatu ondoren egiten den hurrengo deialdian azterketa osoa egin beharko da.

b) Bigarren ariketari zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa emango zaio. Deialditik kanpo geldituko dira bost (5) puntu lortzen ez dituzten izangaiak.

c) Hirugarren ariketari «gai» edo «ez ga»i kalifikazioa emango zaio derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazak lortu nahi dituztenentzat. Gainerako kasuetan, honako banaketa honen araberako kalifikazioa emango da, egiaztatutako maila kontuan hartuta:

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

- I. hizkuntza-eskakizuna: 1,25 puntu
- II. hizkuntza-eskakizuna: 2,5 puntu
- III. hizkuntza-eskakizuna: 3,75 puntu

Ezingo da eskuratu lortu nahi den lanpostuaren hizkuntza-eskakizunari dagokiona baino goragoko puntuaziorik.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

6. Lan-poltsa

Hautaketa-prozesu honetatik, lan-poltsa sortuko da lehenengo ariketa (teorikoa) gainditzen dutenekin, bosgarren oinarrian xedatutakoaren arabera.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

III. ERANSKINA

PLAZA ARRUNTETARAKO MEREZIMENDUEN BAREMOA

ESPEZIALITATEA: INDUSTRIA-INGENIARIA

1. Edozein administrazio publikotan INDUSTRIA-INGENIARIA kategorian (A titulazio-taldea, A1 azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,05 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere hirurogei (60) hilabete 3 puntu

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira administrazio publikotzat: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikuluetan jasotako erakundeak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 2.1 eta 2.3 artikuluetan jasoak. Orobat zenbatuko dira zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan egindako zerbitzuak, baina inola ere ez izaera publikoko beste erakunde batzuetan egindakoak, baldin eta enpresa, merkataritza-sozietate, fundazio edo elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa badute.

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbitzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatikirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

Nolanahi ere, zerbitzua lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira.

Era berean, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.1.c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientzia baloratzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ere: lehenik, zenbat denbora egon den izangaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen izangaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

2 Administrazio publikoetan, administrazio publikoko eskoletan (IVAP, HAIN, HAEI edo beste administrazio-eskola batzuetan), nortasun juridiko publikoa duten zentroetan eta unibertsitate publiko zein pribatuetan gaitegiarekin harreman zuzena duten prestakuntza-ikastaroetan eta/edo graduondo zein masterreko titulazio akademikoetan emandako nahiz jasotako ordu-kopuruagatik, 0,0075 puntu hartutako ordu bakoitzeko eta 0,1 puntu emandako ordu bakoitzeko; gehienez: 1,5 puntu

3. Europar Batasuneko hizkuntza bat edo bi jakiteagatik, baina hizkuntza beraren maila ezberdinak metatzeko aukerarik gabe. Gehienez 0,5 puntu lor daiteke, banaketa honen arabera:

3 a) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-1 maila (besteak beste, ingelesa: Trinity College-n ingeleseko Grade 9 agiria; alemana: Goethe Institutuaren ZAP–Zertifikat Deutsch als Fremdsprache agiria, edo frantsesa: DELF 1er degré maila) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 3. maila edo oinarrizko zikloa edo B1.2.: ...................................................... 0,15 puntu.

3 b) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-2 maila (besteak beste, ingelesa: Cambridgeko First Certificate of English agiria; alemana: Goethe Institutuaren ZMP -Zentrale Mittelstufenprüfung agiria, edo frantsesa: DELF 2ème degré. DL - Diplôme de Langue - Alliance Française) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 4. maila edo B2 maila aurreratua: 0,30 puntu

3 c) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C-1 maila (besteak beste, ingelesa: Cambridge Unibertsitateko Certificate in Advanced English edo Certificate of Proficiency in English agiriak edo Trinity Collegeko Passed Grade Twelve edo Oxford Unibertsitateko Higher Level maila; alemana: ZOP – Zentrale Oberstufenprufung edo KDS – Kleines Deutsches Sprachdiplom edo GDS – Grosses Deutsches Sprachdiplom agiriak), edo frantsesa: – DALF edo DSLCF – Diplôme Supérieur Langue et Culture Française – Alliance Française) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 5. maila nahiz EBko edozein hizkuntzaren filologian lizentziatura (goi-mailako unibertsitate-titulua): 0,5 puntu

GUZTIRA ..........................................................................................5 PUNTU

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

IV. ERANSKINA

PLAZA ARRUNTETARAKO GAIAK

KATEGORIA: INDUSTRIA-INGENIARIA

I. ZATIA

1. gaia.- Eskualde-garapena: lurraldeko esku-hartze ekonomikoa. Dinamika ekonomiko globala eta espazioaren kontzeptu berria. Eskualde-politiken eboluzioa. Esku-hartzearen helburuak eta tresnak. Garapen ekonomikoari laguntzeko agente lokalak, autonomikoak, estatukoak eta Europakoak.

2. gaia.- Berrikuntza sustatzeko politikak. Eboluzio teknologikoa eta hazkunde ekonomikoa. Oinarrizko ikuspegiak berrikuntza-politiketan. Berrikuntza-sistemak. Berrikuntza sustatzeko politiken eboluzioa Europan.

3. gaia.- Berrikuntzari buruzko estatistikak. Berrikuntza neurtzeko kontzeptuak. Enpresa-berrikuntza neurtzea: berrikuntza motak. Enpresen berrikuntza-jarduerak eta -ahalmenak neurtzea. Berrikuntzaren emaitzak neurtzea. Europako berrikuntzaren neurketa. Eskualde-hedatzea: *European Regional Innovation Scoreboard*. Euskadiko Autonomia Erkidegoaren eboluzioa.

4. gaia.- Berrikuntza Euskadin. Egoera: indarguneak eta ahulguneak. Berrikuntzaren euskal sistema. Zientzia, teknologia eta berrikuntzarako euskal sarea. Enpresa-berrikuntza Bizkaian. Bizkaiko enpresen berrikuntzaren intentsitatea eta berrikuntzarako joera.

5. gaia.- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2030 Plana. RIS3 espezializazio adimentsuaren estrategia. Lehentasun estrategikoak eta aukerako lurraldeak. Helburuak, ildo estrategikoak, eragileak eta finantzaketa. Planaren hedapena.

6. gaia.- Berrikuntza produktu eta zerbitzuetan. Kontzeptualizazioa. *Design Thinking* eta prototipatzea. Diseinu industriala. Zerbitizazioa. Berrikuntza irekia.

7. gaia.- Berrikuntza prozesuetan: sistemen araberako kudeaketa-sistema. Enpresaren prozesuak identifikatzea. Funtsezko prozesuak identifikatzea. Berrikuntzaren eragileak eta oztopoak. Aginte-koadro integrala.

8. gaia.- Berrikuntza kudeaketan. Bikaintasuna kudeaketan: kudeaketako bikaintasun-ereduak, kudeaketa aurreratuaren eredua. Lidergoa: lidergoa eta kudeaketa-lana, lidergo motak, lidergo eraldatzailea, zuzendaritza-estiloa hobetzeko ekintza-plana.

9. gaia.- Berrikuntza pertsonetan: parte-hartzea. Eredu interpretatiboa. Parte-hartzearen funtsezko dimentsioak. Proiektu partekatua. Komunikazioa. Talde-lana.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

10. gaia.- Berrikuntza negozio-ereduetan. Negozio-ereduen oihala. Negozio-ereduen patroiak. Negozio-eredu berritzaileen sorrera. Barne-ekintzailetza.

11. gaia.- Berrikuntza kudeatzeko sistemak. Berrikuntza-prozesuaren ereduak. Berrikuntza-politika eta -estrategia. Zaintza. Ideien sorrera. Ideien aukeraketa. Berrikuntza-proiektuen zorroa kudeatzea. Emaitzen babesa. Ebaluazioa. Enpresan berrikuntza kudeatzeko egiturak.

12. gaia.- 4.0. industria. Kontzeptualizazioa. Teknologia gaitzaileak. Lotutako negozio-ereduak. Inplikazio teknologikoak. Pertsonentzako inplikazioak.

13. gaia.- Oinarri teknologiko aurreratuko enpresa berriak. Ezaugarriak, sorrera, hazkundea eta finkatzea. Oinarri teknologikoko enpresen arrakasta. Administrazioaren eginkizuna oinarri teknologikoko enpresen sorreran.

14. gaia.- Enpresa-berrikuntzaren sustapen publikorako tresnen ikuspegi orokorra. Dirulaguntzak. Kenkari fiskalak. Finantzaketa eskuratzeko aukera. I+G+Brako baliabideen sorrera. Enpresentzako zuzeneko zerbitzuak. *Open Innovation* eta sariak. Merkatuak sortzea produktu eta zerbitzu berritzaileetarako. Sentsibilizazioa.

15. gaia.- Finantza-laguntza enpresa txiki eta ertainei: dirulaguntzak, aurrerakin itzulgarriak eta mailegu hobaridunak. 5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena, eta 34/2010 Foru Dekretua, martxoaren 23koa, zeinaren bidez onesten baita dirulaguntzen erregelamendua, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duena. Aplikazio-eremua. Dirulaguntza publikoetarako xedapen erkideak. Dirulaguntzak emateko prozedurak. Dirulaguntzak kudeatzeko eta justifikatzeko prozedura. Dirulaguntzak itzultzea Dirulaguntzen finantza-kontrola.

16. gaia.- Estatu-laguntzak eta berrikuntzarako laguntza. Estatu-laguntzaren kontzeptua Europar Batasunaren testuinguruan. Jakinarazteko eginbeharra. Enpresaren kontzeptua. Ikerketa, garapen eta berrikuntzaren arloko Estatuaren laguntzei buruzko esparrua. Salbuespenak: minimis araudia. Salbuespenak: 651/2014 araudia.

17. gaia.- Tunelen argiztapenerako instalazioak. Tunelak argiztatzeko irizpideak. Argiztapen-proiektuak: argiak jartzea eta kokatzea, kalkulu luminoteknikoak.

18. gaia.- Errepide-sareen argiztapenerako instalazioak. Errepide-tarte bat argiztatzeko irizpideak. Argiztapen-proiektuak: argiak jartzea eta kokatzea. Kalkulu luminoteknikoak.

19. gaia.- LED teknologia. LED teknologiari buruzko oinarrizko ezagutzak. LED teknologiaren abantailak. Bide-argien kalitatea, segurtasuna eta efizientzia.

20. gaia.- Kanpoko argiztapenerako instalazioen energia-eraginkortasunari buruzko Erregelamendua: 1890/2008 ED eta haren EA-01, EA-02, EA-04 eta EA-06 jarraibide tekniko osagarriak.

21. gaia.- 842/2002 Errege Dekretua, abuztuaren 2koa, behe-tentsiorako araudi elektroteknikoa onesten duena.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

22. gaia.- ITC-BT-09: behe-tentsiorako jarraibide tekniko osagarria. Kanpoko argiztapenerako instalazioak.

23. gaia.- Mugikortasun jasangarrirako planak. Zer da hiri-mugikortasun jasangarrirako plan bat? Hiri-mugikortasun jasangarrirako planak egiteko elementu metodologikoak.

24. gaia.- GIS baten definizioa: GISa informazioa, teknologiak, pertsonak eta funtsak integratzeko sistema gisa. GIS baten osagaiak. Espazio-datuen azpiegiturak: definizioa, egitura, mailak eta osagaiak. Arrakastaren giltzak eta erabaki eta ekimen nagusiak.

25. gaia.- Errepideko garraioaren antolamendua - Lehorreko garraioak antolatzeko 16/1987 Legea: eskumenen araubidea eta koordinazioa. Administrazioen arteko koordinazio-organoak. Lehorreko garraioaren zerbitzu eta jardueren araubide ekonomiko-finantzarioa. Lurreko garraioaren ikuskapena. Garraioaren erabiltzaileak. Garraioa eta haren jarduera osagarriak egiteko baldintzak. Errepideko garraioaren zerbitzuak eta jarduerak: sailkapena. Bidaiarien garraio publiko erregularrak.

26. gaia.- Kalitatearen eredua EN-UNE 13816 arauaren arabera. Zergatik bidaiarien kalitateari buruzko arau espezifiko bat? Bezeroaren gogobetetasuna azaltzeko ereduak. UNE-EN 13816 eredua: kalitatearen zikloa. Nola ezarri kalitatea. Kalitatea Kudeatzeko Sistema UNE-EN 13816 ereduaren arabera. ISO 9001:2000 arauaren edo UNE-EN 13816 arauaren araberako ziurtagiria? Nor da zerbitzuaren kalitatearen arduraduna?

27. gaia.- Eusko Jaurlaritzaren 51/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, Errepideko Bidaiari Garraioaren Erregelamendua onesten duena: tarifen araubidea. Zerbitzu publikoa ezartzea. Emakiden araubidea. Emakidaren ustiapena. Eskualdeko emakidak. Erabilera txikiko zerbitzu publikoa.

28. gaia.- Hondakinen tipologia, ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen arabera. Hondakinen hierarkia. Tipologia eta sailkapena. Eskumen administratiboak. Ekoizlearen erantzukizun hedatua. Hondakinen ekoizlea eta edukitzailea. Ekoizleen eta edukitzaileen betebeharrak.

29. gaia.- 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena. Ingurumenaren arloko eskumenak. Ingurumen-baimenak. Ingurumen-baimen bateratuaren eta ingurumen-baimen bakarraren xedapen orokorrak. Ingurumen-ebaluazioa. Prozedurak. Eskumenak. Plan eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa. Proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa.

30. gaia.- 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena. Betelanak. V. eranskina. Betelanak egiteko proiektu teknikoen gutxieneko edukia. APM/1007/2017 Agindua, hondeatutako material naturalak betelanetan eta jatorri-obretatik kanpoko beste obra batzuetan erabiltzeko balorizazio-arau orokorrei buruzkoa.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

31. gaia.- Hondakindegiak. 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena. Hondakindegi-motak. Hondakin onargarriak. Baimenen araubidea. Baimena emateko prozedura. Hondakindegiak kontrolatu eta zaintzeko prozedura ustiapen-fasean eta ondorengo mantentze-fasean.

32. gaia.- Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030eko Plana. Printzipioak. Xede estrategikoak. Funtsezko jarduketak. Lan-ildoak.

II. ZATIA

33. gaia.- Hondakin organikoen tratamenduak. Konpostajea. Konposta egiteko hondakinak. Konposta egiteko sistemak. Konposta sortzeko faseak. Kontrolerako parametroak. Konpostajeko instalazio baten elementuak. Konpostaren aplikazioak.

34. gaia.- 63/2019 Dekretua, apirilaren 9koa, komunitateko konpostaje-instalazio eta -jardueren araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezartzen dituena. Aplikazio-eremua. Komunitateko konpostaje-instalazioen ezaugarriak. Komunitateko konpostaje-prozesua kontrolatzea. Komunitateko konpostaje-instalazio eta -jardueretako titular eta teknikari arduradunaren betebeharrak. Komunitateko konpostaje-instalazio eta -jardueretatik datorren konpostaren erabilerak.

35. gaia.- 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko dena. Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak. Definizioa. Proiektu-faseari eta obra-faseari lotutako dokumentazioa. Fidantzak. Inplikatutako eragileen betebeharrak. Obra handietako hondakinak bereiztea.

36. gaia.- 22/1988 Legea, uztailaren 28koa, Kostaldeei buruzkoa. 876/2014 Errege Dekretua, urriaren 10koa, Kostaldeei buruzko Erregelamendu Orokorra onartzen duena. Legezko zortasunak. Itsas-lehorreko jabari publikoa. Itsas-lehorreko jabari publikoaren erabilera. Baimenak. Emakidak. Eskumen administratiboak.

37. gaia.- 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena. Uraren Euskal Agentzia. Xedea. Eginkizunak. Jarduteko eremua. Emakidak eta baimenak.

38. gaia.- 7/2021 Legea, maiatzaren 20koa, Klima Aldaketarena eta Trantsizio Energetikoarena. Isuririk gabeko mugikortasuna eta garraioa. Berotegi-efektuko gasen isurien murrizketari, energia berriztagarriei eta energia-efizientziari buruzko helburuak. Kontratazio publikoa. Klima-aldaketaren ondorioetara egokitzeko neurriak.

39. gaia.- 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Uren Legearen Testu Bategina onesten duena. Jabari Publiko Hidraulikoa. Arro hidrografikoa. Mugape hidrografikoa. Ur-emakida. Jabari publikoaren erabilerari buruzko ekonomia- eta finantza-araubidea: kanonak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

40. gaia.- Putzuak diseinatzea, eraikitzea, ustiatzea eta mantentzea. Diseinuaren irizpide orokorrak. Ixteko dikearen tipologia. Egonkortasunaren azterketa. Iragazgaizteko sistemak.

41. gaia.- 264/2021 Errege Dekretua, apirilaren 13koa, Presen eta Urtegien Segurtasunerako Arau Teknikoak onartzen dituena. Xedea eta aplikazio-eremua, larrialdi-planen nahitaezkotasuna. Ustiapen-planen nahitaezkotasuna. Emakida edo baimen bidez emandako aprobetxemandu bati lotutako presa baten titularraren betebeharrak. I. eranskina: presak sailkatzeko eta presa eta urtegien larrialdi-planak egin eta ezartzeko segurtasun-arau teknikoa. Xedapen orokorrak. Presen sailkapena. Larrialdi-plana; alderdi orokorrak, egitea eta ezartzea.

42. gaia.- 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntzako obretan segurtasunaren eta osasunaren arloan bete beharreko gutxieneko xedapenak ezartzen dituena. Segurtasunari eta osasunari buruzko azterlana. Oinarrizko azterlanaren nahitaezkotasuna. Osasun- eta segurtasun-plana. Segurtasun eta osasun arloko koordinatzailea.

43. gaia.- 171/2004 Errege Dekretua, urtarrilaren 30ekoa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 1995eko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duena enpresa-jardueren koordinazioaren arloan. Lantoki berean hainbat enpresatako langileek parte hartzea. Koordinazio-bitartekoak. Prebentzio-ekintzen koordinazioaz arduratzeko pertsona bat edo gehiago izendatzea. Eraikuntza-lanetan errege-dekretua aplikatzea.

44. gaia.- Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko Legearen Erregelamendua: tarifen araubidea. Bidaiarien garraio erregularrak

45. gaia.- 5/2003 Legea, Euskadiko Garraio Agintaritzarena: xedea eta eremua. Euskadiko Garraio Agintaritza. Garraioaren lurralde-agintaritzak.

46. gaia.- 4/2004 Legea, Errepideko Bidaiari Garraioarena: xedapen orokorrak. Eskumen-araubidea. Erabiltzaileak. Administrazio-titulu gaitzaileak. Bidaiarien herri arteko garraio-zerbitzu publikoa. Herri barruko garraioa. Tarifen araubidea.

47. gaia.- Euskadiko Garraio Jasangarriaren 2030 Gidaplana: garraioaren gaur egungo egoera Euskadin. Erreferentzia-esparrua eta gidalerroak. Euskadiko Garraio Jasangarriaren 2030 Gidaplana.

48. gaia.- Mugikortasun elektrikoaren euskal estrategia. 2030eko ekintza-plana. Ondorioak.

49. gaia.- Garraioaren liburu zuria. Europar garraio-espazio bakarrerako ibilbide-orria, garraio-politika lehiakor eta jasangarri baterako bidea. Garraio-sistema lehiakor eta jasangarri baterako ikuspegia. Estrategia.

50. gaia.- Garraioaren jasangarritasuna: 4/2019 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa: xedapen orokorrak, jasangarritasun energetikoa politika publikoetan txertatzea, eta erakundearteko koordinazioa. Helburuak eta ekintza orokorrak. Garraioa eta mugikortasuna. 2/2011 Legea, martxoaren 4koa, Ekonomia Iraunkorrari buruzkoa: garraioaren arauketa. Mugikortasun iraunkorra.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

51. gaia.- 126/2001 Dekretua, uztailaren 1ekoa, Garraioan Irisgarritasun-Baldintzei buruzko Arau Teknikoak onesten dituena. Markesinak, geltokiak eta geralekuak. Irisgarritasuna material mugikorrean. Garraio publikoa. Alderdi orokorrak. Irisgarritasuna autobusetan. Zoru baxuko autobus irisgarriak. Zoru altuko autobus irisgarriak. Hiri barruko zerbitzu publikoak. Hiriarteko zerbitzu publikoak.

52. gaia.- 1544/2007 Errege Dekretua, azaroaren 23koa, desgaitasuna duten pertsonek garraiobideak erabili ahal izateko irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarrizko baldintzak arautzen dituena. Errepideko garraioa. Hiri barruko eta hiri inguruko autobus-garraioa. IV. eranskina. V. eranskina.

53. gaia.- Demandaren modelizazioa eta proiektuen ebaluazioa: garraio-sistemaren plangintza eta modelizazioa. Garraioaren arazoa. Ereduak eta erabaki-prozesua. Garraioaren modelizazioaren arloko topikoak. Garraioaren eredu klasikoaren egitura. Garraioaren etengabeko plangintza. Teoria versus praktika.

54. gaia.- Ordezko energiak garraioaren sektorean: 2014/94/EB Zuzentaraua. Xedea. Garraiorako elektrizitate-hornidura. Errepideko garraiorako hidrogeno-hornidura. Garraiorako gas naturalaren hornidura. Garraiorako ordezko energiak: dieselaren ordezko erregaiak, bateriadun ibilgailuak, hidrogenoa. Ibilgailu elektriko hibridoak, definizioa eta oinarrizko ezaugarriak.

55. gaia.- 135/2006 Foru Dekretua, abuztuaren 23koa, errepideetako tunelen segurtasunari buruzkoa. Helburua, aplikazio-eremua eta jasotzaileak. Tunelen sailkapena. Antolamendua eta eragileak. Ibilgailuen zirkulazioa tuneletan. Ustiapena zerbitzuan sartzeko baimena. Zerbitzuan dauden tunelen auditoriak.

56. gaia.- Bizkaiko Foru Aldundiaren 91/2012 Foru Dekretua, apirilaren 24koa, Errepideetako Tuneletako Segurtasun eta Ustiapen Jarraibide Teknikoak onartzen dituena. Energia elektrikoari buruzko JT. Xedea. Irismena. Goi-tentsioko sistema. Behe-tentsioko sistema. Diseinuaren irizpide orokorrak. Elikatze elektrikoaren neurriak. Hornikuntzaren segurtasuna. Erredundantzia.

57. gaia.- Bizkaiko Foru Aldundiaren 91/2012 Foru Dekretua, apirilaren 24koa, Errepideetako Tuneletako Segurtasun eta Ustiapen Jarraibide Teknikoak onartzen dituena. Argiztapenari buruzko JT. Xedea. Irismena. Tuneletako argiak. Tunel luzeetako argiztapen arrunta: sarrerako aldeko argiak, barne aldeko argiak, irteeren aldeetako argiak. Tuneletako larrialdietako, ebakuazioetarako argiztapena eta luminantzia mailaren kontrola.

58. gaia.- Bizkaiko Foru Aldundiaren 91/2012 Foru Dekretua, apirilaren 24koa, Errepideetako Tuneletako Segurtasun eta Ustiapen Jarraibide Teknikoak onartzen dituena. Aireztapenari buruzko JT. Xedea. Irismena. Tuneletako aireztapena: aireztapen-sistemaren helburuak, ezarri beharreko aireztapen-motak, aireztapen sanitarioa, larrialdietako aireztapena. Aireztapen-sistemaren deskribapena.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

59. gaia.- Bizkaiko Foru Aldundiaren 91/2012 Foru Dekretua, apirilaren 24koa, Errepideetako Tuneletako Segurtasun eta Ustiapen Jarraibide Teknikoak onartzen dituena. Suaren kontrako babesari buruzko JT Xedea. Irismena. Suaren kontrako babes-sistemaren helburuak. Suaren kontrako babes-sistemaren deskribapena.

60. gaia.- Bizkaiko Foru Aldundiaren 91/2012 Foru Dekretua, apirilaren 24koa, Errepideetako Tuneletako Segurtasun eta Ustiapen Jarraibide Teknikoak onartzen dituena. Segurtasun, zaintza eta kontrolerako sistemei buruzko JT. Xedea. Irismena. Seinaleztapen dinamikoa: sarrera. Galibo-kontrola: sarrera. Ibilgailuak detektatzeko, sailkatzeko eta zenbatzeko sistemak: sarrera. Ingurumenaren kontrola: sarrera. Zirkuitu itxiko bideo-sistema: sarrera. Gorabeherak automatikoki detektatzea (GAD): GADen elementuak. SOS zutoinak: sarrera. Megafoniaz arduratzea: sarrera. Kontrol zentralizatuko sistema: sarrera. Kontrol-zentroa: sarrera.

61. gaia.- Bizkaiko Foru Aldundiaren 91/2012 Foru Dekretua, apirilaren 24koa, Errepideetako Tuneletako Segurtasun eta Ustiapen Jarraibide Teknikoak onartzen dituena. Tunelen ustiapenari buruzko JT. Xedea. Irismena. Sarrera. Giza baliabideak: ustiapeneko langileria. Baliabide materialak: kontrol-zentroa eta baseak. Ustiapen-prozedurak: zirkulazioaren kontrola, gorabeheren kudeaketa. Ustiapenaren jarraipena.

62. gaia.- Aire zabaleko argiteria publikoko instalazioen mantentze-lanak. Instalazioen inbentarioa. Mantentze-lan prebentiboa. Mantentze-lan zuzentzailea. Egoera-agenda. Birjartzea.

63. gaia.- Berrikuntza bide-azpiegituretan. Bide-azpiegituretako berrikuntzaren etorkizuna. Bizkaiko hurbileko testuingurua. Erronkak, helburuak eta lan-ildoak. Ekimenetan esku hartzeko mekanismoak.

64. gaia.- Semaforo bidezko erregulazioa. Xedea. Semaforodun bidegurutze baten erregulazioa: kokapena bidean, fase-, ziklo- eta huste-kontzeptuak. Semaforodun bidegurutze baten funtzionamendua: erregulazio partzialeko bidegurutzeak, erregulazio osoko bidegurutzeak. Bidegurutzen arteko sinkronizazioa. Semaforo bidez kontrolatutako bidegurutzeen ahalmena.

III. ZATIA

65. gaia.- Espainiako 1978ko Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubide eta betebeharrak.

66. gaia.- Estatuaren lurralde-antolaketa. Autonomia-estatutuak. Eskumenak Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean banatzeko sistema.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

67. gaia.- Euskal Herriaren Autonomia Estatutua. Atariko titulua. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenak: esklusiboak, legeak garatu eta betearaztekoak, eta betearaztekoak.

68. gaia.- Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (jarraipena). Euskal Autonomia Erkidegoaren botereak. Eusko Legebiltzarra. Eusko Jaurlaritza. Lehendakaria. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioa.

69. gaia.- 12/2002 Legea, maiatzaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duena. Arau orokorrak: lurralde historikoetako erakundeen eskumenak, printzipio nagusiak, zergak harmonizatzea, lankidetza-printzipioa eta Estatuarenak bakarrik diren eskumenak. Finantza-harremanak: printzipio nagusiak eta kupoa (kontzeptua).

70. gaia.- 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidegoko instituzio erkideen eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzkoa. Xedapen orokorrak. Lurralde historikoen eskumenak: esklusiboak, legeak garatu eta betearaztekoak, eta betearaztekoak.

71. gaia.- 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidegoko instituzio erkideen eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzkoa (jarraipena). Autonomia finantzarioa eta aurrekontu-autonomia. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusia. Foru-ogasunak. Ogasun Nagusiaren eta foru-ogasunen arteko baliabideen banaketari buruzko ideia orokorra. Herri Kontuen Euskal Epaitegia.

72. gaia.- Espainiako toki-araubidea. Konstituzio-printzipioak. Araubide juridikoa. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea: xedapen orokorrak

73. gaia.- Udalerriaren antolaketa. Probintziaren antolaketa eta eskumenak. Foru-aldundiak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean.

74. gaia.- Administrazio-egintza. Kontzeptua. Administrazio-egintza motak. Administrazio-egintzaren osagaiak.

75. gaia.- Administrazio-egintzen eraginkortasuna eta haien baldintzapena. Betearazgarritasuna eta etetea. Betearazpena. Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna. Egintzak administrazio-bidetik berrikustea. Ofizioz berrikustea.

76. gaia.- Administrazio-prozedura erkidea: jarduteko arau orokorrak. Epe-mugak eta epeak. Faseak: hasiera, antolamendua, instrukzioa.

77. gaia.- Administrazio-prozedura erkidea (jarraipena): administrazio-prozeduraren faseak. Amaiera. Atzera egitea, uko egitea eta iraungitzea.

78. gaia.-Administrazio-prozedura erkideko interesdunak: kontzeptua eta interesdunek jarduteko duten gaitasuna. Ordezkaritza. Interesdun bat baino gehiago egotea. Interesdunei baliabide elektronikoak erabiltzeko laguntza ematea.

79. gaia.- Administrazio-errekurtsoak. Printzipio orokorrak. Motak. Araubide juridikoa.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

80. gaia.- Sektore publikoko kontratuak. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora: xedea eta aplikazio-eremua.

81. gaia.-Kontratu-motak zedarriztatzea. Erregulazio harmonizatuko kontratuak. Administrazio-kontratuak eta kontratu pribatuak. Kontratua burutzea eta kontratuaren forma. Baliogabetasun-araubidea. Kontratazio-arloko errekurtso berezia

82. gaia.- Gastu publikoa. Kontzeptua eta motak. Gastu publikoaren ondorio ekonomikoak.

83. gaia.- Euskal enplegu publikoa: funtzionario publikoen eskubideak eta eginbeharrak. Ordainsari-araubidea.

84. gaia.- 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Aurrekontuei buruzko 2006ko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duena. Atariko titulua: xedapen orokorrak (xedea eta aplikazio-eremua eta eskumenak). I. titulua: Bizkaiko Foru Ogasunaren araubidea (printzipio orokorrak, eskubide ekonomikoak eta betebehar ekonomikoak).

85. gaia.- 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa. Bizkaiko Batzar Nagusiak. Bizkaiko Foru Aldundia. Izaera, osaera eta kargua uztea. Eskumenak. Ahaldun Nagusia.

86. gaia.- 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa (jarraipena). Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren arteko harremanak. Xedapen orokorrak. Foru Aldundiaren erantzukizuna. Foru-arauen proiektuak egiteko prozedura. Foru-administrazioa. Arau orokorrak. Izaera orokorreko xedapenak eta administrazio-ebazpenak.

87. gaia.- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzekoa. Zioen azalpena. Atariko titulua. 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: atarikoa eta atariko titulua eta I. titulua: eskumenak, eginkizunak, antolaketa eta finantzaketa.

88. gaia.-4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: II. titulua: Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-sektore publikoan genero-ikuspegia txertatzeko neurriak. III. titulua: emakumeen eta gizonen berdintasuna Bizkaiko foru-sektore publikoaren esku-hartzearen arloetan.

89. gaia.- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa: IX. titulua - Zehapen-araubidea (70-71 artikuluak eta 77. artikulua), X. titulua - Eskubide digitalen bermea, eskubideen aipamen orokorra eta xedapen gehigarriak: 1., 2. eta 8.a. 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa: II. titulua - Datuak Babesteko Euskal Bulegoa (10. artikulua eta 14-17 artikuluak) eta III. titulua - Zehatzeko araubidea (24. artikulua).

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

90. gaia. - 1/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa, Bizkaiko Gardentasunari buruzkoa. Publikotasun aktiboa: aplikazio-eremua (2. art.), kontzeptua eta dimentsioak (5. art.), ez-betetzea (13. art.). Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea: kontzeptua (18. art.), mugak (21. art.) eta ez onartzeko arrazoiak (22. art.). Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordea (27., 28. eta 29. art.). Gardentasunaren bermea eta erantzukizunak (34., 35. eta 36. artikuluak).

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

HAUTAKETA-PROZESURAKO DEIALDIA, KARRERAKO FUNTZIONARIO SARTZEKO ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAN, AZPIESKALA TEKNIKOAN. MOTA: GOI-MAILAKO TEKNIKARIAK, ESPEZIALITATEA: ENPRESAKO MEDIKUA. EGONKORTZE-PLAZAK

1.Deialdian eskainitako plazak

Deialdia egiten da ENPRESAKO MEDIKU plaza bat (1) betetzeko txanda irekitik (A taldea, A1 titulazio azpitaldea), derrigorrezko III. hizkuntza eskakizunarekin.

2. Titulazioa

Medikuntza eta Kirurgian lizentziatua, Enpresa Medikuntzako diploma duena edo Laneko Medikuntzako espezialista dena.

3. Baldintza espezifikoak

3.1. Urriaren 30eko 5/2015 ELDaren 56.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, baldintza espezifikoa izango da IT txartel hauek edukitzea: Word oinarrizkoa eta Excel oinarrizkoa (baliodunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010). Word aurreratuaren eta Excel aurreratuaren IT txartelek Word oinarrizko txartela eta Excel oinarrizkoarena baliozkotuko dituzte, hurrenez hurren.

Ziurtagiria eskuratzeko proba egin ahal izateko, egiaztatutako zentro batean eman beharko da izena. Zentroen zerrenda osoa helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke: www.it-txartela.net.

Izen-ematea www.it-txartela.net helbidean egin daiteke. Informazioa eskura daiteke aipatutako helbide elektronikoan eta bide hauetakoren bat erabilita:

a) Aurrez aurre, egiaztatutako edozein zentrotara joanda.

b) Telefonoz, 902 25 25 95 zenbakira deituta.

Eskubide hori baliatu eta azterketa ez egiteko aukera behin bakarrik erabili ahal izango da, eta eskubidea baliatu ondoren egiten den hurrengo deialdian azterketa osoa egin beharko da.

Izangaiek ez dute agiririk aurkeztu beharko, Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten.

Txartelok epe horretan eskuratzen ez dituen izangaia hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko da.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

4. Hautaketa-prozedura

4.1. OPOSIZIO-FASEA

Oposizio-faseak hiru (3) ariketa izango ditu, guztiak nahitaezkoak eta baztertzaileak.

4.1.a) Lehenengo ariketa:

Ariketa teorikoa izango da, eta, ehun (100) minutuan, berrogeita hamar (50) galderako test bat egin beharko da, gehi erreserbako bost (5) galdera. Galderak II. eranskineko gaitegian jasotzen diren gaiei buruzkoak izango dira, eta aukerako zenbait erantzun izango dituzte, baina bat baino ez da zuzena izango. Erantzun zuzenak puntu bat (1) balioko du, eta ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik, zuriz utzitakoengatik edo erantzun bi markatzeagatik.

4.1. b) Bigarren ariketa:

Ariketa praktikoa izango da, eta, laurogeita hamar (90) minutuan kasu praktiko bat edo batzuk ebatzi beharko dira, zerikusia izango dutenak II. eranskineko gaitegian jasotzen diren gaiekin. Epaimahaiak ariketa hasi aurretxoan zehaztuko ditu kasu praktiko horiek.

4.1.c) Hirugarren ariketa:

Euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailea izango da; betiere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da III. hizkuntza-eskakizunari dagokion mailan.

Bizkaiko Foru Aldundian III. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Halakoetan, parte-hartzaileak baimen espresua emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala ere, aurkeztu egin beharko dituzte azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta egon badauden, baina erregistro horretan sartuta ez dauden gainerako euskara-titulu edo -ziurtagiriak; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Izangaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean egiaztatu nahi badute III. hizkuntza-eskakizuna, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko da.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

4.2. LEHIAKETA

Lehiaketan, izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) dagozkion puntuak emango zaizkio.

## 5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1. Merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketaren kalifikazioa.

5.2. Oposizio-fasea:

a) Lehen ariketari zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa emango zaio.

b) Bigarren ariketari zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa emango zaio.

2021eko abenduaren 28ko 20/21 Legearen 2.4 artikulua aplikatuz, bi ariketa horiek gaindituko dituzte lehenengo ariketaren eta bigarrenaren kalifikazioak batuta hamar (10) lortzen dutenek, baldin eta ariketa bakoitzean gutxienez bi eta erdi (2,5) atera badute.

c) Hirugarren ariketan (euskara), «gai» edo «ez gai» izango da kalifikazioa.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

## 6. Lan-poltsa

Egonkortze-plazen hautaketa-prozesutik ez da lan-poltsarik sortuko.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

I. ERANSKINA

EGONKORTZE-PLAZETARAKO MEREZIMENDUEN BAREMOA

ESPEZIALITATEA: ENPRESAKO MEDIKUA

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan eta azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat:

1.- Esperientzia; gehienez ere 9,1 puntu, honela banatuta:

1.a) Edozein administrazio publikotan ENPRESAKO MEDIKUA kategorian (A taldea, A1 titulazio-azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,0304 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere ehun (100) hilabete. 3,04 puntu

1.b) Aurreko atalean adierazitako esperientziatik bereizirik, modu espezifiko eta osagarrian, Bizkaiko Foru Aldundian ENPRESAKO MEDIKUA kategorian (A taldea, A1 titulazio-azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,0608 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere ehun (100) hilabete 6,08 puntu

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira administrazio publikotzat: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikuluetan jasotako erakundeak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 2.1 eta 2.3 artikuluetan jasoak. Orobat zenbatuko dira zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan egindako zerbitzuak, baina inola ere ez izaera publikoko beste erakunde batzuetan egindakoak, baldin eta enpresa, merkataritza-sozietate, fundazio edo elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa badute.

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbitzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatikirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

Nolanahi ere, zerbitzua lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legearen 20.1.c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientzia baloratzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ere: lehenik, zenbat denbora egon den izangaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen izangaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Administrazio publikoetan, administrazio publikoko eskoletan (IVAP, HAIN, HAEI edo beste administrazio-eskola batzuetan), nortasun juridiko publikoa duten zentroetan eta unibertsitate publiko zein pribatuetan gaitegiarekin harreman zuzena duten prestakuntza-ikastaroetan eta/edo graduondo zein masterreko titulazio akademikoetan emandako nahiz jasotako ordu-kopuruagatik, 0,0225 puntu hartutako ordu bakoitzeko eta 0,03 puntu emandako ordu bakoitzeko; gehienez: 3,4 puntu.

Ingelesa, frantsesa edo alemana jakiteagatik, baina hizkuntza bereko mailak metatzeko aukerarik gabe, eta gehienez ere 0,5 puntu, honela banaturik:

3 a) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-1 maila (ingelesa: Trinity College-n ingeleseko Grade 9 agiria; alemana: Goethe Institutuaren ZAP– Zertifikat Deutsch als Fremdsprache agiria, edo frantsesa: DELF 1er degré maila) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 3. maila edo oinarrizko zikloa edo B1.2.: ....................................................... 0,15 puntu.

3 b) Europako erreferentzia-markoko B-2 maila: Cambridgeko First Certificate of English agiria; edo alemana: ZMP –Zentrale Mittelstufenprüfung Goethe Institutuaren agiria, edo frantsesa: DELF 2éme degré. DL - Diplôme de Langue - Alliance Française) eta Hizkuntza Eskolaren 4. maila edo B2 maila aurreratua: 0,30 puntu

3 c) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C-1 maila (ingelesa: Cambridge Unibertsitateko Certificate in Advanced English edo Certificate of Proficiency in English agiriak edo Trinity Collegeko Passed Grade Twelve edo Oxford Unibertsitateko Higher Level maila; alemana: ZOP – Zentrale Oberstufenprufung edo KDS – Kleines Deutsches Sprachdiplom edo GDS – Grosses Deutsches Sprachdiplom agiriak), edo frantsesa: – DALF edo DSLCF – Diplôme Supérieur Langue et Culture Française – Alliance Française) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 5. maila nahiz EBko edozein hizkuntzaren filologian lizentziatura (goi mailako unibertsitate-titulua): 0,5 puntu

GUZTIRA ..........................................................................................................13 PUNTU

cve: BAO-2022a248-(I-1216)

BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA BAO
248. zk. 2022, abenduak 30. Ostirala 

II. ERANSKINA

EGONKORTZE-PLAZETARAKO GAIAK

ENPRESAKO MEDIKUA

I. zatia

1. gaia. 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa. I. kapitulua: xedea eta aplikazio-esparrua.

2. gaia. 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa. III. kapitulua: eskubideak eta betebeharrak.

3. gaia. 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa. IV. kapitulua: prebentzio-zerbitzuak.

4. gaia. 39/1997 ED, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onesten duena. II. kapitulua: arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-jardueraren plangintza. IV. kapitulua: eginkizunak eta kualifikazio-mailak. VII. kapitulua: prebentzio-zerbitzuen eta Estatuko Osasun Sistemaren arteko lankidetza.

5. gaia. 843/2011 ED, ekainaren 17koa, prebentzio-zerbitzuen osasun-jarduna garatzeko baliabideen antolaketari buruzko oinarrizko irizpideak ezartzen dituena: xedea eta aplikazio-eremua. Osasun-baimena. Prebentzio-zerbitzuen osasun-jarduerak. Giza baliabideak. Baliabide materialak: prebentzio-zerbitzu propioek jarduerak azpikontratatzea.

6. gaia. 306/1999 Dekretua, uztailaren 27koa, aurrezaintzako zerbitzuek Euskal Autonomia Erkidegoan burutzen dituzten jarduera sanitarioak arautzen dituena.

7. gaia. Lan-segurtasunaren eta -osasunaren arloko nazioarteko zein nazioko erakundeen eginkizuna: Lanaren Nazioarteko Erakundea. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentzia. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionala. Osalan.

8. gaia. 8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena. Aldi baterako ezintasunaren eta birgaixotzearen kontzeptuak. Ezintasun iraunkor kontributiboaren kontzeptua eta graduak. Ezintasun iraunkorraren kalifikazioa.

9. gaia. 1299/2006 Errege Dekretua, azaroaren 10ekoa, Gizarte Segurantzaren sistemako gaixotasun profesionalen koadroa onartu eta haien jakinarazpen eta erregistroa egiteko irizpideak ezartzen dituena, eta haren geroko eguneratzeak.

10. gaia. 374/2001 Errege Dekretua, apirilaren 6koa, langileek lanean agente kimikoen eragina dela-eta izan ditzaketen arriskuetatik babesteari buruzkoa. Xedea eta aplikazio-eremua. Definizioak. Arriskuen ebaluazioa. Osasunaren zaintza. Istripu, gorabehera eta

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

larrialdietan hartu beharreko neurriak. Langileentzako informazioa eta prestakuntza.

11. gaia. 664/1997 Errege Dekretua, maiatzaren 12koa, langileak lanean agente biologikoekiko esposizioari lotutako arriskuetatik babestekoa.

II. zatia

12. gaia. Laneko segurtasuna: definizioa eta arrisku-faktore nagusiak.

13. gaia. Lan-istripuak: kontzeptua. Lan-istripuak ikertzeko metodoak. Arrazoiak zehaztea eta sailkatzea. Prebentzio-neurriak.

14. gaia. Higiene industriala. Higiene industrialaren definizioa, historia eta praktika.

15. gaia. Laneko ergonomia: definizioa eta arrisku-faktore nagusiak. Espezializazio-eremuak. Ingurune-faktoreak (argiztapena, zarata eta bibrazioak, barne-giroaren eta giro termikoaren kalitatea).

16. gaia. Psikosoziologia: arrisku psikosozialen faktorearen definizioa. Arrisku psikosozialen faktore nagusiak.

17. gaia. Txandaka lan egitea eta gauez lan egitea. Antolakuntzako alderdiak. Eragin mediko-patologikoak.

18. gaia. Estresa: fisiologia. Estresaren prebentzioa. Banakakoengan esku-hartzea.

19. gaia. Laneko jazarpena. Kontzeptuaren mugaketa. Detektatzeko metodoak eta diagnostikoa. Esku hartzeko estrategiak.

III. zatia

20. gaia. Osasunaren zaintza laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudian. Lanposturako gaitasuna.

21. gaia. Laneko historia klinikoa. Kontzeptua. Izan behar dituen atalak. Laneko historia klinikoa egungo araudiaren arabera.

22. gaia. Laneko zaintza epidemiologikoa: sarrera. Laneko zaintza epidemiologikoaren kontzeptua. Laneko zaintza epidemiologikoaren helburuak. Zaintza epidemiologiko motak. Zaintza epidemiologikoko sistemen ezaugarriak.

23. gaia. Prebentzio-zerbitzuen eta Estatuko Osasun Sistemaren arteko lankidetza. Nahitaez aitortu beharreko gaixotasunak.

24. gaia. Lanbide-arriskuen eraginpean dauden langileen prestakuntza eta informazioa.

25. gaia. Zenbait arriskuren aurrean bereziki sentiberak diren langileak babestea. Osasunaren zaintza. Lanpostua langileei egokitzea.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

26. gaia. Haurdun dagoen, haurra izan berri duen edo bularra ematen ari den langilearen laneko arriskuen prebentzioa.

27. gaia. Osasun-zainketarako protokolo espezifikoa, kargak eskuz manipulatzea: aplikaziorako irizpideak. Arazoaren definizioa. Arriskuaren ebaluazioa. Protokolo mediko espezifikoa.

28. gaia. Osasun-zainketarako protokolo espezifikoa, datuak bistaratzeko pantailak: aplikaziorako irizpideak. Arazoaren definizioa. Lanpostuaren kontzepzio ergonomikoa. Protokolo mediko espezifikoa.

29. gaia. Osasun-zainketarako protokolo espezifikoa, erradiazio ionizatzaileak: aplikaziorako irizpideak. Arazoaren definizioa. Arriskuaren ebaluazioa. Osasun-zainketarako protokolo espezifikoa.

30. gaia. Osasun-zainketarako protokolo espezifikoa, agente biologikoak: aplikaziorako irizpideak. Arazoaren definizioa. Osasun-protokoloa.

31. gaia. Osasun-zainketarako protokolo espezifikoa, zarata: aplikaziorako irizpideak. Arazoaren definizioa. Arriskuaren ebaluazioa. Osasun-protokoloa.

32. gaia. Osasun-zainketarako protokolo espezifikoa, goiko gorputz-adarraren mugimendu errepikakorrak: aplikaziorako irizpideak. Arazoaren definizioa. Arriskuaren ebaluazioa. Osasun-protokoloa.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

HAUTAKETA-PROZESURAKO DEIALDIA, KARRERAKO FUNTZIONARIO SARTZEKO ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAN. PSIKOLOGOA: EGONKORTZE-PLAZAK ETA ARRUNTAK

LEHENENGOA: EGONKORTZE-PLAZAK

1.Deialdian eskainitako plazak

Deialdia egiten da PSIKOLOGO plaza bat (1) betetzeko (A taldea, A1 titulazio-azpitaldea) txanda irekitik derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna duena, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan ezarritakoaren babesean.

2. Titulazioa

Psikologiako Gradua edo Lizentziatura.

3. Baldintza espezifikoak

Urriaren 30eko 5/2015 ELDaren 56.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, baldintza espezifikoa izango da IT txartel hauek edukitzea: Word oinarrizkoa eta Excel oinarrizkoa (baliodunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010). Word aurreratuaren eta Excel aurreratuaren IT txartelek Word oinarrizkoaren txartela eta Excel oinarrizkoarena baliozkotuko dituzte, hurrenez hurren.

Ziurtagiria eskuratzeko proba egin ahal izateko, egiaztatutako zentro batean eman beharko da izena. Zentroen zerrenda osoa helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke: www.it-txartela.net.

Izen-ematea www.it-txartela.net helbidean egin daiteke. Informazioa eskura daiteke aipatutako helbide elektronikoan eta bide hauetakoren bat erabilita:

a) Aurrez aurre, egiaztatutako edozein zentrotara joanda.

b) Telefonoz, 902 25 25 95 zenbakira deituta.

Baldintza espezifiko hau betetzeko, aipatutako txartelak ez dituztenei bi (2) hilabeteko epea ematen zaie, deialdi hau BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Izangaiek ez dute agiririk aurkeztu beharko, Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten.

Txartelok epe horretan eskuratzen ez dituen izangaia hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko da.

4. Hautaketa-prozedura

4.1. OPOSIZIO-FASEA

Oposizio-faseak hiru (3) ariketa izango ditu, guztiak nahitaezkoak eta baztertzaileak.

4.1.a) Lehenengo ariketa:

Ariketa teorikoa izango da, eta, ehun (100) minutuan, berrogeita hamar (50) galderako test bat egin beharko da, gehi erreserbako bost (5) galdera. Galderak II. eranskineko gaiei buruzkoak izango dira, eta aukerako zenbait erantzun izango dituzte, baina bat baino ez da zuzena izango. Erantzun zuzenak puntu bat (1) balioko du, eta ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik, zuriz utzitakoengatik edo erantzun bi markatzeagatik.

4.1.b) Bigarren ariketa:

Ariketa praktikoa izango da, eta, laurogeita hamar (90) minutuko epean, kasu praktiko bat edo batzuk ebatzi beharko dira, zerikusia izango dutenak II. eranskinean aipatzen den gaitegiarekin. Epaimahaiak ariketa hasi aurretxoan aurkezturiko batzuen artetik aukeratuko da zer kasu egin behar den.

4.1.c) Hirugarren ariketa:

Euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailea izango da; betiere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da III. hizkuntza-eskakizunari dagokion mailan.

Bizkaiko Foru Aldundian III. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Halakoetan, parte-hartzaileak baimen espresua emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala ere, aurkeztu egin beharko dituzte azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta egon badauden baina erregistro horretan sartuta ez dauden gainerako euskara-titulu edo -ziurtagiriak; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Izangaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean egiaztatu nahi badute III. hizkuntza-eskakizuna, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko da.

4.2 LEHIAKETA

Lehiaketan, izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) dagozkion puntuak emango zaizkio.

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa.

5.1. Merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketaren kalifikazioa.

5.2. Oposizio-fasea:

a) Lehen ariketari zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa emango zaio.

b) Bigarren ariketari zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa emango zaio.

2021eko abenduaren 28ko 20/21 Legearen 2.4 artikulua aplikatuz, bi ariketa horiek gaindituko dituzte lehenengo ariketaren eta bigarrenaren kalifikazioak batuta hamar (10) lortzen dutenek, baldin eta ariketa bakoitzean gutxienez bi eta erdi (2,5) atera badute.

c) Hirugarren ariketan (euskara), «gai» edo «ez gai» izango da kalifikazioa.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

6. Lan-poltsa

Egonkortze-plazen hautaketa-prozesutik ez da lan-poltsarik sortuko.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

I. ERANSKINA

EGONKORTZE-PLAZETARAKO MEREZIMENDUEN BAREMOA

ESPEZIALITATEA: PSIKOLOGIA

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan eta azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat:

1.-Esperientzia; gehienez ere 9,1 puntu, honela banatuta:

1.a) Edozein administrazio publikotan PSIKOLOGO kategorian (A taldea, A1 titulazio-azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,0304 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere ehun (100) hilabete. 3,04 puntu

1.b) Aurreko atalean adierazitako esperientziatik bereizirik, modu espezifiko eta osagarrian, Bizkaiko Foru Aldundian PSIKOLOGO kategorian (A taldea, A1 titulazio-azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,0608 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere ehun (100) hilabete. 6,08 puntu

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira administrazio publikotzat: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikuluetan jasotako erakundeak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 2.1 eta 2.3 artikuluetan jasoak. Orobat zenbatuko dira zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan egindako zerbitzuak, baina inola ere ez izaera publikoko beste erakunde batzuetan egindakoak, baldin eta enpresa, merkataritza-sozietate, fundazio edo elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa badute.

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbitzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatikirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

Nolanahi ere, zerbitzua lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legearen 20.1.c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientzia baloratzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ere: lehenik, zenbat denbora egon den izangaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen izangaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

2.-Administrazio publikoetan, administrazio publikoko eskoletan (IVAP, HAIN, HAEI edo beste administrazio-eskola batzuetan), nortasun juridiko publikoa duten zentroetan eta unibertsitate publiko zein pribatuetan prestakuntza-ikastaroetan eta/edo graduondo zein masterreko titulazio akademikoetan emandako nahiz jasotako ordu-kopuruagatik, 0,0225 puntu hartutako ordu bakoitzeko eta 0,03 puntu emandako ordu bakoitzeko; gehienez: 3,4 puntu.

3) Ingelesa, frantsesa edo alemana jakiteagatik, baina hizkuntza bereko mailak metatzeko aukerarik gabe, eta gehienez ere 0,5 puntu, honela banaturik:

3 a) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-1 maila (ingelesa: Trinity College-n ingeleseko Grade 9 agiria; alemana: Goethe Institutuaren ZAP– Zertifikat Deutsch als Fremdsprache agiria, edo frantsesa: DELF 1er degré maila) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 3. maila edo oinarrizko zikloa edo B1.2 maila ertaina: ……………………………………………… 0,15 puntu.

3 b) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-2 maila (ingelesa: Cambridgeko First Certificate of English agiria; alemana: Goethe Institutuaren ZMP -Zentrale Mittelstufenprüfung agiria, edo frantsesa: DELF 2ème degré. DL - Diplôme de Langue - Alliance Française) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 4. maila edo B2 maila aurreratua: 0,30 puntu

3 c) Europako erreferentzia-markoko C-1 maila: Cambridgeko Certificate in Advanced English agiria edo Cambridgeko Unibertsitateko Certificate of Proficiency in English agiria edo Trinity Collegeko Passed Grade Twelve agiria edo Oxfordeko Unibertsitateko Higher Level agiria; edo alemana: ZOP – Zentrale Oberstufenprufung edo KDS – Kleines Deutsches Sprachdiplom edo GDS – Grosses Deutsches Sprachdiplom agiria; edo frantsesa: - Alliance Françaiseren DALF edo – DSLCF – Diplôme Supérieur Langue agiria) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 5. maila edo Europar Batasuneko edozein hizkuntzatako Filologiako lizentziatura (goi-mailako unibertsitate-agiria): 0,5 puntu

GUZTIRA ........................................................................................................................ 13 PUNTU

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA BAO



II. ERANSKINA

EGONKORTZE-PLAZETARAKO GAIAK

PSIKOLOGIA

I. ZATIA

1. gaia: Psikologia ebolutiboa: haurraren garapena 0 eta 3 urte bitartean. Garapen fisikoa eta motorra, garapen kognitiboa eta hizkuntzaren garapena eta garapen psikosoziala.

2. gaia: Ebaluazio psikologikoa: psikodiagnostikoa egiteko tresna nagusiak: elkarrizketa, behaketa eta txostena.

3. gaia: Neurogarapenaren nahasmenduak: adimen-desgaitasuna. Komunikazioaren nahasmenduak. DSM-5aren araberako diagnostiko-irizpideak eta esku hartzeko orientabideak.

4. gaia: Eskizofrenia eta beste arazo psikotiko batzuk. DSM-5aren araberako diagnostiko-irizpideak eta esku hartzeko orientabideak.

5. gaia: Nahasmendu bipolarra eta horrekin lotutako nahasmenduak. Depresio-nahasmenduak. DSM-5aren araberako diagnostiko-irizpideak eta esku hartzeko orientabideak.

6. gaia: Traumei eta estres-eragileei loturiko nahasmenduak. Disoziaziozko nahasmenduak. Sintoma somatikodun nahasmenduak eta lotutako beste batzuk. DSM-5aren araberako diagnostiko-irizpideak eta esku hartzeko orientabideak.

7. gaia: Nortasunaren nahasmenduak. DSM-5aren araberako diagnostiko-irizpideak eta esku hartzeko orientabideak.

8. gaia: Atxikimenduaren teoria eta lotura afektiboak lehen haurtzaroan. Harreman goiztiarrak eta atxikimendu-estiloak.

9. gaia: Atxikimenduaren teoria eta lotura afektiboak lehen haurtzaroan: trauma goiztiarra eta atxikimenduaren desantolaketa. Harreman goiztiarrak konpontzea. Loturan oinarritutako esku-hartzea.

II. ZATIA

10. gaia: Administrazio-jardunaren printzipio gidariak. Adingabearen interes gorena. (1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabeen Babes Juridikoari, Kode Zibilaren aldaketa partzialari eta Prozedura Zibilaren Legeari buruzkoa; 8/2021 Lege

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Organikoa, ekainaren 4koa, Indarkeriaren aurrean umeei eta nerabeei babes integrala emateari buruzkoa).

11. gaia: Esparru juridikoa eta eskumenen banaketa. Jarduketak arrisku- eta babesgabetasun-egoeretan. Guraso-ahala. Tutoretza. Zaintza: behin-behineko zaintza, borondatezko zaintza, zaintza judiziala eta egitatezko zaintza.

12. gaia: Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaleko nahiz lurraldeko gizarte-zerbitzuetan, arrisku- eta babesgabetasun-egoeren larritasuna baloratzeko tresna (BALORA): Arrisku- eta babesgabetasun-egoeren larritasuna baloratzeko irizpide orokorrak eta prozedura. Babesgabetasun-egoera motak eta arrisku larria edo babesik eza dakarten beste egoera espezifiko batzuk. Beste inguruabar batzuk baloratzeko irizpide teknikoak.

13. gaia: Haurrenganako tratu onak eta txarrak. Gurasotasun motak. Tratu txarren ondoriozko haur-sufrimenduaren adierazpenak.

14. gaia: Bizkaiko Foru Aldundiaren *Babesik gabeko haurrekin esku hartzeko eskuliburua*. Esku-hartzearen prozesu teknikoa: harrera eta ikerketa eta hasierako ebaluazioa.

15. gaia: Bizkaiko Foru Aldundiaren *Babesik gabeko haurrekin esku hartzeko eskuliburua*. Esku-hartzearen prozesu teknikoa; erabakiak hartzea eta babes-plan indibiduala eta abian jartzea. Espedientea ixtea.

16. gaia: Egoitzako harrera. Definizioa. Eginkizunak. Programa-motak Baliabide-motak.

17. gaia: Familia-harrera: definizioa, eginkizunak, tipologia. Egokitzapena: baloraziorako baldintzak eta irizpide orokorrak.

18. gaia: Herri administrazioaren tutoretzapeko adingabeen adopzioa. Familiak prestatzea eta egokitasunaren ebaluazioa. Adingabea familiara moldatzea eta egokitzea.

III. ZATIA

19. gaia: Guraso eta seme-alaben arteko indarkeria: ezaugarri psikologikoak, haurraren garapenean duen eragina, esku-hartzeko programak eta arazoari psikologiaren ikuspegitik heltzea. Azpian dagoen genero-ikuspegia.

20. gaia: Indarkeria matxista bikotearen eremuan: definizioa; indarkeriaren prozesua; egoera bereziki ahulean dauden emakumeak.

21. gaia: Bikotearen esparruan indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen seme-alaben aurkako indarkeriaren ondorioak. Esku hartzea eta jardutea sortutako arrastoak sendatzeko .

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

22. gaia: 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, gizarte zerbitzuen euskal sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa. I. eranskina. Zerbitzuei eta prestazio ekonomikoei buruzko fitxak: Foru-aldundiaren eskumeneko zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak - 2.4.6 Etxean tratu txarren biktima izan diren emakumeentzako egoitza-zentroak eta emakumeentzako beste egoitza-zerbitzu batzuk; -2.7.3.1 Familiekin gizarte- eta hezkuntza-arloan eta/edo arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuak; - 2.7.5 Tratu txarren eta sexu-erasoen biktima izan diren emakumeei, adingabeei, adinekoei eta desgaitasuna duten pertsonei laguntza psikosoziala eta soziojuridikoa emateko zerbitzuak.

23. gaia: 1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoa: VII. kapitulua: emakumeen kontrako indarkeria matxista.

24. gaia: 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero indarkeriaren aurkako erabateko babeserako neurriei buruzkoa (Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen 2015eko uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoak eta Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoak aldatua). Legearen xedea. Printzipio gidariak. Biktimen eskubideak.

IV. ZATIA

25. gaia. 13/2016 Dekretua, otsailaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzkoa. Zioen azalpena; esku-hartzea jasotzeko baldintzak; Arreta Pertsonalizatuaren Plana.

26. gaia: 888/2022 Errege Dekretua, urriaren 18koa, desgaitasun-gradua aitortu, adierazi eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoa: I. eranskina: arau orokorrak.

27. gaia: 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa: xedapen orokorrak. Sistemaren konfigurazioa. Sistemaren prestazioak eta laguntzeko zerbitzuen katalogoa. Mendetasuna eta haren balorazioa. Eskubidea aitortzea.

28. gaia: MBB, Mendekotasuna Baloratzeko Baremoa. 174/2011 Errege Dekretua, otsailaren 11koa; haren bidez onartzen da autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak mendekotasun egoera baloratzeko ezartzen duen baremoa.

29. gaia: BBE, hiru urtetik beherakoentzako Mendekotasuna Baloratzeko Berariazko Eskala. (39/2006 Legea, abenduaren 14koa, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa).

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

30. gaia: Bizkaiko Foru Aldundiaren 153/2016 Foru Dekretua, urriaren 11koa, mendekotasunaren ebaluaziorako eta orientaziorako prozedura arautzen duena. 4-11 artikuluak (eskubidearen titularrak, prozedura hastea, instrukzioa, ebazpena, administrazio-isiltasuna, eskubidea gauzatzea, presazko prozedura).

31. gaia: Desgaitasuna duten pertsonentzako foru zerbitzuen gida: egonaldi iraunkorra; aldi baterako egonaldia; eguneko arretarako zentroak: okupazio-zentroa eta eguneko zentroa. Gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-zentroak.

32. gaia. Mendetasun-egoeran dauden pertsonentzako foru zerbitzuen gida: egonaldi iraunkorra; aldi baterako egonaldia; eguneko zentroa. Egoitzen foru-sareko egoitza-unitate soziosanitarioak. Autonomia pertsonala sustatzeko zentroen zerbitzua (profil jakin batzuetarako).

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

BIGARRENA: PLAZA ARRUNTAK

1.Deialdian eskainitako plazak

Deialdia egiten da PSIKOLOGOen bederatzi (9) plaza betetzeko (A taldea, A1 titulazio-azpitaldea), derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna dutenak, honela banaturik:

-Barne-sustapeneko txanda: plaza bat (1), derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizunarekin.

-Txanda irekia: zortzi (8) plaza, derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizunarekin.

2. Titulazioa

Psikologiako Gradua edo Lizentziatura.

Barne-sustapeneko txandan parte hartzen dutenek honako baldintza hauek bete behar dituzte: zerbitzu aktiboan edo zerbitzu berezietan egon behar dute beren jatorrizko kidegoan edo eskalan; bi urteko zerbitzua beteta izan behar dute karrerako funtzionario gisa kidego-eskala horietan; dagokion titulazioa eduki behar dute eta A2 azpitaldeko nahiz talde bereko plaza batekoak izan.

3. Baldintza espezifikoak

3.1 : Lanpostu batzuek baldintza hau dute:

.-Sexu Delitugileen Erregistro Zentralak emandako ziurtagiri negatiboa

3.2 Urriaren 30eko 5/2015 ELDaren 56.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, baldintza espezifikoa izango da IT txartel hauek edukitzea: Word oinarrizkoa eta Excel oinarrizkoa (baliodunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010). Word aurreratuaren eta Excel aurreratuaren IT txartelek Word oinarrizkoaren txartela eta Excel oinarrizkoarena baliozkotuko dituzte, hurrenez hurren.

Ziurtagiria eskuratzeko proba egin ahal izateko, egiaztatutako zentro batean eman beharko da izena. Zentroen zerrenda osoa helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke: www.it-txartela.net.

Izen-ematea www.it-txartela.net helbidean egin daiteke. Informazioa eskura daiteke aipatutako helbide elektronikoan eta bide hauetakoren bat erabilita:

a) Aurrez aurre, egiaztatutako edozein zentrotara joanda.

b) Telefonoz, 902 25 25 95 zenbakira deituta.

Baldintza espezifiko hau betetzeko, aipatutako txartelak ez dituztenei bi (2) hilabeteko epea ematen zaie, deialdi hau BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Izangaiek ez dute agiririk aurkeztu beharko, Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten.

Txartelok epe horretan eskuratzen ez dituen izangaia hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko da, baita osatuko den lan-poltsatik ere.

4.Hautaketa-prozedura

4.1 OPOSIZIO-FASEA

Oposizio-faseak hiru (3) ariketa izango ditu, guztiak nahitaezkoak eta baztertzaileak.

4.1.a) Lehenengo ariketa:

Ariketa teorikoa izango da, eta, hiru (3) orduan, laurogeita hamar (90) galderako test bat egin beharko da, gehi erreserbako hamar (10) galdera. Galderak IV. eranskineko gaiei buruzkoak izango dira, eta aukerako zenbait erantzun izango dituzte, baina bat baino ez da zuzena izango. Erantzun zuzenak puntu bat (1) balioko du, eta erantzun oker bakoitzeko 0,33 puntu kenduko dira. Ez da punturik kenduko zuriz utzitako erantzunengatik edo bi marka dituztenengatik.

Lehenago eskatu zitzaizkien ezagutzak berriro egiaztatu behar ez izateko, barne-sustapeneko txandatik datozen izangaiak salbuetsita egongo dira IV. eranskinean jasotzen den gaien zerrendako V. zatiari dagokion probaren zatia egitetik, eta, ondorioz, proportzionalki dagokien denbora eta galdera-kopurua izango dute, gehi erreserbako galderak. Erantzun zuzenak puntu bat (1) balioko du, eta erantzun oker bakoitzeko 0,33 puntu kenduko dira. Ez da punturik kenduko zuriz utzitako erantzunengatik edo bi marka dituztenengatik.

4.1. b) Bigarren ariketa:

Ariketa praktikoa izango da, eta, lau (4) orduan, kasu praktiko bat edo batzuk ebatzi beharko dira. Kasuak IV. eranskineko gaiei buruzkoak izango dira, eta Epaimahaiak ariketa hasi aurretxoan aurkezturiko batzuen artetik aukeratuko da zer kasu egin behar den.

4.1.c) Hirugarren ariketa:

Euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailea izango da; betiere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da III. hizkuntza-eskakizunari dagokion mailan.

Bizkaiko Foru Aldundian III. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Halakoetan, parte-hartzaileak baimen espresua emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Hala ere, aurkeztu egin beharko dituzte azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta egon badauden baina erregistro horretan sartuta ez dauden gainerako euskara-titulu edo -ziurtagiriak; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Izangaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean egiaztatu nahi badute III. hizkuntza-eskakizuna, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko da.

4.2 LEHIAKETA

Lehiaketan, izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera dagozkion puntuak emango zaizkio (III. eranskina).

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1 Merezimenduen baremoaren arabera (III. eranskina) emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketaren kalifikazioa.

5.2. Oposizio-fasea:

a) Lehenengo ariketari zerotik (0) hamar (10) puntura bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta bost (5) puntu lortzen ez dituzten izangaiak baztertuta geratuko dira. Hala ere, gainditutako pertsonen kopurua ez bada iristen 18ra, puntuaziorik handiena lortu duten 18 pertsonak hurrengo ariketara igaroko dira (haien puntuazioa 2,5 puntutik gorakoa bada); horretarako, parte hartzeko txanda guztiak hartuko dira kontuan. Noten mozketa-puntuan berdinketa gertatuz gero, mozketa-notaren pareko nota duten izangai guztiek gaindituko dute ariketa hau.

Izangaiek deialdi honen ostean deitzen den hurrengo deialdirako gorde ahal izango dute ariketa honetako kalifikazioa, baldin eta deialdi horretan hala ezartzen bada; horretarako, betiere, txanda berean parte hartu behar dute.

Izangairen batek lehen ere parte hartu bazuen Bizkaiko Ahaldun Nagusiaren 2018ko otsailaren 13ko 23/2018 Foru Dekretuaren bidez egin zen deialdian, (2018ko 37. BAO, otsailaren 21ekoa), aukera hori baliatzeko modua izango dute, baldin eta idatziz adierazten badute hori eskabide-orrian eta txanda berean parte hartzen badute.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Eskubide hori baliatzeko, hautaprobetan parte hartzeko eskabidea aurkeztu beharko dute eta dagokion tasa ordaindu. Aukera hori baliatu duen izangaiak deialdi honetako azterketa egiten badu, bi prozesuetan lortutako kalifikazioetatik altuena emango zaio zuzenean. Eskubide hori baliatu eta azterketa ez egiteko aukera behin bakarrik erabili ahal izango da, eta eskubidea baliatu ondoren egiten den hurrengo deialdian azterketa osoa egin beharko da.

b) Bigarren ariketari zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa emango zaio. Deialditik kanpo geldituko dira bost (5) puntu lortzen ez dituzten izangaiak.

c) Hirugarren ariketan, «gai» edo «ez gai» izango da kalifikazioa.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

6. Lan-poltsa

Hautaketa-prozesu honetatik, lan-poltsa sortuko da lehenengo ariketa (teorikoa) gainditzen dutenekin, bosgarren oinarrian xedatutakoaren arabera.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

III. ERANSKINA

PLAZA ARRUNTETARAKO MEREZIMENDUEN BAREMOA

ESPEZIALITATEA: PSIKOLOGIA

1. Edozein administrazio publikotan PSIKOLOGO kategorian (A taldea, A1 titulazio-azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,05 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere hirurogei hilabete (60 hilabete) 3 puntu

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira administrazio publikotzat: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikuluetan jasotako erakundeak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 2.1 eta 2.3 artikuluetan jasoak. Orobat zenbatuko dira zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan egindako zerbitzuak, baina inola ere ez izaera publikoko beste erakunde batzuetan egindakoak, baldin eta enpresa, merkataritza-sozietate, fundazio edo elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa badute.

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbitzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatikirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

Nolanahi ere, zerbitzua lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legearen 20.1.c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientzia baloratzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ere: lehenik, zenbat denbora egon den izangaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen izangaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

2. Administrazio publikoetan, administrazio publikoko eskoletan (IVAP, HAIN, HAEI edo beste administrazio-eskola batzuetan), nortasun juridiko publikoa duten zentroetan eta unibertsitate publiko zein pribatuetan gaitegiarekin harreman zuzena duten prestakuntza-ikastaroetan eta/edo graduondo zein masterreko titulazio akademikoetan emandako nahiz jasotako ordu-kopuruagatik, 0,0075 puntu hartutako ordu bakoitzeko eta 0,1 puntu emandako ordu bakoitzeko; gehienez: 1,5 puntu.

3. Europar Batasuneko hizkuntza bat edo bi jakiteagatik, baina hizkuntza beraren maila ezberdinak metatzeko aukerarik gabe. Gehienez 0,5 puntu lor daiteke, banaketa honen arabera:

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

3 a) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-1 maila (besteak beste, ingelesa: Trinity College-n ingeleseko Grade 9 agiria; alemana: Goethe Institutuaren ZAP–Zertifikat Deutsch als Fremdsprache agiria, edo frantsesa: DELF 1er degré maila) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 3. maila edo oinarrizko zikloa edo B1.2 maila ertaina: ...................................................... 0,15 puntu.

3 b) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-2 maila (besteak beste, ingelesa: Cambridgeko First Certificate of English agiria; alemana: Goethe Institutuaren ZMP -Zentrale Mittelstufenprüfung agiria, edo frantsesa: DELF 2ème degré. DL - Diplôme de Langue - Alliance Française) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 4. maila edo B2 maila aurreratua: ................. 0,30 puntu

3 c) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C-1 maila (besteak beste, ingelesa: Cambridge Unibertsitateko Certificate in Advanced English edo Certificate of Proficiency in English agiriak edo Trinity Collegeko Passed Grade Twelve edo Oxford Unibertsitateko Higher Level maila; alemana: ZOP – Zentrale Oberstufenprufung edo KDS – Kleines Deutsches Sprachdiplom edo GDS – Grosses Deutsches Sprachdiplom agiriak), edo frantsesa: – DALF edo DSLCF – Diplôme Supérieur Langue et Culture Française – Alliance Française) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 5. maila nahiz EBko edozein hizkuntzaren filologian lizentziatura (goi mailako unibertsitate-titulua): 0,5 puntu.

GUZTIRA ........................................................................................................................5 PUNTU

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

IV. ERANSKINA

PLAZA ARRUNTETARAKO GAIAK

PSIKOLOGIA

I. ZATIA

Psikologia: zati orokorra

1. gaia: Psikologia ebolutiboa: haurraren garapena 0 eta 3 urte bitartean. Garapen fisikoa eta motorra, garapen kognitiboa eta hizkuntzaren garapena eta garapen psikosoziala.

2. gaia: Ebaluazio psikologikoa: psikodiagnostikoa egiteko tresna nagusiak: elkarrizketa, behaketa eta txostena.

3. gaia: Neurogarapenaren nahasmenduak: adimen-desgaitasuna. Komunikazioaren nahasmenduak. DSM-5aren araberako diagnostiko-irizpideak eta esku hartzeko orientabideak.

4. gaia: Eskizofrenia eta beste arazo psikotiko batzuk. DSM-5aren araberako diagnostiko-irizpideak eta esku hartzeko orientabideak.

5. gaia: Nahasmendu bipolarra eta horrekin lotutako nahasmenduak. Depresio-nahasmenduak. DSM-5aren araberako diagnostiko-irizpideak eta esku hartzeko orientabideak.

6. gaia: Traumei eta estres-eragileei loturiko nahasmenduak. Disoziaziozko nahasmenduak. Sintoma somatikodun nahasmenduak eta lotutako beste batzuk. DSM-5aren araberako diagnostiko-irizpideak eta esku hartzeko orientabideak.

7. gaia: Nortasunaren nahasmenduak. DSM-5aren araberako diagnostiko-irizpideak eta esku hartzeko orientabideak.

8. gaia: Atxikimenduaren teoria eta lotura afektiboak lehen haurtzaroan. Harreman goiztiarrak eta atxikimendu-estiloak.

9. gaia: Atxikimenduaren teoria eta lotura afektiboak lehen haurtzaroan: trauma goiztiarra eta atxikimenduaren desantolaketa. Harreman goiztiarrak konpontzea. Loturan oinarritutako esku-hartzea.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

II. ZATIA

Adingabeen babesa eta familian esku hartzea.

10. gaia: Administrazio-jardunaren printzipio gidariak. Adingabearen interes gorena. (1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabeen Babes Juridikoari, Kode Zibilaren aldaketa partzialari eta Prozedura Zibilaren Legeari buruzkoa; 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Indarkeriaren aurrean umeei eta nerabeei babes integrala emateari buruzkoa).

11. gaia: Esparru juridikoa eta eskumenen banaketa. Jarduketak arrisku- eta babesgabetasun-egoeretan. Guraso-ahala. Tutoretza. Zaintza: behin-behineko zaintza, borondatezko zaintza, zaintza judiziala eta egitatezko zaintza.

12. gaia: Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaleko nahiz lurraldeko gizarte-zerbitzuetan, arrisku- eta babesgabetasun-egoeren larritasuna baloratzeko tresna (BALORA): Arrisku- eta babesgabetasun-egoeren larritasuna baloratzeko irizpide orokorrak eta prozedura. Babesgabetasun-egoera motak eta arrisku larria edo babesik eza dakarten beste egoera espezifiko batzuk. Beste inguruabar batzuk baloratzeko irizpide teknikoak.

13. gaia: Haurrenganako tratu onak eta txarrak. Gurasotasun motak. Tratu txarren ondoriozko haur-sufrimenduaren adierazpenak.

14. gaia: Bizkaiko Foru Aldundiaren *Babesik gabeko haurrekin esku hartzeko eskuliburua*. Esku-hartzearen prozesu teknikoa: harrera eta ikerketa eta hasierako ebaluazioa.

15. gaia: Bizkaiko Foru Aldundiaren *Babesik gabeko haurrekin esku hartzeko eskuliburua*. Esku-hartzearen prozesu teknikoa; erabakiak hartzea eta babes-plan indibiduala eta abian jartzea. Espedientea ixtea.

16. gaia: Egoitzako harrera. Definizioa. Eginkizunak. Programa-motak Baliabide-motak.

17. gaia: Familia-harrera: definizioa, eginkizunak, tipologia. Egokitzapena: baloraziorako baldintzak eta irizpide orokorrak.

18. gaia: Herri administrazioaren tutoretzapeko adingabeen adopzioa. Familiak prestatzea eta egokitasunaren ebaluazioa. Adingabea familiara moldatzea eta egokitzea.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

III. ZATIA

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimak babestea.

19. gaia: Guraso eta seme-alaben arteko indarkeria: ezaugarri psikologikoak, haurraren garapenean duen eragina, esku-hartzeko programak eta arazoari psikologiaren ikuspegitik heltzea. Azpian dagoen genero-ikuspegia.

20. gaia: Indarkeria matxista bikotearen eremuan: definizioa; indarkeriaren prozesua; egoera bereziki ahulean dauden emakumeak.

21. gaia: Bikotearen esparruan indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen seme-alaben aurkako indarkeriaren ondorioak. Esku hartzea eta jardutea sortutako arrastoak sendatzeko .

22. gaia: 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, gizarte zerbitzuen euskal sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa. I. eranskina. Zerbitzuei eta prestazio ekonomikoei buruzko fitxak: Foru-aldundiaren eskumeneko zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak - 2.4.6 Etxean tratu txarren biktima izan diren emakumeentzako egoitza-zentroak eta emakumeentzako beste egoitza-zerbitzu batzuk; -2.7.3.1 Familiekin gizarte- eta hezkuntza-arloan eta/edo arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuak; - 2.7.5 Tratu txarren eta sexu-erasoen biktima izan diren emakumeei, adingabeei, adinekoei eta desgaitasuna duten pertsonei laguntza psikosoziala eta soziojuridikoa emateko zerbitzuak.

23. gaia: 1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoa: VII. kapitulua: emakumeen kontrako indarkeria matxista.

24. gaia: 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero indarkeriaren aurkako erabateko babeserako neurriei buruzkoa (Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen 2015eko uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoak eta Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoak aldatua). Legearen xedea. Printzipio gidariak. Biktimen eskubideak.

IV. ZATIA

Mendekotasuna eta desgaitasuna

25. gaia. 13/2016 Dekretua, otsailaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzkoa. Zioen azalpena; esku-hartzea jasotzeko baldintzak; Arreta Pertsonalizatuaren Plana.

26. gaia: 888/2022 Errege Dekretua, urriaren 18koa, desgaitasun-gradua aitortu, adierazi eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoa: I. eranskina: arau orokorrak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

27. gaia: 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa: xedapen orokorrak. Sistemaren konfigurazioa. Sistemaren prestazioak eta laguntzeko zerbitzuen katalogoa. Mendetasuna eta haren balorazioa. Eskubidea aitortzea.

28. gaia: MBB, Mendekotasuna Baloratzeko Baremoa. 174/2011 Errege Dekretua, otsailaren 11koa; haren bidez onartzen da autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak mendekotasun egoera baloratzeko ezartzen duen baremoa.

29. gaia: BBE, hiru urtetik beherakoentzako Mendekotasuna Baloratzeko Berariazko Eskala. (39/2006 Legea, abenduaren 14koa, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa).

30. gaia: Bizkaiko Foru Aldundiaren 153/2016 Foru Dekretua, urriaren 11koa, mendekotasunaren ebaluaziorako eta orientaziorako prozedura arautzen duena. 4-11 artikuluak (eskubidearen titularrak, prozedura hastea, instrukzioa, ebazpena, administrazio-isiltasuna, eskubidea gauzatzea, presazko prozedura).

31. gaia: Desgaitasuna duten pertsonentzako foru zerbitzuen gida: egonaldi iraunkorra edo aldi baterako egonaldia; eguneko arretarako zentroak: okupazio-zentroa eta eguneko zentroa. Gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-zentroak.

32. gaia. Mendetasun-egoeran dauden pertsonentzako foru zerbitzuen gida: egonaldi iraunkorra; aldi baterako egonaldia; eguneko zentroa. Egoitzen foru-sareko egoitza-unitate soziosanitarioak. Autonomia pertsonala sustatzeko zentroen zerbitzua (profil jakin batzuetarako).

I bis ZATIA

Psikologia: zati orokorra

33. gaia: Psikologia ebolutiboa lehen haurtzaroan (3 eta 6 urte bitartean): garapen fisikoa eta motorra, garapen kognitiboa eta hizkuntzaren garapena eta garapen psikosoziala.

34. gaia: Psikologia ebolutiboa bigarren haurtzaroan (6 eta 12 urte bitartean): garapen fisikoa, garapen kognitiboa eta garapen psikosoziala.

35. gaia: Psikologia ebolutiboa nerabezaroan: garapen fisikoa, garapen kognitiboa eta garapen psikosoziala.

36. gaia: Ebaluazio psikologikoa: haurren, helduen eta adinekoen psikodiagnostikoa egiteko test psikometriko eta proba proiektibo nagusiak.

37. gaia: Neurogarapenaren nahasmenduak: autismoaren espektroko nahasmendua. Aarreta-defizit eta hiperaktibitatearen nahasmendua. DSM-5aren araberako diagnostiko-irizpideak eta esku hartzeko orientabideak.

38. gaia: Neurogarapenaren nahasmenduak: ikaskuntzaren nahasmendua. Nahasmendu motorrak. DSM-5aren araberako diagnostiko-irizpideak eta esku hartzeko orientabideak.

39. gaia: Antsietate-nahasmendua. Nahasmendu obsesibo-konpultsiboa eta lotutako nahasmenduak. DSM-5aren araberako diagnostiko-irizpideak eta esku hartzeko orientabideak.

40. gaia: Elikadura-nahasmenduak eta elikagaien ingestio-nahasmenduak; anorexia nerbiosoa. Elikadura-nahasmenduak. DSM-5aren araberako diagnostiko-irizpideak eta esku hartzeko orientabideak.

41. gaia: Loaren nahasmendua-atzartasuna. DSM-5aren araberako diagnostiko-irizpideak eta esku hartzeko orientabideak.

42. gaia: Nahasmendu disruptiboak, bulkaden kontrolaren nahasmenduak eta portaeraren nahasmenduak. Substantzien kontsumoari loturiko nahasmenduak eta adikzio-nahasmenduak. DSM-5aren araberako diagnostiko-irizpideak eta esku hartzeko orientabideak.

43. gaia: Nahasmendu neurokognitiboak. DSM-5aren araberako diagnostiko-irizpideak eta esku hartzeko orientabideak.

II bis zatia

Adingabeen babesa eta familian esku hartzea.

44. gaia: Adingabeen eskubideak eta betebeharrak (1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabeen Babes Juridikoari, Kode Zibilaren aldaketa partzialari eta Prozedura Zibilaren Legeari buruzkoa).

45. gaia: Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaleko nahiz lurraldeko gizarte-zerbitzuetan, arrisku- eta babesgabetasun-egoeren larritasuna baloratzeko tresna (BALORA): Kalte nabarmenaren kontzeptua. Haurtzaro eta nerabezaroko oinarrizko beharrizanen taxonomia eta haien ebaluaziorako adierazleak.

46. gaia: Haurren sexu-abusua: definizioa, adierazleak eta jarduketak kasu susmagarrietan. Ikuspuntu psikologikotik, familiarretik eta sozialetik heltzea.

47. gaia: Bizkaiko Foru Aldundiaren *Babesik gabeko haurrekin esku hartzeko eskuliburua*: zerbitzu espezializatuaren antolaera eta eginkizunen banaketa.

48. gaia: Bizkaiko Foru Aldundiko Umeen Zerbitzuaren beste laguntza-programa espezifiko batzuk: familiako esku-hartze programa, ijitoen etniako familiako esku-hartze programa,

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

nerabeentzako hezkuntza-programa, familia-elkargune espezializatua, jakinarazpenak eta zitazioak egiteko taldea, adopzioa sustatzeko programa, familia-harrera sustatzeko lantaldea, eta, Azterketa eta Esku-hartze Psikologikoetarako Zerbitzua.

49. gaia: Haurra edo/eta nerabea egoitzan hartzea. Egoitza-arretaren faseak eta oinarrizko elementuak, esku-hartzearen prozesua.

50. gaia: Familia-harrera: Adingabearen egoeraren eta familian duen egokitzapenaren jarraipena. Harreraren bilakaera. Laguntzeko baliabide nagusiak: familia-harrerari laguntzeko programa eta familia-harrerari laguntzeko konpentsazio ekonomikoak.

51. gaia: Adopzio-ondokoa: nazio barruko eta nazioarteko adopzioaren jarraipena. Jatorrien berri ematea eta bitartekaritza-prozesua. Laguntzeko baliabideak: Bizkaiko Foru Aldundiaren adopzioa sustatzeko programa.

52. gaia: Adingabeen zigor-erantzukizuna. Hezkuntza-neurriak.

53. gaia: Esku-hartzea bakarrik dauden adingabe atzerritarrekin: arau-esparrua eta Bizkaian harrera egin eta esku-hartzeko prozedura.

III bis zatia

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimak babestea.

54. gaia: Emakumeen kontrako indarkeria matxista: kontzeptualizazioa eta emakumeen aurkako indarkeria motak.

55. gaia: Bikote-esparruaren barruko indarkeria matxistak emakumeen osasunean dituen ondorioak.

56. gaia: Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktima diren emakumeentzako laguntza hobetzeko Erakundeen arteko II. Akordioa. 27/2003 Legea, uztailaren 31koa, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautzen duena.

57. gaia: 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: VI. kapitulua: indarkeria matxista desagerraraztea.

58. gaia: 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzkoa. Aplikazio-eremua. Detekzioa eta esku-hartzea gizarte-zerbitzuen sisteman. Laguntza integral espezializatua eta eskuragarria izateko eskubidea. Erreparaziorako eskubidea.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

IV bis zatia

Mendekotasuna eta desgaitasuna

59. gaia: FNS, Funtzionamenduaren, Desgaitasunaren eta Osasunaren Nazioarteko Sailkapena (bertsio laburra): A. Sarrera; Aurrekariak, Ezaugarriak, Osagaien ikuspegia, Funtzionamenduaren eta desgaitasunaren eredua.

60. gaia: 8/2021 Legea, ekainaren 2koa, Legeria zibil eta prozesala erreformatzen duena, desgaitasuna duten pertsonei beren gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzeko. Bigarren artikulua. Kode Zibilaren aldaketa: hogeita hirugarren artikulua, lehenengo liburuaren XI. titulua aldatzen duena (263 - 298 artikuluak, desgaitasuna duten pertsonen egitatezko zaintza, kuradoretza eta defendatzaile judiziala).

61. gaia. 88/2022 Errege Dekretua, urriaren 18koa, desgaitasun-gradua aitortu, adierazi eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoa: II. Eranskina. Baremoaren osagaien oinarrizko laburpena. Lehenengo maila.

62. gaia 88/2022 Errege Dekretua, urriaren 18koa, desgaitasun-gradua aitortu, adierazi eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoa: III. eranskina. Gorputzaren funtzioak eta egiturak ebaluatzeko baremoa/Pertsonaren Urritasun Globala (BDGP). Bigarren maila – 1. kapitulua: adimen-urritasuna, neurogarapenaren nahasmenduak eta haurtzaroan eta nerabezaroan hasierako portaera eta emozioen nahasmenduak.

63. gaia: 88/2022 Errege Dekretua, urriaren 18koa, desgaitasun-gradua aitortu, adierazi eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoa: III. eranskina. Gorputzaren funtzioak eta egiturak ebaluatzeko baremoa/Pertsonaren Urritasun Globala (BDGP). Bigarren maila – 2. kapitulua: beste nahasmendu mental eta portaeraren nahasmendu batzuk.

64. gaia: 50/2016 Dekretua, martxoaren 22koa, desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartela arautzen duena. 2. art.: mugikortasun urriko desgaitasuna duten pertsonentzako ibilgailuak apartzeko txartelaren definizioa. 3. art.: eskubidearen titularrak. 10. art.: aparkatzeko txartela lortzeko prozedura.

65. gaia: Adineko pertsonenganako tratu txarrak: EAEn adineko pertsonenganako tratu txar fisiko eta ekonomikoak prebenitu eta hautemateko prozedura.

66. gaia: 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, gizarte zerbitzuen euskal sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa. I. KAP.: Xedapen orokorrak. III. KAP. 1. atala: zerbitzua edo prestazioa lortzeko prozedura arrunta. III. KAP. 2. atala: zerbitzua edo prestazio ekonomikoa urgentziaz lortzeko prozedura.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

V. zatia

Zati orokorra

67. gaia: Espainiako 1978ko Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak.

68. gaia: Estatuaren lurralde-antolaketa. Autonomia-estatutuak. Eskumenak Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean banatzeko sistema.

69. gaia: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua. Atariko titulua. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenak: esklusiboak, legeak garatu eta betearaztekoak, eta betearaztekoak.

70. gaia: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (jarraipena). Euskal Autonomia Erkidegoaren botereak. Eusko Legebiltzarra. Eusko Jaurlaritza. Lehendakaria. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioa.

71. gaia: 12/2002 Legea, maiatzaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onesten duena. Arau orokorrak: lurralde historikoetako erakundeen eskumenak, printzipio nagusiak, zergak harmonizatzea, lankidetza-printzipioa eta Estatuarenak bakarrik diren eskumenak. Finantza-harremanak: printzipio nagusiak eta kupoa (kontzeptua).

72. gaia: 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanei buruzkoa. Xedapen orokorrak. Lurralde historikoen eskumenak: esklusiboak, legeak garatu eta betearaztekoak, eta betearaztekoak.

73. gaia: 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanei buruzkoa (jarraipena). Autonomia finantzarioa eta aurrekontu-autonomia. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusia. Foru-ogasunak. Ogasun Nagusiaren eta foru-ogasunen arteko baliabideen banaketari buruzko ideia orokorra. Herri Kontuen Euskal Epaitegia.

74. gaia: Udalerriaren antolaketa. Probintziaren antolaketa eta eskumenak. Foru-aldundiak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean.

75. gaia: Administrazio-egintza. Kontzeptua. Administrazio-egintza motak. Administrazio-egintzaren osagaiak.

76. gaia: Administrazio-egintzen eraginkortasuna eta haien baldintzapena. Betearazgarritasuna eta etetea. Betearazpena. Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna. Egintzak administrazio-bidetik berrikustea. Ofizioz berrikustea.

77. gaia: Administrazio-prozedura erkidea: jarduteko arau orokorrak. Epe-mugak eta epeak. Faseak: Hasiera, antolamendua, instrukzioa.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

78. gaia: Administrazio-prozedura erkidea (jarraipena): administrazio-prozeduraren faseak. Amaiera. Atzera egitea, uko egitea eta iraungitzea.

79. gaia: Administrazio-prozedura erkideko interesdunak: kontzeptua eta interesdunek jarduteko duten gaitasuna. Ordezkaritza. Interesdun bat baino gehiago egotea. Interesdunei baliabide elektronikoak erabiltzeko laguntza ematea.

80. gaia: Administrazio-errekurtsoak. Printzipio orokorrak. Motak. Araubide juridikoa.

81. gaia: Sektore publikoko kontratuak. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora: xedea eta aplikazio-eremua.

82. gaia: Kontratu-motak zedarriztatzea. Erregulazio harmonizatuko kontratuak. Administrazio-kontratuak eta kontratu pribatuak. Kontratua burutzea eta kontratuaren forma. Baliogabetasun-araubidea. Kontratazio-arloko errekurtso berezia.

83. gaia: Gastu publikoa. Kontzeptua eta motak. Gastu publikoaren ondorio ekonomikoak.

84. gaia: Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa: funtzionario publikoen eskubideak eta eginbeharrak. Ordainsari-araubidea.

85. gaia: 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onesten duena. Atariko titulua: xedapen orokorrak (xedea eta aplikazio-eremua eta eskumenak). I. titulua: Bizkaiko Foru Ogasunaren araubidea (printzipio orokorrak, eskubide ekonomikoak eta betebehar ekonomikoak).

86. gaia: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera arauzkotzeko oinarrizkoa: atariko titulua. I. titulua: herritarren eta herri-agintaritzaren eskubide eta eginbeharrak hizkuntzaren alorrean.

87. gaia: 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa. Bizkaiko Batzar Nagusiak. Bizkaiko Foru Aldundia. Izaera, osaera eta kargua uztea. Eskumenak. Ahaldun Nagusia.

88. gaia: 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa (jarraipena). Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren arteko harremanak. Xedapen orokorrak. Foru Aldundiaren erantzukizuna. Foru-arauen proiektuak egiteko prozedura. Foru-administrazioa. Arau orokorrak. Izaera orokorreko xedapenak eta administrazio-ebazpenak.

89. gaia: 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzekoa: zioen adierazpena eta atariko titulua.

4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: atarikoa eta atariko titulua. I. titulua (Eskumenak, eginkizunak, antolaketa eta finantzaketa).

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

90. gaia: 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: II. titulua: Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-sektore publikoan genero-ikuspegia txertatzeko neurriak. III. titulua: emakumeen eta gizonen berdintasuna Bizkaiko foru-sektore publikoaren esku-hartzearen arloetan.

91. gaia: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa: IX. titulua - Zehapen-araubidea (70-71 artikuluak eta 77. artikulua), X. titulua - Eskubide digitalen bermea, eskubideen aipamen orokorra eta xedapen gehigarriak: 1., 2. eta 8.a. 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa: II. titulua - Datuak Babesteko Euskal Bulegoa (10. artikulua eta 14-17 artikuluak) eta III. titulua - Zehatzeko araubidea (24. artikulua).

92. gaia: 1/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa, Bizkaiko Gardentasunari buruzkoa. Publikotasun aktiboa: Aplikazio-eremua (2. art.), kontzeptua eta dimentsioak (5. art.), ez-betetzea (13. art.). Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea: Kontzeptua (18. art.), mugak (21. art.) eta ez onartzeko arrazoiak (22. art.). Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordea (27, 28. eta 29. art.). Gardentasunaren bermea eta erantzukizunak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

HAUTAKETA-PROZESURAKO DEIALDIA, KARRERAKO FUNTZIONARIO SARTZEKO ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAN, ANTOLAKETAKO TEKNIKARIA: EGONKORTZE-PLAZAK ETA ARRUNTAK

LEHENA: EGONKORTZE-PLAZAK

1.Deialdian eskainitako plazak

Deialdia egiten da ANTOLAKETAKO TEKNIKARI plaza bat (1) betetzeko (A taldea, A1 titulazio-azpitaldea) txanda irekitik derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna duena, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan ezarritakoaren babesean.

2. Titulazioa

Antolakuntzaren Ingeniaritza, Industria Ingeniaritza, edo Ingeniaritzako Gradua industria-antolakuntzako unibertsitate-masterrarekin.

3. Baldintza espezifikoak

Urriaren 30eko 5/2015 ELDaren 56.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, baldintza espezifikoa izango da IT txartel hauek edukitzea: Word oinarrizkoa eta Excel oinarrizkoa (baliodunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010). Word aurreratuaren eta Excel aurreratuaren IT txartelek Word oinarrizkoaren txartela eta Excel oinarrizkoarena baliozkotuko dituzte, hurrenez hurren.

Ziurtagiria eskuratzeko proba egin ahal izateko, egiaztatutako zentro batean eman beharko da izena. Zentroen zerrenda osoa helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke: www.it-txartela.net.

Izen-ematea www.it-txartela.net helbidean egin daiteke. Informazioa eskura daiteke aipatutako helbide elektronikoan eta bide hauetakoren bat erabilita:

a) Aurrez aurre, egiaztatutako edozein zentrotara joanda.

b) Telefonoz, 902 25 25 95 zenbakira deituta.

Baldintza espezifiko hau betetzeko, aipatutako txartelak ez dituztenei bi (2) hilabeteko epea ematen zaie, deialdi hau BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Izangaiek ez dute agiririk aurkeztu beharko, Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Txartelok epe horretan eskuratzen ez dituen izangaia hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko da.

4. Hautaketa-prozedura

4,1. OPOSIZIO-FASEA

Oposizio aldiak hiru (3) ariketa ditu, hirurak nahitaezkoak eta baztertzaileak.

4.1.a) Lehenengo ariketa:

Ariketa teorikoa izango da, eta, ehun (100) minutuan, berrogeita hamar (50) galderako test bat egin beharko da, gehi erreserbako bost (5) galdera. Galderak II. eranskineko gaiei buruzkoak izango dira, eta aukerako zenbait erantzun izango dituzte, baina bat baino ez da zuzena izango. Erantzun zuzenak puntu bat (1) balioko du, eta ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik, zuriz utzitakoengatik edo erantzun bi markatzeagatik.

4.1.b) Bigarren ariketa:

Ariketa praktikoa izango da, eta, laurogeita hamar (90) minutuko epean, kasu praktiko bat edo batzuk ebatzi beharko dira, zerikusia izango dutenak II. eranskinean aipatzen den gaitegiarekin. Epaimahaiak ariketa hasi aurretxoan aurkezturiko batzuen artetik aukeratuko da zer kasu egin behar den.

4.1.c) Hirugarren ariketa:

Euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailea izango da; betiere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da III. hizkuntza-eskakizunari dagokion mailan.

Bizkaiko Foru Aldundian III. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Halakoetan, parte-hartzaileak baimen espresua emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala ere, aurkeztu egin beharko dituzte azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta egon badauden baina erregistro horretan sartuta ez dauden gainerako euskara-titulu edo -ziurtagiriak; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Izangaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean egiaztatu nahi badute III. hizkuntza-eskakizuna, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko da.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

4.2 LEHIAKETA

Lehiaketan, izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) dagozkion puntuak emango zaizkio.

### 5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1. Merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketaren kalifikazioa.

5.2. Oposizio-fasea:

a) Lehen ariketari zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa emango zaio.

b) Bigarren ariketari zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa emango zaio.

2021eko abenduaren 28ko 20/21 Legearen 2.4 artikulua aplikatuz, bi ariketa horiek gaindituko dituzte lehenengo ariketaren eta bigarrenaren kalifikazioak batuta hamar (10) lortzen dutenek, baldin eta ariketa bakoitzean gutxienez bi eta erdi (2,5) atera badute.

c) Hirugarren ariketan, euskarari buruzkoan, Gai edo Ez gai izango da kalifikazioa.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

### 6. Lan-poltsa

Egonkortze-plazen hautaketa-prozesutik ez da lan-poltsarik sortuko.

I. ERANSKINA

EGONKORTZE-PLAZETARAKO MEREZIMENDUEN BAREMOA

ESPEZIALITATEA: ANTOLAKETAKO TEKNIKARIA

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan eta azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat:

1.-Esperientzia; gehienez ere 9,1 puntu, honela banatuta:

1.a) Edozein administrazio publikotan ANTOLAKETAKO TEKNIKARIA kategorian (A titulazio-taldea, A1 azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,0304 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere ehun hilabete (100) 3,04 puntu

1.b) Aurreko atalean adierazitako esperientziatik bereizirik, modu espezifiko eta osagarrian, Bizkaiko Foru Aldundian ANTOLAKETAKO TEKNIKARI kategorian (A taldea, A1 titulazio-azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,0608 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere ehun (100) hilabete. 6,08 puntu

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira administrazio publikotzat: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikuluetan jasotako erakundeak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 2.1 eta 2.3 artikuluetan jasoak. Orobat zenbatuko dira zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan egindako zerbitzuak, baina inola ere ez izaera publikoko beste erakunde batzuetan egindakoak, baldin eta enpresa, merkataritza-sozietate, fundazio edo elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa badute.

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbitzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatikirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

Nolanahi ere, zerbitzua lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legearen 20.1.c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientzia baloratzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ere: lehenik, zenbat denbora egon den izangaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen izangaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

2.-Administrazio publikoetan, administrazio publikoko eskoletan (IVAP, HAIN, HAEI edo beste administrazio-eskola batzuetan), nortasun juridiko publikoa duten zentroetan eta unibertsitate publiko zein pribatuetan gaitegiarekin harreman zuzena duten prestakuntza-ikastaroetan eta/edo graduondo zein masterreko titulazio akademikoetan emandako nahiz jasotako ordu-kopuruagatik, 0,0225 puntu hartutako ordu bakoitzeko eta 0,03 puntu emandako ordu bakoitzeko; gehienez: 3,4 puntu.

3) Ingelesa, frantsesa edo alemana jakiteagatik, baina hizkuntza bereko mailak metatzeko aukerarik gabe, eta gehienez ere 0,5 puntu, honela banaturik:

3 a) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-1 maila (ingelesa: Trinity College-n ingeleseko Grade 9 agiria; alemana: Goethe Institutuaren ZAP– Zertifikat Deutsch als Fremdsprache agiria, edo frantsesa: DELF 1er degré maila) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 3. maila edo oinarrizko zikloa edo B1.2.: ………………………………………………… 0,15 puntu.

3 b) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-2 maila (ingelesa: Cambridgeko First Certificate of English agiria; alemana: Goethe Institutuaren ZMP -Zentrale Mittelstufenprüfung agiria, edo frantsesa: DELF 2ème degré. DL - Diplôme de Langue - Alliance Française) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 4. maila edo B2 maila aurreratua:…………………………… 0,30 puntu.

3 c) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-2 maila (ingelesa: Cambridge Unibertsitateko Certificate in Advanced English edo Certificate of Proficiency in English agiriak edo Trinity Collegeko Passed Grade Twelve edo Oxford Unibertsitateko Higher Level maila; alemana: ZOP – Zentrale Oberstufenprufung edo KDS – Kleines Deutsches Sprachdiplom edo GDS – Grosses Deutsches Sprachdiplom agiriak), edo frantsesa: – DALF edo DSLCF – Diplôme Supérieur Langue et Culture Française – Alliance Française) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 5. maila nahiz EBko edozein hizkuntzaren filologian lizentziatura (goi mailako unibertsitate-titulua): 0,5 puntu

GUZTIRA ……………………………………………………………………13 PUNTU

II. ERANSKINA

EGONKORTZE-PLAZETARAKO GAIAK

ANTOLAKETAKO TEKNIKARIA

LEHENENGOA: ANTOLAMENDUA/KALITATEA

1. GAIA: Lan-motibazioa: kontzeptua; Beharrizanen piramidea (Maslow); Higiene- eta motibazio-faktoreen teoria (Herzberg); motibazioaren tresnak; Motibazio intrintsekoa (McCelland).

2. GAIA: Lantaldea: kontzeptua eta motak. Lan-taldean lan egiteko teknikak: Talde izendunaren teknika, ideia-jasa edo brainstorming-a, Delphi metodoa, sinektika eta azterketa morfologikoa.

3. GAIA: Lanpostuen azterketa: helburuak; analisiaren edukia; metodoak; prestaketa-prozesua; lanpostuaren galdetegia.

4. GAIA: Betetzearen ebaluazioa: kontzeptua; zertarako erabili ebaluazioaren datuak? Zer ebalua daiteke eta nola? (betetzea ebaluatzeko metodoak); Nork ebaluatzen du?: betetzearen ebaluazio-sistemen arazoak/distortsioak. Zer dio EPOEk?

5. GAIA: Gaitasunen araberako kudeaketa: kontzeptua; zehaztapena; ebaluazioa. Gaitasunak, ezagutzak, jarrerak eta laneko ikaskuntza: eskumena sektore publikoan; ezagutzak; ikaskuntza; jarrerak; eskumenen kudeaketa.

6. GAIA: Barne-komunikazioa: definizioa eta elementu nagusiak; komunikazioak erakundeetan dituen helburuak: oztopoak komunikazioan; barne-komunikaziorako plan bat prestatzea.

7. GAIA: Kalitatea kudeatzeko sistema, ISO 9001:2015 arauaren arabera. I. zatia: printzipio orokorrak; kalitatearen kudeaketaren printzipioak; prozesuei begirako ikuspegia; helburua eta aplikazio-eremua.

8. GAIA: Zerbitzu-kartak: definizioa, izaera eta edukia.

Zerbitzu-kartak garatzeko gida: Zerbitzu-karta prestatzeko prozesua:

9. GAIA: Prozesuen araberako kudeaketa:
Prozesuen mapa; Prozesuen deskribapena; Prozesuen jarraipena eta neurketa: adierazleak eta planifikaturiko emaitzak; Prozesuen hobekuntza; Helburuak lortzeko prozesuetan oinarritutako kudeaketa.

10. GAIA: Proiektuen zuzendaritza, I. zatia: Proiektuen zuzendaritzaren printzipioak; Garapen ikuspegiaren eta bizi-zikloaren jardunaren eremua.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

11. GAIA: Herritarrei arreta ematea:

herritarrei arreta emateko zerbitzua; zerbitzua ezartzeko edo prestatzeko oinarriak; ezartzeko prozesua (antolaketa, abiaraztea, benchmarking-a, zerbitzuaren diseinua, arautzea, prestakuntza, ezarpena, hedapena).

BIGARRENA: ADMINISTRAZIO PUBLIKOA

12. GAIA 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena: printzipio orokorrak; administrazio-organoak; eskumena; eskumenak delegatzea; kudeaketa-gomendioak; sinadura delegatzea; ordezkotza.

13. GAIA: Administrazio publikoetako langileak. Zerbitzu-harremana lortzea eta galtzea. Funtzionario-kidegoak. Hautaketa-prozedura: oinarrizko arauak eta gutxieneko programak.

14. GAIA: Herri administrazioetako lanpostuen zerrendak: helburuak eta oinarrizko arau-esparrua. Lanpostuen zerrenda Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoan.

15. GAIA: Lanpostuen ebaluazioa: helburua eta metodoen sailkapena; hierarkizazio-metodoa; sailkapen-metodoa; faktoreen araberako konparazio-metodoa; faktoreen araberako puntuazio-metodoa.

16. GAIA: Giza baliabideen kudeaketa estrategikoa: Giza Baliabideak Kudeatzeko Sistema. Zer da giza baliabideen kudeaketa estrategikoa?

17. GAIA: Eraldaketa digitala administrazio publikoetarako: zer da eraldaketa digitala? Eraldaketa digitala administrazio publikoetan.

18. GAIA: Eraldaketa digitala administrazio publikoetarako: Eraldaketa digitala administrazio publikoetan ezartzea.

19. GAIA: Datuen kudeaketa: oinarrizko kontzeptuak; datuen kudeaketako erreferentzia-esparruak. Big Data eta datuen zientzia.

20. GAIA: Datu nagusiak eta erreferentziazkoak. Metadatuen kudeaketa. Datuen kalitatea.

HIRUGARRENA: ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA

21. GAIA: EBko Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra: Xedapen orokorrak; printzipioak; interesdunaren eskubideak (informazioa, datu pertsonaletarako sarbidea); zuzenketa eta ezabaketa; aurkakotza, eta erabaki pertsonalizatu automatizatuak.

22. GAIA: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa: IX. titulua - Zehapen-araubidea (70-71 artikuluak eta 77. artikulua), X. titulua - Eskubide digitalen bermea (eskubideen aipamen orokorra) eta xedapen gehigarriak: 1., 2. eta 8.a.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

23. GAIA: Open Data Bizkaia: Zer da Open Data Bizkaia?; Helburuak; Datu irekien printzipioak. 37/2007 Legea: xedea eta aplikazio-eremua; Berrerabiltzearen araubide juridikoa. 106/2020 Dekretua: Datu irekien katalogoa; Datuak publikatzeko baldintza teknikoak.

24. GAIA: Sektore publikoko erakundeen web-orrien eta gailu mugikorretarako aplikazioen eskuragarritasuna. Xedapen orokorrak (xedea; eremuak; betekizunak; neurriz kanpoko zama); Kontrola, berrikuspena, jarraipena eta txostenen aurkezpena.

25. GAIA: Bizkaiko Foru Aldundiko identifikazio- eta sinadura-sistemak. Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko erregelamendua: (II. titulua - I. kapitulua) Xedapen orokorrak, eta (II. titulua - II. kapitulua) Administrazio publikoen eta interesdunen identifikazioa eta autentifikazioa.

26. GAIA: Bizkaiko Foru Aldundiaren jakinarazpen eta komunikazio elektronikoak eta dokumentuen erregistro elektroniko orokorra.

Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko erregelamendua: (II. titulua - III. kapitulua) Erregistroak, komunikazioak eta jakinarazpen elektronikoak.

27. GAIA: Gaitutako funtzionarioen erregistroa eta erregistro-gaietan laguntzeko bulegoak BFAn. Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko erregelamendua: (Atariko titulua) Xedapen orokorrak.

28. GAIA: BFAren Ahalordetzeen Erregistro Orokorra: Xedapen orokorrak (I. kapitulua); Borondatezko ahalordetzeak (II. kapitulua); Legezko ordezkaritzak (III. kapitulua); Baimenak (IV. kapitulua).

29. GAIA: Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko erregelamendua: (III. titulua) Administrazio-espediente elektronikoa.

30. GAIA: Bizkaiko Foru Aldundiko dokumentu elektronikoak gestionatzeko politika. (eranskineko 5. puntua) Dokumentu elektronikoen bizi-zikloa eta kudeaketa-prozesuak, eta (eranskineko 6. puntua) Dokumentu elektronikoak kudeatzeko tresnak. Dokumentu Elektronikoen Elkarreragingarritasunari buruzko Arau Teknikoa. Kopiatze Kautotuaren eta Dokumentu Elektronikoen Konbertsioaren Elkarreragingarritasunaren Arau Teknikoa. Dokumentuen Digitalizazioaren Elkarreragingarritasunaren Arau Teknikoa.

31. GAIA: EAEren eta BFAren arteko lankidetza-hitzarmena: Lehen, bigarren eta hirugarren klausulak; Euskal Administrazio Publikoen komunikazio-sarea; Identifikazio-bitartekoak kudeatzeko zerbitzuak; autentifikazioa eta sinadura elektronikoa (Xedea; eIDAS gako itunduen deskribapena); Giltz@ identitateak kudeatzeko plataforma (Deskribapena); NISAE (Deskribapena; barne hartzen dituen zerbitzuak; antolaketa-eredua); Kontratazio elektronikoa (Xedea; Irismena); Ordainketa-pasabidea (Xedea; Irismena); Fakturazio elektronikoko zerbitzuak (Xedea; Ef4ktur).

32. GAIA: Administrazioa elektronikoaren ondorioz administrazio-prozedurak erraztea eta berriro diseinatzea: garapena edo prozesuaren faseak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

BIGARRENA: PLAZA ARRUNTAK

1.Deialdian eskainitako plazak

Deialdia egiten da ANTOLAKETAKO TEKNIKARIen hamazortzi (18) plaza betetzeko (A taldea, A1 titulazio-azpitaldea) derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna dutenak, honela banaturik:

. .- Barne sustapeneko txanda: bi (2) plaza III. hizkuntza-eskakizunarekin; haietariko batean (1) derrigorrezkoa eta bestean (1) ez-derrigorrezkoa.

. -Txanda irekia: hamabost (15) plaza, derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna dutenak.

. Desgaitasuna duten pertsonen txanda: plaza bat (1), derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna duena.

2. Titulazioa

Antolakuntzaren Ingeniaritza, Industria Ingeniaritza, edo Ingeniaritzako Gradua industria-antolakuntzako unibertsitate-masterrarekin.

Barne-sustapeneko txandan parte hartzen dutenek honako baldintza hauek bete behar dituzte: zerbitzu aktiboan edo zerbitzu berezietan egon behar dute beren jatorrizko kidegoan edo eskalan; bi urteko zerbitzua beteta izan behar dute karrerako funtzionario gisa kidego-eskala horietan; dagokion titulazioa eduki behar dute eta A2 azpitaldeko nahiz talde bereko plaza batekoak izan.

3. Baldintza espezifikoak

Urriaren 30eko 5/2015 ELDaren 56.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, baldintza espezifikoa izango da IT txartel hauek edukitzea: Word oinarrizkoa eta Excel oinarrizkoa (baliodunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010). Word aurreratuaren eta Excel aurreratuaren IT txartelek Word oinarrizkoaren txartela eta Excel oinarrizkoarena baliozkotuko dituzte, hurrenez hurren.

Ziurtagiria eskuratzeko proba egin ahal izateko, egiaztatutako zentro batean eman beharko da izena. Zentroen zerrenda osoa helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke: www.it-txartela.net.

Izen-ematea www.it-txartela.net helbidean egin daiteke. Informazioa eskura daiteke aipatutako helbide elektronikoan eta bide hauetakoren bat erabilita:

a) Aurrez aurre, egiaztatutako edozein zentrotara joanda.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

b) Telefonoz, 902 25 25 95 zenbakira deituta.

Baldintza espezifiko hau betetzeko, aipatutako txartelak ez dituztenei bi (2) hilabeteko epea ematen zaie, deialdi hau BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Izangaiek ez dute agiririk aurkeztu beharko, Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten.

Txartelok epe horretan eskuratzen ez dituen izangaia hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko da, baita osatuko den lan-poltsatik ere.

## 4. Hautaketa-prozedura

4.1 OPOSIZIO-FASEA

Oposizio-faseak hiru (3) ariketa izango ditu: lehenengo biak nahitaezkoak eta baztertzaileak dira; hirugarrena nahitaezkoa eta baztertzailea izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazetarako, eta borondatezkoa eta ez-baztertzailea izango da gainerako plazetarako.

4.1.a) Lehenengo ariketa:

Ariketa teorikoa izango da, eta, hiru (3) orduan, laurogeita hamar (90) galderako test bat egin beharko da, gehi erreserbako hamar (10) galdera. Galderak IV. eranskineko gaiei buruzkoak izango dira, eta aukerako zenbait erantzun izango dituzte, baina bat baino ez da zuzena izango. Erantzun zuzenak puntu bat (1) balioko du, eta erantzun oker bakoitzeko 0,33 puntu kenduko dira. Ez da punturik kenduko zuriz utzitako erantzunengatik edo bi marka dituztenengatik.

Lehenago eskatu zitzaizkien ezagutzak berriro egiaztatu behar ez izateko, barne-sustapeneko txandatik datozen hautagaiak salbuetsita egongo dira IV. eranskinean jasotzen den gaien zerrendako IV. zatiari dagokion probaren zatia egitetik, eta, ondorioz, dagokion denbora proportzionala eta galdera-kopurua izango dute egiteko. Erantzun zuzenak puntu bat (1) balioko du, eta erantzun oker bakoitzeko 0,33 puntu kenduko dira. Ez da punturik kenduko zuriz utzitako erantzunengatik edo bi marka dituztenengatik.

4.1.b) Bigarren ariketa:

Ariketa praktikoa izango da, eta, bost (5) orduko epean, kasu praktiko bat edo batzuk ebatzi beharko dira, zerikusia izango dutenak IV. eranskinean aipatzen den gaitegiarekin. Epaimahaiak ariketa hasi aurretxoan aurkezturiko batzuen artetik aukeratuko da zer kasu egin behar den.

4.1.c) Hirugarren ariketa:

Euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailea izango da derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten lanpostuei lotutako plazetara aurkezten diren izangaientzat eta borondatezkoa eta ez-baztertzailea derrigorrezko ez den III. hizkuntza-eskakizuna ezarrita

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

duten lanpostuei lotutako plazetara aurkezten direnentzat; betiere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da dagokion mailan.

Bizkaiko Foru Aldundian III. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Halakoetan, parte-hartzaileak baimen espresua emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala ere, aurkeztu egin beharko dituzte azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta egon badauden baina erregistro horretan sartuta ez dauden gainerako euskara-titulu edo -ziurtagiriak; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Izangaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean egiaztatu nahi badute III. hizkuntza-eskakizuna, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko da.

4.2 LEHIAKETA

Lehiaketan, izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera dagozkion puntuak emango zaizkio (III. eranskina).

5.Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1 Merezimenduen baremoaren arabera (III. eranskina) emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketaren kalifikazioa.

5.2. Oposizio-fasea:

a) Lehenengo ariketari zerotik (0) hamar (10) puntura bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta bost (5) puntu lortzen ez dituzten hautagaiak baztertuta geratuko dira. Hala ere, gainditutako pertsonen kopurua ez bada iristen 54ra, puntuaziorik handiena lortu duten 54 pertsonak hurrengo ariketara igaroko dira (haien puntuazioa 2,5 puntutik gorakoa bada); horretarako, parte hartzeko txanda guztiak hartuko dira kontuan. Noten mozketa-puntuan berdinketa gertatuz gero, mozketa-notaren pareko nota duten izangai guztiek gaindituko dute ariketa hau.

Izangaiek deialdi honen ostean deitzen den hurrengo deialdirako gorde ahal izango dute ariketa honetako kalifikazioa, baldin eta deialdi horretan hala ezartzen bada; horretarako, betiere, txanda berean parte hartu behar dute.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Izangairen batek lehen ere parte hartu bazuen Bizkaiko Ahaldun Nagusiaren 2018ko uztailaren 27ko 129/2018 Foru Dekretuaren bidez egin zen deialdian, (2018ko 150. BAO, abuztuaren 6koa), aukera hori baliatzeko modua izango du, baldin eta idatziz adierazten badu hori eskabide-orrian eta txanda berean parte hartzen badu.

Eskubide hori baliatzeko, hautaprobetan parte hartzeko eskabidea aurkeztu beharko dute eta dagokion tasa ordaindu. Aukera hori baliatu duen izangaiak deialdi honetako azterketa egiten badu, bi prozesuetan lortutako kalifikazioetatik altuena emango zaio zuzenean. Eskubide hori baliatu eta azterketa ez egiteko aukera behin bakarrik erabili ahal izango da, eta eskubidea baliatu ondoren egiten den hurrengo deialdian azterketa osoa egin beharko da.

b) Bigarren ariketari zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa emango zaio. Deialditik kanpo geldituko dira bost (5) puntu lortzen ez dituzten izangaiak.

c) Hirugarren ariketari *gai* edo *ez gai* kalifikazioa emango zaio, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazak lortu nahi dituztenentzat. Gainerako kasuetan, honako banaketa honen araberako kalifikazioa emango da, egiaztatutako maila kontuan hartuta:

- I. hizkuntza-eskakizuna: 1,25 puntu
- II. hizkuntza-eskakizuna: 2,5 puntu.
- III. hizkuntza-eskakizuna: 3,75 puntu

Ezingo da eskuratu lortu nahi den lanpostuaren hizkuntza-eskakizunari dagokiona baino goragoko puntuaziorik.

5,3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

6. Lan-poltsa

Hautaketa-prozesu honetatik, lan-poltsa sortuko da lehenengo ariketa (teorikoa) gainditzen dutenekin, bosgarren oinarrian xedatutakoaren arabera.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

III. ERANSKINA

PLAZA ARRUNTETARAKO MEREZIMENDUEN BAREMOA

ESPEZIALITATEA: ANTOLAKETAKO TEKNIKARIA

1. Edozein administrazio publikotan ANTOLAKETAKO TEKNIKARIA kategorian (A titulazio-taldea, A1 azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,05 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere hirurogei hilabete (60) 3 puntu

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira administrazio publikotzat: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikuluetan jasotako erakundeak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 2.1 eta 2.3 artikuluetan jasoak. Orobat zenbatuko dira zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan egindako zerbitzuak, baina inola ere ez izaera publikoko beste erakunde batzuetan egindakoak, baldin eta enpresa, merkataritza-sozietate, fundazio edo elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa badute.

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbitzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatikirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

Nolanahi ere, zerbitzua lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legearen 20.1.c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientzia baloratzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ere: lehenik, zenbat denbora egon den izangaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen izangaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

2. Administrazio publikoetan, administrazio publikoko eskoletan (IVAP, HAIN, HAEI edo beste administrazio-eskola batzuetan), nortasun juridiko publikoa duten zentroetan eta unibertsitate publiko zein pribatuetan gaitegiarekin harreman zuzena duten prestakuntza-ikastaroetan eta/edo graduondo zein masterreko titulazio akademikoetan emandako nahiz jasotako ordu-kopuruagatik, 0,0075 puntu hartutako ordu bakoitzeko eta 0,1 puntu emandako ordu bakoitzeko; gehienez: 1,5 puntu.

3. Europar Batasuneko hizkuntza bat edo bi jakiteagatik, baina hizkuntza beraren maila ezberdinak metatzeko aukerarik gabe. Gehienez 0,5 puntu lor daiteke, banaketa honen arabera:

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

3 a) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-1 maila (besteak beste, ingelesa: Trinity College-n ingeleseko Grade 9 agiria; alemana: Goethe Institutuaren ZAP–Zertifikat Deutsch als Fremdsprache agiria, edo frantsesa: DELF 1er degré maila) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 3. maila edo oinarrizko zikloa edo B1.2.: ……………………………………………… 0,15 puntu.

3 b) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-2 maila (besteak beste, ingelesa: Cambridgeko First Certificate of English agiria; alemana: Goethe Institutuaren ZMP -Zentrale Mittelstufenprüfung agiria, edo frantsesa: DELF 2ème degré. DL - Diplôme de Langue - Alliance Française) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 4. maila edo B2 maila aurreratua: …………………………………………… 0,30 puntu

3 c) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-2 maila (besteak beste, ingelesa: Cambridge Unibertsitateko Certificate in Advanced English edo Certificate of Proficiency in English agiriak edo Trinity Collegeko Passed Grade Twelve edo Oxford Unibertsitateko Higher Level maila; alemana: ZOP – Zentrale Oberstufenprufung edo KDS – Kleines Deutsches Sprachdiplom edo GDS – Grosses Deutsches Sprachdiplom agiriak), edo frantsesa: – DALF edo DSLCF – Diplôme Supérieur Langue et Culture Française – Alliance Française) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 5. maila nahiz EBko edozein hizkuntzaren filologian lizentziatura (goi mailako unibertsitate-titulua): 0,5 puntu.

GUZTIRA ……………………………………………………………………………………5 PUNTU

cve: BAO-2022a248-(I-1216)

IV. ERANSKINA

EGONKORTZE-PLAZETARAKO GAIAK

ANTOLAKETAKO TEKNIKARIA

LEHENENGOA: ANTOLAMENDUA/KALITATEA (1º zatia)

1. GAIA: Lan-motibazioa: kontzeptua; Beharrizanen piramidea (Maslow); Higiene- eta motibazio-faktoreen teoria (Herzberg); motibazioaren tresnak; Motibazio intrintsekoa (McCelland).

2. GAIA: Lantaldea: kontzeptua eta motak. Lan-taldean lan egiteko teknikak: Talde izendunaren teknika, ideia-jasa edo brainstorming-a, Delphi metodoa, sinektika eta azterketa morfologikoa.

3. GAIA: Lanpostuen azterketa: helburuak; analisiaren edukia; metodoak; prestaketa-prozesua; lanpostuaren galdetegia.

4. GAIA: Betetzearen ebaluazioa: kontzeptua; zertarako erabili ebaluazioaren datuak? Zer ebalua daiteke eta nola? (betetzea ebaluatzeko metodoak); Nork ebaluatzen du?: betetzearen ebaluazio-sistemen arazoak/distortsioak. Zer dio EPOEk?

5. GAIA: Gaitasunen araberako kudeaketa: kontzeptua; zehaztapena; ebaluazioa. Gaitasunak, ezagutzak, jarrerak eta laneko ikaskuntza: eskumena sektore publikoan; ezagutzak; ikaskuntza; jarrerak; eskumenen kudeaketa.

6. GAIA: Barne-komunikazioa: definizioa eta elementu nagusiak; komunikazioak erakundeetan dituen helburuak: oztopoak komunikazioan; barne-komunikaziorako plan bat prestatzea.

7. GAIA: Kalitatea kudeatzeko sistema, ISO 9001:2015 arauaren arabera. I. zatia: printzipio orokorrak; kalitatearen kudeaketaren printzipioak; prozesuei begirako ikuspegia; helburua eta aplikazio-eremua.

8. GAIA: Zerbitzu-kartak: definizioa, izaera eta edukia.

Zerbitzu-kartak garatzeko gida: Zerbitzu-karta prestatzeko prozesua.

9. GAIA: Prozesuen araberako kudeaketa:

Prozesuen mapa; Prozesuen deskribapena; Prozesuen jarraipena eta neurketa: adierazleak eta planifikaturiko emaitzak; Prozesuen hobekuntza; Helburuak lortzeko prozesuetan oinarritutako kudeaketa.

10. GAIA: Proiektuen zuzendaritza, I. zatia: Proiektuen zuzendaritzaren printzipioak; Garapen ikuspegiaren eta bizi-zikloaren jardunaren eremua.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

11. GAIA: Herritarrei arreta ematea:

herritarrei arreta emateko zerbitzua; zerbitzua ezartzeko edo prestatzeko oinarriak; ezartzeko prozesua (antolaketa, abiaraztea, benchmarking-a, zerbitzuaren diseinua, arautzea, prestakuntza, ezarpena, hedapena).

BIGARRENA: ADMINISTRAZIO PUBLIKOA (1º zatia)

12. GAIA 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena: printzipio orokorrak; administrazio-organoak; eskumena; eskumenak delegatzea; kudeaketa-gomendioak; sinadura delegatzea; ordezkotza.

13. GAIA: Administrazio publikoetako langileak. Zerbitzu-harremana lortzea eta galtzea. Funtzionario-kidegoak. Hautaketa-prozedura: oinarrizko arauak eta gutxieneko programak.

14. GAIA: Herri administrazioetako lanpostuen zerrendak: helburuak eta oinarrizko arau-esparrua. Lanpostuen zerrenda Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoan.

15. GAIA: Lanpostuen ebaluazioa: helburua eta metodoen sailkapena; hierarkizazio-metodoa; sailkapen-metodoa; faktoreen araberako konparazio-metodoa; faktoreen araberako puntuazio-metodoa.

16. GAIA: Giza baliabideen kudeaketa estrategikoa: Giza Baliabideak Kudeatzeko Sistema. Zer da giza baliabideen kudeaketa estrategikoa?

17. GAIA: Eraldaketa digitala administrazio publikoetarako: zer da eraldaketa digitala? Eraldaketa digitala administrazio publikoetan.

18. GAIA: Eraldaketa digitala administrazio publikoetarako: Eraldaketa digitala administrazio publikoetan ezartzea.

19. GAIA: Datuen kudeaketa: oinarrizko kontzeptuak; datuen kudeaketako erreferentzia-esparruak. Big Data eta datuen zientzia.

20. GAIA: Datu nagusiak eta erreferentziazkoak. Metadatuen kudeaketa. Datuen kalitatea.

HIRUGARRENA: ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA (1º zatia)

21. GAIA: EBko Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra: Xedapen orokorrak; printzipioak; interesdunaren eskubideak (informazioa, datu pertsonaletarako sarbidea); zuzenketa eta ezabaketa; aurkakotza, eta erabaki pertsonalizatu automatizatuak.

22. GAIA: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa: IX. titulua - Zehapen-araubidea (70-71 artikuluak eta 77. artikulua), X. titulua - Eskubide digitalen bermea (eskubideen aipamen orokorra) eta xedapen gehigarriak: 1., 2. eta 8.a.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

23. GAIA: Open Data Bizkaia: Zer da Open Data Bizkaia?; Helburuak; Datu irekien printzipioak. 37/2007 Legea: xedea eta aplikazio eremua; berrerabilpenaren araubide juridikoa. 106/2020 Dekretua: Datu irekien katalogoa; Datuak publikatzeko baldintza teknikoak.

24. GAIA: Sektore publikoko erakundeen web-orrien eta gailu mugikorretarako aplikazioen eskuragarritasuna. Xedapen orokorrak (xedea; eremuak; betekizunak; neurriz kanpoko zama); Kontrola, berrikuspena, jarraipena eta txostenen aurkezpena.

25. GAIA: Bizkaiko Foru Aldundiko identifikazio- eta sinadura-sistemak. Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko erregelamendua: (II. titulua - I. kapitulua) Xedapen orokorrak, eta (II. titulua - II. kapitulua) Administrazio publikoen eta interesdunen identifikazioa eta autentifikazioa.

26. GAIA: Bizkaiko Foru Aldundiaren jakinarazpen eta komunikazio elektronikoak eta dokumentuen erregistro elektroniko orokorra.

Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko erregelamendua: (II. titulua - III. kapitulua) Erregistroak, komunikazioak eta jakinarazpen elektronikoak.

27. GAIA: Gaitutako funtzionarioen erregistroa eta erregistro-gaietan laguntzeko bulegoak BFAn. Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko erregelamendua: (Atariko titulua) Xedapen orokorrak.

28. GAIA: BFAren Ahalordetzeen Erregistro Orokorra: Xedapen orokorrak (I. kapitulua); Borondatezko ahalordetzeak (II. kapitulua); Legezko ordezkaritzak (III. kapitulua); Baimenak (IV. kapitulua).

29. GAIA: Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko erregelamendua: (III. titulua) Administrazio-espediente elektronikoa.

30. GAIA: Bizkaiko Foru Aldundiko dokumentu elektronikoak gestionatzeko politika. (eranskineko 5. puntua) Dokumentu elektronikoen bizi-zikloa eta kudeaketa-prozesuak, eta (eranskineko 6. puntua) Dokumentu elektronikoak kudeatzeko tresnak. Dokumentu Elektronikoen Elkarreragingarritasunari buruzko Arau Teknikoa. Kopiatze Kautotuaren eta Dokumentu Elektronikoen Konbertsioaren Elkarreragingarritasunaren Arau Teknikoa. Dokumentuen Digitalizazioaren Elkarreragingarritasunaren Arau Teknikoa.

31. GAIA: EAEren eta BFAren arteko lankidetza-hitzarmena: Lehen, bigarren eta hirugarren klausulak; Euskal Administrazio Publikoen komunikazio-sarea; Identifikazio-bitartekoak kudeatzeko zerbitzuak; autentifikazioa eta sinadura elektronikoa (Xedea; eIDAS gako itunduen deskribapena); Giltz@ identitateak kudeatzeko plataforma (Deskribapena); NISAE (Deskribapena; barne hartzen dituen zerbitzuak; antolaketa-eredua); Kontratazio elektronikoa (Xedea; Irismena); Ordainketa-pasabidea (Xedea; Irismena); Fakturazio elektronikoko zerbitzuak (Xedea; Ef4ktur).

32. GAIA: Administrazioa elektronikoaren ondorioz administrazio-prozedurak erraztea eta berriro diseinatzea: garapena edo prozesuaren faseak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

LEHENENGOA bis: ANTOLAMENDUA/KALITATEA (2n zatia)

33. GAIA: Arazoak konpontzeko tresnak: iritzi-epaimahaia; irizpide anitzeko matrizea; Paretoren diagrama; kausa-ondorioa diagrama; ideia-jasa; fluxu-diagrama; datuen bilketa; dispertsio-diagrama; histograma; estratifikazioa.

34. GAIA: Prestakuntza- prozesua: prestakuntzaren kontzeptua eta garrantzia; Prestakuntzaren plangintza; Prestakuntza-programen kontrola edo ebaluazioa.

35. GAIA: Segurtasun arloko baldintzak lantokietan. Hiri-ingurune, espazio publiko, eraikuntza eta informazio- eta komunikazio-sistemetarako sarbide-baldintzei buruzko arau teknikoak: Altzariak.

36. GAIA: Bulego-espazioen kudeaketa: espazioaren antolaketa; modulua eta erretikula; espazio-tipologiak; ekipamenduak eta instalazioak, diseinurako irizpideak; irisgarritasun eta iraunkortasunari buruzko gomendioak; indarrean dagoen lege-araudia (laneko ingurumen-baldintzak, espazioak, argiak, lehen sorospenetako materiala eta lokalak).

37. GAIA: Kalitatearen kudeaketa EN-UNE 13816 arauaren arabera. UNE-EN 13816 eredua: kalitatearen zikloa. Nola ezarri xede-kalitatea. Kalitatea kudeatzeko sistema UNE-EN 13816 ereduaren arabera. Zerbitzuaren kalitatearen arduraduna.

38. GAIA: Kalitatea kudeatzeko sistema, ISO 9001:2015 arauaren arabera. II. zatia: antolakundearen testuingurua; kalitatearen helburuak eta haiek lortzeko plangintza; hobekuntza.

39. GAIA: Kalitatea kudeatzeko sistema, ISO 9001:2015 arauaren arabera. III. zatia: jarraipena, neurketa, azterketa eta ebaluazioa; barne-auditoria, zuzendaritzak berrikustea.

40. GAIA: Proiektuen zuzendaritza, II. zatia: Plangintzaren jardunaren eremua; Proiektuaren lanaren jardunaren eremua; Metodoak.

41. GAIA: Bezeroaren gogobetetasuna eta zerbitzuen kalitatea:

zerbitzuen kalitatea ebaluatzeko perspektiba biak; herritarren itxaropenen identifikazioa eta erabiltzaileen gogobetetasun-azterketak; herritarren pertzepzioaren azterketari aplikatutako ikerketa sozialeko teknikak; kalitatea hobetzeko erreferentzia-esparruak.

42. GAIA: Lan-gogobetetasunaren ebaluazioa (NTP 212): lan-gogobetetasunaren kontzeptua; anbiguotasuna eta hura ebaluatzeko zailtasunak; lotutako aldaerak; neurketa; zuzeneko metodoak; zeharkako metodoak.

43. GAIA: Lidergoa: Definizioa. Zantzuen teoria. Gerentzia-sareta (Blake eta Mouton). Egoera-lidergoaren teoria (Hersey eta Blanchard). Transformazio-lidergoaren teoria.

44. GAIA: Lanaren eta osasunaren oinarrizko kontzeptuak; lan-baldintzak eta arrisku-faktoreak. Lanbide-gaixotasuna (definizioa); kutsatzaile kimikoak (kontzeptua eta sailkapena); kutsatzaile fisikoak (kontzeptua eta sailkapena); kutsatzaile biologikoak (kontzeptua eta sailkapena). Arrisku psikosozialak eta arrisku psikosozial nagusiak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

45. GAIA: Telelana (NTP 412 Telelana ezartzeko irizpideak): kontzeptua eta ezarpena; kontuan hartu beharreko alderdiak; abantailak eta desabantailak.

BIGARRENA bis: ADMINISTRAZIO PUBLIKOA (2n zatia)

46. GAIA: Langileen hautaketa:

Kanpoko hautaketa: sarrera; aurretiazko kontzeptuak; hautaketa-sistemak; sarbide-sistema konparatuak. Herri Administrazioan indarrean dagoen eredua.

47. GAIA: Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala:

Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalaren izaera; Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalaren egitura; Lanbide-kualifikazioak; Gaitasun-atala; Prestakuntza-moduluak; Kualifikazio-mailak.

Goi-mailako hezkuntzarako kualifikazioen Espainiako esparrua.

48. GAIA: Lanbide-karrera Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legean. karrera profesionalerako eta barne-sustapenerako eskubidea; betetzearen ebaluazioa; Administrazioa lanpostuz hornitzea, eta mugikortasuna. Administrazio-karrera Euskal Funtzio Publikoaren Legean.

49. GAIA: Herri administrazioko langileen administrazio-egoerak.

50. GAIA: Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu Publikoa Antolatzeko Plana (EAP)

51. GAIA: Modu kolektiboan erabilitako eskubide indibidualak; negoziazio kolektiboa; negoziazio-mahaiak; negoziatu daitezkeen gaiak; itunak eta akordioak; ordezkaritza-organoak; langileen ordezkaritza-eginkizunaren bermeak; biltzeko eskubidea.

52. GAIA. Eraldaketa digitala administrazio publikoetarako: Aldaketaren kudeaketa eta antolaketa.

53. GAIA: Datuen gobernua eta haren jarduerak. Datuak kudeatzeko antolamendu-eraikuntzak eta arrakasta izateko faktore kritikoak. Nola eraiki datuen kudeaketaren antolaketa? . Datu-kudeaketaren rolak eta haien arteko interakzioak.

HIRUGARRENA bis: ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA (2n zatia)

54. GAIA: EBko Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra: Tratamenduaren arduraduna eta tratamenduaren eragilea (IV. kapitulua, 1. atala.- betebehar orokorrak). Informatzeko betebeharra betetzea: zer aldatzen duen DBEOk informatzeko betebeharrari dagokionez; nork, noiz, non eta nola informatu behar den; geruzen araberako informazioa.

55. GAIA: EBren Administrazio Elektronikoari buruzko Ekintza-plana (2016-2020): ikuspegia eta printzipio nagusiak. Desgaitasuna duten pertsonek sarbidea izateko oinarrizko baldintzei buruzko erregelamendua. Erabilerraztasunerako eta diskriminatua ez

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

izateko oinarrizko baldintzak, telekomunikazioen arloan; erabilerraztasunerako eta diskriminatua ez izateko irizpideak eta oinarrizko baldintzak, informazioaren gizartearen arloan; erabilerraztasunerako eta diskriminatua ez izateko oinarrizko baldintzak, gizarte-hedabideen arloan.

56. GAIA: Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretua, Administrazio Elektronikoari buruzkoa. xedapen orokorrak; egoitza elektronikoa; herritarren identifikazioa eta autentifikazioa; komunikazio eta jakinarazpen elektronikoak; dokumentu elektronikoak.

57. GAIA: Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa eta administrazio-prozeduren eta zerbitzuen katalogoa. Interneteko atariak, sarbide-puntu nagusi elektronikoa eta egoitza elektronikoak (203/2021 Erregelamenduaren I. titulua). AIS (administrazio-informazioko sistema).

58. GAIA: Administrazio Elektronikoaren Elkarreragingarritasunareno Eskema Nazionala: oinarrizko printzipioak; antolaketa-elkarreragingarritasuna; elkarreragingarritasun teknikoa; herri-administrazioen komunikazioak; teknologia berrerabiltzea eta transferitzea; dokumentu elektronikoa berreskuratu eta kontserbatzea; Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalaren garapena.

59. GAIA: Administrazio Elektronikoaren Segurtasunaren Eskema Nazionala: Segurtasunaren Eskema Nazionalaren printzipio nagusiak; segurtasun-politika eta segurtasunerako gutxieneko betekizunak; langileen kudeaketa; sarbide-baimena eta -kontrola; instalazioen babesa; biltegiratutako eta bidean den informazioaren babesa; prebentzioa elkarrekin konektatutako beste informazio-sistema batzuen aurrean; jardueraren erregistroa eta kode kaltegarriaren detekzioa; segurtasunaren auditoria; informazio-sistemen kategoriak (I. eranskina); segurtasun-neurriak (II. eranskina). Xedapen orokorrak.

60. GAIA: Sarearekiko Konexiorako Betekizunen Elkarreragingarritasunaren Arau Teknikoa: Oharbide orokorrak; agenteak eta SARA sarearekiko konexioa; sarbidea eta zerbitzuen erabilera; agenteak eta rolak. Datuen Bitartekotza-protokoloen Elkarreragingarritasunaren Arau Teknikoa: datuen bitartekotzako trukeetako agenteak.

61. GAIA: Estandarren Katalogoaren Elkarreragingarritasunaren Arau Teknikoa: estandarren erabilera; estandarren atributuak (taula ez dago sartuta). Espediente elektronikoaren Elkarreragingarritasunaren Arau Teknikoa: espediente elektronikoaren osagaiak eta metadatuak; espediente elektronikoen trukatzea.

62. GAIA: Identifikazio elektronikoa: identifikazio elektronikoko sistemen segurtasun-mailak; sinadura elektronikoa; zigilu elektronikoak; data-orduen zigilu elektronikoa.

63. GAIA: Faktura elektronikoa BFAn:

Faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorra sortzea; faktura elektronikoa erabiltzera behartuta daudenak. Faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrak bete behar dituen baldintza teknikoak eta funtzionalak: faktura elektronikoak aurkeztea; fakturak dagokion

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

fakturen kontabilitate-erregistrora bidaltzeko prozedura; faktura-egoeraren jarraipena eta aldaketa; erregistro-idazpena egitea dagokion erregistroan.

64. GAIA: Datu espazialen azpiegitura:

DEA baten definizioa, kontzeptuak eta izateko arrazoia: Zer da DEA bat? Kontzeptua, filosofia eta helburuak; DEA baten osagaiak; DEA baten egitura. Geoatariak eta DEA ekimenak: geoatariak.

LAUGARRENA: ZATI OROKORRA

65. GAIA: Espainiako 1978ko Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak.

66. GAIA: Estatuaren lurralde-antolaketa. Autonomia-estatutuak. Eskumenak Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean banatzeko sistema.

67. GAIA: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua. Atariko titulua. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenak: esklusiboak, legeak garatu eta betearaztekoak, eta betearaztekoak.

68. GAIA: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (jarraipena). Euskal Autonomia Erkidegoaren botereak. Eusko Legebiltzarra. Eusko Jaurlaritza. Lehendakaria. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioa.

69. GAIA: 12/2002 Legea, maiatzaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onesten duena. Arau orokorrak: lurralde historikoetako erakundeen eskumenak, printzipio nagusiak, zergak harmonizatzea, lankidetza-printzipioa eta Estatuarenak bakarrik diren eskumenak. Finantza-harremanak: printzipio nagusiak eta kupoa (kontzeptua).

70. GAIA: 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidegoko instituzio erkideen eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzkoa. Xedapen orokorrak. Lurralde historikoen eskumenak: esklusiboak, legeak garatu eta betearaztekoak, eta betearaztekoak.

71. GAIA: 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidegoko instituzio erkideen eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzkoa (jarraipena). Autonomia finantzarioa eta aurrekontu-autonomia. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusia. Foru-ogasunak. Ogasun Nagusiaren eta foru-ogasunen arteko baliabideen banaketari buruzko ideia orokorra. Herri Kontuen Euskal Epaitegia.

72. GAIA: Udalerriaren antolaketa. Probintziaren antolaketa eta eskumenak. Foru-aldundiak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

73. GAIA: Administrazio-egintza. Kontzeptua. Administrazio-egintza motak. Administrazio-egintzaren osagaiak.

74. GAIA: Administrazio-egintzen eraginkortasuna eta haien baldintzapena. Betearazgarritasuna eta etetea. Betearazpena. Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna. Egintzak administrazio-bidetik berrikustea. Ofizioz berrikustea.

75. GAIA: Administrazio-prozedura erkidea: Jarduteko arau orokorrak. Epe-mugak eta epeak. Faseak: Hasiera, antolamendua, instrukzioa.

76. GAIA: Administrazio-prozedura erkidea (jarraipena): Administrazio-prozeduraren faseak. Amaiera. Atzera egitea, uko egitea eta iraungitzea

77. GAIA: Administrazio-prozedura erkideko interesdunak: kontzeptua eta interesdunek jarduteko duten gaitasuna. Ordezkaritza. Interesdun bat baino gehiago egotea. Interesdunei baliabide elektronikoak erabiltzeko laguntza ematea.

78. GAIA: Administrazio-errekurtsoak. Printzipio orokorrak. Motak. Araubide juridikoa.

79. GAIA: Sektore publikoko kontratuak. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora: xedea eta aplikazio-eremua.

80. GAIA: Kontratu-motak zedarriztatzea. Erregulazio harmonizatuko kontratuak. Administrazio-kontratuak eta kontratu pribatuak. Kontratua burutzea eta kontratuaren forma. Baliogabetasun-araubidea. Kontratazio-arloko errekurtso berezia.

81. GAIA: Gastu publikoa. Kontzeptua eta motak. Gastu publikoaren ondorio ekonomikoak.

82. GAIA: Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa: funtzionario publikoen eskubideak eta eginbeharrak. Ordainsari-araubidea.

83. GAIA: 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Aurrekontuei buruzko 2006ko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onesten duena. Atariko titulua: Xedapen orokorrak (xedea eta aplikazio-eremua eta eskumenak). I. titulua: Bizkaiko Foru Ogasunaren araubidea (printzipio orokorrak, eskubide ekonomikoak eta betebehar ekonomikoak).

84. GAIA: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera arauzkotzeko oinarrizkoa: Atariko titulua. I. titulua: Herritarren eta Herri Agintaritzaren eskubide eta eginbeharrak hizkuntzaren alorrean.

85. GAIA: 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa. Bizkaiko Batzar Nagusiak. Bizkaiko Foru Aldundia. Izaera, osaera eta kargua uztea. Eskumenak. Ahaldun Nagusia.

86. GAIA: 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa (jarraipena). Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren arteko harremanak. Xedapen orokorrak. Foru Aldundiaren erantzukizuna.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Foru-arauen proiektuak egiteko prozedura. Foru-administrazioa. Arau orokorrak. Izaera orokorreko xedapenak eta administrazio-ebazpenak.

87. GAIA: 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzekoa: zioen adierazpena eta atariko titulua:

4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: hitzaurrea eta atariko titulua. I. titulua (Eskumenak, eginkizunak, antolaketa eta finantzaketa).

88. GAIA: 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: II. titulua: Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-sektore publikoan genero-ikuspegia txertatzeko neurriak. III. titulua: Emakumeen eta gizonen berdintasuna Bizkaiko foru-sektore publikoaren esku-hartzearen arloetan.

89. GAIA: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa: IX. titulua - Zehapen-araubidea (70-71 artikuluak eta 77. artikulua), X. titulua - Eskubide digitalen bermea, eskubideen aipamen orokorra eta xedapen gehigarriak:1.a, 2.a eta 8.a. 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa: II. titulua - Datuak Babesteko Euskal Bulegoa (10. artikulua eta 14-17 artikuluak) eta III. titulua - Zehatzeko araubidea (24. artikulua).

90. GAIA: 1/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa, Bizkaiko Gardentasunari buruzkoa. Publikotasun aktiboa: Aplikazio-eremua (2. art.), kontzeptua eta dimentsioak (5. art.), ez-betetzea (13. art.). Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea: Kontzeptua (18. art.), mugak (21. art.) eta ez onartzeko arrazoiak (22. art.). Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordea (27,28. eta 29. art.). Gardentasunaren bermea eta erantzukizunak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

HAUTAKETA-PROZESURAKO DEIALDIA, KARRERAKO FUNTZIONARIO SARTZEKO ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAN, AZPIESKALA TEKNIKOAN, BASOETAKO INGENIARI TEKNIKOA: EGONKORTZE-PLAZAK ETA ARRUNTAK

LEHENENGOA: EGONKORTZE-PLAZAK

1.Deialdian eskainitako plazak

Deialdia egiten da BASOETAKO INGENIARI TEKNIKO plaza bat (1) betetzeko (A taldea, A2 titulazio-azpitaldea),txanda irekitik derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna duena, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan ezarritakoaren babesean.

2. Titulazioa

Baso Ingeniaritza Teknikoa, Baso Ingeniaritzako gradua edo baliokidea.

3. Baldintza espezifikoak

Urriaren 30eko 5/2015 ELDaren 56.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, baldintza espezifikoa izango da IT txartel hauek edukitzea: Word oinarrizkoa eta Excel oinarrizkoa (baliodunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010). Word aurreratuaren eta Excel aurreratuaren IT txartelek Word oinarrizkoarena eta Excel oinarrizkoarena baliozkotuko dituzte, hurrenez hurren.

Ziurtagiria eskuratzeko proba egin ahal izateko, egiaztatutako zentro batean eman beharko da izena. Zentroen zerrenda osoa helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke: www.it-txartela.net.

Izen-ematea www.it-txartela.net helbidean egin daiteke. Informazioa eskura daiteke aipatutako helbide elektronikoan eta bide hauetakoren bat erabilita:

a) Aurrez aurre, egiaztatutako edozein zentrotara joanda.

b) Telefonoz, 902 25 25 95 zenbakira deituta.

Baldintza espezifiko hau betetzeko, aipatutako txartelak ez dituztenei bi (2) hilabeteko epea ematen zaie, deialdi hau BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Izangaiek ez dute agiririk aurkeztu beharko, Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten.

Txartelok epe horretan eskuratzen ez dituen izangaia hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko da.

4. Hautaketa-prozedura

4.1. OPOSIZIO-FASEA

Oposizio-faseak hiru (3) ariketa izango ditu, hirurak nahitaezkoak eta baztertzaileak.

4.1.a) Lehenengo ariketa:

Ariketa teorikoa izango da, eta, berrogeita hamasei (56) minutuan, hogeita zortzi (28) galderako test bat egin beharko da, gehi erreserbako bost (5) galdera. Galderak II. eranskineko gaiei buruzkoak izango dira, eta aukerako zenbait erantzun izango dituzte, baina bat baino ez da zuzena izango. Erantzun zuzenak puntu bat (1) balioko du, eta ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik, zuriz utzitakoengatik edo erantzun bi markatzeagatik.

4.1.b) Bigarren ariketa:

Ariketa praktikoa izango da. Epaimahaiak kasu batzuk proposatuko ditu, eta, azterketa egin baino lehentxeago, ausaz aukeratuko dira haietariko bat edo batzuk, laurogei minutuan (80) ebazteko. Kasu horiek II. eranskineko gaiekin loturik egongo dira. Erantzun anitzeko galderak dituen galdetegi batean egin ahalko dira erantzunak.

4.1.c) Hirugarren ariketa:

Euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailea izango da; betiere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da III. hizkuntza-eskakizunari dagokion mailan.

Bizkaiko Foru Aldundian III. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Halakoetan, parte-hartzaileak baimen espresua emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala ere, aurkeztu egin beharko dituzte azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta egon badauden baina erregistro horretan sartuta ez dauden gainerako euskara-titulu edo -ziurtagiriak; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

cve: BAO-2022a248-(I-1216)

Izangaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean egiaztatu nahi badute III. hizkuntza-eskakizuna, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko da.

4.2 LEHIAKETA

Lehiaketan, izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) dagozkion puntuak emango zaizkio.

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1. Merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketaren kalifikazioa.

5.2. Oposizio-fasea:

Lehen ariketari zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa emango zaio.

Bigarren ariketari zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa emango zaio.

2021eko abenduaren 28ko 20/21 Legearen 2.4 artikulua aplikatuz, bi ariketa horiek gaindituko dituzte lehenengo ariketaren eta bigarrenaren kalifikazioak batuta hamar (10) lortzen dutenek, baldin eta ariketa bakoitzean gutxienez bi eta erdi (2,5) atera badute.

5.2 Hirugarren ariketan (euskara), «gai» edo «ez gai» izango da kalifikazioa.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

6. Lan-poltsa

Egonkortze-plazen hautaketa-prozesutik ez da lan-poltsarik sortuko.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA BAO


I. ERANSKINA

EGONKORTZE-PLAZETARAKO MEREZIMENDUEN BAREMOA

ESPEZIALITATEA: BASOETAKO INGENIARI TEKNIKOA

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan eta azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat:

1.-Esperientzia; gehienez ere 9,1 puntu, honela banatuta:

1.a) Edozein administrazio publikotan BASOETAKO INGENIARI TEKNIKOA kategorian (A titulazio-taldea, A2 azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,0304 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere ehun hilabete (100) 3,04 puntu

1.b) Aurreko atalean adierazitako esperientziatik bereizirik, modu espezifiko eta osagarrian, Bizkaiko Foru Aldundian BASOETAKO INGENIARI TEKNIKOA kategorian (A taldea, A2 titulazio-azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,0608 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere ehun (100) hilabete. 6,08 puntu

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira administrazio publikotzat: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikuluetan jasotako erakundeak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 2.1 eta 2.3 artikuluetan jasoak. Orobat zenbatuko dira zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan egindako zerbitzuak, baina inola ere ez izaera publikoko beste erakunde batzuetan egindakoak, baldin eta enpresa, merkataritza-sozietate, fundazio edo elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa badute.

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbitzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatikirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

Nolanahi ere, zerbitzua lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legearen 20.1.c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientzia baloratzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ere: lehenik, zenbat denbora egon den izangaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen izangaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

2.-Administrazio publikoetan, administrazio publikoko eskoletan (IVAP, HAIN, HAEI edo beste administrazio-eskola batzuetan), nortasun juridiko publikoa duten zentroetan eta unibertsitate publiko zein pribatuetan prestakuntza-ikastaroetan eta/edo graduondoko titulazio akademikoetan emandako nahiz jasotako ordu-kopuruagatik, 0,017 puntu hartutako ordu bakoitzeko eta 0,050 puntu emandako ordu bakoitzeko; gehienez:3,4 puntu.

3) Ingelesa, frantsesa edo alemana jakiteagatik, baina hizkuntza bereko mailak metatzeko aukerarik gabe, eta gehienez ere 0,5 puntu, honela banaturik:

3 a) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-1 maila (ingelesa: Trinity College-n ingeleseko Grade 9 agiria; alemana: Goethe Institutuaren ZAP– Zertifikat Deutsch als Fremdsprache agiria, edo frantsesa: DELF 1er degré maila) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 3. maila edo oinarrizko zikloa edo B1.2.: ........................................................ 0,15 puntu.

3 b) Europako erreferentzia-markoko B-2 maila: Cambridgeko First Certificate of English agiria; edo alemana: ZMP –Zentrale Mittelstufenprüfung Goethe Institutuaren agiria, edo frantsesa: DELF 2éme degré. DL - Diplôme de Langue - Alliance Française) eta Hizkuntza Eskolaren 4. maila edo B2 maila aurreratua: ................... 0,30 puntu

3 c) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-2 maila (ingelesa: Cambridge Unibertsitateko Certificate in Advanced English edo Certificate of Proficiency in English agiriak edo Trinity Collegeko Passed Grade Twelve edo Oxford Unibertsitateko Higher Level maila; alemana: ZOP – Zentrale Oberstufenprufung edo KDS – Kleines Deutsches Sprachdiplom edo GDS – Grosses Deutsches Sprachdiplom agiriak), edo frantsesa: – DALF edo DSLCF – Diplôme Supérieur Langue et Culture Française – Alliance Française) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 5. maila nahiz EBko edozein hizkuntzaren filologian lizentziatura (goi mailako unibertsitate-titulua): 0,5 puntu

GUZTIRA ........................................................................................................................................13 PUNTU

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

II. ERANSKINA

EGONKORTZE-PLAZETARAKO GAIAK

BASOETAKO INGENIARI TEKNIKOA

Tema1. Basoberritzea 1. Basoberritze-teknikak: ereitea eta landatzea, basoberritzearen eta osagarrien abantailak eta eragozpenak. 2. Erabili beharreko makinak eta tresnak. 3. Landaketetan erabili beharreko landareen adina, neurriak eta egokitzea.

2. gaia. *Fagus sylvatica*. 1. Espeziea eta haren ekologia. Berezko eremua eta banaketa Bizkaian. 2. Masa horien egitura eta ezaugarriak Bizkaian. 3. Basogintza, basoberritzea eta biodibertsitatea masa horiei loturik. 4. Egurraren ezaugarriak eta erabilerak.

3. gaia. *Quercus robur* eta *Quercus pétrea*: 1. Espezieak eta haien ekologia. 2. Berezko eremua eta banaketa Bizkaian. Masa horien egitura eta ezaugarriak Bizkaian. 3. Basogintza, basoberritzea eta biodibertsitatea masa horiei loturik. 4. Egurraren ezaugarriak eta erabilera.

4. gaia. *Quercus ilex*, *Q. faginea* eta *Q. pyrenaica*. 1. Espezieak eta haien ekologia. Berezko eremua eta banaketa Bizkaian. 2. Masa horien egitura eta ezaugarriak Bizkaian. 3. Basogintza, basoberritzea eta biodibertsitatea masa horiei loturik. 4. Egurraren ezaugarriak eta erabilera.

5. gaia. *Castanea sativa*. 1. Espeziea eta haren ekologia. Berezko eremua eta banaketa Bizkaian. 2. Masa horien egitura eta ezaugarriak Bizkaian. 3 Basogintza, basoberritzea eta biodibertsitatea masa horiei loturik. 4.Egurraren ezaugarriak eta erabilerak.

6. gaia. *Fraxinus excelsior* eta *Alnus glutinosa* (L.) Gaertn. 1. Espezieak eta haien ekologia. Berezko eremua eta banaketa Bizkaian. 2 Basogintza. Basoberritzea. 3. Egurraren ezaugarriak eta erabilerak.

7. gaia. Eucalyptus generoa. 1. Espezie nagusiak eta haien ekologia. Berezko eremua eta banaketa Bizkaian. Basogintza. 2. Basoberritzea. Biodibertsitatea masa horiei loturik. 3. Egurraren ezaugarriak eta erabilerak.

8. gaia. *Pseudotsuga menziesii* (Mirb.) Franco eta *Larix*, *Picea*, *Abies*, *Cedrus* eta *Chamaecyparis* generoak. 1. Bizkaiko baldintza klimatikoetara eta urtaroen ezaugarrietara gehien egokituriko espezieak. 2. Ekologia, klima eta lurzorua. 3. Masa artifizialen sorkuntza. Tratamenduak. 4. Haien egurren produkzioa eta erabilerak.

9. gaia. *Pinus Pinaster*. 1. artikulua. Espeziea eta haren ekologia. Berezko eremua eta banaketa Bizkaian. 2. Basogintza, basoberritzea. 3. Egurraren ezaugarriak eta erabilerak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

10. gaia. *Pinus radiata* D. Don. 1. Espeziea eta haren ekologia.2. Berezko eremua eta banaketa Bizkaian. 3. Basogintza, basoberritzea eta biodibertsitatea masa horiei loturik. 4. Egurraren ezaugarriak eta erabilerak.

11. gaia. *Pinus nigra* Arn., *laricio* (Poiret) Maire azpiespeziea. 1. Espeziea eta haren ekologia.2. Berezko eremua eta banaketa Bizkaian. 3.Basogintza, basoberritzea eta biodibertsitatea masa horiei loturik.4. Egurraren ezaugarriak eta erabilerak.

12. gaia. Baso-masetako izurriteak. 1. Kontzeptu orokorrak, kanpoko anatomia, ugalketa, errunaldia eta garapena. Intsektuen ugaritasuna eta plaga-fenomenoa: potentzial biotikoaren faktoreak, ingurumenaren erresistentzia, oreka ekologikoa. 2. Izurriteen kontrola: basoetako intsektu-izurriteen aurkako prebentzio-neurriak eta borroka fisiko, kimiko eta biologikoa.

13. gaia. Basoetako patologiak. Koniferoen onddo-gaixotasun nagusiak: *Diplodia pinea*, *Dothistroma Pino*, *Lecanoscita acicola*, *Fusarium circinatum*, *Armillarea mellea*. 1. Ostalaria. 2. Patogenoa.3. Onddoaren biologia. Sintomak, kalteak, arrisku-faktoreak. 4. Kontrolatzeko modua.

14. gaia. Bizkaiko ibaietako salmonidoak. Izokin arrunta (*Salmon salar*) eta amuarrain arrunta (*Salmon trutta L*): Deskribapena, habitata, kontserbazio-estatusa, mehatxu-faktoreak, kontserbazio-neurriak, biologia, Bizkaiko banaketa geografikoa eta populazioak berreskuratzeko neurriak. Bizkaian arrantzatu daitezkeen ziprinidoak: barboa (*Luciobarbus graellsii*), loina (*Parachondostroma miegii*) eta zamo txikia (*Carassius auratus*): biologia eta habitata.

15. gaia. Zutik eta apea eran eginiko zuhaitzen kubikatzea eta neurketa. 1. Diametroen neurketa. 2. Zuhaitzen altuera neurtzea. 3. Formaren azterketa. 4. Zuhaitzen bolumenaren neurketa. 5.Errelaskopioa eta zenbaketa angeluarraren bidezko laginketa.

16. gaia. Baso-antolamendua. 1.Inbentarioa: Egoera legala, naturala, basokoa eta ekonomikoa. 2. Basoaren banaketa. 3. Ekoizpenak eta etekinak. 4. Arboladiak antolatzeko metodoak, adin berekoak, erregularrak eta erdierregularrak.

17. gaia. Baso-suteak Bizkaian. 1. Baso-suteak itzaltzea Bizkaian. INFOBI esku-hartzeko dispositiboaren antolamendua eta egitura. 2. Larrialdietan jokatzeko sistema ICS. 3. Aginte postu aurreratua. 4. Suteak itzaltzeko giza baliabideak eta baliabide materialak. Suteak itzaltzeko metodoak. 5. Segurtasuna eta arriskuen prebentzioa suteak itzaltzean. Arrisku-egoerak. Segurtasun-neurriak. OACEL protokoloa.

18. gaia: Ehiza Bizkaian. Bizkaiko Lurralde Historikoko ehiza-jarduera erregulatzen duen araudia eta ehiza-antolamendua: 4299/2022 Foru Agindua, uztailaren 1ekoa, zeinaren bidez arautzen baita Bizkaiko Lurralde Historikoko ehiza jarduera, eta Bizkaiko Lurralde Historikoan arautako pase-lerroetan uso eta birigarro migratzaileak ehizatzeko arauak ezartzen dituen foru-agindua. Baimen bereziak dituzten modalitateak: arku bidezko ehiza eta harrapari bidezko ehiza. Bizkaiko Foru Aldundiaren 33/2022 Foru Dekretua, martxoaren 22koa, basafaunako aleen balio zenbatetsiak ezartzekoa.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

19. gaia. Arrantza kontinentala Bizkaian. Bizkaiko Lurralde Historikoan arrantza kontinentalaren aprobetxamendua erregulatzen duen araudia: 1919/2022 Foru Agindua, martxoaren 6koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko arrantza kontinentalaren aprobetxamenduari buruzko araudia garatzen duena.

20. gaia. Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentaraua, maiatzaren 21ekoa, habitat naturalen eta basoko fauna eta floraren kontserbazioari buruzkoa. 1. Natura 2000 sarearen helburu orokorrak: BGL eta KBE tokiak. 2. Espezieen babesa.

21. gaia. Basogintzako laguntza-plana, basoetako azpiegituretan inbertsioak egiteko eta basoen bideragarritasuna garatu eta hobetzeko. BFAren 2022ko maiatzaren 10eko 69/2022 Foru Dekretua. 1. Helburuak eta lehentasunak. 2. Diruz lagun daitezkeen jarduerak eta pertsona eta erakunde onuradunak. 3. Aurretik bete behar diren baldintzak eta betekizunak. 4. Moduluak eta dirulaguntzak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

BIGARRENA: PLAZA ARRUNTAK

1.Deialdian eskainitako plazak

Deialdia egiten da BASOETAKO INGENIARI TEKNIKOen hiru (3) plaza betetzeko (A taldea, A2 titulazio-azpitaldea) txanda irekitik derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna dutenak.

2. Titulazioa

Baso Ingeniaritza Teknikoa, Baso Ingeniaritzako gradua edo baliokidea.

3. Baldintza espezifikoak

Urriaren 30eko 5/2015 ELDaren 56.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, baldintza espezifikoa izango da IT txartel hauek edukitzea: Word oinarrizkoa eta Excel oinarrizkoa (baliodunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010). Word aurreratuaren eta Excel aurreratuaren IT txartelek Word oinarrizkoarena eta Excel oinarrizkoarena baliozkotuko dituzte, hurrenez hurren.

Ziurtagiria eskuratzeko proba egin ahal izateko, egiaztatutako zentro batean eman beharko da izena. Zentroen zerrenda osoa helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke: www.it-txartela.net.

Izen-ematea www.it-txartela.net helbidean egin daiteke. Informazioa eskura daiteke aipatutako helbide elektronikoan eta bide hauetakoren bat erabilita:

a) Aurrez aurre, egiaztatutako edozein zentrotara joanda.

b) Telefonoz, 902 25 25 95 zenbakira deituta.

Baldintza espezifiko hau betetzeko, aipatutako txartelak ez dituztenei bi (2) hilabeteko epea ematen zaie, deialdi hau BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Izangaiek ez dute agiririk aurkeztu beharko, Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten.

Txartelok epe horretan eskuratzen ez dituen izangaia hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko da, baita osatuko den lan-poltsatik ere.

4. Hautaketa-prozedura

4,1. OPOSIZIO-FASEA

Oposizio-faseak hiru (3) ariketa izango ditu, hirurak nahitaezkoak eta baztertzaileak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

4.1.a) Lehenengo ariketa

Ariketa teorikoa izango da. 80 galderako test bat egin beharko da (gehi erreserbako 10 galdera), ehun eta hirurogei (160) minutuan. Zenbait erantzun eskainiko dira galderetan, baina haietariko bat bakarrik izango da zuzena. Agiri honen IV. eranskin gisa datorren gaizerrendan jasotako gaiei buruzko galderak izango dira. Erantzun zuzen bakoitzeko puntu 1 emango da, baina erantzun oker bakoitzeko 0,33 puntu kenduko dira. Ez da punturik kenduko zuriz utzitako erantzunengatik edo bi marka dituztenengatik.

4.1.b) Bigarren ariketa:

Ariketa praktikoa izango da. Epaimahaiak kasu batzuk proposatuko ditu, eta, azterketa egin baino lehentxeago, ausaz aukeratuko dira haietariko bat edo batzuk, lau orduan (4) ebazteko. Kasu horiek IV. eranskineko gaitegiko I. eta II. zatiarekin loturik egongo dira. Erantzun anitzeko galderak dituen galdetegi batean aukeratu beharko dira erantzunak.

4.1.c) Hirugarren ariketa:

Euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailea izango da; betiere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da III. hizkuntza-eskakizunari dagokion mailan.

Bizkaiko Foru Aldundian III. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Halakoetan, parte-hartzaileak baimen espresua emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala ere, aurkeztu egin beharko dituzte azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta egon badauden baina erregistro horretan sartuta ez dauden gainerako euskara-titulu edo -ziurtagiriak; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Izangaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean egiaztatu nahi badute III. hizkuntza-eskakizuna, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko da.

4.2 LEHIAKETA

Lehiaketan, izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera dagozkion puntuak emango zaizkio (III. eranskina).

5.Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1 Merezimenduen baremoaren arabera (III. eranskina) emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketaren kalifikazioa.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

5.2 Oposizio-fasea:

a) Lehenengo ariketari zerotik (0) hamar (10) puntura bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta bost (5) puntu lortzen ez dituzten hautagaiak baztertuta geratuko dira.

Hala ere, gainditutako pertsonen kopurua ez bada iristen 9ra, puntuaziorik handiena lortu duten 9 pertsonak hurrengo ariketara igaroko dira; horretarako, parte-hartzeko txanda guztiak hartuko dira kontuan. Noten mozketa-puntuan berdinketa gertatuz gero, mozketa-notaren pareko nota duten izangai guztiek gaindituko dute ariketa hau.

Izangaiek deialdi honen ostean deitzen den hurrengo deialdirako gorde ahal izango dute ariketa honetako kalifikazioa, baldin eta deialdi horretan hala ezartzen bada; horretarako, betiere, txanda berean parte hartu behar dute.

Txanda honetan berean parte hartu zutenek Bizkaiko Ahaldun Nagusiaren 2018ko urriaren 22ko 169/2018 Foru Dekretuaren bidez egin zen deialdian (2018ko 208. BAO, urriaren 29koa), aukera hori baliatzeko modua izango dute, baldin eta idatziz adierazten badute hori eskabide-orrian eta txanda berean parte hartzen badute.

Eskubide hori baliatzeko, hautaprobetan parte hartzeko eskabidea aurkeztu beharko dute eta dagokion tasa ordaindu. Aukera hori baliatu duen izangaiak deialdi honetako azterketa egiten badu, bi prozesuetan lortutako kalifikazioetatik altuena emango zaio zuzenean. Eskubide hori baliatu eta azterketa ez egiteko aukera behin bakarrik erabili ahal izango da, eta eskubidea baliatu ondoren egiten den hurrengo deialdian azterketa osoa egin beharko da.

b) Bigarren ariketari zerotik (0) hamar (10) puntura bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta bost (5) puntu lortzen ez dituzten izangaiak berez geratuko dira baztertuta.

c) Hirugarren ariketan, Gai edo Ez gai izango da kalifikazioa.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

6.-Lan-poltsa

Hautaketa-prozesu honetatik, lan-poltsa sortuko da lehenengo ariketa (teorikoa) gainditzen dutenekin, bosgarren oinarrian xedatutakoaren arabera.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

III. ERANSKINA

PLAZA ARRUNTETARAKO MEREZIMENDUEN BAREMOA

ESPEZIALITATEA: BASOETAKO INGENIARI TEKNIKOA

1. Edozein administrazio publikotan BASOETAKO INGENIARI TEKNIKOA kategorian (A taldea, A2 titulazio-azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,05 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere hirurogei (60) hilabete. 3 puntu

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira administrazio publikotzat: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikuluetan jasotako erakundeak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 2.1 eta 2.3 artikuluetan jasoak. Orobat zenbatuko dira zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan egindako zerbitzuak, baina inola ere ez izaera publikoko beste erakunde batzuetan egindakoak, baldin eta enpresa, merkataritza-sozietate, fundazio edo elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa badute.

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbitzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatikirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

Nolanahi ere, zerbitzua lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legearen 20.1.c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientzia baloratzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ere: lehenik, zenbat denbora egon den izangaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen izangaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

2. Administrazio publikoetan, administrazio publikoko eskoletan (IVAP, HAIN, HAEI edo beste administrazio-eskola batzuetan), nortasun juridiko publikoa duten zentroetan eta unibertsitate publiko zein pribatuetan prestakuntza-ikastaroetan eta/edo graduondo zein masterreko titulazio akademikoetan emandako nahiz jasotako ordu-kopuruagatik, 0,0075 puntu hartutako ordu bakoitzeko eta 0,02 puntu emandako ordu bakoitzeko; gehienez: 1,5 puntu.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

3. Europar Batasuneko hizkuntza bat edo bi jakiteagatik, baina hizkuntza beraren maila ezberdinak metatzeko aukerarik gabe. Gehienez 0,5 puntu lor daiteke, banaketa honen arabera:

3 a) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-1 maila (besteak beste, ingelesa: Trinity College-n ingeleseko Grade 9 agiria; alemana: Goethe Institutuaren ZAP–Zertifikat Deutsch als Fremdsprache agiria, edo frantsesa: DELF 1er degré maila) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 3. maila edo oinarrizko zikloa edo B1.2.: ..................................................... 0,15 puntu.

3 b) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-2 maila (besteak beste, ingelesa: Cambridgeko First Certificate of English agiria; alemana: Goethe Institutuaren ZMP -Zentrale Mittelstufenprüfung agiria, edo frantsesa: DELF 2ème degré. DL - Diplôme de Langue - Alliance Française) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 4. maila edo B2 maila aurreratua: 0,30 puntu

3 c) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-2 maila (besteak beste, ingelesa: Cambridge Unibertsitateko Certificate in Advanced English edo Certificate of Proficiency in English agiriak edo Trinity Collegeko Passed Grade Twelve edo Oxford Unibertsitateko Higher Level maila; alemana: ZOP – Zentrale Oberstufenprufung edo KDS – Kleines Deutsches Sprachdiplom edo GDS – Grosses Deutsches Sprachdiplom agiriak), edo frantsesa: – DALF edo DSLCF – Diplôme Supérieur Langue et Culture Française – Alliance Française) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 5. maila nahiz EBko edozein hizkuntzaren filologian lizentziatura (goi mailako unibertsitate-titulua): 0,5 puntu.

GUZTIRA ..........................................................................................................5 PUNTU

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

IV. ERANSKINA

PLAZA ARRUNTETARAKO GAIAK

BASOETAKO INGENIARI TEKNIKOA

I. ZATIA

1. gaia. Basoberritzea 1. Basoberritze-teknikak: ereitea eta landatzea, basoberritzearen eta osagarrien abantailak eta eragozpenak. 2. Erabili beharreko makinak eta tresnak. 3. Landaketetan erabili beharreko landareen adina, neurriak eta egokitzea.

2. gaia. *Fagus sylvatica*. 1.Espeziea eta haren ekologia. Berezko eremua eta banaketa Bizkaian. 2.Masa horien egitura eta ezaugarriak Bizkaian. 3.Basogintza, basoberritzea eta biodibertsitatea masa horiei loturik. 4. Egurraren ezaugarriak eta erabilerak.

3. gaia. *Quercus robur* eta *Quercus pétrea*: 1. Espezieak eta haien ekologia. 2. Berezko eremua eta banaketa Bizkaian. Masa horien egitura eta ezaugarriak Bizkaian. 3. Basogintza, basoberritzea eta biodibertsitatea masa horiei loturik. 4. Egurraren ezaugarriak eta erabilera.

4. gaia. *Quercus ilex*, *Q. faginea* eta *Q. pyrenaica*. 1. Espezieak eta haien ekologia. Berezko eremua eta banaketa Bizkaian. 2. Masa horien egitura eta ezaugarriak Bizkaian. 3. Basogintza, basoberritzea eta biodibertsitatea masa horiei loturik. 4. Egurraren ezaugarriak eta erabilera.

5. gaia. *Castanea sativa*. 1. Espeziea eta haren ekologia. Berezko eremua eta banaketa Bizkaian. 2. Masa horien egitura eta ezaugarriak Bizkaian. 3. Basogintza, basoberritzea eta biodibertsitatea masa horiei loturik. 4.Egurraren ezaugarriak eta erabilerak.

6. gaia. *Fraxinus excelsior* eta *Alnus glutinosa* (L.) Gaertn. 1. Espezieak eta haien ekologia. Berezko eremua eta banaketa Bizkaian. 2. Basogintza. Basoberritzea. 3. Egurraren ezaugarriak eta erabilerak.

7. gaia. Eucalyptus generoa. 1. Espezie nagusiak eta haien ekologia. Berezko eremua eta banaketa Bizkaian. Basogintza. 2. Basoberritzea. Biodibertsitatea masa horiei loturik. 3. Egurraren ezaugarriak eta erabilerak.

8. gaia. *Pseudotsuga menziesii* (Mirb.) Franco eta *Larix*, *Picea*, *Abies*, *Cedrus* eta *Chamaecyparis* generoak. 1. Bizkaiko baldintza klimatikoetara eta urtaroen ezaugarrietara gehien egokituriko espezieak. 2. Ekologia, klima eta lurzorua. 3. Masa artifizialen sorkuntza. Tratamenduak. 4. Haien egurren produkzioa eta erabilerak.

9. gaia. *Pinus Pinaster*. 1. artikulua. Espeziea eta haren ekologia. Berezko eremua eta banaketa Bizkaian. 2. Basogintza, basoberritzea. 3. Egurraren ezaugarriak eta erabilerak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

10. gaia. *Pinus radiata* D. Don. 1. Espeziea eta haren ekologia.2. Berezko eremua eta banaketa Bizkaian. 3. Basogintza, basoberritzea eta biodibertsitatea masa horiei loturik. 4. Egurraren ezaugarriak eta erabilerak.

11. gaia. *Pinus nigra* Arn., *laricio* (Poiret) Maire azpiespeziea. 1. Espeziea eta haren ekologia.2. Berezko eremua eta banaketa Bizkaian. 3.Basogintza, basoberritzea eta biodibertsitatea masa horiei loturik.4. Egurraren ezaugarriak eta erabilerak.

12. gaia. Baso-masetako izurriteak. 1. Kontzeptu orokorrak, kanpoko anatomia, ugalketa, errunaldia eta garapena. Intsektuen ugaritasuna eta plaga-fenomenoa: potentzial biotikoaren faktoreak, ingurumenaren erresistentzia, oreka ekologikoa. 2. Izurriteen kontrola: basoetako intsektu-izurriteen aurkako prebentzio-neurriak eta borroka fisiko, kimiko eta biologikoa.

13. gaia. Basoetako patologiak. Koniferoen onddo-gaixotasun nagusiak: *Diplodia pinea*, *Dothistroma Pino*, *Lecanoscita acicola*, *Fusarium circinatum*, *Armillarea mellea*. 1. Ostalaria. 2. Patogenoa.3. Onddoaren biologia. Sintomak, kalteak, arrisku-faktoreak. 4. Kontrolatzeko modua.

14. gaia. Bizkaiko ibaietako salmonidoak. Izokin arrunta (*Salmon salar*) eta amuarrain arrunta (*Salmon trutta L*): Deskribapena, habitata, kontserbazio-estatusa, mehatxu-faktoreak, kontserbazio-neurriak, biologia, Bizkaiko banaketa geografikoa eta populazioak berreskuratzeko neurriak. Bizkaian arrantzatu daitezkeen ziprinidoak: barboa (*Luciobarbus graellsii*), loina (*Parachondostroma miegii*) eta zamo txikia (*Carassius auratus*): biologia eta habitata.

15. gaia. Zutik eta apea eran eginiko zuhaitzen kubikatzea eta neurketa. 1. Diametroen neurketa. 2. Zuhaitzen altuera neurtzea. 3. Formaren azterketa. 4. Zuhaitzen bolumenaren neurketa. 5.Errelaskopioa eta zenbaketa angeluarraren bidezko laginketa.

16. gaia. Baso-antolamendua. 1.Inbentarioa: Egoera legala, naturala, basokoa eta ekonomikoa. 2. Basoaren banaketa. 3. Ekoizpenak eta etekinak. 4. Arboladiak antolatzeko metodoak, adin berekoak, erregularrak eta erdierregularrak.

17. gaia. Baso-suteak Bizkaian. 1. Baso-suteak itzaltzea Bizkaian. INFOBI esku-hartzeko dispositiboaren antolamendua eta egitura. 2. Larrialdietan jokatzeko sistema ICS. 3. Aginte postu aurreratua. 4. Suteak itzaltzeko giza baliabideak eta baliabide materialak. Suteak itzaltzeko metodoak. 5. Segurtasuna eta arriskuen prebentzioa suteak itzaltzean. Arrisku-egoerak. Segurtasun-neurriak. OACEL protokoloa.

18. gaia: Ehiza Bizkaian. Bizkaiko Lurralde Historikoko ehiza-jarduera erregulatzen duen araudia eta ehiza-antolamendua: 4299/2022 Foru Agindua, uztailaren 1ekoa, zeinaren bidez arautzen baita Bizkaiko Lurralde Historikoko ehiza jarduera, eta Bizkaiko Lurralde Historikoan araut[u]tako pase-lerroetan uso eta birigarro migratzaileak ehizatzeko arauak ezartzen dituen foru-agindua. Baimen bereziak dituzten modalitateak: arku bidezko ehiza eta harrapari bidezko ehiza. Bizkaiko Foru Aldundiaren 33/2022 Foru Dekretua, martxoaren 22koa, basafaunako aleen balio zenbatetsiak ezartzekoa.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

19. gaia. Arrantza kontinentala Bizkaian. Bizkaiko Lurralde Historikoan arrantza kontinentalaren aprobetxamendua erregulatzen duen araudia: 1919/2022 Foru Agindua, martxoaren 6koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko arrantza kontinentalaren aprobetxamenduari buruzko araudia garatzen duena.

20. gaia. Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentaraua, maiatzaren 21ekoa, habitat naturalen eta basoko fauna eta floraren kontserbazioari buruzkoa. 1. Natura 2000 sarearen helburu orokorrak: BGL eta KBE tokiak. 2. Espezieen babesa.

21. gaia. Basogintzako laguntza-plana, basoetako azpiegituretan inbertsioak egiteko eta basoen bideragarritasuna garatu eta hobetzeko. BFAren 2022ko maiatzaren 10eko 69/2022 Foru Dekretua. 1. Helburuak eta lehentasunak. 2. Diruz lagun daitezkeen jarduerak eta pertsona eta erakunde onuradunak. 3. Aurretik bete behar diren baldintzak eta betekizunak. 4. Moduluak eta dirulaguntzak.

II. ZATIA

22. gaia. Baso-estazioen kalitatea. 1. Kokapen-indizea. 2.Estazioaren kalitatea, landarediaren arabera. 3. Lurzoruaren faktoreak eta faktore topografikoak. 4. Dendroklonologia.

23. gaia. Thaumetopoea pityocampa. Pinu-beldarra. 1. Espeziearen deskripzioa, ziklo biologikoa eta ohiturak. 2. Banaketa, identifikazioa, kuantifikazioa eta kalte motak, parasitoak, harrapariak eta gaixotasunak. Populazio-dinamika. 3. Kontrolatzeko tratamendua eta borrokatzeko metodoak.

24. gaia. Lepidoptero hostogabetzaileak. *Tortris viridiana*, *Limantria dispar*, *Rhiacionia buoliana*. 1. Espeziearen deskripzioa, ziklo biologikoa eta ohiturak. 2. Banaketa, identifikazioa, kalteen kuantifikazioa, parasitoak, harrapariak eta gaixotasunak. 3. Populazio-dinamika. Kontrolatzeko tratamendua eta borrokatzeko metodoak.

25. gaia. Tomicus spp eta IPs spp eskolitidoak. Eskolitidoak, konifera-izurriak Bizkaian. 1. Espezieen deskripzioa, ziklo biologikoa eta ohiturak. 2. Banaketa, identifikazioa, kalteak, parasitoak, harrapakariak eta erasaten dioten gaixotasunak. 3. Populazio-dinamika. 4. Kontrolatzeko tratamendua eta borrokatzeko metodoak.

26. gaia. Pisodes notatus eta Hilobius abietis kurkulionidoak. Konifera-izurriak Bizkaian. 1. Espezieen deskripzioa, ziklo biologikoa eta ohiturak. 2. Banaketa, identifikazioa, kalteak, parasitoak, harrapakariak eta erasaten dioten gaixotasunak. 3. Populazio-dinamika.4. Kontrolatzeko tratamendua eta borrokatzeko metodoak.

27. gaia. Ibaietako ekosistemak berreskuratzea.

Ibaiak berreskuratzeko printzipio orokorrak, ibaiertzen landareztatzea eta bioingeniaritza ibaien berreskuraketan. Arrainentzako igarobideak: eskalak eta beste igarobide batzuk. Diseinua, eraikuntza eta ebaluazioa.

28. gaia. Mendiei eta Babestutako Naturguneen Administrazioari buruzko ekainaren 2ko 3/94 Foru Araua, 2007ko martxoaren 20ko 2/2007 Foru Arauak aldatua. 1. Xedea eta

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

kontzeptu orokorrak. Mendien sailkapena eta araubide juridikoa. 2. Erabilera-aldaketa. 3. Herri onurako mendiak mugatzea, mugarriztatzea, kargak ezartzea eta okupatzea.

29. gaia. Mendiei eta Babestutako Naturguneen Administrazioari buruzko ekainaren 2ko 3/94 Foru Araua, 2007ko martxoaren 20ko 2/2007 Foru Arauak aldatua. 1. Mendien eta baso-eremuen antolamendua eta aprobetxamendua.2. Mendien aisialdiko erabilera. 3. Basoak Hobetzeko Funtsa eta Bizkaiko Mendien Batzordea. 4. Zehapen-araubidea. Arau-hausteak eta zehapenak.

30. gaia. 11/1997 Foru Araua, urriaren 14koa, bertoko zenbait zuhaitz motaren araubide bereziari buruzkoa: 1. Funtsezko alderdiak eta zer espezie ukitzen dituen. 2. Espezie nagusien kopuruak, indarreko baso-inbentarioaren arabera. 3. Aprobetxamenduen arauketa. 4. Arau-hausteak eta zehapen-araubidea.

31. gaia. Basogintzako ziurtagiriak. Araudi erregulatzailea Bizkaian. 71/2013 Foru Dekretua, maiatzaren 7koa. 1. Basoen kudeaketa iraunkorrerako plan teknikoak (BKIPT) eta basoen kudeaketa iraunkorrerako plan tekniko sinpleak (BKIPT sinpleak). 1. Edukia 2. Mota bien tramitazioa, onarpena, indarraldia eta berrikuspena.3. BKIPT eta BKIPT sinpleen arteko aldeak.

32. gaia. Basoetako zuhaitzen mozketa eta baso-ekoizkinen ateratzea. 1. Zur-aprobetxamenduen merkatua. 2. Zur-aprobetxamenduan erabiltzen diren teknikak eta materialak. 3. Zur-aprobetxamendua planifikatzeko eta kontrolatzeko oinarriak.

33. gaia. Baso-suteak Bizkaian.1. Arrisku-faktoreak eta suteen eragileak. 2. Arrisku-garaiak Bizkaian. 3. Basoko suteen kontrako prebentzio-neurriak: Prebentziorako azpiegiturak, suebakitzaileak, baso-pisten sarea, ur-puntuak. 4. Erreketak egiteko baimena. 5699/2012 Foru Agindua, urriaren 11koa, Bizkaiko Lurralde Historikoan baso-suteen prebentzioa arautzen duena.

34. gaia. 2/2011 Legea, martxoaren 17koa, Ehizarena: I. titulua. Xedapen orokorrak. II. titulua. Ehiza espezieei buruz. III. titulua. Ehiza lurrei buruz. IV. titulua. Antolamendua eta kudeaketa. V. titulua. Ehizan jardutea.

35. gaia. Basoko pistak eta bideak. 1. Bideen sailkapena. 2. Bide-sare optimoa. Bidearen ordena: 2.1 Sare optimoaren sailkapena. 2.2 Dentsitate orientagarriak. 2.3 Eraikuntza-ezaugarriak. 3.1.Egungo egoera: 3.1 Egungo egoeraren sailkapena. 3,2. Bidearen mantentze-egoera. 4. Lehenesteko irizpide teknikoak.

36. gaia. Mendien balorazioa. 1. BEGb, ENG, kosteko balioa eta balio potentziala. Lurzoruaren balioa. Hegaduraren balioa. Hegaduraren balio potentziala.2. Kostu eta sarreren fluxua. 3. Aldizkako kostuen eguneratzea.

37. gaia. 9/2021 Legea, azaroaren 25ekoa, Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzkoa. 1.Legearen xedea eta helburuak. Definizioak. Natura-ondarearen eginkizunak. 2. Natura Ondarearen Inbentarioa: kontserbazio- eta leheneratze-planetan intereseko habitatak kontserbatzeko tresnak. 3. Natura 2000 Sareko guneen tipologiak. 4. Zaintza, ikuskapena eta zehapen-araubidea.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

38. gaia. Europar parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/147 EB Direktiba, azaroaren 30ekoa, hegazti basatien kontserbazioari buruzkoa. 1. Kontserbatu beharreko espezieak: I. eranskina. 2. Estatuko legeriaren esparruaren arabera ehiza daitezkeen espezieak: II. eranskina.

39. gaia. 391/1995 Legea, azaroaren 8koa, laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa. 1. Basogintzako lan-arriskuen prebentzioa. 2. Enpresaren eta administrazioaren betebeharrak. 3. Segurtasuna baso-lanetan. 4. Motozerraren eta esku-motosegaren erabilera segurua.

40. gaia. 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena. 1. Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta behar duten baso-proiektuak: D1 taldea, D9 taldea, D 10 taldea. 2. Gune babestuetan gauzatzen diren proiektuak. 3. Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua behar duten proiektuak: E1 taldea, E9 taldea (bestelako proiektuak).

41. gaia. Espezie mehatxatuen kudeaketa-planak. 1. Bisoi europarra *Mustela Lutreola Linnaeus 1761* Bizkaiko Lurralde Historikoan kudeatzeko plana: Aplikazio-eremuak, aldi kritikoak, debekuak eta mehatxuak. 2. Bizkaian Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak kudeatzeko baterako plana: debekuak, aldi kritikoak, Bizkaiko egoera, babes-neurri orokorrak.

III. ZATIA

42. gaia. - Espainiako 1978ko Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak.

43. gaia. - Estatuaren lurralde-antolaketa. Autonomia-estatutuak. Eskumenak Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean banatzeko sistema.

44. gaia. - Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (1). Atariko titulua. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenak: esklusiboak, legeak garatu eta betearaztekoak, eta betearaztekoak.

45. gaia. - Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (2). Euskal Autonomia Erkidegoaren botereak. Eusko Legebiltzarra. Eusko Jaurlaritza. Lehendakaria. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioa.

46. gaia. - 12/2002 Legea, maiatzaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duena. Arau orokorrak: lurralde historikoetako erakundeen eskumenak, printzipio nagusiak, zergak harmonizatzea, lankidetza-printzipioa eta Estatuarenak bakarrik diren eskumenak. Finantza-harremanak: printzipio nagusiak eta kupoa (kontzeptua).

47. gaia. - 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidegoko instituzio erkideen eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzkoa. Xedapen orokorrak. Lurralde historikoen eskumenak: esklusiboak, legeak garatu eta betearaztekoak, eta betearaztekoak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

48. gaia. - 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidegoko instituzio erkideen eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzkoa (jarraipena). Autonomia finantzarioa eta aurrekontu-autonomia. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusia. Foru-ogasunak. Ogasun Nagusiaren eta foru-ogasunen arteko baliabideen banaketari buruzko ideia orokorra. Herri Kontuen Euskal Epaitegia.

49. gaia. - Probintziaren antolaketa eta eskumenak. Foru-aldundiak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean.

50. gaia. - Administrazio-egintza. Kontzeptua. Administrazio-egintza motak. Administrazio-egintzaren osagaiak.

51. gaia. - Administrazio-egintzen eraginkortasuna eta haien baldintzapena. Betearazgarritasuna eta etetea. Administrazio-egintzen betearazpena. Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna. Ofizioz berrikustea.

52. gaia. Administrazio-prozedura erkidea: jarduketa-arau orokorrak. Epemugak eta epeak. Faseak: Hasiera, antolamendua, instrukzioa.

53. gaia. - Administrazio-errekurtsoak. Printzipio orokorrak eta motak. Araubide juridikoa.

54. gaia. - Sektore publikoko kontratuak. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora: xedea eta aplikazio-eremua.

55. gaia. - 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Aurrekontuei buruzko 2006ko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duena. Atariko titulua: Xedapen orokorrak (xedea eta aplikazio-eremua eta eskumenak). I. titulua: Bizkaiko Foru Ogasunaren araubidea (printzipio orokorrak, eskubide ekonomikoak eta betebehar ekonomikoak).

56. gaia. – Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa: Funtzionarioen eskubideak eta eginbeharrak. Ordainsari-araubidea.

57. gaia. - 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa: Atariko titulua. I. titulua: «Herritarren eta Herri Agintaritzaren eskubide eta eginbeharrak hizkuntzaren alorrean.»

58. gaia. - 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa. Bizkaiko Batzar Nagusiak. Bizkaiko Foru Aldundia. Izaera, osaera eta kargua uztea. Eskumenak. Ahaldun Nagusia.

59. gaia. - 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa (jarraipena). Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren arteko harremanak. Xedapen orokorrak. Foru Aldundiaren erantzukizuna. Foru-arauen proiektuak egiteko prozedura. Foru-administrazioa. Arau orokorrak. Izaera orokorreko xedapenak eta administrazio-ebazpenak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

60. gaia.-4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzekoa: zioen adierazpena eta atariko titulua.

4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: hitzaurrea eta atariko titulua. I. titulua: eskumenak, eginkizunak, antolaketa eta finantzaketa.

61. gaia. - 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: II. titulua: Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-sektore publikoan genero-ikuspegia txertatzeko neurriak.

62. gaia.-3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa: IX. titulua - Zehapen-araubidea (70-71 artikuluak eta 77. artikulua), X. titulua - Eskubide digitalen bermea, eskubideen aipamen orokorra eta xedapen gehigarriak: 1., 2. eta 8.a. 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa: II. titulua - Datuak Babesteko Euskal Bulegoa (10. artikulua eta 14-17 artikuluak) eta III. titulua - Zehatzeko araubidea (24. artikulua).

63. gaia. - 1/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa, Bizkaiko Gardentasunari buruzkoa. Publikotasun aktiboa: Aplikazio-eremua (2. art.), kontzeptua eta dimentsioak (5. art.), ez-betetzea (13. art.). Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea: Kontzeptua (18. art.), mugak (21. art.) eta ez onartzeko arrazoiak (22. art.). Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordea (27., 28. eta 29. art.).

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

HAUTAKETA-PROZESURAKO DEIALDIA, KARRERAKO FUNTZIONARIO SARTZEKO ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAN, AZPIESKALA TEKNIKOAN, HERRI-LANETAKO INGENIARI TEKNIKOA: EGONKORTZE-PLAZAK ETA ARRUNTAK

LEHENA: EGONKORTZE-PLAZAK

1.Deialdian eskainitako plazak

Deialdia egiten da HERRI-LANETAKO INGENIARI TEKNIKO plaza bat (1) betetzeko (A taldea, A2 titulazio-azpitaldea) derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna duena, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan ezarritakoaren babesean.

2. Titulazioa

Herri-lanetako ingeniari teknikoa, ingeniaritza zibileko gradua edo baliokidea.

3. Baldintza espezifikoak

Urriaren 30eko 5/2015 ELDaren 56.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, baldintza espezifikoa izango da IT txartel hauek edukitzea: Word oinarrizkoa eta Excel oinarrizkoa (baliodunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010). Word aurreratuaren eta Excel aurreratuaren IT txartelek Word oinarrizkoarena eta Excel oinarrizkoarena baliozkotuko dituzte, hurrenez hurren.

Ziurtagiria eskuratzeko proba egin ahal izateko, egiaztatutako zentro batean eman beharko da izena. Zentroen zerrenda osoa helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke: www.it-txartela.net.

Izen-ematea www.it-txartela.net helbidean egin daiteke. Informazioa eskura daiteke aipatutako helbide elektronikoan eta bide hauetakoren bat erabilita:

a) Aurrez aurre, egiaztatutako edozein zentrotara joanda.

b) Telefonoz, 902 25 25 95 zenbakira deituta.

Baldintza espezifiko hau betetzeko, aipatutako txartelak ez dituztenei bi (2) hilabeteko epea ematen zaie, deialdi hau BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Izangaiek ez dute agiririk aurkeztu beharko, Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten.

Txartelok epe horretan eskuratzen ez dituen izangaia hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko da.

4. Hautaketa-prozedura

4.1. OPOSIZIO-FASEA

4.1.a) Lehenengo ariketa:

Ariketa teorikoa izango da, eta, berrogeita hamasei (56) minutuan, hogeita zortzi (28) galderako test bat egin beharko da, gehi erreserbako bost (5) galdera. Galderak II. eranskineko gaiei buruzkoak izango dira, eta aukerako zenbait erantzun izango dituzte, baina bat baino ez da zuzena izango. Erantzun zuzenak puntu bat (1) balioko du, eta ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik, zuriz utzitakoengatik edo erantzun bi markatzeagatik.

4.1. b) Bigarren ariketa:

Ariketa praktikoa izango da. Epaimahaiak kasu batzuk proposatuko ditu, eta, azterketa egin baino lehentxeago, ausaz aukeratuko dira haietariko bat edo batzuk, laurogei minutuan (80) ebazteko. Kasu horiek II. eranskineko gaiekin loturik egongo dira. Erantzun anitzeko galderak dituen galdetegi batean egin ahalko dira erantzunak.

4.1.c) Hirugarren ariketa:

Euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailea izango da; betiere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da III. hizkuntza-eskakizunari dagokion mailan.

Bizkaiko Foru Aldundian III. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Halakoetan, parte-hartzaileak baimen espresua emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala ere, aurkeztu egin beharko dituzte azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta egon badauden baina erregistro horretan sartuta ez dauden gainerako euskara-titulu edo -ziurtagiriak; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Izangaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean egiaztatu nahi badute III. hizkuntza-eskakizuna, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko da.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

4.3 LEHIAKETA

Lehiaketan, izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) dagozkion puntuak emango zaizkio.

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1 Merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketaren kalifikazioa.

5.2 Oposizio-fasea:

a) Lehen ariketari zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa emango zaio.

b) Bigarren ariketari zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa emango zaio.

2021eko abenduaren 28ko 20/21 Legearen 2.4 artikulua aplikatuz, bi ariketa horiek gaindituko dituzte lehenengo ariketaren eta bigarrenaren kalifikazioak batuta hamar (10) lortzen dutenek, baldin eta ariketa bakoitzean gutxienez bi eta erdi (2,5) atera badute.

c) Hirugarren ariketan, euskarari buruzkoan, Gai edo Ez gai izango da kalifikazioa.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

6. Lan-poltsa

Egonkortze-plazen hautaketa-prozesutik ez da lan-poltsarik sortuko.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

I. ERANSKINA

EGONKORTZE-PLAZETARAKO MEREZIMENDUEN BAREMOA

ESPEZIALITATEA: HERRI-LANETAKO INGENIARI TEKNIKOA

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan eta azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat:

1.-Esperientzia; gehienez ere 9,1 puntu, honela banatuta:

1.a) Edozein administrazio publikotan HERRI-LANETAKO INGENIARI TEKNIKOA kategorian (A titulazio-taldea, A2 azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,0304 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere ehun hilabete (100) 3,04 puntu

1.b) Aurreko atalean adierazitako esperientziatik bereizirik, modu espezifiko eta osagarrian, Bizkaiko Foru Aldundian HERRI-LANETAKO INGENIARI TEKNIKOA kategorian (A taldea, A2 titulazio-azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,0608 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere ehun (100) hilabete 6,08 puntu

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira administrazio publikotzat: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikuluetan jasotako erakundeak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 2.1 eta 2.3 artikuluetan jasoak. Orobat zenbatuko dira zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan egindako zerbitzuak, baina inola ere ez izaera publikoko beste erakunde batzuetan egindakoak, baldin eta enpresa, merkataritza-sozietate, fundazio edo elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa badute.

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbitzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatikirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

Nolanahi ere, zerbitzua lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legearen 20.1.c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientzia baloratzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ere: lehenik, zenbat denbora egon den izangaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen izangaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

2.-Administrazio publikoetan, administrazio publikoko eskoletan (IVAP, HAIN, HAEI edo beste administrazio-eskola batzuetan), nortasun juridiko publikoa duten zentroetan eta unibertsitate publiko zein pribatuetan gaitegiarekin harreman zuzena duten prestakuntza-ikastaroetan eta/edo graduondo zein masterreko titulazio akademikoetan emandako nahiz jasotako ordu-kopuruagatik, 0,0225 puntu hartutako ordu bakoitzeko eta 0,03 puntu emandako ordu bakoitzeko; gehienez: 3,4 puntu.

3) Ingelesa, frantsesa edo alemana jakiteagatik, baina mailak metatzeko aukerarik gabe, eta gehienez ere 0,5 puntu, honela banaturik:

3 a) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-1 maila (ingelesa: Trinity College-n ingeleseko Grade 9 agiria; alemana: Goethe Institutuaren ZAP– Zertifikat Deutsch als Fremdsprache agiria, edo frantsesa: DELF 1er degré maila) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 3. maila edo oinarrizko zikloa edo B1.2.: …………………………………………… 0,15 puntu.

3 b) Europako erreferentzia-markoko B-2 maila: Cambridgeko First Certificate of English agiria; edo alemana: ZMP –Zentrale Mittelstufenprüfung Goethe Institutuaren agiria, edo frantsesa: DELF 2éme degré. DL - Diplôme de Langue - Alliance Française) eta Hizkuntza Eskolaren 4. maila edo B2 maila aurreratua: ……………… 0,30 puntu

3 c) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-2 maila (ingelesa: Cambridge Unibertsitateko Certificate in Advanced English edo Certificate of Proficiency in English agiriak edo Trinity Collegeko Passed Grade Twelve edo Oxford Unibertsitateko Higher Level maila; alemana: ZOP – Zentrale Oberstufenprufung edo KDS – Kleines Deutsches Sprachdiplom edo GDS – Grosses Deutsches Sprachdiplom agiriak), edo frantsesa: – DALF edo DSLCF – Diplôme Supérieur Langue et Culture Française – Alliance Française) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 5. maila nahiz EBko edozein hizkuntzaren filologian lizentziatura (goi mailako unibertsitate-titulua): 0,5 puntu

GUZTIRA ……………………………………………………………………13 PUNTU

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

II. ERANSKINA

EGONKORTZE-PLAZETARAKO GAIAK

HERRI-LANETAKO INGENIARI TEKNIKOA

I. ZATIA

1. gaia: Errepideen ezaugarri geometrikoak, indarrean dagoen trazadura-araudiaren arabera: trazadura aztertzeko oinarrizko datuak: abiadura, ikuspena. Oinplanoko trazadura: orokorrak, kurba zirkularrak (orokorrak), funtzioak eta akordamendu-kurben erabilera. Trazadura altxaeran: orokortasunak, sestren inklinazioa, lotura bertikalak (orokorrak).

2. gaia: Errepideetarako konexioak eta sarbideak: orokortasunak. Errepide arruntetako konexioak. Zerbitzu-bideen konexioak. Errepide arruntetako eta zerbitzu-bideetako zuzeneko sarbideak.

3. gaia: Loturak: orokorrak, lotura-adarrak, lotura-adarren proiektu-abiadura. Biribilguneak: biribilgune orokorrak, oinplanoa, aurretiko bista, zeharkako sekzioa, glorieta baten galtzadarekin lotura.

4. gaia: Errepideen plangintza eta plangintza. Soluzio optimoa hautatzea: hainbat aukeren artean hautatzeko irizpideak, kostu-onura analisia, irizpide anitzeko analisia.

5. gaia: 5/2021 Foru Araua, Bizkaiko errepideei buruzkoa: I. titulua. II. titulua II. kapitulua Errepideen plangintza eta proiektuak.

6. gaia: EAEko Errepideen Hirugarren Plan Orokorra 2017-2028: planaren helburuak eta irizpideak.

7. gaia. 10/2014 Foru Araua, ekainaren 27koa, Bizkaiko bizikleta bideei buruzkoa I. Xedapen orokorrak eta definizioak. Bizikleta-bideen baldintza orokorrak. Foru bizikleta-bideak planifikatzea, gauzatzea eta ustiatzea.

8. gaia. Trafiko-ingeniaritzako elementuak. Edukiera eta zerbitzu-mailak gaitasun handiko bideetan: edukiera, zerbitzu-mailak eta -intentsitateak, autobideko oinarrizko segmentuak, kalkuluak. HCM: Autobidearen oinarrizko tarteak: Sarrera, Metodologia.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

9. gaia: 80/2014 Foru Dekretua, ekainaren 24koa, Bide Segurtasunari buruzkoa. Xedapen orokorrak. Bide-segurtasunaren eragina ebaluatzea azpiegiturak planifikatzeko azterlanetarako. Bide-segurtasunaren auditoria. Bide-segurtasuneko ikuskapenak. Zerbitzuan dauden bide-azpiegituren segurtasuna kudeatzea.

10. gaia: Errepideak eta horien sailkapen teknikoa eta funtzionala. Europa barneko sarea. Erabilera orokor eta berezia Erabilera-mugak. Sarbideak mugatzea eta berrantolatzea.

11. gaia: Errepidearen erabilera eta defentsa, jabetzaren mugak. Babes-eremuak. Mugaketa, erabilerak eta baimendutako jarduerak. Eraikuntza-lerroa. Zerbitzu Orokorren lerroa.

12. gaia: Baimenen eta legeztatzeen araubide orokorra. Hiri-tarteak eta zeharbideak. Arau-hausteak eta zehapenak.

13. gaia: Bide-zoruak birgaitzea. Aplikazio-eremua. Zoru baten birgaitzea aztertzea. Zoruaren egoera eta agortze-maila ebaluatzea. Konponbideak aztertzea eta motarik egokiena hautatzea. Gainazala birgaitzea.

14. gaia: Kontserbazioa. Antolamendua: kontserbazio- eta ustiapen-jarduera orokorrak, kontserbazioa garatzeko elementuak. Kontserbazioa gauzatzeko moduak. Neguko bidezaintza: Eusko Jaurlaritzaren neguko bidezaintza programa. Dagokion espazio-eremurako ekintza-plana definitzea.

15. gaia: Azterlan geologikoak eta geoteknikoak errepideetan. Lurra ezagutzea: ikerketaren eta haren faseen irismena, proiektuaren azterketa geoteknikoak, txosten geoteknikoa.

16. gaia: Errepideetako eta zubietako obretarako preskripzio tekniko orokorren plegua (PG3). Geruza granularrak eta ureztatzeak Seinale horizontalak, balizak eta errepideen defentsa Unitate bukatuaren zehaztapenak, egikaritzapenaren mugak eta onartzeko edo baztertzeko irizpideak.

17. gaia: Errepideetako eta zubietako obretarako preskripzio tekniko orokorren plegua (PG3). Berdinketak: Betelanak: Lubetak.

18. gaia: Bide-zoruak. Euskal Autonomia Erkidegoko bide-zoruak dimentsionatzeko araua: zorurako materialak, zoru-sekzioak galtzadan (sekzioen katalogoa, sekzioen alderaketa), eraikuntza-alderdiak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

19. gaia: Errepideen azaleko drainatzea Kontsiderazio orokorrak eta oinarrizko irizpideak. Emariak kalkulatzea. Plataformaren eta ertzen gainazaleko drainatze-elementuak.

20. gaia: Seinaleztapen bertikala: ezaugarri orokorrak. Seinaleztapen horizontala: xedea eta taldeak. Obra finkoak seinaleztatzeko adibide-eskuliburua. Ibilgailuei eusteko sistemak: segurtasun-hesien eta petrilen motak, portaera eta sailkapena. Euste-maila hautatzea, lanzabalera mota hautatzea eta deflexio dinamikoa egitea, eta hesien eta petrilen larritasun-indizea hautatzea.

21. gaia: Errepideetako eta zubietako obretarako preskripzio tekniko orokorren plegua (PG3). Hormigoi bituminoso motako beroko nahaste bituminosoak eta errodadura-geruzetako nahaste bituminosoak (nahasketa drainatzaileak eta etenak): amaitutako unitatearen zehaztapenak, gauzatze-mugak eta onartzeko edo baztertzeko irizpideak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

BIGARRENA: PLAZA ARRUNTAK

1.Deialdian eskainitako plazak

Deialdia egiten da HERRI-LANETAKO INGENIARI TEKNIKOen hiru (3) plaza betetzeko, (A taldea, A2 titulazio-azpitaldea) III. hizkuntza-eskakizuna dutenak. Haietariko bik (2) derrigorrezkoa dute, eta besteak (1) ez-derrigorrezkoa.

2. Titulazioa

Herri-lanetako ingeniari teknikoa, ingeniaritza zibileko gradua edo baliokidea.

3. Baldintza espezifikoak

Urriaren 30eko 5/2015 ELDaren 56.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, baldintza espezifikoa izango da IT txartel hauek edukitzea: Word oinarrizkoa eta Excel oinarrizkoa (baliodunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010). Word aurreratuaren eta Excel aurreratuaren IT txartelek Word oinarrizkoarena eta Excel oinarrizkoarena baliozkotuko dituzte, hurrenez hurren.

Ziurtagiria eskuratzeko proba egin ahal izateko, egiaztatutako zentro batean eman beharko da izena. Zentroen zerrenda osoa helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke: www.it-txartela.net.

Izen-ematea www.it-txartela.net helbidean egin daiteke. Informazioa eskura daiteke aipatutako helbide elektronikoan eta bide hauetakoren bat erabilita:

a) Aurrez aurre, egiaztatutako edozein zentrotara joanda.

b) Telefonoz, 902 25 25 95 zenbakira deituta.

Baldintza espezifiko hau betetzeko, aipatutako txartelak ez dituztenei bi (2) hilabeteko epea ematen zaie, deialdi hau BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Izangaiek ez dute agiririk aurkeztu beharko, Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten.

Txartelok epe horretan eskuratzen ez dituen izangaia hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko da, baita osatuko den lan-poltsatik ere.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

4. Hautaketa-prozedura

4,1. OPOSIZIO-FASEA

Oposizio-faseak hiru (3) ariketa izango ditu: lehenengo biak nahitaezkoak eta baztertzaileak dira; hirugarrena nahitaezkoa eta baztertzailea izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazetarako, eta borondatezkoa eta ez-baztertzailea izango da gainerako plazetarako.

4.1.a) Lehenengo ariketa

Ariketa teorikoa izango da. 80 galderako test bat egin beharko da (gehi erreserbako 10 galdera), ehun eta hirurogei (160) minutuan. Zenbait erantzun eskainiko dira galderetan, baina haietariko bat bakarrik izango da zuzena. Agiri honen IV. eranskin gisa datorren gai-zerrendan jasotako gaiei buruzko galderak izango dira. Erantzun zuzen bakoitzeko puntu 1 emango da, baina erantzun oker bakoitzeko 0,33 puntu kenduko dira. Ez da punturik kenduko zuriz utzitako erantzunengatik edo bi marka dituztenengatik.

4.1.b) Bigarren ariketa:

Ariketa praktikoa izango da. Epaimahaiak kasu batzuk proposatuko ditu, eta, azterketa egin baino lehentxeago, ausaz aukeratuko dira haietariko bat edo batzuk, lau (4) orduan ebazteko. Kasu horiek IV. eranskineko gaiekin loturik egongo dira. Erantzun anitzeko galderak dituen galdetegi batean eman ahalko dira erantzunak.

4.2.c) Hirugarren ariketa

Euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailea izango da derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten lanpostuei lotutako plazetara aurkezten diren izangaientzat eta borondatezkoa eta ez-baztertzailea derrigorrezko ez den III. hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten lanpostuei lotutako plazetara aurkezten direnentzat; betiere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da dagokion mailan.

Bizkaiko Foru Aldundian III. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Halakoetan, parte-hartzaileak baimen espresua emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala ere, aurkeztu egin beharko dituzte azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta egon badauden baina erregistro horretan sartuta ez dauden gainerako euskara-titulu edo -ziurtagiriak; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Izangaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean egiaztatu nahi badute III. hizkuntza-eskakizuna, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko da.

4.2 LEHIAKETA

Lehiaketan, izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) dagozkion puntuak emango zaizkio.

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1 Merezimenduen baremoaren arabera (III. eranskina) emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketaren kalifikazioa.

5.2 Oposizio-fasea:

a) Lehenengo ariketari zerotik (0) hamar (10) puntura bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta bost (5) puntu lortzen ez dituzten hautagaiak baztertuta geratuko dira.

Hala ere, gainditutako pertsonen kopurua ez bada iristen 9ra, puntuaziorik handiena lortu duten 9 pertsonak hurrengo ariketara igaroko dira; horretarako, parte-hartzeko txanda guztiak hartuko dira kontuan. Noten mozketa-puntuan berdinketa gertatuz gero, mozketa-notaren pareko nota duten izangai guztiek gaindituko dute ariketa hau.

Izangaiek deialdi honen ostean deitzen den hurrengo deialdirako gorde ahal izango dute ariketa honetako kalifikazioa, baldin eta deialdi horretan hala ezartzen bada; horretarako, betiere, bi deialdietan txanda berean parte hartu behar dute.

Txanda honetan berean parte hartu zutenek Bizkaiko Ahaldun Nagusiaren 2017ko urtarrilaren 24ko 11/2017 Foru Dekretuaren bidez egin zen deialdian (2017ko 21. BAO, urtarrilaren 31ko), aukera hori baliatzeko modua izango dute, baldin eta idatziz adierazten badute hori eskabide-orrian.

Eskubide hori baliatzeko, hautaprobetan parte hartzeko eskabidea aurkeztu beharko dute eta dagokion tasa ordaindu. Aukera hori baliatu duen izangaiak deialdi honetako azterketa egiten badu, bi prozesuetan lortutako kalifikazioetatik altuena emango zaio zuzenean. Eskubide hori baliatu eta azterketa ez egiteko aukera behin bakarrik erabili ahal izango da, eta eskubidea baliatu ondoren egiten den hurrengo deialdian azterketa osoa egin beharko da.

b) Bigarren ariketari zerotik (0) hamar (10) puntura bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta bost (5) puntu lortzen ez dituzten izangaiak berez geratuko dira baztertuta.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

c) Hirugarren ariketari *gai* edo *ez gai* kalifikazioa emango zaio, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazak lortu nahi dituztenentzat. Gainerako kasuetan, honako banaketa honen araberako kalifikazioa emango da, egiaztatutako maila kontuan hartuta:

- I. hizkuntza-eskakizuna: 1,25 puntu
- II. hizkuntza-eskakizuna: 2,5 puntu.
- III. hizkuntza-eskakizuna: 3,75 puntu

5,3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

6. Lan-poltsa

Plaza arruntetarako hautaketa-prozesu honetatik, lan-poltsa sortuko da lehenengo ariketa gainditzen dutenekin, bosgarren oinarrian xedatutakoaren arabera.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

III. ERANSKINA

PLAZA ARRUNTETARAKO MEREZIMENDUEN BAREMOA

ESPEZIALITATEA: HERRI-LANETAKO INGENIARI TEKNIKOA

1. Edozein administrazio publikotan BASOETAKO INGENIARI TEKNIKOA kategorian (A titulazio-taldea, A2 azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,05 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere hirurogei (60) hilabete 3 puntu

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira administrazio publikotzat: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikuluetan jasotako erakundeak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 2.1 eta 2.3 artikuluetan jasoak. Orobat zenbatuko dira zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan egindako zerbitzuak, baina inola ere ez izaera publikoko beste erakunde batzuetan egindakoak, baldin eta enpresa, merkataritza-sozietate, fundazio edo elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa badute.

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbitzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatikirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

Nolanahi ere, zerbitzua lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legearen 20.1.c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientzia baloratzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ere: lehenik, zenbat denbora egon den izangaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen izangaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

2. Administrazio publikoetan, administrazio publikoko eskoletan (IVAP, HAIN, HAEI edo beste administrazio-eskola batzuetan), nortasun juridiko publikoa duten zentroetan eta unibertsitate publiko zein pribatuetan gaitegiarekin harreman zuzena duten prestakuntza-ikastaroetan eta/edo graduondo zein masterreko titulazio akademikoetan emandako nahiz jasotako ordu-kopuruagatik, 0,0075 puntu hartutako ordu bakoitzeko eta 0,02 puntu emandako ordu bakoitzeko; gehienez: 1,5 puntu.

3. Europar Batasuneko hizkuntza bat edo bi jakiteagatik, baina hizkuntza beraren maila ezberdinak metatzeko aukerarik gabe. Gehienez 0,5 puntu lor daiteke, banaketa honen arabera:

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

3 a) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-1 maila (besteak beste, ingelesa: Trinity College-n ingeleseko Grade 9 agiria; alemana: Goethe Institutuaren ZAP–Zertifikat Deutsch als Fremdsprache agiria, edo frantsesa: DELF 1er degré maila) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 3. maila edo oinarrizko zikloa edo B1.2.: ………………………………………………… 0,15 puntu.

3 b) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-2 maila (besteak beste, ingelesa: Cambridgeko First Certificate of English agiria; alemana: Goethe Institutuaren ZMP -Zentrale Mittelstufenprüfung agiria, edo frantsesa: DELF 2ème degré. DL - Diplôme de Langue - Alliance Française) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 4. maila edo B2 maila aurreratua: ………….. 0,30 puntu

3 c) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-2 maila (besteak beste, ingelesa: Cambridge Unibertsitateko Certificate in Advanced English edo Certificate of Proficiency in English agiriak edo Trinity Collegeko Passed Grade Twelve edo Oxford Unibertsitateko Higher Level maila; alemana: ZOP – Zentrale Oberstufenprufung edo KDS – Kleines Deutsches Sprachdiplom edo GDS – Grosses Deutsches Sprachdiplom agiriak), edo frantsesa: – DALF edo DSLCF – Diplôme Supérieur Langue et Culture Française – Alliance Française) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 5. maila nahiz EBko edozein hizkuntzaren filologian lizentziatura (goi mailako unibertsitate-titulua): 0,5 puntu.

GUZTIRA ……………………………………………………………………………………………………5 PUNTU

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

IV. ERANSKINA

PLAZA ARRUNTETARAKO GAIAK

HERRI-LANETAKO INGENIARI TEKNIKOA

I. ZATIA

1. gaia: Errepideen ezaugarri geometrikoak, indarrean dagoen trazadura-araudiaren arabera: trazadura aztertzeko oinarrizko datuak: abiadura, ikuspena. Oinplanoko trazadura: orokorrak, kurba zirkularrak (orokorrak), funtzioak eta akordamendu-kurben erabilera. Trazadura altxaeran: orokortasunak, sestren inklinazioa, lotura bertikalak (orokorrak).

2. gaia: Errepideetarako konexioak eta sarbideak: orokortasunak. Errepide arruntetako konexioak. Zerbitzu-bideen konexioak. Errepide arruntetako eta zerbitzu-bideetako zuzeneko sarbideak.

3. gaia: Loturak: orokorrak, lotura-adarrak, lotura-adarren proiektu-abiadura. Biribilguneak: biribilgune orokorrak, oinplanoa, aurretiko bista, zeharkako sekzioa, glorieta baten galtzadarekin lotura.

4. gaia: Errepideen plangintza eta plangintza. Soluzio optimoa hautatzea: hainbat aukeren artean hautatzeko irizpideak, kostu-onura analisia, irizpide anitzeko analisia.

5. gaia: 5/2021 Foru Araua, Bizkaiko errepideei buruzkoa: I. titulua. II. titulua II. kapitulua Errepideen plangintza eta proiektuak.

6. gaia: EAEko Errepideen Hirugarren Plan Orokorra 2017-2028: planaren helburuak eta irizpideak.

7. gaia. 10/2014 Foru Araua, ekainaren 27koa, Bizkaiko bizikleta bideei buruzkoa I. Xedapen orokorrak eta definizioak. Bizikleta-bideen baldintza orokorrak. Foru bizikleta-bideak planifikatzea, gauzatzea eta ustiatzea.

8. gaia. Trafiko-ingeniaritzako elementuak. Edukiera eta zerbitzu-mailak gaitasun handiko bideetan: edukiera, zerbitzu-mailak eta -intentsitateak, autobideko oinarrizko segmentuak, kalkuluak. HCM: Autobidearen oinarrizko tarteak: Sarrera, Metodologia.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

9. gaia: 80/2014 Foru Dekretua, ekainaren 24koa, Bide Segurtasunari buruzkoa. Xedapen orokorrak. Bide-segurtasunaren eragina ebaluatzea azpiegiturak planifikatzeko azterlanetarako. Bide-segurtasunaren auditoria. Bide-segurtasuneko ikuskapenak. Zerbitzuan dauden bide-azpiegituren segurtasuna kudeatzea.

10. gaia: Errepideak eta horien sailkapen teknikoa eta funtzionala. Europa barneko sarea. Erabilera orokor eta berezia Erabilera-mugak. Sarbideak mugatzea eta berrantolatzea.

11. gaia: Errepidearen erabilera eta defentsa, jabetzaren mugak. Babes-eremuak. Mugaketa, erabilerak eta baimendutako jarduerak. Eraikuntza-lerroa. Zerbitzu Orokorren lerroa.

12. gaia: Baimenen eta legeztatzeen araubide orokorra. Hiri-tarteak eta zeharbideak. Arau-hausteak eta zehapenak.

13. gaia: Bide-zoruak birgaitzea. Aplikazio-eremua. Zoru baten birgaitzea aztertzea. Zoruaren egoera eta agortze-maila ebaluatzea. Konponbideak aztertzea eta motarik egokiena hautatzea. Gainazala birgaitzea.

14. gaia: Kontserbazioa. Antolamendua: kontserbazio- eta ustiapen-jarduera orokorrak, kontserbazioa garatzeko elementuak. Kontserbazioa gauzatzeko moduak. Neguko bidezaintza: Eusko Jaurlaritzaren neguko bidezaintza programa. Dagokion espazio-eremurako ekintza-plana definitzea.

15. gaia: Azterlan geologikoak eta geoteknikoak errepideetan. Lurra ezagutzea: ikerketaren eta haren faseen irismena, proiektuaren azterketa geoteknikoak, txosten geoteknikoa.

16. gaia: Errepideetako eta zubietako obretarako preskripzio tekniko orokorren plegua (PG3). Geruza granularrak eta ureztatzeak Seinale horizontalak, balizak eta errepideen defentsa Unitate bukatuaren zehaztapenak, egikaritzapenaren mugak eta onartzeko edo baztertzeko irizpideak.

17. gaia: Errepideetako eta zubietako obretarako preskripzio tekniko orokorren plegua (PG3). Berdinketak: Betelanak: Lubetak.

18. gaia: Bide-zoruak. Euskal Autonomia Erkidegoko bide-zoruak dimentsionatzeko araua: zorurako materialak, zoru-sekzioak galtzadan (sekzioen katalogoa, sekzioen alderaketa), eraikuntza-alderdiak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA BAO


19. gaia: Errepideen azaleko drainatzea Kontsiderazio orokorrak eta oinarrizko irizpideak. Emariak kalkulatzea. Plataformaren eta ertzen gainazaleko drainatze-elementuak.

20. gaia: Seinaleztapen bertikala: ezaugarri orokorrak. Seinaleztapen horizontala: xedea eta taldeak. Obra finkoak seinaleztatzeko adibide-eskuliburua. Ibilgailuei eusteko sistemak: segurtasun-hesien eta petrilen motak, portaera eta sailkapena. Euste-maila hautatzea, lanzabalera mota hautatzea eta deflexio dinamikoa egitea, eta hesien eta petrilen larritasun-indizea hautatzea.

21. gaia: Errepideetako eta zubietako obretarako preskripzio tekniko orokorren plegua (PG3). Hormigoi bituminoso motako beroko nahaste bituminosoak eta errodadura-geruzetako nahaste bituminosoak (nahasketa drainatzaileak eta etenak): amaitutako unitatearen zehaztapenak, gauzatze-mugak eta onartzeko edo baztertzeko irizpideak.

II. ZATIA

22. gaia: 5/2021 Foru Araua, Bizkaiko errepideei buruzkoa: I. titulua. II. titulua III. kapitulua Finantzaketa. 2/2022 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Historikoko errepide jakin batzuk erabiltzeagatik salgaiak garraiatzeko ibilgailu astunei kanona ezartzeari buruzkoa.

23. gaia: Trafiko-ingeniaritzako elementuak I. Trafiko-azterlanak.

24. gaia: EAEko Errepideen Hirugarren Plan Orokorra 2017-2028. Bizkaiko lehentasunezko eta oinarrizko intereseko sarean jarduteko proposamenak.

25. gaia: 2010/40/EB Zuzentaraua, errepideko garraioaren sektorean sistema adimendunak ezartzeko eta beste garraiobide batzuekiko interfazeetarako esparrua ezartzen duena. Zuzentarauaren motibazioa. Xedea eta aplikazio-eremua. Lehentasunezko eremuak. Lehentasunezko ekintzak. Definizioak.

26. gaia: Bideak kudeatzeko zentroak. Gertaeren detekzio automatikoa: metodologia. Fluxuak birbideratzea.

27. gaia: Tunelen segurtasuna errepideetan. Tunelen sailkapena. Betekizun teknikoak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

28. gaia: 2010/40/EB Zuzentaraua, errepideko garraioaren sektorean sistema adimendunak ezartzeko eta beste garraiobide batzuekiko interfazeetarako esparrua ezartzen duena. Zuzentarauaren motibazioa. Xedea eta aplikazio-eremua. Lehentasunezko eremuak. Lehentasunezko ekintzak. 33

29. gaia: Publizitatea. Bizkaiko errepide-sarearen azpiegitura osagarriak. Gasolina-zerbitzuguneak. Aplikatu beharreko araudia. Proiektuaren tipologiak eta irizpideak.

30. gaia: 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntza-obretarako gutxieneko segurtasun-xedapenak ezartzen dituena. Xedapen orokorrak. Segurtasunari eta osasunari buruzko xedapen espezifikoak. Langileen eskubideak. Beste xedapen batzuk.

31. gaia: Proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta eta sinplifikatua.

32. gaia: 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoa. Xedapen orokorrak (lurzorua kutsa dezaketen jarduerak eta instalazioak; definizioak; printzipioak; hondakinak edukitzeko jarduera duten kokalekuak). Lurzoruaren kalitatea ezagutzeko eta kontrolatzeko tresnak (lurzoruaren kalitatea ezagutzeko eta kontrolatzeko tresnak; lurzoruaren kalitatearen arloko adierazpen-prozedurak; lurzoruaren kalitatearen esplorazio-ikerketa; lurzoruaren kalitatearen ikerketa xehatua; arriskuen analisia; gaikako indusketa-plana; lurzoruaren azken egoeraren ikerketa).

33. gaia: 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoa. Lurzoruaren kalitatearen arloko adierazpenak (lurzoruaren kalitatearen arloko adierazpen-prozeduretatik salbuesteko kasuak).

34. gaia: 49/2009 DEKRETUA, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena. Xedapen orokorrak. Betelanak. Betelanak instalatzeko proiektu teknikoen gutxieneko edukia.

35. gaia: 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituena, eranskinak izan ezik.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

36. gaia: 79/1996 Dekretua, apirilaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoan mendi-ibiliak antolatu eta normalizatzeari buruzkoa. Xedea. Definizioa. Helburuak. Eskumena. Lankidetza. Eskaera. Homologazioa. Baimenak. 3/94 Foru Araua, ekainaren 2koa, Mendiei eta Naturagune Babestuen Administrazioari buruzkoa. Xedapen orokorrak. Bizkaiko Lurralde Historikoko baso-administrazioa. Mendien kontzeptua eta sailkapena.

37. gaia: 22/1988 Legea, uztailaren 28koa, Kostaldeei buruzkoa. Itsas-lehorreko jabari publikoko ondasunak: sailkapena eta definizioak. Mugaketak. Itsasoaren eta lehorraren arteko jabari publikoa babesteko, itsasertzaren ondoko lurren gaineko jabetza mugatzea: legezko zortasunak. Itsas-lehorreko jabari publikoaren erabilera: xedapen orokorrak. Proiektuak eta obrak.

38. gaia: 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, Zaratari buruzkoa. Indize akustikoak. Zarata-mapak. Kutsadura akustikoaren arloko ekintza-planak.

III. ZATIA

39. gaia: Espainiako 1978ko Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubide eta betebeharrak.

40. gaia: Estatuaren lurralde-antolaketa. Autonomia-estatutuak. Eskumenak Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean banatzeko sistema.

41. gaia: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua. Atariko titulua. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenak: esklusiboak, legeak garatu eta betearaztekoak, eta betearaztekoak.

42. gaia.- Euskal Herriko Autonomia Estatutua (2). Euskal Herriaren botereak. Eusko Legebiltzarrak. Eusko Jaurlaritzak. Lehendakaria. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioa.

43. gaia.- 12/2002 Legea, maiatzaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duena. Arau orokorrak: lurralde historikoetako erakundeen eskumenak, printzipio orokorrak, zerga-harmonizazioa, lankidetza-printzipioa eta Estatuaren eskumen esklusiboak. Finantza-harremanak: printzipio orokorrak eta kupoaren kontzeptua.

44. gaia: 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidegoko instituzio erkideen eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzkoa. Xedapen orokorrak. Lurralde historikoen eskumenak: esklusiboak, legeak garatu eta betearaztekoak, eta betearaztekoak.

45. gaia: 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidegoko instituzio erkideen eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzkoa (jarraipena). Autonomia finantzarioa eta aurrekontu-autonomia. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusia. Foru-ogasunak. Ogasun Nagusiaren eta foru-ogasunen arteko baliabideen banaketari buruzko ideia orokorra. Herri Kontuen Euskal Epaitegia.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

46. gaia.- Probintziaren antolamendua eta eskumenak. Foru-aldundiek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean.

47. gaia.- Administrazio-egintza. Kontzeptua. Administrazio-egintza motak. Administrazio-egintzaren elementuak.

48. gaia.- Administrazio-egintzen eraginkortasuna eta baldintzapena. Betearazpena eta etetea. Administrazio-egintzak betearaztea. Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna. Ofiziozko berrikuspena.

49. gaia. Administrazio-prozedura erkidea: jarduteko arau orokorrak. Epe-mugak eta epeak. Faseak: Hasiera, antolamendua, instrukzioa.

50. gaia.- Administrazio-errekurtsoak. Printzipio orokorrak eta motak. Araubide juridikoa.

51. gaia.- Sektore publikoko kontratuak. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiten duen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen xedea eta aplikazio-eremua.

52. gaia: 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 23koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onesten duena Atariko titulua: Xedapen orokorrak (xedea eta aplikazio-eremua eta eskumenak). I. titulua: Bizkaiko Foru Ogasunaren araubidea (printzipio orokorrak, eskubide ekonomikoak eta betebehar ekonomikoak). II. titulua: Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorrak (printzipio orokorrak eta aurrekontu-programazioa, edukia eta onespena). Laugarren xedapen gehigarria (kontratazio administratiboa eta desjabetzeko prozedura).

53. gaia: Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa: funtzionario publikoen eskubideak eta eginbeharrak. Ordainsari-araubidea.

54. gaia: Euskara Estatutuan. 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilpena arauzkotzeko Oinarrizkoa. Hizkuntza-eskakizunen, haien araubide juridikoaren eta aplikazioaren azterketa berezia.

55. gaia: 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa. Bizkaiko Batzar Nagusiak. Izaera, osaera eta eskumenak. Eraketa, antolaketa eta jardunbidea. Bizkaiko Foru Aldundia. Izaera, osaera eta kargua uztea. Eskumenak. Ahaldun Nagusia: izeneztapena, izendapena, izaera eta estatutu pertsonala. Karguzketa eta ordezkapena.

56. gaia: 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa (jarraipena). Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren arteko harremanak. Foru Administrazioa. Arau orokorrak. Xedapen orokorrak. Foru Aldundiaren erantzukizuna. Foru-arauen proiektuak egiteko prozedura. Izaera orokorreko xedapenak eta administrazio-ebazpenak. Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

onesten duen 2014ko abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarria.

57. gaia: 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzekoa: Atariko titulua; 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: Atariko titulua eta I. titulua - Eskumenak, eginkizunak, antolaketa eta finantzaketa.

58. gaia: 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: II. titulua: Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-sektore publikoaren jardunean genero-ikuspegia txertatzeko neurriak.

59. gaia: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa: IX. titulua - Zehapen-araubidea (70-71 artikuluak eta 77. artikulua), X. titulua - Eskubide digitalen bermea, eskubideen aipamen orokorra eta xedapen gehigarriak: 1., 2. eta 8.a. 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa: II. titulua - Datuak Babesteko Euskal Bulegoa (10. artikulua eta 14-17 artikuluak) eta III. titulua - Zehatzeko araubidea (24. artikulua).

60. gaia: 1/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa, Bizkaiko Gardentasunari buruzkoa. Aplikazio-eremua (2. art.); Publikotasun aktiboa: kontzeptua eta dimentsioak (5. art.); Publikotasun aktiboaren arloko eskakizunak ez betetzearen ondorioak (13. art.); Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea (18. art.); mugak (21. art.) eta ez onartzeko arrazoiak (22. art.); Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordea (27., 28. eta 29. art.)

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

HAUTAKETA-PROZESURAKO DEIALDIA, KARRERAKO FUNTZIONARIO SARTZEKO ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAN, ZERGEN IKUSKATZAILEORDEA: EGONKORTZE-PLAZAK ETA ARRUNTAK

LEHENENGOA: EGONKORTZE-PLAZAK

1.Deialdian eskainitako plazak

Deialdia egiten da ZERGA IKUSKATZAILEORDEen lau (4) plaza betetzeko (A taldea, A2 titulazio-azpitaldea)txanda irekitik, III. hizkuntza-eskakizuna dutenak, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan ezarritakoaren babesean. Plazetariko bik (2) derrigorrezkoa dute hizkuntza-eskakizuna, eta beste bik (2) ez-derrigorrezkoa.

2. Titulazioa

Gradua, ingeniari teknikoa, unibertsitateko diplomaduna (edo lizentziaturako hiru kurtso oso gainditua izatea), arkitekto teknikoa, Lanbide Heziketako hirugarren gradua edo baliokidea.

3. Baldintza espezifikoak

Urriaren 30eko 5/2015 ELDaren 56.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, baldintza espezifikoa izango da IT txartel hauek edukitzea: Word oinarrizkoa eta Excel oinarrizkoa (baliodunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010). Word aurreratuaren eta Excel aurreratuaren IT txartelek Word oinarrizkoarena eta Excel oinarrizkoarena baliozkotuko dituzte, hurrenez hurren.

Ziurtagiria eskuratzeko proba egin ahal izateko, egiaztatutako zentro batean eman beharko da izena. Zentroen zerrenda osoa helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke: www.it-txartela.net.

Izen-ematea www.it-txartela.net helbidean egin daiteke. Informazioa eskura daiteke aipatutako helbide elektronikoan eta bide hauetakoren bat erabilita:

a) Aurrez aurre, egiaztatutako edozein zentrotara joanda.

b) Telefonoz, 902 25 25 95 zenbakira deituta.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Baldintza espezifiko hau betetzeko, aipatutako txartelak ez dituztenei bi (2) hilabeteko epea ematen zaie, deialdi hau BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Izangaiek ez dute agiririk aurkeztu beharko, Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten.

Txartelok epe horretan eskuratzen ez dituen izangaia hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko da.

4. Hautaketa-prozedura

4.1. OPOSIZIO-FASEA

Oposizio-faseak hiru (3) ariketa izango ditu: lehenengo biak nahitaezkoak eta baztertzaileak dira; hirugarrena nahitaezkoa eta baztertzailea izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazetarako, eta borondatezkoa eta ez-baztertzailea izango da gainerako plazetarako.

4.1.a) Lehen ariketa teorikoa izango da, eta, hirurogeita hamar (70) minutuan, hogeita hamabost (35) galderako test bat egin beharko da, gehi erreserbako bost (5) galdera. Galderak II. eranskineko gaiei buruzkoak izango dira, eta aukerako zenbait erantzun izango dituzte, baina bat baino ez da zuzena izango. Erantzun zuzenak puntu bat (1) balioko du, eta ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik, zuriz utzitakoengatik edo erantzun bi markatzeagatik.

4.1.b) Bigarren ariketa:

Praktikoa izango da: kasu praktiko bat ebatzi beharko da bi (2) ordutan. Kasuak II. eranskinean jasotzen den gaitegiarekin zerikusia izango du, eta azterketa hasi aurretxoan zehaztuko du epaimahaiak.

4.1.c) Hirugarren ariketa:

Egonkortze-prozesuko euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailea izango da derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten lanpostuei lotutako plazetara aurkezten diren izangaientzat eta borondatezkoa eta ez-baztertzailea derrigorrezko ez den III. hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten lanpostuei lotutako plazetara aurkezten direnentzat; betiere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da dagokion mailan.

Euskara-proba: prozedura arruntean, borondatezkoa izango da, ez-baztertzailea; nolanahi ere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da, III. hizkuntza-eskakizunari dagokion mailan.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Bizkaiko Foru Aldundian III. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Halakoetan, parte-hartzaileak baimen espresua emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala eta guztiz ere, aurkeztu beharko dute euskararen egiaztagiria edo titulua, baldin eta erregistro horretan egon ez arren 2010eko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta badago (dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira).

Izangaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean egiaztatu nahi badute III. hizkuntza-eskakizuna, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko da.

4.2. LEHIAKETA

Lehiaketan, izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) dagozkion puntuak emango zaizkio.

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1. Merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketaren kalifikazioa.

5.2. Oposizio-fasea:

Lehen ariketari zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa emango zaio.

Bigarren ariketari zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa emango zaio.

2021eko abenduaren 28ko 20/21 Legearen 2.4 artikulua aplikatuz, bi ariketa horiek gaindituko dituzte lehenengo ariketaren eta bigarrenaren kalifikazioak batuta hamar (10) lortzen dutenek, baldin eta ariketa bakoitzean gutxienez bi eta erdi (2,5) atera badute.

5.2 Hirugarren ariketari, euskarari buruzkoari, «gai» edo «ez gai» kalifikazioa emango zaio, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazak lortu nahi dituztenentzat. Gainerako kasuetan, honako banaketa honen araberako kalifikazioa emango da, egiaztatutako maila kontuan hartuta:

- I. hizkuntza-eskakizuna: 1,25 puntu
- II. hizkuntza-eskakizuna: 2,5 puntu.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

- III. hizkuntza-eskakizuna: 3,75 puntu

Ezingo da egiaztatu lortu nahi den lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna baino goragoko hizkuntza-eskakizunik, ezta ondorioz, hari dagokion puntuaziorik eskuratu ere.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

6. Lan-poltsa

6. Egonkortze-plazen hautaketa-prozesutik ez da lan-poltsarik sortuko.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

I. ERANSKINA

EGONKORTZE-PLAZETARAKO MEREZIMENDUEN BAREMOA

ESPEZIALITATEA: ZERGEN IKUSKATZAILEORDEA

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan eta azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat:

1.-Esperientzia; gehienez ere 9,1 puntu, honela banatuta:

1.a) Edozein administrazio publikotan ZERGEN IKUSKATZAILEORDEA kategorian (A titulazio-taldea, A2 azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,0304 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere ehun hilabete (100) 3,04 puntu

1.b) Aurreko atalean adierazitako esperientziatik bereizirik, modu espezifiko eta osagarrian, Bizkaiko Foru Aldundian ZERGEN IKUSKATZAILEORDEA kategorian (A taldea, A2 titulazio-azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,0608 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere ehun (100) hilabete 6,08 puntu

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira administrazio publikotzat: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikuluetan jasotako erakundeak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 2.1 eta 2.3 artikuluetan jasoak. Orobat zenbatuko dira zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan egindako zerbitzuak, baina inola ere ez izaera publikoko beste erakunde batzuetan egindakoak, baldin eta enpresa, merkataritza-sozietate, fundazio edo elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa badute.

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbitzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatikirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

Nolanahi ere, zerbitzua lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legearen 20.1.c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientzia baloratzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ere: lehenik, zenbat denbora egon den izangaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen izangaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

2.-Administrazio publikoetan, administrazio publikoko eskoletan (IVAP, HAIN, HAEI edo beste administrazio-eskola batzuetan), nortasun juridiko publikoa duten zentroetan eta unibertsitate publiko zein pribatuetan gaitegiarekin harreman zuzena duten prestakuntza-ikastaroetan eta/edo graduondo zein masterreko titulazio akademikoetan emandako nahiz jasotako ordu-kopuruagatik, 0,017 puntu hartutako ordu bakoitzeko eta 0,050 puntu emandako ordu bakoitzeko; gehienez: 3,4 puntu.

3) Ingelesa, frantsesa edo alemana jakiteagatik, baina hizkuntza bereko mailak metatzeko aukerarik gabe, eta gehienez ere 0,5 puntu, honela banaturik:

3 a) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-1 maila (ingelesa: Trinity College-n ingeleseko Grade 9 agiria; alemana: Goethe Institutuaren ZAP– Zertifikat Deutsch als Fremdsprache agiria, edo frantsesa: DELF 1er degré maila) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 3. maila edo oinarrizko zikloa edo B1.2.: ....................................................... 0,15 puntu.

3 b) Europako erreferentzia-markoko B-2 maila: Cambridgeko First Certificate of English agiria; edo alemana: ZMP –Zentrale Mittelstufenprüfung Goethe Institutuaren agiria, edo frantsesa: DELF 2éme degré. DL - Diplôme de Langue - Alliance Française) eta Hizkuntza Eskolaren 4. maila edo B2 maila aurreratua: 0,30 puntu

3 c) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C-1 maila (ingelesa: Cambridge Unibertsitateko Certificate in Advanced English edo Certificate of Proficiency in English agiriak edo Trinity Collegeko Passed Grade Twelve edo Oxford Unibertsitateko Higher Level maila; alemana: ZOP – Zentrale Oberstufenprufung edo KDS – Kleines Deutsches Sprachdiplom edo GDS – Grosses Deutsches Sprachdiplom agiriak), edo frantsesa: – DALF edo DSLCF – Diplôme Supérieur Langue et Culture Française – Alliance Française) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 5. maila nahiz EBko edozein hizkuntzaren filologian lizentziatura (goi mailako unibertsitate-titulua): 0,5 puntu

GUZTIRA ........................................................................................................................13 PUNTU

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

II. ERANSKINA

EGONKORTZE-PLAZETARAKO GAIAK

ZERGEN IKUSKATZAILEORDEA

I. ZATIA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TRIBUTU-SISTEMA

A) Zati orokorra eta zerga-prozedurak.

1. gaia. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra eta arau hori garatzeko arauzko xedapenak (I): zerga-ordenamenduaren xedapen orokorrak: printzipio orokorrak; arau-iturriak; zergei-buruzko arauen aplikazioa; interpretazioa, kalifikazioa eta integrazioa.

2. gaia. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra eta arau hori garatzeko arauzko xedapenak (II): Tributuak. Legeen eta zergen arteko harremanak. Tributuak: kontzeptuak, motak eta xedeak. Zerga-betebehar materialak. Zerga-administrazioaren betebeharrak eta eginbeharrak. Zergapekoen eskubideak eta bermeak. Elkarren laguntza.

3. gaia. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra eta arau hori garatzeko arauzko xedapenak (III): Zergapekoak. Zergapeko motak. Oinordekoak eta zerga-erantzuleak. Zerga aroan jarduteko gaitasuna. Zerga-egoitza.

4. gaia. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra eta arau hori garatzeko arauzko xedapenak (IV): Zerga-betebehar nagusia eta egin beharreko konturako ordainketak zenbatzeko elementuak. Zerga-zorra: xedapen orokorrak; ordainketa; preskripzioa eta iraungipena; zerga zorra azkentzeko beste era batzuk; zerga-kredituaren bermeak.

5. gaia. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra eta arau hori garatzeko arauzko xedapenak (V): Tributuen aplikazioa. Printzipio orokorrak; zerga-prozedurak; zergapekoei informazioa eta laguntza ematea; herritarren laguntza tributuen aplikazioan. Zergen arloko jarduketei eta prozedurei buruzko arau orokorrak: zergen arloko administrazio-prozeduren berezitasunak; froga; jakinarazpenak; zergapekoen egoitzan sartzea; salaketa publikoa; egiaztatzeko eta ikertzeko ahalak eta eginkizunak; iruzurraren aurkako borroka eta Ordainarazteko eta ikuskatzeko eskumenen koordinazioa.

6. gaia. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra eta arau hori garatzeko arauzko xedapenak (VI): Zergak kudeatzeko jarduketak eta prozedurak. Xedapen orokorrak. Zergak kudeatzeko prozedurak: autolikidazioaren bidez hasten den prozedura; aitorpenaren bidez hasten den prozedura; autolikidazioak eta behin-behineko likidazioak berrikusteko prozedura; ofizioz hasten diren itzulketa-prozedurak eta zerga-zorraren zenbatekoa zehazteko prozedurak; balioak egiaztatzeko prozedura; egiaztapen mugatuaren

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

prozedura. BizkaiBai. Zentsu-betebeharrak. Identifikazio Fiskaleko Zenbakia. Gainerako zerga-betebehar formalak.

7. gaia. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra eta arau hori garatzeko arauzko xedapenak (VII): Ikuskapeneko jarduketak eta prozedurak (1. zatia). Xedapen orokorrak: eginkizunak eta ahalmenak, ikuskapen-jarduketen dokumentazioa. Ikuskapen-prozedurak.

8. gaia. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra eta arau hori garatzeko arauzko xedapenak (VIII): Ikuskapeneko jarduerak eta prozedurak (2. zatia). Egiaztapen eta ikerketa prozedura. Arau orokorrak. Hasiera eta garapena. Ikuskapen-jarduketen amaiera. Zeharkako zenbatespena. Auditoria informatikoa zergen ikuskapenaren arloan.

9. gaia. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra eta arau hori garatzeko arauzko xedapenak (IX): Ikuskapeneko jarduerak eta prozedurak (3. zatia). Egiaztapen murriztuko prozedura. Zergapekoa bertaratu gabe burutzen den erregularizazio-prozedura. Egiaztapen laburtuko prozedura. Informazioa lortzeko jarduketak. Itzurpenaren aurkako klausula.

10. gaia. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra eta arau hori garatzeko arauzko xedapenak (X): Zerga-bilketako jarduketak eta prozedurak (1. zatia). Xedapen orokorrak. Premiamendu-prozedura: arau orokorrak.

11. gaia. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra eta arau hori garatzeko arauzko xedapenak (XI): Zerga-bilketako jarduketak eta prozedurak (2. zatia). Premiamendu-prozedura: hasiera eta garapena; amaiera. Erantzuleen eta oinordekoen aurkako prozedura.

12. gaia. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra eta arau hori garatzeko arauzko xedapenak (XII): Zehatzeko ahala (1. zatia). Zergen arloko zehatzeko ahalaren printzipioak. Zergen arloko arau-hausteei eta zehapenei buruzko xedapen orokorrak: erantzuleak; kontzeptua eta motak; diruzko zerga-zehapenen zenbatekoak; erantzukizuna azkentzea. Zergen arloko zehapen-prozedura.

13. gaia. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra eta arau hori garatzeko arauzko xedapenak (XIII): Zehatzeko ahala (2. zatia). Zergen arloko arau-hausteak eta zehapenak. Ogasun Publikoaren aurkako delituak (Zigor Kodearen 305-310 bis artikuluak). Tributuak aplikatzeko jarduketak eta prozedurak Ogasun Publikoaren aurkako delitua dagoenean. Exekuzioak huts egitea (Zigor Kodearen 257-258 ter artikuluak). Zigortzekoak diren kaudimengabeziak (Zigor Kodearen 257-261 bis artikuluak).

B) Zati berezia

14. gaia. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (I). Izaera eta aplikazio-eremua. Zerga-egitatea. Zergadunak. Zerga-oinarria: arau orokorrak; lan etekinak; ekonomi jardueren etekinak; kapital etekinak; ondare irabaziak eta galerak; errenten egozketa eta

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

eratxikipena; erregimen bereziak; aldi baterako egozketa; balorazio erregela bereziak; errenta motak; errenten integrazioa eta konpentsazioa.

15. gaia. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (II): Likidazio-oinarria. Kuota osoa. Kuota likidoa eta kenkariak. Kuota diferentziala. Zerga-zorra. Baterako tributazioa. Zergaldia eta zergaren sortzapena. Kudeaketa: aitorpenak; konturako ordainketak; behin-behineko likidazioak; betebehar formalak. Ondare-erantzukizuna. Zehapen-araubidea.

16. gaia. Ondarearen gaineko Zerga: Izaera eta aplikazio-eremua. Zerga-egitatea. Zergadunak. Zerga-oinarria. Likidazio-oinarria. Zergaren sortzapena. Zerga-zorra. Zergaren kudeaketa. Testamentua egiteko ahalordea egiteko zain dauden jarauntsien zerga araubidea (urriaren 15eko 7/2002 Foru Arauaren II. titulua). Kreditu-erakundeetako Gordailuen gaineko Zerga.

17. gaia. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga: Izaera eta aplikazio-eremua. Zerga-egitatea. Zergadunak eta erantzuleak. Sortzapena, preskripzioa eta iraungitzea. Zerga-oinarria. Likidazio-oinarria. Zerga-zorra. Arau bereziak. Zergaren kudeaketa. Betebehar formalak. Erregistroa ixtea. Arau-hausteak eta zehapenak.

18. gaia. Sozietateen gaineko Zerga (I): Izaera eta aplikazio-eremua. Zerga-egitatea. Zergadunak. Zerga-oinarria (1. zatia): zuzenketak gastuen atalean.

19. gaia. Sozietateen gaineko Zerga (II): Zerga-oinarria (2. zatia): zuzenketak sarreren atalean; balioespen-erregelen arloko zuzenketak eta abusuaren aurkako neurriak; emaitzaren aplikazioari dagozkion zuzenketak; denboraren araberako egozpena eta kontabilitateko inskripzioak: arau komunak; zerga-oinarri negatiboen konpentsazioa.

20. gaia. Sozietateen gaineko Zerga (III): Zerga ezartzeko aldia eta zergaren sortzapena. Zerga-zorra: karga tasa, kuota osoa, kuota likidoa, benetako kuota, gutxieneko ezarpena. Zergapetze bikoitza saihesteko kenkaria. Beste kenkari batzuk. Kultura sustatzeko pizgarriak. Konturako ordainketetako kenkaria.

21. gaia. Sozietateen gaineko Zerga (IV): Zerga-araubide bereziak (1. zatia): definizioa; itsas garraioko enpresen araubidea; ekonomia-intereseko elkartzeak, Espainiakoak zein Europakoak, eta aldi baterako enpresa-elkarteak; arrisku-kapitaleko sozietateak eta funtsak; inbertsio kolektiboko erakundeak; balore jakin batzuk dauzkaten entitateen araubidea.

22. gaia. Sozietateen gaineko Zerga (IV): Zerga araubide bereziak (2. zatia): zerga-baterakuntzaren araubidea; honako hauen araubide berezia: bat-egiteak, zatiketak, aktiboen ekarpenak, balore trukeak, aktibo eta pasibo osoaren lagapenak.

23. gaia. Sozietateen gaineko Zerga (VI). Zerga araubide bereziak (3. zatia): higiezinen errentamenduaren arloko jarduera kualifikatua duten entitateen araubidea; irabazteko xederik gabeko erakundeen eta mezenasgorako zerga pizgarrien zerga araubidea, kooperatiben zerga araubidea; zenbait nekazaritza ustiapen jakin batzuen zerga araubidea; borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen zerga araubidea.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

24. gaia. Sozietateen gaineko Zerga (VII): Zergaren kudeaketa. Entitateen indizea. Kontabilitateko betebeharrak. Kontabilizatu gabeko ondasunak eta eskubideak. Borondatezko errebalorizazioak. Aitorpena, autolikidazioa eta behin-behineko likidazioa. Autolikidazioa aurkeztean egin behar diren aukerak. Ofiziozko itzulketa. Konturako ordainketak. Egiaztatzeko ahalmenak.

25. gaia. Balio Erantsiaren gaineko Zerga (I): Izaera eta aplikazio-eremua. Zerga-egitatearen mugaketa: ondasun-emateak eta zerbitzugintzak; elkarte barneko ondasun-eskuraketak; ondasun-inportazioak. Salbuespenak: ondasun-emateak eta zerbitzugintzak; elkarte barneko ondasun-eskuraketak; ondasun inportazioak.

26. gaia. Balio Erantsiaren gaineko Zerga (II): Zerga-egitatearen burutzapen-lekua: ondasun-emateak eta zerbitzugintzak; elkarte barneko eragiketak. Zergaren sortzapena: ondasun-emateak eta zerbitzugintzak; elkarte barneko ondasun-eskuraketak; ondasun inportazioak. Zerga-oinarria: ondasun-emateak eta zerbitzugintzak; elkarte barneko ondasun-eskuraketak; ondasun inportazioak. Subjektu pasiboak: ondasun-emateak eta zerbitzugintzak; elkarte barneko ondasun-eskuraketak; ondasun inportazioak, zergaren erantzuleak; zergaren jasanarazpena. Zerga-tasa.

27. gaia. Balio Erantsiaren gaineko Zerga (III): Kenkariak eta itzulketak: kenkariak; berreskurapenak; zergaren aplikazio-lurraldean ezarrita ez dauden enpresaburu eta profesionalentzako itzulketak. Subjektu pasiboen betebeharrak. Zergaren kudeaketa. Ordainketaren etendura. Arau-hausteak eta zehapenak. Informazioa berehala emateko sistema.

28. gaia. Balio Erantsiaren gaineko Zerga (IV): Erregimen bereziak (1. zatia): arau orokorrak; erregimen erraztua; nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen berezia;urruneko salmenten eta batasunaren barruko ondasun-emate eta zerbitzugintza batzuen araubide bereziak; erakunde taldearen araubide berezia.

29. gaia. Balio Erantsiaren gaineko Zerga (V): Erregimen bereziak (2. zatia): ondasun erabili, arte-objektu, antzinateko objektu eta bilduma-objektuen erregimen berezia; inbertsio-urrearen araubide berezia; bidaia-agentzien araubide berezia; baliokidetasun-errekarguaren araubide berezia; kutxa-irizpidearen araubide berezia.

30. gaia. Balio Erantsiaren gaineko Zerga (VI): Fakturak gorde beharra. Fakturazio-betebeharrei buruzko Araudia, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko urtarrilaren 22ko 4/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsia. Fakturazio telematikoa eta fakturak elektronikoko gordetzea (1868/2009 Foru Agindua, uztailaren 2koa).

31. gaia: Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga (I): Izaera eta edukia. Aplikazio-eremua. Kostu bidezko ondare-eskualdaketak: zerga-egitatea; subjektu pasiboa; zerga-oinarria; zerga-kuota; arau bereziak. Sozietate-eragiketak: zerga-egitatea; zerga-oinarria.

32. gaia. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga (II): Egintza juridiko dokumentatuak: printzipio orokorrak; notario-agiriak; merkataritzako agiriak; administrazio-agiriak. Xedapen orokorrak: zerga-onurak; balioen egiaztapena;

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

sortzapena eta preskripzioa; betebehar formalak; zergaren ordainketa; itzulketak; zehapen araubidea.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

BIGARRENA: PLAZA ARRUNTAK

1.Deialdian eskainitako plazak

Deialdia egiten da ZERGEN IKUSKATZAILEORDEen hamar (10) plaza betetzeko (A taldea, A2 titulazio-azpitaldea) derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna dutenak, honela banaturik:

. .- Barne sustapeneko txanda: bi (2) plaza III. hizkuntza-eskakizunarekin; haietariko batean (1) derrigorrezkoa eta bestean (1) ez-derrigorrezkoa.

. .- Txanda irekia: zortzi (8) plaza III. hizkuntza-eskakizunarekin; haietariko batean (1) derrigorrezkoa eta beste zazpietan (7) ez-derrigorrezkoa.

2. Titulazioa eta jatorria

Gradua, ingeniari teknikoa, unibertsitateko diplomaduna (edo lizentziaturako hiru kurtso oso gainditua izatea), arkitekto teknikoa, Lanbide Heziketako hirugarren gradua edo baliokidea.

Barne-sustapeneko txandan parte hartzen dutenek honako baldintza hauek bete behar dituzte: zerbitzu aktiboan edo zerbitzu berezietan egon behar dute beren jatorrizko kidegoan edo eskalan; bi urteko zerbitzua beteta izan behar dute karrerako funtzionario gisa kidego-eskala horietan; dagokion titulazioa eduki behar dute eta C1 taldeko nahiz talde bereko plaza batekoak izan.

3. Baldintza espezifikoak

Urriaren 30eko 5/2015 ELDaren 56.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, baldintza espezifikoa izango da IT txartel hauek edukitzea: Word oinarrizkoa eta Excel oinarrizkoa (baliodunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010). Word aurreratuaren eta Excel aurreratuaren IT txartelek Word oinarrizkoarena eta Excel oinarrizkoarena baliozkotuko dituzte, hurrenez hurren.

Ziurtagiria eskuratzeko proba egin ahal izateko, egiaztatutako zentro batean eman beharko da izena. Zentroen zerrenda osoa helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke: www.it-txartela.net.

Izen-ematea www.it-txartela.net helbidean egin daiteke. Informazioa eskura daiteke aipatutako helbide elektronikoan eta bide hauetakoren bat erabilita:

a) Aurrez aurre, egiaztatutako edozein zentrotara joanda.

b) Telefonoz, 902 25 25 95 zenbakira deituta.

Baldintza espezifiko hau betetzeko, aipatutako txartelak ez dituztenei bi (2) hilabeteko epea ematen zaie, deialdi hau BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Izangaiek ez dute agiririk aurkeztu beharko, Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten.

Txartelok epe horretan eskuratzen ez dituen izangaia hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko da, baita osatuko den lan-poltsatik ere.

4. Hautaketa-prozedura

4.1. OPOSIZIO-FASEA

Oposizio-faseak hiru (3) ariketa izango ditu: lehenengo biak nahitaezkoak eta baztertzaileak dira; hirugarrena nahitaezkoa eta baztertzailea izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazetarako, eta borondatezkoa eta ez-baztertzailea izango da gainerako plazetarako.

4.1.a) Lehenengo ariketa:

Lehenengo ariketak bi zati ditu:

1) Lehenengo zatia, teorikoa: bi (2) orduko epean, berrogeita hamar (50) galderako test bat egin beharko da —gehi erreserbako bost (5) galdera—. Galderak IV. eranskineko I. zatiari buruzkoak izango dira (A, B, A bis, B bis eta C), eta aukerako zenbait erantzun izango dituzte, baina bat baino ez da zuzena izango. Erantzun zuzenak puntu bat (1) balioko du, eta okerrak, berriz, -0,33 puntu. Ez da punturik kenduko zuriz utzitako erantzunengatik edo bi marka dituztenengatik.

2)Bigarren zatia praktikoa izango da: bost (5) galdera erantzun beharko dira, bi (2) orduan. Galdera horiek IV. eranskinean jasotako gaitegiaren II. eta III. zatietan azaltzen diren gaien edukiei buruzkoak izango dira. Bi (2) galdera IIA zatiari buruzkoak izango dira, beste bi (2) IIB zatiari buruzkoak, eta bat (1) III. zatiari buruzkoa.

Barne-sustapeneko txandatik datozen izangaiek inoiz lehenago eskatu zaizkien ezagutzak berriro egiazta behar izan ez ditzaten, ez dute egin beharko IV. eranskinean jasotako gaitegiko III. zatiari buruzko partea. Hori dela eta, proportzionalki dagokien denbora eta galdera-kopurua izango dute, hau da, IV. eranskineko gaitegiaren II-A eta II-B zatietako edukiei buruzko galderak besterik ez dituzte egingo.

4.1.b) Bigarren ariketa:

Ariketa praktikoa izango da. Lau (4) orduko epearen barruan, batetik, gaien zerrendako IV. zatiko kontabilitateko eta finantza-matematikako kasu praktiko batzuk egin beharko dira, gaitegiaren IV. zatiaren arabera; bestetik, gaitegiaren I. zatiaren araberako kasu praktiko bat ebatzi beharko dute (A, B, A bis, B bis eta C zatiekin lotura). Ariketa hasi aurretxoan zehaztuko du epaimahaiak zein.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

4.1.c) Hirugarren ariketa:

Egonkortze-prozesuko euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailea izango da derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten lanpostuei lotutako plazetara aurkezten diren izangaientzat eta borondatezkoa eta ez-baztertzailea derrigorrezko ez den III. hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten lanpostuei lotutako plazetara aurkezten direnentzat; betiere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da dagokion mailan.

Euskara-proba: prozedura arruntean, borondatezkoa izango da, ez-baztertzailea; nolanahi ere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da, III. hizkuntza-eskakizunari dagokion mailan.

Bizkaiko Foru Aldundian III. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Halakoetan, parte-hartzaileak baimen espresua emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala eta guztiz ere, aurkeztu beharko dute euskararen egiaztagiria edo titulua, baldin eta erregistro horretan egon ez arren 2010eko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta badago (dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira).

Izangaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean egiaztatu nahi badute III. hizkuntza-eskakizuna, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko da.

4.2. LEHIAKETA

Lehiaketan, izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera dagozkion puntuak emango zaizkio (III. eranskina).

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1 Merezimenduen baremoaren arabera (III. eranskina) emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketaren kalifikazioa.

5.2 Oposizio-fasea:

a) Lehenengo ariketari zero (0) eta hogei (20) puntu arteko kalifikazioa emango zaio, hamar (10) parte bakoitzari. Ariketa gainditzeko, hamar (10) puntu lortu beharko dira bi zatien artean, baina gutxienez bi eta erdi (2,5) zati bakoitzean. Deialditik kanpo geldituko dira ariketa guztian hamar (10) puntu lortzen ez dituzten izangaiak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Hala ere, gainditutako pertsonen kopurua ez bada iristen 30era, puntuaziorik handiena lortu duten 30 pertsonak- parte teorikan- parte praktikora igaroko dira; horretarako, parte-hartzeko txanda guztiak hartuko dira kontuan. Noten mozketa-puntuan berdinketa gertatuz gero, mozketa-notaren pareko nota duten izangai guztiek gaindituko dute ariketa hau.

Izangaiek deialdi honen ostean deitzen den hurrengo deialdirako gorde ahal izango dute ariketa honetako parte teorikoaren kalifikazioa, baldin eta deialdi horretan hala ezartzen bada.

Deialdi honetan berean parte hartu zutenek Bizkaiko Ahaldun Nagusiaren 2016ko apirilaren 15eko 43/2016 Foru Dekretuaren bidez egin zen deialdian (2016ko 75. BAO, apirilaren 21ekoa), aukera hori baliatzeko modua izango dute, baldin eta idatziz adierazten badute hori eskabide-orrian.

Eskubide hori baliatzeko, hautaprobetan parte hartzeko eskabidea aurkeztu beharko dute eta dagokion tasa ordaindu. Aukera hori baliatu duen izangaiak deialdi honetako azterketa egiten badu, bi prozesuetan lortutako kalifikazioetatik altuena emango zaio zuzenean. Eskubide hori baliatu eta azterketa ez egiteko aukera behin bakarrik erabili ahal izango da, eta eskubidea baliatu ondoren egiten den hurrengo deialdian azterketa osoa egin beharko da.

b) Bigarren ariketari zerotik (0) hamar (10) puntura bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta bost (5) puntu lortzen ez dituzten izangaiak berez geratuko dira baztertuta.

c) Hirugarren ariketari *gai* edo *ez gai* kalifikazioa emango zaio, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazak lortu nahi dituztenentzat. Gainerako kasuetan, honako banaketa honen araberako kalifikazioa emango da, egiaztatutako maila kontuan hartuta:

- I. hizkuntza-eskakizuna: 1,37 puntu
- II. hizkuntza-eskakizuna: 2,75 puntu.
- III. hizkuntza-eskakizuna: 4,12 puntu

Ezingo da eskuratu lortu nahi den lanpostuaren hizkuntza-eskakizunari dagokiona baino goragoko puntuaziorik.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

6.-Lan-poltsa

Hautaketa-prozesu honetatik, lan-poltsa sortuko da lehenengo ariketa (teorikoa) gainditzen dutenekin, bosgarren oinarrian xedatutakoaren arabera.

cve: BAO-2022a248-(I-1216)

III. ERANSKINA

DEIALDI ARRUNTERAKO MEREZIMENDUEN BAREMOA

ESPEZIALITATEA: ZERGEN IKUSKATZAILEORDEA

1. Edozein administrazio publikotan ZERGEN IKUSKATZAILEORDEA kategorian (A taldea, A2 titulazio-azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,075 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere hirurogei hilabete (60 hilabete) 4,5 puntu

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira administrazio publikotzat: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikuluetan jasotako erakundeak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 2.1 eta 2.3 artikuluetan jasoak. Orobat zenbatuko dira zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan egindako zerbitzuak, baina inola ere ez izaera publikoko beste erakunde batzuetan egindakoak, baldin eta enpresa, merkataritza-sozietate, fundazio edo elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa badute.

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbitzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatikirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

Nolanahi ere, zerbitzua lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legearen 20.1.c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientzia baloratzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ere: lehenik, zenbat denbora egon den izangaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen izangaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

2. Administrazio publikoetan, administrazio publikoko eskoletan (IVAP, HAIN, HAEI edo beste administrazio-eskola batzuetan), nortasun juridiko publikoa duten zentroetan eta unibertsitate publiko zein pribatuetan gaitegiarekin harreman zuzena duten prestakuntza-ikastaroetan eta/edo graduondo zein masterreko titulazio akademikoetan emandako nahiz jasotako ordu-kopuruagatik, 0,0125 puntu hartutako ordu bakoitzeko eta 0,02 puntu emandako ordu bakoitzeko; gehienez: 2,5 puntu.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

3. Europar Batasuneko hizkuntza bat edo bi jakiteagatik, baina hizkuntza beraren maila ezberdinak metatzeko aukerarik gabe. Gehienez 0,5 puntu lor daiteke, banaketa honen arabera:

3 a) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-1 maila (besteak beste, ingelesa: Trinity College-n ingeleseko Grade 9 agiria; alemana: Goethe Institutuaren ZAP–Zertifikat Deutsch als Fremdsprache agiria, edo frantsesa: DELF 1er degré maila) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 3. maila edo oinarrizko zikloa edo B1.2.: ....................................................... 0,15 puntu.

3 b) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-2 maila (besteak beste, ingelesa: Cambridgeko First Certificate of English agiria; alemana: Goethe Institutuaren ZMP -Zentrale Mittelstufenprüfung agiria, edo frantsesa: DELF 2ème degré. DL - Diplôme de Langue - Alliance Française) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 4. maila edo B2 maila aurreratua: 0,30 puntu

3 c) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C-1 maila (besteak beste, ingelesa: Cambridge Unibertsitateko Certificate in Advanced English edo Certificate of Proficiency in English agiriak edo Trinity Collegeko Passed Grade Twelve edo Oxford Unibertsitateko Higher Level maila; alemana: ZOP – Zentrale Oberstufenprufung edo KDS – Kleines Deutsches Sprachdiplom edo GDS – Grosses Deutsches Sprachdiplom agiriak), edo frantsesa: – DALF edo DSLCF – Diplôme Supérieur Langue et Culture Française – Alliance Française) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 5. maila nahiz EBko edozein hizkuntzaren filologian lizentziatura (goi-mailako unibertsitate-titulua): 0,5 puntu.

GUZTIRA ........................................................................................................................7,5 PUNTU

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

IV. ERANSKINA

ZERGEN IKUSKATZAILEORDEA.

IV. ERANSKINA

DEIALDI ARRUNTEKO GAIAK

I. ZATIA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TRIBUTU-SISTEMA

A) Zati orokorra eta zerga-prozedurak.

1. gaia. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra eta arau hori garatzeko arauzko xedapenak (I): zerga-ordenamenduaren xedapen orokorrak: printzipio orokorrak; arau-iturriak; zergei-buruzko arauen aplikazioa; interpretazioa, kalifikazioa eta integrazioa.

2. gaia. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra eta arau hori garatzeko arauzko xedapenak (II): Tributuak. Legeen eta zergen arteko harremanak. Tributuak: kontzeptuak, motak eta xedeak. Zerga-betebehar materialak. Zerga-administrazioaren betebeharrak eta eginbeharrak. Zergapekoen eskubideak eta bermeak. Elkarren laguntza.

3. gaia. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra eta arau hori garatzeko arauzko xedapenak (III): Zergapekoak. Zergapeko motak. Oinordekoak eta zerga-erantzuleak. Zerga aroan jarduteko gaitasuna. Zerga-egoitza.

4. gaia. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra eta arau hori garatzeko arauzko xedapenak (IV): Zerga-betebehar nagusia eta egin beharreko konturako ordainketak zenbatzeko elementuak. Zerga-zorra: xedapen orokorrak; ordainketa; preskripzioa eta iraungipena; zerga zorra azkentzeko beste era batzuk; zerga-kredituaren bermeak.

5. gaia. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra eta arau hori garatzeko arauzko xedapenak (V): Tributuen aplikazioa. Printzipio orokorrak; zerga-prozedurak; zergapekoei informazioa eta laguntza ematea; herritarren laguntza tributuen aplikazioan. Zergen arloko jarduketei eta prozedurei buruzko arau orokorrak: zergen arloko administrazio-prozeduren berezitasunak; froga; jakinarazpenak; zergapekoen egoitzan sartzea; salaketa publikoa; egiaztatzeko eta ikertzeko ahalak eta eginkizunak; iruzurraren aurkako borroka eta Ordainarazteko eta ikuskatzeko eskumenen koordinazioa.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

6. gaia. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra eta arau hori garatzeko arauzko xedapenak (VI): Zergak kudeatzeko jarduketak eta prozedurak. Xedapen orokorrak. Zergak kudeatzeko prozedurak: autolikidazioaren bidez hasten den prozedura; aitorpenaren bidez hasten den prozedura; autolikidazioak eta behin-behineko likidazioak berrikusteko prozedura; ofizioz hasten diren itzulketa-prozedurak eta zerga-zorraren zenbatekoa zehazteko prozedurak; balioak egiaztatzeko prozedura; egiaztapen mugatuaren prozedura. BizkaiBai. Zentsu-betebeharrak. Identifikazio Fiskaleko Zenbakia. Gainerako zerga-betebehar formalak.

7. gaia. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra eta arau hori garatzeko arauzko xedapenak (VII): Ikuskapeneko jarduketak eta prozedurak (1. zatia). Xedapen orokorrak: eginkizunak eta ahalmenak, ikuskapen-jarduketen dokumentazioa. Ikuskapen-prozedurak.

8. gaia. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra eta arau hori garatzeko arauzko xedapenak (VIII): Ikuskapeneko jarduerak eta prozedurak (2. zatia). Egiaztapen eta ikerketa prozedura. Arau orokorrak. Hasiera eta garapena. Ikuskapen-jarduketen amaiera. Zeharkako zenbatespena. Auditoria informatikoa zergen ikuskapenaren arloan.

9. gaia. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra eta arau hori garatzeko arauzko xedapenak (IX): Ikuskapeneko jarduerak eta prozedurak (3. zatia). Egiaztapen murriztuko prozedura. Zergapekoa bertaratu gabe burutzen den erregularizazio-prozedura. Egiaztapen laburtuko prozedura. Informazioa lortzeko jarduketak. Itzurpenaren aurkako klausula.

10. gaia. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra eta arau hori garatzeko arauzko xedapenak (X): Zerga-bilketako jarduketak eta prozedurak (1. zatia). Xedapen orokorrak. Premiamendu-prozedura: arau orokorrak.

11. gaia. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra eta arau hori garatzeko arauzko xedapenak (XI): Zerga-bilketako jarduketak eta prozedurak (2. zatia). Premiamendu-prozedura: hasiera eta garapena; amaiera. Erantzuleen eta oinordekoen aurkako prozedura.

12. gaia. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra eta arau hori garatzeko arauzko xedapenak (XII): Zehatzeko ahala (1. zatia). Zergen arloko zehatzeko ahalaren printzipioak. Zergen arloko arau-hausteei eta zehapenei buruzko xedapen orokorrak: erantzuleak; kontzeptua eta motak; diruzko zerga-zehapenen zenbatekoak; erantzukizuna azkentzea. Zergen arloko zehapen-prozedura.

13. gaia. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra eta arau hori garatzeko arauzko xedapenak (XIII): Zehatzeko ahala (2. zatia). Zergen arloko arau-hausteak eta zehapenak. Ogasun Publikoaren aurkako delituak (Zigor Kodearen 305-310 bis artikuluak). Tributuak aplikatzeko jarduketak eta prozedurak Ogasun Publikoaren aurkako delitua dagoenean. Exekuzioak huts egitea (Zigor Kodearen 257-258 ter artikuluak). Zigortzekoak diren kaudimengabeziak (Zigor Kodearen 257-261 bis artikuluak).

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

B) Zati berezia

14. gaia. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (I). Izaera eta aplikazio-eremua. Zerga-egitatea. Zergadunak. Zerga-oinarria: arau orokorrak; lan etekinak; ekonomi jardueren etekinak; kapital etekinak; ondare irabaziak eta galerak; errenten egozketa eta eratxikipena; erregimen bereziak; aldi baterako egozketa; balorazio erregela bereziak; errenta motak; errenten integrazioa eta konpentsazioa.

15. gaia. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (II): Likidazio-oinarria. Kuota osoa. Kuota likidoa eta kenkariak. Kuota diferentziala. Zerga-zorra. Baterako tributazioa. Zergaldia eta zergaren sortzapena. Kudeaketa: aitorpenak; konturako ordainketak; behin-behineko likidazioak; betebehar formalak. Ondare-erantzukizuna. Zehapen-araubidea.

16. gaia. Ondarearen gaineko Zerga: Izaera eta aplikazio-eremua. Zerga-egitatea. Zergadunak. Zerga-oinarria. Likidazio-oinarria. Zergaren sortzapena. Zerga-zorra. Zergaren kudeaketa. Testamentua egiteko ahalordea egiteko zain dauden jarauntsien zerga araubidea (urriaren 15eko 7/2002 Foru Arauaren II. titulua). Kreditu-erakundeetako Gordailuen gaineko Zerga.

17. gaia. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga: Izaera eta aplikazio-eremua. Zerga-egitatea. Zergadunak eta erantzuleak. Sortzapena, preskripzioa eta iraungitzea. Zerga-oinarria. Likidazio-oinarria. Zerga-zorra. Arau bereziak. Zergaren kudeaketa. Betebehar formalak. Erregistroa ixtea. Arau-hausteak eta zehapenak.

18. gaia. Sozietateen gaineko Zerga (I): Izaera eta aplikazio-eremua. Zerga-egitatea. Zergadunak. Zerga-oinarria (1. zatia): zuzenketak gastuen atalean.

19. gaia. Sozietateen gaineko Zerga (II): Zerga-oinarria (2. zatia): zuzenketak sarreren atalean; balioespen-erregelen arloko zuzenketak eta abusuaren aurkako neurriak; emaitzaren aplikazioari dagozkion zuzenketak; denboraren araberako egozpena eta kontabilitateko inskripzioak: arau komunak; zerga-oinarri negatiboen konpentsazioa.

20. gaia. Sozietateen gaineko Zerga (III): Zerga ezartzeko aldia eta zergaren sortzapena. Zerga-zorra: karga tasa, kuota osoa, kuota likidoa, benetako kuota, gutxieneko ezarpena. Zergapetze bikoitza saihesteko kenkaria. Beste kenkari batzuk. Kultura sustatzeko pizgarriak. Konturako ordainketetako kenkaria.

21. gaia. Sozietateen gaineko Zerga (IV): Zerga-araubide bereziak (1. zatia): definizioa; itsas garraioko enpresen araubidea; ekonomia-intereseko elkartzeak, Espainiakoak zein Europakoak, eta aldi baterako enpresa-elkarteak; arrisku-kapitaleko sozietateak eta funtsak; inbertsio kolektiboko erakundeak; balore jakin batzuk dauzkaten entitateen araubidea.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

22. gaia. Sozietateen gaineko Zerga (IV): Zerga araubide bereziak (2. zatia): zerga-baterakuntzaren araubidea; honako hauen araubide berezia: bat-egiteak, zatiketak, aktiboen ekarpenak, balore trukeak, aktibo eta pasibo osoaren lagapenak.

23. gaia. Sozietateen gaineko Zerga (VI). Zerga araubide bereziak (3. zatia): higiezinen errentamenduaren arloko jarduera kualifikatua duten entitateen araubidea; irabazteko xederik gabeko erakundeen eta mezenasgorako zerga pizgarrien zerga araubidea, kooperatiben zerga araubidea; zenbait nekazaritza ustiapen jakin batzuen zerga araubidea; borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen zerga araubidea.

24. gaia. Sozietateen gaineko Zerga (VII): Zergaren kudeaketa. Entitateen indizea. Kontabilitateko betebeharrak. Kontabilizatu gabeko ondasunak eta eskubideak. Borondatezko errebalorizazioak. Aitorpena, autolikidazioa eta behin-behineko likidazioa. Autolikidazioa aurkeztean egin behar diren aukerak. Ofiziozko itzulketa. Konturako ordainketak. Egiaztatzeko ahalmenak.

25. gaia. Balio Erantsiaren gaineko Zerga (I): Izaera eta aplikazio-eremua. Zerga-egitatearen mugaketa: ondasun-emateak eta zerbitzugintzak; elkarte barneko ondasun-eskuraketak; ondasun-inportazioak. Salbuespenak: ondasun-emateak eta zerbitzugintzak; elkarte barneko ondasun-eskuraketak; ondasun inportazioak.

26. gaia. Balio Erantsiaren gaineko Zerga (II): Zerga-egitatearen burutzapen-lekua: ondasun-emateak eta zerbitzugintzak; elkarte barneko eragiketak. Zergaren sortzapena: ondasun-emateak eta zerbitzugintzak; elkarte barneko ondasun-eskuraketak; ondasun inportazioak. Zerga-oinarria: ondasun-emateak eta zerbitzugintzak; elkarte barneko ondasun-eskuraketak; ondasun inportazioak. Subjektu pasiboak: ondasun-emateak eta zerbitzugintzak; elkarte barneko ondasun-eskuraketak; ondasun inportazioak, zergaren erantzuleak; zergaren jasanarazpena. Zerga-tasa.

27. gaia. Balio Erantsiaren gaineko Zerga (III): Kenkariak eta itzulketak: kenkariak; berreskurapenak; zergaren aplikazio-lurraldean ezarrita ez dauden enpresaburu eta profesionalentzako itzulketak. Subjektu pasiboen betebeharrak. Zergaren kudeaketa. Ordainketaren etendura. Arau-hausteak eta zehapenak. Informazioa berehala emateko sistema.

28. gaia. Balio Erantsiaren gaineko Zerga (IV): Erregimen bereziak (1. zatia): arau orokorrak; erregimen erraztua; nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen berezia;urruneko salmenten eta batasunaren barruko ondasun-emate eta zerbitzugintza batzuen araubide bereziak; erakunde taldearen araubide berezia.

29. gaia. Balio Erantsiaren gaineko Zerga (V): Erregimen bereziak (2. zatia): ondasun erabili, arte-objektu, antzinateko objektu eta bilduma-objektuen erregimen berezia; inbertsio-urrearen araubide berezia; bidaia-agentzien araubide berezia; baliokidetasun-errekarguaren araubide berezia; kutxa-irizpidearen araubide berezia.

30. gaia. Balio Erantsiaren gaineko Zerga (VI): Fakturak gorde beharra. Fakturazio-betebeharrei buruzko Araudia, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko urtarrilaren 22ko

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

4/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsia. Fakturazio telematikoa eta fakturak elektronikoko gordetzea (1868/2009 Foru Agindua, uztailaren 2koa).

31. gaia: Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga (I): Izaera eta edukia. Aplikazio-eremua. Kostu bidezko ondare-eskualdaketak: zerga-egitatea; subjektu pasiboa; zerga-oinarria; zerga-kuota; arau bereziak. Sozietate-eragiketak: zerga-egitatea; zerga-oinarria.

32. gaia. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga (II): Egintza juridiko dokumentatuak: printzipio orokorrak; notario-agiriak; merkataritzako agiriak; administrazio-agiriak. Xedapen orokorrak: zerga-onurak; balioen egiaztapena; sortzapena eta preskripzioa; betebehar formalak; zergaren ordainketa; itzulketak; zehapen araubidea.

A bis) Zati orokorra eta zerga-prozedurak.

33. gaia. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra eta arau hori garatzeko arauzko xedapenak (XIV): Administrazio-bidean egindako berrikuspena (1. zatia). Arau orokorrak. Berrikuspeneko prozedura bereziak: erabat deusezak diren egintzen berrikuspenerako prozedura; egintza deuseztagarrien kaltegarritasunaren adierazpena; errebokazioa; okerren zuzenketa; bidegabeko sarreren itzulketa. Berraztertzeko errekurtsoa.

34. gaia. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra eta arau hori garatzeko arauzko xedapenak (XV): Administrazio-bideko berrikuspena (2. zatia). Administrazioarekiko diru-erreklamazioak. Xedapen orokorrak. Ekonomia-administraziozko prozedura orokorra. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Toki eremuko ekonomia-administraziozko bidea.

B bis) Zati berezia

35. gaia. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga (I): Izaera, aplikazio-eremua eta ordainarazpena. Osagai pertsonalak. Zergaren mende egotea. Establezimendu iraunkorraren bidez lortutako errentak. Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak.

36. gaia. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga (II): Entitate ez-egoiliarren ondasun higiezinen gaineko karga berezia. Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateak. Beste xedapen batzuk. Zergapetze bikoitza eta zerga-itzurtzea saihesteko hitzarmenak: alderdi orokorrak eta antolamendu juridikoan duen tokia. ELGAren hitzarmen-eredua: 207ko azaroaren 21eko bertsio laburtua.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

37. gaia. Zerga bereziak eta ingurumen arlokoak (I): Zerga berezien izaera. Fabrikazioaren gaineko zerga berezia: baterako xedapenak; alkoholaren eta edari alkoholikoen gaineko zerga guztietarako baterako xedapenak; garagardoaren gaineko zerga; ardoaren eta edari hartzituen gaineko zerga; tarteko produktuen gaineko zerga; alkoholaren eta edari eratorrien gaineko zerga; hidrokarburoen gaineko zerga; tabakoaren egitekoen gaineko zerga.

38. gaia. Zerga bereziak eta ingurumen arlokoak (II): Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia. Ikatzaren gaineko Zerga Berezia. Elektrizitatearen gaineko Zerga Berezia. Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zerga. Energia Nukleoelektrikoa Sortzetik Deribatutako Erregai Nuklear Agortua eta Hondakin Erradioaktiboak Sortzearen gaineko Zerga. Erregai Nuklear Gastatua eta Hondakin Erradioaktiboak Instalazio Zentralizatuetan Biltegiratzearen gaineko Zerga. Berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko Zerga.

39. gaia. Aseguru-sarien gaineko Zerga. Jokoaren gaineko Zergak. 3/2005 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoan Jokoaren gaineko Zerga arautzen duena. 7/2014 Foru Araua, ekainaren 11koa, Joko-jardueren gaineko Zergari buruzkoa. Finantza-transakzioen gaineko Zerga. Zenbait Zerbitzu Digitalen gaineko Zerga.

40. gaia. Toki-ogasunak (I): Toki Ogasunei buruzko araubide orokorra (9/2005 Foru Araua, abenduaren 16koa). Ondasun Higiezinen gaineko Zerga (4/2016 Foru Araua, maiatzaren 18koa). Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga (7/1989 Foru Araua, ekainaren 30ekoa).

41. gaia. Toki-ogasunak (II): Ekonomi Jardueren gaineko Zerga (2/1992 Foru Dekretu Arauemailea, martxoaren 17koa). Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga (10/1989 Foru Araua, ekainaren 30ekoa). Hiri Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga (8/1989 Foru Araua, ekainaren 30ekoa).

C) Erakunde-arauak.

42. gaia. Estatuaren eta Euskadiko Autonomia Erkidegoaren arteko Ekonomia Ituna: aurrekariak eta bilakaera historikoa. Lege izaera eta legezko oinarria Konstituzioan eta Estatutuan. Ekonomi itunen instrumentalizazio formala.

43. gaia. Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsia (I): Arau orokorrak (I. kapituluko 1. atala). Kudeaketa eta jardunbideko arauak (I. kapituluko 16. atala). Ekonomia-itunaren batzordeak eta Arbitraje Batzordea (III. kapitulua). Estatuaren eta Euskadiko Autonomia Erkidegoaren arteko Ekonomia Itunean aipatutako Arbitraje Batzordearen Erregelamendua, abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsia.

44. gaia. Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsia (II): Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (I. kapituluko 2.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

atala). Ondarearen gaineko Zerga (I. kapituluko 5. atala). Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga (I. kapituluko 6. atala).

45. gaia. Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsia (III): Sozietateen gaineko Zerga (I. kapituluko 3. atala). Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga (I. kapituluko 4. atala). Kreditu-erakundeetako Gordailuen gaineko Zerga. (I. kapituluko 4.bis atala).

46. gaia. Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsia (IV): Balio Erantsiaren gaineko Zerga (I. kapituluko 7. atala). Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga (I. kapituluko 8. atala). Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zerga (I. kapituluko 4.ter atala). Energia Nukleoelektrikoa Sortzetik Deribatutako Erregai Nuklear Agortua eta Hondakin Erradioaktiboak Sortzearen gaineko Zerga eta Erregai Nuklear Agortua eta Hondakin Erradioaktiboak Instalazio Zentralizatuetan Biltegiratzearen gaineko Zerga (I. kapituluko 4.quater atala). Gasaren, Petrolioaren eta Kondentsatuen Erauzte Balioaren gaineko Zerga (I. kapituluko 4. quinquies atala).

47. gaia. Estatuaren eta Euskadiko Autonomi Erkidegoaren arteko Ekonomi Ituna, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsia (V): Aseguru-sarien gaineko Zerga (I. kapituluko 9. atala). Zerga bereziak (I. kapituluko 10. atala). Berotegi-efektuko Gas Fluordunen gaineko Zerga (I. kapituluko 11. atala). Finantza Transakzioen gaineko Zerga (I. kapituluko 11 bis atala). Zenbait Zerbitzu Digitalen gaineko Zerga (I. kapituluko 11 ter atala). Zeharkako beste zerga batzuk (I. kapituluko 12. atala). Jokoaren gaineko zergak (I. kapituluko 13. atala). Tasak (I. kapituluko 14. atala). Toki-ogasunak (I. kapituluko 15. atala). Kudeaketa eta jardunbideko arauak (I. kapituluko 16. atala).

48. gaia. Euskadiko Autonomia Erkidegoaren finantzaketa. Estatuaren eta Euskadiko Autonomi Erkidegoaren arteko Ekonomi Ituna, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsia: II. kapitulua: Finantza-harremanak. Euskadiko Autonomia Erkidegoaren 2017-2021 bosturtekorako kupoa zehazteko metodologia, abenduaren 28ko 11/2017 Legearen bidez onetsia. Martxoaren 23ko 2/2007 Legea, foru aldundiek Euskadiko Autonomia Erkidegoaren aurrekontuen finantzaketari egin beharreko ekarpenak zehazteko eta baliabideak banatzeko metodologia, 2007-2011 aldirako aplikagarria.

49. gaia. 3/1989 Legea, maiatzaren 30ekoa, Zerga Harmonizazio, Koordinazio eta Lankidetzari buruzkoa: Aplikazio-eremua. Harmonizazioa eta zerga bakoitzaren harmonizazio arazoak. Zerga betebeharren betekizunaren zentralizazioa. Zergen Koordinaziorako Euskadiko Organoa. Euskadiko Zerga-iruzurraren aurkako Batzordea.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

II. ZATIA

ZUZENBIDE ZIBILA ETA MERKATARITZA ZUZENBIDEA

II A zatia ZUZENBIDE ZIBILA

50. gaia. Familia-zuzenbidea (I): ezkontza kanonikoa eta zibila eta izatezko bikoteak (2/2003 Legea, maiatzaren 7koa). Ezkontzaren ekonomia-araubideak. Euskal Zuzenbide Zibilaren foru-komunikazioa (5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa).

51. gaia. Familia-zuzenbidea (II): ezkontza desegitea (deuseztasuna, banantzea edo dibortzioa), izatezko bikoteak desegitea, mantenu-eskubidea eta guraso-ahalari, filiazioari eta tutoretzari buruzko nozio orokorrak.

52. gaia. Oinordetza-sistemak, jaraunspen-eskubidea (kontzeptu orokorrak eta oinordeko izateko gaitasuna), jarauntsia onartzea eta arbuiatzea, jaraunspen-erreserbak, gehiagotzeko eskubidea eta jarauntsiaren kolazioa eta banaketa.

53. gaia. Testamentuzko oinordetza: testamentua, testamentu-motak, testamentu-xedapenak, jaraunsle-izendapena, ordezpena, legatuak eta albazeatza. Komisario bidezko testamentua eta oinordetza-itunak Euskadiko Zuzenbide Zibilean.

54. gaia. Euskal Zuzenbide Zibilaren nahitaezko oinordetza, jaraunsgabetzea, preteritzea eta berezitasunak. Testamenturik gabeko oinordetza, jaraunspeneko ordezkaritza, kontratuzko oinordetza eta tronkalitatea Euskal Zuzenbide Zibilean.

II B zatia MERKATARITZA ZUZENBIDEA

55. gaia. Merkataritzako kontabilitatea: Kontabilitate Zuzenbidearen iturriak. Merkataritza Kodea (25-49 artikuluak). Kontabilitate Plan Orokorra, azaroaren 16ko 1.514/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsia: lehen zatia: kontabilitatearen esparru kontzeptuala. Kontabilitate Plan Orokorra, azaroaren 16ko 1.514/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsia: bigarren zatia: erregistroa eta balorazioa egiteko arauak. Kontabilitate eta Kontuen Auditoretza Erakundearen ebazpenen balio juridikoa.

56. gaia. 22/2015 Legea, uztailaren 20koa, Kontu Auditoretzarena: I. titulua: Kontu-auditoretza (4-25. artikuluak), II. titulua: Ikuskapen publikoa (46-67. artikuluak), III. titulua: Arau-hausteen eta zehapenen araubidea (68-86. artikuluak) eta xedapen gehigarriak eta iragankorrak.

57. gaia. Bakarkako merkatari edo enpresaburua. Merkatariaren laguntzaileak. Merkataritzako sozietateak. Sozietate kontratua. Sozietate irregularra. Sozietate erregular kolektiboa. Sozietate komanditario hutsa.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

58. gaia. 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa, Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategina onesten duena (I): I. titulua. Xedapen orokorrak (1-18. artikuluak), II. titulua. Kapital-sozietateak eratzea (19-57. artikuluak), III. titulua. – Sozietate-ekarpenak (58- 89. artikuluak) eta XI. titulua. – Obligazioak (401-433. artikuluak).

59. gaia. 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa, Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategina onesten duena (II): IV. titulua - Sozietate-partaidetzak eta akzioak (90-158 artikuluak); V. titulua - Batzar Nagusia (159-208 artikuluak); VI. titulua - Sozietatearen administrazioa (209-252 artikuluak); eta VII. titulua - Urteko kontuak (253-284 artikuluak).

60. gaia. 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa, Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategina onesten duena (III): VIII. titulua.- Sozietatearen estatutuak aldatzea (285345. artikuluak); IX. titulua- Sozietatea uztea eta sozietatetik kanporatzea (346-359. artikuluak); eta X. titulua- Desegitea eta likidatzea (360-400. artikuluak).

61. gaia. 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa, Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategina onesten duena (IV): XII. titulua - Enpresa Berri Sozietatea (434-454. artikuluak); XIV. titulua - Sozietate anonimo kotizatuak (495-541. artikuluak); eta XIII. titulua - Europar sozietate anonimoa (455-494. artikuluak).

62. gaia. 3/2009 Legea, apirilaren 3koa, Merkataritza Sozietateen Egitura Aldaketei buruzkoa: xedapen orokorrak, eraldaketa (1-21. artikuluak); bat-egitea (22-67. artikuluak); zatitzea (68-80. artikuluak); aktiboaren eta pasiboaren lagapen globala (81-91. artikuluak); sozietate-helbidea nazio batetik beste batera lekualdatzea (92-103. artikuluak).

63. gaia. Inbertsio kolektiboko erakundeak (araubide juridikoa eta motak). Elkarren bermerako sozietateak eta arrisku-kapitaleko sozietateak eta funtsak. Kredituko finantza-establezimenduak eta Europako epe luzerako inbertsio-funtsak.

64. gaia. Gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak, aseguru-kontratu kolektiboak eta araubide juridikoa.

65. gaia. Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak eta haien araubide juridikoa.

66. gaia. Pentsio-planak eta -funtsak eta haien araubide juridikoa.

67. gaia. 1/2020 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 5ekoa, Konkurtso Legearen testu bategina onesten duena. I. titulua: Konkurtso-deklarazioa. II. titulua: Konkurtsoko organoak (salbu 54-64, 84-89 eta 91-93 artikuluak) eta 2003ko uztailaren 9ko Konkurtsoari buruzko 22/2003 Legearen 27., 34. 198. artikuluak. III. titulua: Konkurtso-deklarazioaren ondoreak. IV. titulua - Masa aktiboa, V. titulua -Masa pasiboa, eta VI. titulua Konkurtso-administrazioaren txostena.

III. ZATIA

ZUZENBIDE PUBLIKOA

68. gaia. Espainiako 1978ko Konstituzioa: Atariko titulua eta I. titulua - Oinarrizko eskubide eta betebeharrak.

69. gaia. Espainiako 1978ko Konstituzioa: VIII. Titulua - Estatuaren lurralde-antolamendua (printzipio orokorrak, toki-administrazioa eta autonomia-erkidegoak).

70. gaia. Euskal Herriko Autonomia Estatutua: Atariko titulua eta I. titulua.- Euskal Herriaren eskumenak.

71. gaia. Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (jarraipena): II. titulua - Euskal Herriaren aginteak, III. titulua - Ogasuna eta ondarea, IV. titulua - Estatutuaren erreforma eta xedapen gehigarria.

72. gaia. 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidegoko instituzio erkideen eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzkoa: Atariko titulua-Xedapen orokorrak eta lurralde historikoen eskumenak (esklusiboak, garapenekoak eta betearaztekoak, eta betearaztekoak). Zergei buruzko foru arauak aurkaratzeko aukera 2010eko otsailaren 19ko 1/2010 Lege Organikoan (haren bidez, Konstituzio Auzitegiaren eta Botere Judizialaren lege organikoak aldatzen dira).

73. gaia. 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidegoko instituzio erkideen eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzkoa (jarraipena): Finantza- eta aurrekontu-autonomia, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusia, foru-ogasunak, baliabideak Ogasun Nagusiaren eta toki-ogasunen artean banatzeari buruzko ideia orokorra, Herri Dirubideen Euskal Kontseilua eta Herri Kontuen Euskal Epaitegia.

74. gaia. Administrazioaren Legearekiko eta Zuzenbidearekiko menpekotasuna. Zuzenbide Publikoaren iturriak: Legea eta lege-motak. Nazioarteko tratatuak, ohitura, zuzenbidearen printzipio orokorrak eta administrazio-jarduna.

75. gaia. Erregelamendua: kontzeptua eta motak; erregelamendua prestatzeko prozedura; erregelamenduak egiteko ahalaren mugak eta legez kanpoko erregelamenduen aurkako defentsa. Bizkaiko Foru Aldundiaren 87/2021 Foru Dekretua, ekainaren 15ekoa, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura erregulatzen duena.

76. gaia. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena: Probintziaren antolaketa eta eskumenak. Udalerriaren antolaketa eta eskumenak. Foru-aldundiak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean.

77. gaia. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena: Atariko titulua - Xedapen orokorrak, pertsonek administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideak (13. artikulua), administrazio publikoekin harreman elektronikoa izateko eskubidea eta betebeharra (14. artikulua), administrazio-prozeduran

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

interesdun denaren eskubideak (53. artikulua), eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena: xedapen orokorrak (1-4. artikuluak) eta sektore publikoaren funtzionamendu elektronikoa (38-46 bis artikuluak).

78. gaia. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena: I. titulua - Prozeduran interesdun direnak eta III. titulua - Administrazio-egintzak (administrazio-egintzen betekizunak, egintzen efikazia eta deuseztagarritasuna) eta IV. tituluaren VII. kapitulua - Ebazpenak betearaztea.

79. gaia. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena: ebazteko betebeharra (21. artikulua), presuntziozko egintza (24. eta 25. artikuluak), epe-mugak eta epeak (II. kapitulua, II. titulua - Administrazio publikoen jarduera). Administrazio-prozedura erkidearen faseei buruzko ideia orokorra.

80. gaia. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena: V. titulua - Egintzak administrazio-bidetik berrikustea.

81. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora: Legearen xedea eta aplikazio-eremua (Atariko tituluaren I. kapitulua). Kontratu motak zedarritzea, erregulazio harmonizatuko kontratuak, eta Administrazio-kontratuak eta kontratu pribatuak (Atariko tituluaren II. kapitulua). Kontratua burutzea eta kontratuaren forma, baliogabetasun-araubidea eta kontratazio-arloko errekurtso berezia (I. tituluko III., IV. eta V. kapituluak).

82. gaia. 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Aurrekontuei buruzko 2006ko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duena: Atariko titulua - Xedapen orokorrak (xedea eta aplikazio-eremua eta eskumenak); I. titulua - Bizkaiko Foru Ogasunaren araubidea (printzipio orokorrak, eskubide ekonomikoak eta betebehar ekonomikoak); II. titulua - Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorrak (printzipio orokorrak eta aurrekontu-programazioa, eta edukia eta onarpena); eta laugarren xedapen gehigarria (administrazio-kontratazioa eta desjabetzeko prozedura).

83. gaia. Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa: Funtzionarioen eskubideak eta eginkizunak, eta Lansariak.

84. gaia. 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa: Atariko titulua eta lehen tituluaren kapitulu bakarra: Herritarren eskubideak eta herri-aginteen betebeharrak hizkuntzaren alorrean, eta 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena: II. atalburua - Lanpostuei dagozkien hizkuntza-eskakizunak.

85. gaia. 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko foru-erakundeen hautapen, antolaketa, erregimen eta funtzionamenduari buruzkoa. I. titulua - Batzar Nagusiez, I. kapitulua (Batzar Nagusien izaera, eskumen eta osaketez) eta II. kapitulua (Batzar Nagusien eraketa, antolaketa eta funtzionamenduez); II. tituluaren I.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

kapitulua - Bizkaiko Foru Aldundiaz (izaera, osaketa eta karguzketa) eta eskumenak (17. eta 18. artikuluak) eta II. tituluaren II. kapitulua - Diputatu Nagusiaz (izendaketa, izendapena, izaera eta estatutu pertsonala, karguzketa eta ordezkapena).

86. gaia. 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko foru-erakundeen hautapen, antolaketa, erregimen eta funtzionamenduari buruzkoa (jarraipena): III. titulua - Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren arteko harremanez (xedapen orokorrak, Foru Aldundiaren erantzukizuna eta foru arau-egitamuak gertutzeko prozeduraz) eta IV. titulua - Foru Administrazioaz (arau orokorrak, izaera orokorreko xedapen eta administrazio ebazpenez).

87. gaia. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzekoa: Zioen adierazpena; Atariko Titulua; xedapen orokorrak (4. artikulua); euskal herri administrazioen arteko erakunde antolaketa eta koordinazioa (I. tituluko II. kapitulua); euskal herri administrazioen eta aginteen jarduketan genero ikuspegia integratzeko neurriak (II. titulua), eta emakumeen aurkako indarkeria (III. tituluko VII. kapitulua).

88. gaia. 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: II. titulua - Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-sektore publikoan genero-ikuspegia txertatzeko neurriak.

89. gaia. Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa: Ogasun eta Finantza Sailaren Egitura Organikoaren Erregelamendua, 2020ko urtarrilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretuaren bidez onartua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2020ko abenduaren 29ko 130/2020 Foru Dekretuaren bidez aldatua. 2935/2007 Foru Agindua, azaroaren 26koa, Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuko Auditoria Informatikoaren Unitatea sortu eta haren antolamendu eta funtzionamendurako arauak eman dituena; 1634/2009 Foru Agindua, ekainaren 9koa, Bizkaiko Foru Ogasunean Iruzurraren Aurka Borrokatzeko Batzordea sortu eta haren jarduteko arauak ezartzen dituena; Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren 932/2016 Foru Agindua, maiatzaren 4koa, zeinaren bidez sortzen baita Konkurtsoak Ikertzeko Talde Operatiboa eta ematen baitira haren antolaketa eta funtzionamendurako arauak; Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren 1146/2017 Foru Agindua, ekainaren 19koa, zeinaren bidez sortzen baita Nazioarteko Fiskalitaterako eta Transferentzia Prezioetarako Unitatea eta ematen baitira haren antolaketa eta funtzionamendurako arauak; Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren 293/2019 Foru Agindua, otsailaren 11koa, zeinaren bidez sortzen baita Zerga Berezien Unitatea eta ematen baitira haren antolaketarako eta funtzionamendurako arauak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

IV. ZATIA

KONTABILITATEA ETA FINANTZA-MATEMATIKA

— Goi-mailako finantza-kontabilitatea.

— Sozietateen kontabilitatea.

— Finantza-egoeren azterketa.

— Finantza-matematika: kapitalizazioa, errentak, maileguak eta jesapenak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

HAUTAKETA-PROZESURAKO DEIALDIA, KARRERAKO FUNTZIONARIO SARTZEKO ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAN, KUDEAKETA ADMINISTRATIBO FINANTZARIOKO TEKNIKARI ERTAINA: EGONKORTZE-PLAZAK ETA ARRUNTAK

LEHENA: EGONKORTZE-PLAZAK

1. Deialdian eskainitako plazak

Deialdia egiten da KUDEAKETA ADMINISTRATIBO FINANTZARIOKO TEKNIKARI ERTAINen hiru plaza (3) betetzeko (A taldea, A2 titulazio-azpitaldea) txanda irekitik derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna dutenak, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan ezarritakoaren babesean.

2. Titulazioa

Ingeniari teknikoa, arkitekto teknikoa, unibertsitateko diplomaduna, gradua, edo baliokidea.

3. Baldintza espezifikoak

Urriaren 30eko 5/2015 ELDaren 56.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, baldintza espezifikoa izango da IT txartel hauek edukitzea: Word oinarrizkoa eta Excel oinarrizkoa (baliodunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010). Word aurreratuaren eta Excel aurreratuaren IT txartelek Word oinarrizkoarena eta Excel oinarrizkoarena baliozkotuko dituzte, hurrenez hurren.

Ziurtagiria eskuratzeko proba egin ahal izateko, egiaztatutako zentro batean eman beharko da izena. Zentroen zerrenda osoa helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke: www.it-txartela.net.

Izen-ematea www.it-txartela.net helbidean egin daiteke. Informazioa eskura daiteke aipatutako helbide elektronikoan eta bide hauetakoren bat erabilita:

a) Aurrez aurre, egiaztatutako edozein zentrotara joanda.

b) Telefonoz, 902 25 25 95 zenbakira deituta.

Baldintza espezifiko hau betetzeko, aipatutako txartelak ez dituztenei bi (2) hilabeteko epea ematen zaie, deialdi hau BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Izangaiek ez dute agiririk aurkeztu beharko, Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Txartelok epe horretan eskuratzen ez dituen izangaia hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko da.

4. Hautaketa-prozedura

4,1. OPOSIZIO-FASEA

4.1.a) Lehenengo ariketa

Ariketa teorikoa izango da, eta, hirurogeita hamar (70) minutuan, hogeita hamabost (35) galderako test bat egin beharko da, gehi erreserbako bost (5) galdera. Galderak II. eranskineko gaiei buruzkoak izango dira, eta aukerako zenbait erantzun izango dituzte, baina bat baino ez da zuzena izango. Erantzun zuzenak puntu bat (1) balioko du, eta ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik, zuriz utzitakoengatik edo erantzun bi markatzeagatik.

4.1.b) Bigarren ariketa:

Ariketa praktikoa izango da, eta ehun eta bost (105) minutuan, gehienez zazpi (7) kasu teoriko-praktiko ebatzi beharko dira, II. eranskinean jasotzen den gaitegiarekin zerikusia izango dutenak.

4.1.c) Hirugarren ariketa:

Euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailea izango da; betiere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da III. hizkuntza-eskakizunari dagokion mailan.

Bizkaiko Foru Aldundian III. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Halakoetan, parte-hartzaileak baimen espresua emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala ere, aurkeztu egin beharko dituzte azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta egon badauden baina erregistro horretan sartuta ez dauden gainerako euskara-titulu edo -ziurtagiriak; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Izangaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean egiaztatu nahi badute III. hizkuntza-eskakizuna, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko da.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

4.2 LEHIAKETA

Lehiaketan, izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) dagozkion puntuak emango zaizkio.

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1. Merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketaren kalifikazioa.

5.2. Oposizio-fasea:

Lehen ariketari zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa emango zaio.

Bigarren ariketari zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa emango zaio.

2021eko abenduaren 28ko 20/21 Legearen 2.4 artikulua aplikatuz, bi ariketa horiek gaindituko dituzte lehenengo ariketaren eta bigarrenaren kalifikazioak batuta hamar (10) lortzen dutenek, baldin eta ariketa bakoitzean gutxienez bi eta erdi (2,5) atera badute.

5.2 Hirugarren ariketan (euskara), «gai» edo «ez gai» izango da kalifikazioa.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

6. Lan-poltsa

6. Egonkortze-plazen hautaketa-prozesutik ez da lan-poltsarik sortuko.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

I. ERANSKINA

EGONKORTZE-PLAZETARAKO MEREZIMENDUEN BAREMOA

ESPEZIALITATEA: KUDEAKETA ADMINISTRATIBO FINANTZARIOKO TEKNIKARI ERTAINA

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan eta azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat:

1.-Esperientzia; gehienez ere 9,1 puntu, honela banatuta:

1.a) Edozein administrazio publikotan kudeaketa administratibo finantzarioko teknikari ertainen nahiz likidatzaileen kategorian (A taldea A-2 azpitaldea) egindako zerbitzuengatik, zeinahi dela ere beteriko lanpostua: 0,0304 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere ehun hilabete (100) 3,04 puntu

1.b) Aurreko atalean adierazitako esperientziatik bereizirik, modu espezifiko eta osagarrian, Bizkaiko Foru Aldundian KUDEAKETA ADMINISTRATIBO FINANTZARIOKO TEKNIKARI ERTAINen kategorian (A taldea, A2 titulazio-azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,0608 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere ehun (100) hilabete. 6,08 puntu

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira administrazio publikotzat: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikuluetan jasotako erakundeak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 2.1 eta 2.3 artikuluetan jasoak. Orobat zenbatuko dira zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan egindako zerbitzuak, baina inola ere ez izaera publikoko beste erakunde batzuetan egindakoak, baldin eta enpresa, merkataritza-sozietate, fundazio edo elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa badute.

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbitzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatikirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

Nolanahi ere, zerbitzua lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legearen 20.1.c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientzia baloratzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ere: lehenik, zenbat denbora egon den izangaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen izangaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

2.-Administrazio publikoetan, administrazio publikoko eskoletan (IVAP, HAIN, HAEI edo beste administrazio-eskola batzuetan), nortasun juridiko publikoa duten zentroetan eta unibertsitate publiko zein pribatuetan prestakuntza-ikastaroetan eta/edo graduondo zein masterreko titulazio akademikoetan emandako nahiz jasotako ordu-kopuruagatik, 0,017 puntu hartutako ordu bakoitzeko eta 0,050 puntu emandako ordu bakoitzeko; gehienez: 3,4 puntu.

3) Ingelesa, frantsesa edo alemana jakiteagatik, baina hizkuntza bereko mailak metatzeko aukerarik gabe, eta gehienez ere 0,5 puntu, honela banaturik:

3 a) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-1 maila (ingelesa: Trinity College-n ingeleseko Grade 9 agiria; alemana: Goethe Institutuaren ZAP– Zertifikat Deutsch als Fremdsprache agiria, edo frantsesa: DELF 1er degré maila) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 3. maila edo oinarrizko zikloa edo B1.2.: ……………………………………………… 0,15 puntu.

3 b) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-2 maila (ingelesa: Cambridgeko First Certificate of English agiria; alemana: Goethe Institutuaren ZMP -Zentrale Mittelstufenprüfung agiria, edo frantsesa: DELF 2ème degré. DL - Diplôme de Langue - Alliance Française) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 4. maila edo B2 maila aurreratua: ……………… 0,30 puntu

3 c) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-2 maila (ingelesa: Cambridge Unibertsitateko Certificate in Advanced English edo Certificate of Proficiency in English agiriak edo Trinity Collegeko Passed Grade Twelve edo Oxford Unibertsitateko Higher Level maila; alemana: ZOP – Zentrale Oberstufenprufung edo KDS – Kleines Deutsches Sprachdiplom edo GDS – Grosses Deutsches Sprachdiplom agiriak), edo frantsesa: – DALF edo DSLCF – Diplôme Supérieur Langue et Culture Française – Alliance Française) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 5. maila nahiz EBko edozein hizkuntzaren filologian lizentziatura (goi mailako unibertsitate-titulua): 0,5 puntu

GUZTIRA ……………………………………………………………………………………13 PUNTU

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

II. ERANSKINA

EGONKORTZE-PLAZAK

GAITEGIA KUDEAKETA ADMINISTRATIBO FINANTZARIOKO TEKNIKARI ERTAINA

I-A ZATIA: ZERGA-ZUZENBIDEA (GAI OROKORRAK)

1. GAIA 12/2002 Legea, maiatzaren 23koa, Euskadiko Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duena (1). Lurralde historikoetako erakundeen eskumenak eta Estatuaren eskumenak. Printzipio orokorrak. Harmonizazio-arauak eta elkarlanaren printzipioa. Kudeaketa- eta prozedura-arauak. Batzordeak. Arbitraje Batzordea.

2. GAIA 12/2002 Legea, maiatzaren 23koa, Euskadiko Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duena (2). Honako zerga hauetako araudi aplikagarria eta ordainarazpenerako eskumena duen zerga-administrazioa: PFEZ, ondarearen gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga, oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga eta konturako ordainketak, kreditu erakundeetako gordailuen gaineko zerga, energia elektrikoaren produkzioaren balioaren gaineko zerga, energia nukleoelektrikoa sortzearen ondorioz agortutako erregai nuklearra eta hondakin erradioaktiboak ekoiztearen gaineko zerga, eta instalazio zentralizatuetan agortutako erregai nuklearra, hondakin erradioaktiboak pilatzearen gaineko zerga eta gasaren, petrolioaren eta kondentsatuen erauzte-balioaren gaineko zerga.

3. GAIA 12/2002 Legea, maiatzaren 23koa, Euskadiko Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duena (3). Honako zerga hauetako araudi aplikagarria eta ordainarazpenerako eskumena duen zerga-administrazioa: BEZa, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, aseguru-primen gaineko zerga, zerga bereziak, berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga, jokoaren gaineko tributuak, tokiko tributuak eta tasak.

4. GAIA Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Araua (1): Xedapen orokorrak: printzipio orokorrak eta zergei buruzko arauak. Tributuak: Xedapen orokorrak. Zergapekoak. Zerga-betebehar nagusia eta egin beharreko konturako ordainketak zenbatzeko elementuak. Zerga-zorra.

5. GAIA Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Araua (2): Tributuen aplikazioa: Printzipio orokorrak. Zergen arloko jarduketei eta prozedurei buruzko arau orokorrak. Zerga-kudeaketako jarduketak eta prozedura.

6. GAIA Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Araua (3): Tributuen aplikazioa: Ikuskapeneko jarduketak eta prozedurak. Zerga-bilketako jarduketak eta prozedurak.

7. GAIA Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Araua (4): Zehatzeko ahala: Zergen arloko zehatzeko ahalaren printzipioak. Zergen arloko arau-hausteei eta zehapenei buruzko xedapen orokorrak. Zergen arloko arau-hausteak eta zehapenak. Zergen arloko zehapen-prozedura.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

8. GAIA Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Araua (5): Administrazio-bidean egindako berrikuspena: Arau orokorrak. Berrikuspenerako prozedura bereziak. Berraztertze-errekurtsoa. Administrazioarekiko diru-erreklamazioak.

I-B ZATIA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ZERGA-ZUZENBIDEA (GAI BEREZIAK)

9. GAIA Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (I). Izaera eta aplikazio-eremua. Zerga-egitatea. Zergadunak. Zerga-oinarria: Arau orokorrak, lanaren etekinak, ekonomia-jardueren etekinak eta kapitalaren etekinak.

10. GAIA Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (II). Zerga-oinarria: Ondare-irabaziak eta -galerak, errenten egozpena eta eratxikipena, araubide bereziak, denbora-egozpena, balioztatzeko arau bereziak, errenta-motak eta errenten integrazioa eta konpentsazioa.

11. GAIA Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (III). Likidazio-oinarria. Kuota osoa. Kuota likidoa eta kenkariak. Kuota diferentziala. Zerga-zorra. Baterako tributazioa. Zergaldia eta zergaren sortzapena. Kudeaketa: aitorpenak, konturako ordainketak, behin-behineko likidazioak eta betebehar formalak.

12. GAIA Ondarearen gaineko Zerga. Izaera eta aplikazio-eremua. Zerga-egitatea. Zergadunak. Zerga-oinarria. Likidazio-oinarria. Zergaren sortzapena. Zerga-zorra. Zergaren kudeaketa.

13. GAIA Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga. Izaera, aplikazio-eremua eta ordainarazpena. Osagai pertsonalak. Zergaren mende egotea. Establezimendu iraunkorraren bidez lortutako errentak. Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak. Entitate ez-egoiliarren ondasun higiezinen gaineko karga berezia. Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateak. Beste xedapen batzuk.

14. GAIA Sozietateen gaineko Zerga (I). Izaera eta aplikazio-eremua. Zerga-egitatea. Zergaduna. Zergaldia eta zergaren sortzapena. Zergaren kudeaketa.

15. GAIA Sozietateen gaineko Zerga (II Zerga-oinarria): Arau orokorrak. Zuzenketak gastuen atalean. Zuzenketak sarreren atalean.

16. GAIA Sozietateen gaineko zerga (III). Zerga-oinarria: Balioespen-erregelen arloko zuzenketak eta abusuaren aurkako neurriak. Emaitzaren aplikazioari dagozkion zuzenketak. Denboraren araberako egozpena eta kontabilitateko inskripzioak. Zerga-oinarri negatiboen konpentsazioa. Zerga-zorra.

17. GAIA Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga. Izaera eta aplikazio-eremua. Zerga-egitatea. Zergadunak eta erantzuleak. Sortzapena, preskripzioa eta iraungitzea. Zerga-oinarria. Likidazio-oinarria. Zerga-zorra. Zergaren kudeaketa. Betebehar formalak.

18. GAIA Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga (I). Izaera eta edukia. Aplikazio-eremua. Kostubidezko ondare eskualdaketak: Zerga-egitatea. Subjektu pasiboa. Zerga-oinarria. Zerga-kuota. Erregela bereziak. Sozietate-eragiketak: Zerga-egitatea. Zerga-oinarria.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

19. GAIA Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga (II). Egintza juridiko dokumentatuak: Printzipio orokorrak. Notario-agiriak. Merkataritzako agiriak. Administrazio-agiriak. Xedapen orokorrak. Zerga-onurak. Balioen egiaztapena. Sortzapena eta preskripzioa. Betebehar formalak. Zergaren ordainketa. Itzulketak. Zehapen-araubidea.

20. GAIA Balio Erantsiaren gaineko Zerga (I). Izaera eta aplikazio-eremua. Zerga-egitatearen mugaketa. Salbuespenak. Zerga-egitatearen burutzapen-lekua. Sortzapena. Zerga-oinarria.

21. GAIA Balio Erantsiaren gaineko Zerga (II). Subjektu pasiboak. Zerga-tasak. Kenkariak eta itzulketak. Subjektu pasiboen betebeharrak. Zergaren kudeaketa. Urratzeak eta zehapenak.

22. GAIA Balio Erantsiaren gaineko Zerga (III). Erregimen bereziak: Arau orokorrak. Erregimen erraztua. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia. Ondasun erabili, arte-objektu, antzinateko objektu eta bilduma-objektuen araubide berezia. Inbertsio-urrearen araubide berezia. Bidaia-agentzien araubide berezia.

23. GAIA Balio Erantsiaren gaineko Zerga (IV). Erregimen bereziak: Baliokidetasun-errekarguaren araubide berezia. Entitate-taldeen araubide berezia. Kutxa-irizpidearen araubide berezia. Urruneko salmenten eta Batasunaren barruko ondasun-emate eta zerbitzugintza batzuen araubide bereziak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

BIGARRENA: PLAZA ARRUNTAK

1. Deialdian eskainitako plazak

Deialdia egiten da, KUDEAKETA ADMINISTRATIBO FINANTZARIOKO TEKNIKARI ERTAINen berrogeita lau (44) plaza (A taldeko A2 titulazio-azpitaldekoak) betetzeko. Plaza horiek III. hizkuntza-eskakizuna dute, eta lehiaketa-oposizio sistemaren bidez beteko dira, banaketa honen arabera:

— Barne-sustapeneko txanda arrunta: bost (5) plaza, derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizunarekin.

— Desgaitasuna duten pertsonen barne sustapeneko txanda: plaza bat (1), derrigorrezkoa den III. hizkuntza-eskakizuna duena.

— Txanda irekia: hogeita hamazazpi (36) plaza, III. hizkuntza-eskakizunarekin; haietariko hogeita hamabostek (34) derrigorrezkoa dute, eta beste bik (2), aldiz, ez-derrigorrezkoa.

— Desgaitasuna duten pertsonen txanda: bi (2) plaza, III. hizkuntza-eskakizunarekin; haietariko batek (1) derrigorrezkoa du, eta besteak (1) ez-derrigorrezkoa.

2. Titulazioa eta jatorria

Ingeniari teknikoa, arkitekto teknikoa, unibertsitateko diplomaduna, gradua, edo baliokidea.

Barne-sustapeneko txandan parte hartzen dutenek honako baldintza hauek bete behar dituzte: zerbitzu aktiboan edo zerbitzu berezietan egon behar dute beren jatorrizko kidegoan edo eskalan; bi urteko zerbitzua beteta izan behar dute karrerako funtzionario gisa kidego-eskala horietan; dagokion titulazioa eduki behar dute eta C1 taldeko nahiz talde bereko plaza batekoak izan.

3. Baldintza espezifikoak

Urriaren 30eko 5/2015 ELDaren 56.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, baldintza espezifikoa izango da IT txartel hauek edukitzea: Word oinarrizkoa eta Excel oinarrizkoa (baliodunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010). Word aurreratuaren eta Excel aurreratuaren IT txartelek Word oinarrizkoarena eta Excel oinarrizkoarena baliozkotuko dituzte, hurrenez hurren.

Ziurtagiria eskuratzeko proba egin ahal izateko, egiaztatutako zentro batean eman beharko da izena. Zentroen zerrenda osoa helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke: www.it-txartela.net.

Izen-ematea www.it-txartela.net helbidean egin daiteke. Informazioa eskura daiteke

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

aipatutako helbide elektronikoan eta bide hauetakoren bat erabilita:

a) Aurrez aurre, egiaztatutako edozein zentrotara joanda.

b) Telefonoz, 902 25 25 95 zenbakira deituta.

Probak egin eta kalifikatzeko, ziurtagiria ematen duen organoak ezarritako arau orokorrei jarraituko zaie.

Baldintza espezifiko hau betetzeko, aipatutako txartelak ez dituztenei bi (2) hilabeteko epea ematen zaie, deialdi hau BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Izangaiek ez dute agiririk aurkeztu beharko, Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten.

Txartelok epe horretan eskuratzen ez dituen izangaia hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko da, baita osatuko den lan-poltsatik ere.

4. Hautaketa-prozedura.

4.1 OPOSIZIO-FASEA

4.1.a) Lehenengo ariketa:

Ariketa honetan, hiru (3 ) orduan, laurogeita hamar (90) galderako test bat egin beharko da —gehi erreserbako hamar (10) galdera—. Galderak IV. eranskineko gaiei buruzkoak izango dira (II C zatia kenduta, kontabilitateari buruzkoa), eta aukerako zenbait erantzun izango dituzte, baina bat baino ez da zuzena izango. Erantzun zuzenak hiru (3) puntu balioko du, eta puntu bat (1) kenduko da oker erantzundako galdera bakoitzeko.

Barne-sustapeneko txandatik datozen izangaiek inoiz lehenago eskatu zaizkien ezagutzak berriro egiazta behar izan ez ditzaten, ez dituzte egin beharko gaitegiko IV. eranskinean jasotako gaitegiko III-A eta III-B zatiei dagozkien galderak. Hori dela eta, proportzionalki dagokien denbora eta galdera-kopurua izango dute, haiek IV. eranskineko gaitegiaren I-A, I-B, II-A eta II-B zatietako edukiei buruzko galderak besterik ez baitituzte erantzungo.

4.1 b) Bigarren ariketa:

Bigarren ariketa: Bost (5) orduko epean, gehienez ere hogei (20) kasu teoriko-praktiko ebatzi beharko dira, gaitegiaren zati hauetako gaiekin zerikusia izango dutenak: I-A, I-B, II-A, II-B (Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-zuzenbidea. Gai bereziak) eta II C zatia (Kontabilitatea). Modu anonimoan egingo da zuzenketa.

4.1.c) Hirugarren ariketa:

Euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailea izango da derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten lanpostuei lotutako plazetara aurkezten diren izangaientzat eta borondatezkoa eta ez-baztertzailea derrigorrezko ez den III. hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten lanpostuei lotutako plazetara aurkezten direnentzat; betiere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da dagokion mailan.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Bizkaiko Foru Aldundian III. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Halakoetan, parte-hartzaileak baimen espresua emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala ere, aurkeztu egin beharko dituzte azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta egon badauden baina erregistro horretan sartuta ez dauden gainerako euskara-titulu edo -ziurtagiriak; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Izangaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean egiaztatu nahi badute III. hizkuntza-eskakizuna, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko da.

4.2 LEHIAKETA

Lehiaketan, izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera dagozkion puntuak emango zaizkio (III. eranskina).

5.Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1 Merezimenduen baremoaren arabera (III. eranskina) emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketaren kalifikazioa.

5.2 Oposizio-fasea:

a) Lehenengo ariketari zerotik (0) hamar (10) puntura bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta bost (5) puntu lortzen ez dituzten hautagaiak baztertuta geratuko dira.

Hala ere, puntuaziorik handiena lortzen duten 300 pertsonak sartuko dira lan-poltsan, plaza lortzen dutenak izan ezik. Noten mozketa-puntuan berdinketa gertatuz gero, mozketa-notaren pareko nota duten izangai guztiek lan boltsa osatuko dute.. Lan-poltsaren barruko hurrenkera lan-poltsak kudeatzeko irizpideekin bat etorrita zehaztuko da.

Izangaiek deialdi honen ostean deitzen den hurrengo deialdirako gorde ahal izango dute ariketa honetako kalifikazioa, baldin eta deialdi horretan hala ezartzen bada; horretarako, betiere, txanda berean parte hartu behar dute.

Txanda honetan berean parte hartu zutenek Bizkaiko Ahaldun Nagusiaren 2021eko irailaren 2ko 150/2021 Foru Dekretuaren bidez egin zen deialdian (2021eko 174. BAO, irailaren 9koa), aukera hori baliatzeko modua izango dute, baldin eta idatziz adierazten badute hori eskabide-orrian eta txanda berean parte hartzen badute.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Eskubide hori baliatzeko, hautaprobetan parte hartzeko eskabidea aurkeztu beharko dute eta dagokion tasa ordaindu. Aukera hori baliatu duen izangaiak deialdi honetako azterketa egiten badu, bi prozesuetan lortutako kalifikazioetatik altuena emango zaio zuzenean.

b) Bigarren ariketari zerotik (0) hamar (10) puntura bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta bost (5) puntu lortzen ez dituzten izangaiak berez geratuko dira baztertuta.

c) Hirugarren ariketari *gai* edo *ez gai* kalifikazioa emango zaio, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazak lortu nahi dituztenentzat. Gainerako kasuetan, honako banaketa honen araberako kalifikazioa emango da, egiaztatutako maila kontuan hartuta:

- I. hizkuntza-eskakizuna: 1,25 puntu
- II. hizkuntza-eskakizuna: 2,5 puntu.
- III. hizkuntza-eskakizuna: 3,75 puntu

Ezingo da eskuratu lortu nahi den lanpostuaren hizkuntza-eskakizunari dagokiona baino goragoko puntuaziorik.

5,3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

6.-Lan-poltsa

Lan-poltsa lehen ariketan, teorikoan, puntuaziorik handiena lortu duten 300 pertsonekin eratuko da; haien hurrenkera lan-poltsak kudeatzeko irizpideekin bat etorrita zehaztuko da.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

III. ERANSKINA

PLAZA ARRUNTETARAKO MEREZIMENDUEN BAREMOA

ESPEZIALITATEA: KUDEAKETA ADMINISTRATIBO FINANTZARIOKO TEKNIKARI ERTAINA

1. Edozein administrazio publikotan kudeaketa administratibo finantzarioko teknikari ertainen nahiz likidatzaileen kategorian (A taldea A-2 azpitaldea) egindako zerbitzuengatik, zeinahi dela ere beteriko lanpostua: 0,05 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere hirurogei hilabete (60) 3 puntu

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira administrazio publikotzat: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikuluetan jasotako erakundeak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 2.1 eta 2.3 artikuluetan jasoak. Orobat zenbatuko dira zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan egindako zerbitzuak, baina inola ere ez izaera publikoko beste erakunde batzuetan egindakoak, baldin eta enpresa, merkataritza-sozietate, fundazio edo elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa badute.

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbitzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatikirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

Nolanahi ere, zerbitzua lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legearen 20.1.c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientzia baloratzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ere: lehenik, zenbat denbora egon den izangaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen izangaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

2. Administrazio publikoetan, administrazio publikoko eskoletan (IVAP, HAIN, HAEI edo beste administrazio-eskola batzuetan), nortasun juridiko publikoa duten zentroetan eta unibertsitate publiko zein pribatuetan gaitegiarekin harreman zuzena duten prestakuntza-ikastaroetan eta/edo graduondo zein masterreko titulazio akademikoetan emandako nahiz jasotako ordu-kopuruagatik, 0,0075 puntu hartutako ordu bakoitzeko eta 0,02 puntu emandako ordu bakoitzeko; gehienez: 1,5 puntu.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

3. Europar Batasuneko hizkuntza bat edo bi jakiteagatik, baina hizkuntza beraren maila ezberdinak metatzeko aukerarik gabe. Gehienez 0,5 puntu lor daiteke, banaketa honen arabera:

3 a) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-1 maila (besteak beste, ingelesa: Trinity College-n ingeleseko Grade 9 agiria; alemana: Goethe Institutuaren ZAP–Zertifikat Deutsch als Fremdsprache agiria, edo frantsesa: DELF 1er degré maila) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 3. maila edo oinarrizko zikloa edo B1.2.: ………………………………………………… 0,15 puntu.

3 b) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-2 maila (besteak beste, ingelesa: Cambridgeko First Certificate of English agiria; alemana: Goethe Institutuaren ZMP -Zentrale Mittelstufenprüfung agiria, edo frantsesa: DELF 2ème degré. DL - Diplôme de Langue - Alliance Française) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 4. maila edo B2 maila aurreratua: … 0,30 puntu

3 c) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-2 maila (besteak beste, ingelesa: Cambridge Unibertsitateko Certificate in Advanced English edo Certificate of Proficiency in English agiriak edo Trinity Collegeko Passed Grade Twelve edo Oxford Unibertsitateko Higher Level maila; alemana: ZOP – Zentrale Oberstufenprufung edo KDS – Kleines Deutsches Sprachdiplom edo GDS – Grosses Deutsches Sprachdiplom agiriak), edo frantsesa: – DALF edo DSLCF – Diplôme Supérieur Langue et Culture Française – Alliance Française) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 5. maila nahiz EBko edozein hizkuntzaren filologian lizentziatura (goi mailako unibertsitate-titulua): 0,5 puntu.

GUZTIRA ..........................................................................................................5 PUNTU

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

IV. ERANSKINA

GAITEGIA

KUDEAKETA ADMINISTRATIBO FINANTZARIOKO TERKNIKARI ERTAINA:

PLAZA ARRUNTAK

I-A ZATIA: ZERGA-ZUZENBIDEA (GAI OROKORRAK)

1. GAIA 12/2002 Legea, maiatzaren 23koa, Euskadiko Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duena (1). Lurralde historikoetako erakundeen eskumenak eta Estatuaren eskumenak. Printzipio orokorrak. Harmonizazio-arauak eta elkarlanaren printzipioa. Kudeaketa- eta prozedura-arauak. Batzordeak. Arbitraje Batzordea.

2. GAIA 12/2002 Legea, maiatzaren 23koa, Euskadiko Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duena (2). Honako zerga hauetako araudi aplikagarria eta ordainarazpenerako eskumena duen zerga-administrazioa: PFEZ, ondarearen gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga, oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga eta konturako ordainketak, kreditu erakundeetako gordailuen gaineko zerga, energia elektrikoaren produkzioaren balioaren gaineko zerga, energia nukleoelektrikoa sortzearen ondorioz agortutako erregai nuklearra eta hondakin erradioaktiboak ekoiztearen gaineko zerga, eta instalazio zentralizatuetan agortutako erregai nuklearra, hondakin erradioaktiboak pilatzearen gaineko zerga eta gasaren, petrolioaren eta kondentsatuen erauzte-balioaren gaineko zerga.

3. GAIA 12/2002 Legea, maiatzaren 23koa, Euskadiko Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duena (3). Honako zerga hauetako araudi aplikagarria eta ordainarazpenerako eskumena duen zerga-administrazioa: BEZa, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, aseguru-primen gaineko zerga, zerga bereziak, berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga, jokoaren gaineko tributuak, tokiko tributuak eta tasak.

4. GAIA Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Araua (1): Xedapen orokorrak: printzipio orokorrak eta zergei buruzko arauak. Tributuak: Xedapen orokorrak. Zergapekoak. Zerga-betebehar nagusia eta egin beharreko konturako ordainketak zenbatzeko elementuak. Zerga-zorra.

5. GAIA Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Araua (2): Tributuen aplikazioa: Printzipio orokorrak. Zergen arloko jarduketei eta prozedurei buruzko arau orokorrak. Zerga-kudeaketako jarduketak eta prozedura.

6. GAIA Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Araua (3): Tributuen aplikazioa: Ikuskapeneko jarduketak eta prozedurak. Zerga-bilketako jarduketak eta prozedurak.

7. GAIA Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Araua (4): Zehatzeko ahala: Zergen arloko zehatzeko ahalaren printzipioak. Zergen arloko arau-hausteei eta zehapenei buruzko xedapen orokorrak. Zergen arloko arau-hausteak eta zehapenak. Zergen arloko zehapen-prozedura.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

8. GAIA Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Araua (5): Administrazio-bidean egindako berrikuspena: Arau orokorrak. Berrikuspenerako prozedura bereziak. Berraztertze-errekurtsoa. Administrazioarekiko diru-erreklamazioak.

I-B ZATIA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ZERGA-ZUZENBIDEA (GAI BEREZIAK)

9. GAIA Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (I). Izaera eta aplikazio-eremua. Zerga-egitatea. Zergadunak. Zerga-oinarria: Arau orokorrak, lanaren etekinak, ekonomia-jardueren etekinak eta kapitalaren etekinak.

10. GAIA Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (II). Zerga-oinarria: Ondare-irabaziak eta -galerak, errenten egozpena eta eratxikipena, araubide bereziak, denbora-egozpena, balioztatzeko arau bereziak, errenta-motak eta errenten integrazioa eta konpentsazioa.

11. GAIA Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (III). Likidazio-oinarria. Kuota osoa. Kuota likidoa eta kenkariak. Kuota diferentziala. Zerga-zorra. Baterako tributazioa. Zergaldia eta zergaren sortzapena. Kudeaketa: aitorpenak, konturako ordainketak, behin-behineko likidazioak eta betebehar formalak.

12. GAIA Ondarearen gaineko Zerga. Izaera eta aplikazio-eremua. Zerga-egitatea. Zergadunak. Zerga-oinarria. Likidazio-oinarria. Zergaren sortzapena. Zerga-zorra. Zergaren kudeaketa.

13. GAIA Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga. Izaera, aplikazio-eremua eta ordainarazpena. Osagai pertsonalak. Zergaren mende egotea. Establezimendu iraunkorraren bidez lortutako errentak. Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak. Entitate ez-egoiliarren ondasun higiezinen gaineko karga berezia. Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateak. Beste xedapen batzuk.

14. GAIA Sozietateen gaineko Zerga (I). Izaera eta aplikazio-eremua. Zerga-egitatea. Zergaduna. Zergaldia eta zergaren sortzapena. Zergaren kudeaketa.

15. GAIA Sozietateen gaineko Zerga (II Zerga-oinarria): Arau orokorrak. Zuzenketak gastuen atalean. Zuzenketak sarreren atalean.

16. GAIA Sozietateen gaineko zerga (III). Zerga-oinarria: Balioespen-erregelen arloko zuzenketak eta abusuaren aurkako neurriak. Emaitzaren aplikazioari dagozkion zuzenketak. Denboraren araberako egozpena eta kontabilitateko inskripzioak. Zerga-oinarri negatiboen konpentsazioa. Zerga-zorra.

17. GAIA Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga. Izaera eta aplikazio-eremua. Zerga-egitatea. Zergadunak eta erantzuleak. Sortzapena, preskripzioa eta iraungitzea. Zerga-oinarria. Likidazio-oinarria. Zerga-zorra. Zergaren kudeaketa. Betebehar formalak.

18. GAIA Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga (I). Izaera eta edukia. Aplikazio-eremua. Kostubidezko ondare eskualdaketak: Zerga-egitatea. Subjektu pasiboa. Zerga-oinarria. Zerga-kuota. Erregela bereziak. Sozietate-eragiketak: Zerga-egitatea. Zerga-oinarria.

19. GAIA Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga (II). Egintza juridiko dokumentatuak: Printzipio orokorrak. Notario-agiriak. Merkataritzako agiriak. Administrazio-

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

agiriak. Xedapen orokorrak. Zerga-onurak. Balioen egiaztapena. Sortzapena eta preskripzioa. Betebehar formalak. Zergaren ordainketa. Itzulketak. Zehapen-araubidea.

20. GAIA Balio Erantsiaren gaineko Zerga (I). Izaera eta aplikazio-eremua. Zerga-egitatearen mugaketa. Salbuespenak. Zerga-egitatearen burutzapen-lekua. Sortzapena. Zerga-oinarria.

21. GAIA Balio Erantsiaren gaineko Zerga (II). Subjektu pasiboak. Zerga-tasak. Kenkariak eta itzulketak. Subjektu pasiboen betebeharrak. Zergaren kudeaketa. Urratzeak eta zehapenak.

22. GAIA Balio Erantsiaren gaineko Zerga (III). Erregimen bereziak: Arau orokorrak. Erregimen erraztua. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia. Ondasun erabili, arte-objektu, antzinateko objektu eta bilduma-objektuen araubide berezia. Inbertsio-urrearen araubide berezia. Bidaia-agentzien araubide berezia.

23. GAIA Balio Erantsiaren gaineko Zerga (IV). Erregimen bereziak: Baliokidetasun-errekarguaren araubide berezia. Entitate-taldeen araubide berezia. Kutxa-irizpidearen araubide berezia. Urruneko salmenten eta Batasunaren barruko ondasun-emate eta zerbitzugintza batzuen araubide bereziak.

II - A ZATIA: ZERGA-ZUZENBIDEA (GAI OROKORRAK)

24. GAIA 112/2009 Foru Dekretua, uztailaren 21ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudia onesten duena. Xedapen orokorrak. Zergen kudeaketaren printzipioak eta xedapen orokorrak. Zerga kudeaketako jardun eta prozedurei buruzko arau komunak. Zerga-kudeaketako prozedurak eta jardunak.

25. GAIA 125/2019 Foru Dekretua, abuztuaren 21ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Erregelamendua onesten duena. Xedapen orokorrak. 1.etik 6.erako artikuluak. Geroratzea edo zatikatzea. 25.etik 40.erako artikuluak Premiamendu-prozedura. 49.etik 71.erako artikuluak

26. GAIA 205/2008 Foru Dekretua, abenduaren 22koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak araupetzen dituena. Xedapen orokorrak. Zentsu-betebeharrak. Zerga-egoitzaren inguruko betebeharrak. Identifikazio fiskaleko zenbakiaren inguruko betebeharrak. 4/2013 Foru Dekretua, urtarrilaren 22koa, fakturazio-betebeharrei buruzko araudia onesten duena: Eragiketak dokumentatzeko betebeharra, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondoreetarako. Dokumentatzeko betebeharrak beste tributu batzuei dagokienez.

II - B ZATIA: BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ZERGA-ZUZENBIDEA (GAI BEREZIAK)

27. GAIA Sozietateen gaineko zerga (IV). Zerga-araubide bereziak: Definizioa. Zerga-baterakuntzaren araubidea. Honako hauen araubide berezia: bat-egiteak, zatiketak, aktiboen ekarpenak, balore trukeak, aktibo eta pasibo osoaren lagapenak, eta Europako sozietate baten edo kooperatiba-sozietate baten egoitza Europar Batasuneko estatu kide batetik beste batera aldatzea. Kooperatiben zerga-araubidea. Irabazizkoak ez diren erakundeei eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko zerga-araubidea.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

28. GAIA Jokoaren gaineko tributua. Joko-jardueren gaineko zerga. Aseguru-primen gaineko Zerga.

29. GAIA Zerga bereziak. Fabrikazioaren gaineko zerga bereziak. Xedapen orokorrak. Alkoholaren eta edari alkoholdunen gaineko zerga guztientzako xedapen erkideak. Garagardoaren gaineko Zerga. Ardoaren eta Edari Hartzituen gaineko Zerga. Tarteko Ekoizkinen gaineko Zerga. Alkohol eta Edari Eratorrien gaineko Zerga. Zerga bakoitzaren osagaiak eta kudeaketa.

30. GAIA Zerga bereziak. Hidrokarburoen gaineko Zerga. Tabako Moten gaineko Zerga. Ikatzaren gaineko Zerga Berezia. Elektrizitatearen gaineko Zerga Berezia. Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia. Zerga bakoitzaren osagaiak eta kudeaketa.

31. GAIA Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zerga. Gasaren, petrolioaren eta kondentsatuen erauzte-balioaren gaineko zerga. Berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko Zerga.

32. GAIA Ondasun Higiezinen gaineko Zerga. Zergaren izaera. Zerga-egitatea eta zergaren menpe ez dauden kasuak. Salbuespenak. Subjektu pasiboa. Afekzio erreala eskualdaketan eta erantzukizun solidarioa titularkidetasunean. Zerga-oinarria. Kuota osoa eta kuota likidoa. Karga-tasa. Nahitaezko hobariak. Hautazko hobariak eta errekarguak. Sortzapena eta zergaldia. Zergaren kudeaketa. Eskumen-eremua.

33. GAIA Ekonomia-jardueren gaineko Zerga. Izaera eta zerga-egitatea. Salbuespenak. Subjektu pasiboak. Zerga-kuota. Zergaldia eta zergaren sortzapena. Kudeaketa.

## II-C ZATIA; KONTABILITATEA

34. GAIA Arau-iturrien sistema kontabilitatearen arloan: Merkataritzako Kodea (I. liburua, III. titulua. Enpresaburuen kontabilitatea. 25-49 artikuluak). 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa, Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena (VII. titulua. Urteko kontuak). 1514/2007 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Kontabilitate Plan Orokorra (KPO) onartzen duena. 1515/2007 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Enpresa Txiki eta Ertainen Kontabilitate Plan Orokorra eta mikroenpresentzako kontabilitate-irizpideak onartzen dituena. Kontabilitate eta Kontu Auditoretza Institutuaren (KKAI) ebazpenak.

35. GAIA Kontabilitatearen kontzeptu-esparrua. Urteko kontuak. Urteko kontuak prestatzeko arauak. Irudi fidela. Kontabilitateko printzipioak. Urteko kontuen osagaiak. Urteko kontuen osagaiak erregistratzeko irizpideak. Ebaluazio-irizpideak. Oro har onartutako kontabilitateko printzipioak eta arauak. Erregistroa eta balorazioa egiteko irizpideak.

36. GAIA Ibilgetu ukiezina, ibilgetu materiala eta higiezinetako inbertsioak (KPOko 20, 21, 22, 23, 28 eta 29. azpitaldeak). Kontabilitate-definizioak eta -harremanak. Kontabilitateari buruzko Plan Orokorreko (KPO) erregistroa eta balorazioa egiteko arauak, bereziki 2, 3, 4, 5, 6, 8 eta 11. arauak.

37. GAIA Finantza-kontuak. Finantza-inbertsioak (KPOko 24-26, 29, 53-57, 58 eta 59 azpitaldeak). Kontabilitate-definizioak eta -harremanak. Sailkapena. Kontabilitate Plan Orokorreko (KPO) erregistroa eta balorazioa egiteko arauak; bereziki, 7., 9., 19., 20. eta 21. arauak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

38. GAIA Ondare garbia (10-13 azpitaldeak). Kontabilitate-definizioak eta -harremanak. Sailkapena. Kontabilitate Plan Orokorreko (KPO) erregistroa eta balorazioa egiteko arauak; bereziki, 18. araua.

39. GAIA Izakinak (KPOko 3. taldea). Kontabilitate-definizioak eta -harremanak. Sailkapena. Kontabilitate Plan Orokorreko (KPO) erregistroa eta balorazioa egiteko arauak; bereziki, 10. 11. eta 14. arauak.

40. GAIA Merkataritzako eragiketen ondoriozko hartzekodunak eta zordunak (KPOko 4. taldea). Kontabilitate-definizioak eta -harremanak. Sailkapena. Kontabilitate Plan Orokorreko (KPO) erregistroa eta balorazioa egiteko arauak; bereziki, 11. eta 14. arauak.

41. GAIA Finantza-pasiboak (KPOko 14-19, 50-52, 55, 56. azpitaldeak). Kontabilitate-definizioak eta -harremanak. Sailkapena. Kontabilitateari buruzko Plan Orokorreko erregistroa eta balorazioa egiteko arauak, bereziki 9. 11., 15., 16., 17., 19., 20. eta 21. arauak.

42. GAIA Sarrerak eta gastuak (KPOko 6, 7, 8 eta 9. taldeak) eta aldizkakotzeagatiko doiketak (KPOko 48 eta 56. azpitaldeak). Kontabilitate-definizioak eta -harremanak. Sailkapena. Kontabilitate Plan Orokorreko (KPO) erregistroa eta balorazioa egiteko arauak; bereziki, 12. 13. eta 14. arauak.

III-A ZATIA: ZUZENBIDE PUBLIKOA

43. GAIA Espainiako 1978ko Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak.

44. GAIA Estatuaren lurralde-antolaketa. Autonomia-estatutuak. Eskumenak Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean banatzeko sistema.

45. GAIA Euskal Herriaren Autonomia Estatutua. Atariko titulua. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenak: esklusiboak, legeak garatu eta betearaztekoak, eta betearaztekoak.

46. GAIA 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidegoko instituzio erkideen eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzkoa. Xedapen orokorrak. Lurralde historikoen eskumenak: esklusiboak, legeak garatu eta betearaztekoak, eta betearaztekoak.

47. GAIA 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidegoko instituzio erkideen eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzkoa (jarraipena). Autonomia finantzarioa eta aurrekontu-autonomia. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusia. Foru-ogasunak. Ogasun Nagusiaren eta foru-ogasunen arteko baliabideen banaketari buruzko ideia orokorra. Herri Kontuen Euskal Epaitegia.

48. GAIA 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. III. titulua Administrazio-egintzak.

49. GAIA 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. IV. titulua - Administrazio-prozedura erkideari buruzko xedapenak.

50. GAIA 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. V. titulua - Egintzak administrazio-bidetik berrikustea.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

51. GAIA 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 23koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onesten duena Atariko titulua: Xedapen orokorrak (xedea eta aplikazio-eremua eta eskumenak). I. titulua: Bizkaiko Foru Ogasunaren araubidea (printzipio orokorrak, eskubide ekonomikoak eta betebehar ekonomikoak). II. titulua: Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorrak (printzipio orokorrak eta aurrekontu-programazioa, edukia eta onespena). Laugarren xedapen gehigarria (kontratazio administratiboa eta desjabetzeko prozedura).

52. GAIA Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa: funtzionario publikoen eskubideak eta eginbeharrak. Ordainsari-araubidea.

53. GAIA Euskara Estatutuan. 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilpena arauzkotzeko Oinarrizkoa. Hizkuntza-eskakizunen, haien araubide juridikoaren eta aplikazioaren azterketa berezia.

54. GAIA 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa. Bizkaiko Batzar Nagusiak. Izaera, osaera eta eskumenak. Eraketa, antolaketa eta jardunbidea. Bizkaiko Foru Aldundia. Izaera, osaera eta kargua uztea. Eskumenak. Ahaldun Nagusia: izeneztapena, izendapena, izaera eta estatutu pertsonala. Karguzketa eta ordezkapena.

55. GAIA 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa (jarraipena). Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren arteko harremanak. Foru Administrazioa. Arau orokorrak. Xedapen orokorrak. Foru Aldundiaren erantzukizuna. Foru-arauen proiektuak egiteko prozedura. Izaera orokorreko xedapenak eta administrazio-ebazpenak. Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten duen 2014ko abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarria.

56. GAIA 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzekoa: Atariko titulua; 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: Atariko titulua eta I. titulua - Eskumenak, eginkizunak, antolaketa eta finantzaketa.

57. GAIA 1/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa, Bizkaiko Gardentasunari buruzkoa. Aplikazio-eremua (2. art.); Publikotasun aktiboa: kontzeptua eta dimentsioak (5. art.); Publikotasun aktiboaren arloko eskakizunak ez betetzearen ondorioak (13. art.); Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea (18. art.); mugak (21. art.) eta ez onartzeko arrazoiak (22. art.); Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordea (27., 28. eta 29. art.); Gardentasunaren bermeak eta erantzukizunak (34., 35. eta 36. art.).

58. GAIA Bizkaiko Foru Aldundiaren 3/2020 Foru Dekretua, urtarrilaren 28koa, Ogasun eta Finantza Sailaren Egitura Organikoaren Erregelamendua onartzen duena. Bizkaiko Foru Aldundiaren130/2020 Foru Dekretua, abenduaren 29koa, Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua aldatzen duena; abenduaren 13ko 3/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen erregelamendu hori.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

III- B ZATIA: ZUZENBIDE PRIBATUA

59. GAIA Zuzenbide zibila (1). Eskubide errealak: kontzeptua eta motak. Jabetza. Edukia. Babesa. Eskuraketa. Jabaria galtzea. Edukitza. Ondasun-erkidegoa. Gozamena. Zortasunak. Beste eskubide erreal mugatu batzuk.

60. GAIA Zuzenbide zibila (2). Kontratuak: xedapen orokorrak, betekizunak, eraginkortasuna, hutsaltzea eta deuseztasuna. Salerosketa, trukatze eta errentamenduko kontratuak.

61. GAIA Oinordetza-zuzenbidea. 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa. Testamentuzko oinordetza. Testamentua egiteko askatasunari jarritako mugapenak: senipartea, jarauntsia kalkulatzea eta seniparteak ordaintzea, eta tronkalitatea Bizkaian. Oinordetza-itunak. Legezko edo testamentu gabeko oinordetza.

62. GAIA 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena: I. titulua. Norbanakoaren lan-harremanak: I. kapitulua – Xedapen orokorrak; II. kapitulua – Lan-kontratuaren edukia (14-18 artikuluak), eta III. kapitulua – Lan-kontratua aldatu, eten eta azkentzea: 4. atala - Kontratua azkentzea.

63. GAIA 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa, Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategina onesten duena. I. titulua - Xedapen orokorrak. II. titulua – Kapital sozietateen eraketa. III. titulua – Sozietate-ekarpenak (58-67 artikuluak).

64. GAIA 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa, Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategina onesten duena. IV. titulua - Sozietate-partaidetzak eta sozietate-akzioak (90-105 artikuluak). V. titulua - Batzar Nagusia (159-188 artikuluak). VI. artikulua – Sozietatearen administrazioa (209-224 eta 233-251 artikuluak). VII. artikulua – Urteko kontuak.

65. GAIA 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa, Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategina onesten duena. VIII. titulua - Sozietate-estatutuak aldatzea. IX. titulua – Bazkideen banatzea eta baztertzea (346-352 artikuluak). X. titulua – Desegitea eta likidazioa (360-397 artikuluak).

66. GAIA 11/2019 Legea, abenduaren 20koa, Euskadiko Kooperatibena. I. titulua - Sozietate kooperatiboa (1-56, 59-66, 74-79 eta 91-101 artikuluak). II. titulua - Xedapen bereziak (102-107 artikuluak). 44/2015 Legea, urriaren 14koa, Lan Sozietateena eta Partaidetzako Sozietateena: I. kapitulua - Sozietate-araubidea. II. kapitulua – Zerga-onurak. III. kapitulua – Langileen partaidetza duten sozietateak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

HAUTAKETA-PROZESURAKO DEIALDIA, KARRERAKO FUNTZIONARIO SARTZEKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALAN, ADMINISTRARIEN AZPIESKALAN; EGONKORTZE-PLAZAK ETA PLAZA ARRUNTAK

LEHENENGOA: EGONKORTZEA

1.Deialdian eskainitako plazak

Deialdia egiten da ADMINISTRARIen hemezortzi (18) plaza betetzeko (C taldea, C1 titulazio-azpitaldea), Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan ezarritakoaren babesean, banaketa honen arabera:

.- Txanda irekian: hamasei (16) plaza; horietako hiru (3) derrigorrezko II. hizkuntza-eskakizunarekin, bat (1) derrigorrezkoa ez den II. hizkuntza-eskakizunarekin eta hamabi (12) derrigorrezko III. hizkuntza eskakizunarekin.

.- Desgaitasuna duten pertsonen txandan: bi (2) plaza; horietako bat (1) derrigorrezko II. hizkuntza-eskakizunarekin eta bat (1) derrigorrezkoa ez den II. hizkuntza-eskakizunarekin.

2. Titulazioa

.- Batxilergoko titulua edo teknikari-titulua.

3. Baldintza espezifikoak

Urriaren 30eko 5/2015 ELDaren 56.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, baldintza espezifikoa izango da IT txartel hauek edukitzea: Word aurreratua eta Excel oinarrizkoa (baliodunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010). Excel aurreratuaren IT txartelak Excel oinarrizkoarena baliozkotuko du.

Ziurtagiria eskuratzeko proba egin ahal izateko, egiaztatutako zentro batean eman beharko da izena. Zentroen zerrenda osoa helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke: www.it-txartela.net.

Izen-ematea www.it-txartela.net helbidean egin daiteke. Informazioa eskura daiteke aipatutako helbide elektronikoan eta bide hauetakoren bat erabilita:

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

a) Aurrez aurre, egiaztatutako edozein zentrotara joanda.

b) Telefonoz, 902 25 25 95 zenbakira deituta.

Baldintza espezifiko hau betetzeko, aipatutako txartelak ez dituztenei bi (2) hilabeteko epea ematen zaie, deialdi hau BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Izangaiek ez dute agiririk aurkeztu beharko, Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten.

Txartelok epe horretan eskuratzen ez dituen izangaia hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko da.

4. Hautaketa-prozedura

4.1. OPOSIZIO-FASEA

Oposizio-faseak bi (2) ariketa izango ditu: lehenengoa nahitaezkoa eta baztertzailea izango da; bigarrena nahitaezkoa eta baztertzailea izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten plazetarako, eta borondatezkoa eta ez-baztertzailea gainerako plazetarako.

4.1.a) Lehenengo ariketa:

Lehenengo ariketak bi zati izango ditu:

a) Lehenengo zatia, teorikoa: 60 minutuan, hogeita hamar (30) galderako test bat egin beharko da —gehi erreserbako bost (5) galdera—. Galderak II. eranskineko gaiei buruzkoak izango dira eta aukerako zenbait erantzun izango dituzte, baina bat baino ez da zuzena izango. Erantzun zuzenak hiru (3) puntu balioko du eta ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik, zuriz utzitakoengatik edo bi marka dituztenengatik.

b) Bigarren zatia, praktikoa: epaimahaiak kasu batzuk proposatuko ditu, eta, azterketa egin baino lehentxeago, ausaz aukeratuko dira haietariko bat edo batzuk, hogei (20) minutuan ebazteko. Kasu horiek II. eranskineko gaiekin loturik egongo dira, eta ariketak hamar (10) galdera —gehi erreserbako galderak— izango ditu. Erantzun anitzeko galderak dituen galdetegi batean aukeratu beharko dira erantzunak. Erantzun zuzenak puntu bat (1) balioko du eta ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik, zuriz utzitakoengatik edo bi marka dituztenengatik.

Lehengo ariketaren bi zatiak egun berean egingo dira, bata bestearen ostean; epaimahaiak atsedenaldia eman ahal izango die izangaiei zatien artean.

4.1.b) Bigarren ariketa:

Euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailea izango da derrigorrezko II. eta III. hizkuntza-eskakizunak ezarrita dituzten lanpostuei lotutako plazetara aurkezten diren izangaientzat eta borondatezkoa eta ez-baztertzailea derrigorrezkoak ez diren II. eta III. hizkuntza-eskakizunak ezarrita dituzten lanpostuei lotutako plazetara aurkezten direnentzat; betiere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da dagokion mailan.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Bizkaiko Foru Aldundian II. eta III. hizkuntza-eskakizunak egiaztatuta dituztenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Halakoetan, parte-hartzaileak baimen espresua emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala ere, aurkeztu egin beharko dituzte azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta egon badauden, baina erregistro horretan sartuta ez dauden gainerako euskara-titulu edo -ziurtagiriak; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Izangaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean egiaztatu nahi badituzte II. eta III. hizkuntza-eskakizunak, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko da.

4.2 LEHIAKETA

Lehiaketan, izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) dagozkion puntuak emango zaizkio.

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1) Merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketaren kalifikazioa.

5.2). Oposizio-fasea:

a) Lehenengo ariketan, zero (0) eta hogei (20) puntu arteko kalifikazioa jarriko da, honela banaturik: a) zatian, zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa jarriko da; b) zatian, zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa jarriko da. Zati bietako emaitzen batuketa aritmetikoa eginez jarriko dira kalifikazioak. Ariketa gaindituko dute bi zatien artean hamar (10) puntu lortzen dituztenek, betiere zatietako bakoitzean gutxienez bi puntu eta erdi (2,5) lortzen badituzte.

b) Bigarren ariketan, «gai» edo «ez gai» kalifikazioa emango zaie derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten plazak lortu nahi dituztenei. Gainerako kasuetan, honako banaketa honen araberako kalifikazioa emango da, egiaztatutako maila kontuan hartuta:

- I. hizkuntza-eskakizuna: 1,65 puntu

- II. hizkuntza-eskakizuna: 3,3 puntu

- III. hizkuntza-eskakizuna: 4,95 puntu

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Ezingo da eskuratu lortu nahi den lanpostuaren hizkuntza-eskakizunari dagokiona baino goragoko puntuaziorik.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

6. Lan-poltsa

Egonkortzeko hautaketa-prozesutik ez da lan-poltsarik sortuko.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

I. ERANSKINA

EGONKORTZE-PLAZETARAKO MEREZIMENDUEN BAREMOA

ESPEZIALITATEA: ADMINISTRARIA

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan eta azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat:

1.-Esperientzia; gehienez ere 13 puntu, honela banatuta:

1a) Edozein administrazio publikotan ADMINISTRARI kategorian (C taldea, C1 titulazio-azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,0434 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere ehun (100) hilabete. 4,34 puntu

1.b) Aurreko atalean adierazitako esperientziatik bereizirik, modu espezifiko eta osagarrian, Bizkaiko Foru Aldundian ADMINISTRARI kategorian (C taldea, C1 titulazio-azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,0868 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere ehun (100) hilabete. 8,68 puntu

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira administrazio publikotzat: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikuluetan jasotako erakundeak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 2.1 eta 2.3 artikuluetan jasoak. Orobat zenbatuko dira zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan egindako zerbitzuak, baina inola ere ez izaera publikoko beste erakunde batzuetan egindakoak, baldin eta enpresa, merkataritza-sozietate, fundazio edo elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa badute.

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbitzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatikirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

Nolanahi ere, zerbitzua lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legearen 20.1.c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientzia baloratzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ere: lehenik, zenbat denbora egon den izangaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen izangaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

II. ERANSKINA

EGONKORTZE-PLAZETARAKO GAIAK

1. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Prozeduran interesdun direnak (I. titulua). Jarduteko gaitasuna eta interesdun kontzeptua (I. kapitulua) 3-8 art. (artikulu biok barne). Administrazio-prozeduran interesdunek beren burua identifikatzea eta sinatzea. (II. kapitulua) 9-12 art. (artikulu biok barne).

2. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Administrazio publikoen jarduera. (II. titulua). (I. kapitulua) Jarduketa-arau orokorrak, 13-28 art. (artikulu biok barne). (II. kapitulua) Epe-mugak eta epeak, 29-33 art. (artikulu biok barne).

3. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Administrazio-egintzak. (III. titulua). Administrazio-egintzen betekizunak. (I. kapitulua) 34-36 art. (artikulu biok barne). Egintzen efikazia (II. kapitulua) 37-46 art. (artikulu biok barne). Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna (III. kapitulua) 47-52 art. (artikulu biok barne).

4. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Administrazio-prozedura erkideari buruzko xedapenak (IV. titulua). Prozeduraren bermeak (I. kapitulua) 53. art. Prozeduraren hasiera (II. kapitulua). 2. atala - Administrazioak prozedura ofizioz hastea, 58-62 art. (artikulu biok barne). 3. atala - Prozedura interesdunak eskaturik hastea, 66-69 art. (artikulu biok barne). Prozeduraren antolamendua (III. kapitulua) 70. art.

5. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Administrazio-prozedura erkideari buruzko xedapenak. (IV. titulua). Prozeduraren instrukzioa (IV kapitulua) 75-80 art. (artikulu biok barne). Prozedura amaitzea (V. kapitulua) 84-86-93-94-95 art. Ebazpenak betearaztea (VII. kapitulua) 97-105 art. (artikulu biok barne).

6. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Egintzak administrazio-bidetik berrikustea. (V. titulua). Ofiziozko berrikuspena (I. kapitulua) 106-110 art. (artikulu biok barne). Administrazio-errekurtsoak. II. kapitulua. Xedapen orokorrak. 114-120 art. (artikulu biok barne). Gora jotzeko errekurtsoa. 121-122 art. Aukerako berraztertze-errekurtsoa. 123-124 art. Berrikuspen-errekurtso berezia. 125-126 art.

7. gaia: Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa: xedapen orokorrak. Funtzionario-izaera lortzea eta galtzea. Funtzionario-kidegoak. Administrazio-karrera.

8. gaia: Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa: administrazio-egoerak. Funtzionarioen eskubideak eta eginbeharrak. Ordainsariak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

9. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora: xedea eta aplikazio-eremua. Legearen Atariko Tituluaren I. kapituluko 1. atala: 1-3 artikuluak (biak barne) eta 2. atala Legearen aplikazio-eremutik kanpo utzitako negozioak eta kontratuak: 4. artikulua - Legearen aplikazio-eremutik kanpo utzitako negozio juridikoei aplikatzekoa den araubidea.

10. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora: Kontratuak prestatzea: kontratazio-espedientea, administrazio-klausula partikularren agiriak eta baldintza teknikoen agiriak. Legearen bigarren liburuko I. tituluko I. kapituluaren 1. atala: 115. artikulua kenduta, honako hauek: 1. azpiatala (kontratazio-espedientea): 116-120 artikuluak (artikulu biok barne) eta 2. azpiatala (administrazio-klausulen agiria eta baldintza teknikoena): 121-130 artikuluak (biok barne).

11. gaia: 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa. I. titulua: Bizkaiko Batzar Nagusiak: izaera, eskumenak eta osaera. 4-9 artikuluak. Eraketa, antolaketa eta jardunbidea. 10. artikulua. Foru-organoen hautapen, antolaketa, araubide eta jardunbideari buruzko foru-arauak eta dekretu arauemaileak. 11. artikulua.

12. gaia: 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa (jarraipena). II. titulua. II. kapitulua: Ahaldun Nagusia: 1. atala: izendaketa, izendapena, izaera eta estatutua. 21-29 artikuluak. 2. atala: Karguzketa eta ordezkapena. 30-33. art. III. kapitulua: Foru-diputatuak: 1. atala: izendaketa eta karguzketa. 34-38. art. 2. atala Foru-diputatuen funtzioak. 39-40 art. IV. kapitulua: Foru Aldundiko goi-karguak. 41-43 artikuluak. V. kapitulua: Funtzio-eskuordetzea.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

BIGARRENA: PLAZA ARRUNTAK

1.Deialdian eskainitako plazak

Deialdia egiten da administrarien ehun eta hogeita hamabi (132) plaza betetzeko (C taldea, C 1 titulazio-azpitaldea), horietako hirurogeita hamahiru (73) II. hizkuntza-eskakizunarekin eta berrogeita hemeretzi (59) III. hizkuntza-eskakizunarekin, oposizio-lehiaketaren sistemaren bidez, banaketa honen arabera:

— Barne-sustapeneko txanda arruntean: hamabi (12) plaza; horietako sei (6) II. hizkuntza-eskakizunarekin —horietako hirutan (3) derrigorrezkoa eta hirutan (3) ez— eta sei (6) derrigorrezko III. hizkuntza eskakizunarekin.

— Desgaitasuna duten pertsonen barne-sustapeneko txandan: plaza bat (1) derrigorrezko II. hizkuntza-eskakizunarekin.

— Txanda irekian: ehun eta hamabost (115) plaza, banaketa honen arabera: hirurogeita lau plaza (64) II. hizkuntza-eskakizunarekin —horietatik berrogeita hamaseitan (56) derrigorrezkoa eta zortzitan (8) ez—, eta berrogeita hamaika (51) plaza III. hizkuntza eskakizunarekin —horietatik berrogeita zortzitan (48) derrigorrezkoa eta hirutan (3) ez—.

— Desgaitasuna duten pertsonen txandan: lau (4) plaza, banaketa honen arabera: bi (2) plaza II. hizkuntza-eskakizunarekin —horietatik batean (1) derrigorrezkoa eta batean (1) ez— eta bi (2) plaza derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizunarekin.

2. Titulazioa eta jatorriko plaza

. - Batxilergoko titulua edo teknikari-titulua.

Barne-sustapeneko txandan parte hartzen dutenek honako baldintza hauek bete behar dituzte: zerbitzu aktiboan edo zerbitzu berezietan egon behar dute beren jatorrizko kidegoan edo eskalan; bi urteko zerbitzua beteta izan behar dute karrerako funtzionario gisa kidego-eskala horietan; dagokion titulazioa eduki behar dute eta C2 azpitaldeko nahiz talde bereko plaza batekoak izan.

3. Baldintza espezifikoak

Urriaren 30eko 5/2015 ELDaren 56.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, baldintza espezifikoa izango da IT txartel hauek edukitzea: Word aurreratua eta Excel oinarrizkoa (baliodunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010). Excel aurreratuaren IT txartelak Excel oinarrizkoarena baliozkotuko du.

Ziurtagiria eskuratzeko proba egin ahal izateko, egiaztatutako zentro batean eman beharko da izena. Zentroen zerrenda osoa helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke: www.it-txartela.net.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Izen-ematea www.it-txartela.net helbidean egin daiteke. Informazioa eskura daiteke aipatutako helbide elektronikoan eta bide hauetakoren bat erabilita:

a) Aurrez aurre, egiaztatutako edozein zentrotara joanda.

b) Telefonoz, 902 25 25 95 zenbakira deituta.

Baldintza espezifiko hau betetzeko, aipatutako txartelak ez dituztenei bi (2) hilabeteko epea ematen zaie, deialdi hau BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Izangaiek ez dute agiririk aurkeztu beharko, Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten.

Txartelok epe horretan eskuratzen ez dituen izangaia hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko da, baita osatuko den lan-poltsatik ere.

4. Hautaketa-prozedura

4.1 OPOSIZIO-FASEA

Oposizio-faseak bi (2) ariketa izango ditu: lehenengoa nahitaezkoa eta baztertzailea izango da; bigarrena nahitaezkoa eta baztertzailea izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten plazetarako, eta borondatezkoa eta ez-baztertzailea gainerako plazetarako.

4.1.a) Lehenengo ariketa:

Lehenengo ariketak bi zati izango ditu:

1) Lehenengo zatia, teorikoa: 150 minutuan, hirurogeita hamabost (75) galderako test bat egin beharko da —gehi erreserbako hamar (10) galdera—. Galderak IV. eranskineko gaiei buruzkoak izango dira eta aukerako zenbait erantzun izango dituzte, baina bat baino ez da zuzena izango. Erantzun zuzenak hiru (3) puntu balioko du, eta puntu bat (1) kenduko da oker erantzundako galdera bakoitzeko.

Barne-sustapeneko txandatik datozen izangaiek inoiz lehenago eskatu zaizkien ezagutzak berriro egiazta behar izan ez ditzaten, izangai horiek ez dituzte egin beharko gaitegiko IV. zatiari dagozkion galderak. Hori dela eta, proportzionalki dagokien denbora eta galdera-kopurua izango dute, gaitegiko gainerako gaiei buruzko galderak baino ez baitituzte egingo.

2) Bigarren zatia, praktikoa: epaimahaiak kasu batzuk proposatuko ditu, eta, azterketa egin baino lehentxeago, ausaz aukeratuko dira haietariko bat edo batzuk, laurogeita hamar minutuan (90) ebazteko. Kasu horiek IV. eranskineko gaitegiko I. zatiarekin, II-1 zatiarekin eta III. zatiarekin loturik egongo dira. Erantzun anitzeko galderak dituen galdetegi batean aukeratu beharko dira erantzunak. Erantzun zuzenak puntu bat (1) balioko du, eta -0,20 puntu kenduko da oker erantzundako galdera bakoitzeko.

Lehengo ariketaren bi zatiak egun berean egingo dira, bata bestearen ostean; epaimahaiak atsedenaldia eman ahal izango die izangaiei zatien artean.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

4.1.b) Bigarren ariketa:

Euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailea izango da derrigorrezko II. eta III. hizkuntza-eskakizunak ezarrita dituzten lanpostuei lotutako plazetara aurkezten diren izangaientzat eta borondatezkoa eta ez-baztertzailea derrigorrezkoak ez diren II. eta III. hizkuntza-eskakizunak ezarrita dituzten lanpostuei lotutako plazetara aurkezten direnentzat; betiere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da dagokion mailan.

Bizkaiko Foru Aldundian II. eta III. hizkuntza-eskakizunak egiaztatuta dituztenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Halakoetan, parte-hartzaileak baimen espresua emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala ere, aurkeztu egin beharko dituzte azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta egon badauden, baina erregistro horretan sartuta ez dauden gainerako euskara-titulu edo -ziurtagiriak; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Izangaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean egiaztatu nahi badituzte II. eta III. hizkuntza-eskakizunak, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko da.

4.2. LEHIAKETA

Lehiaketan, izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera (III. eranskina) dagozkion puntuak emango zaizkio.

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1 Merezimenduen baremoaren arabera (III. eranskina) emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketaren kalifikazioa.

5.2 Oposizio-fasea:

a) Lehenengo ariketan, zero (0) eta hogei (20) puntu arteko kalifikazioa jarriko da, honela banaturik: a) zatian, zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa jarriko da; b) zatian, zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa jarriko da. Zati bietako emaitzen batuketa aritmetikoa eginez jarriko dira kalifikazioak. Ariketa gaindituko dute bi zatien artean hamar (10) puntu lortzen dituztenek, betiere zatietako bakoitzean gutxienez bi puntu eta erdi (2,5) lortzen badituzte.

Hala ere, gainditutako pertsonen kopurua ez bada iristen 396ra, puntuaziorik handiena lortu duten 396 pertsonak- parte teorikan- parte praktikara igaroko dira; horretarako,

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

parte-hartzeko txanda guztiak hartuko dira kontuan. Noten mozketa-puntuan berdinketa gertatuz gero, mozketa-notaren pareko nota duten izangai guztiek gaindituko dute ariketa hau.

Izangaiek deialdi honen ostean deitzen den hurrengo deialdirako gorde ahal izango dute ariketa honetako parte teorikaren kalifikazioa, baldin eta deialdi horretan hala ezartzen bada; horretarako, betiere, bi deialdietan txanda berean parte hartu behar dute.

Bizkaiko Ahaldun Nagusiaren urriaren 30eko 172/2018 Foru Dekretuaren bidez egindako deialdian (azaroaren 5eko BAO, 212. zk.) parte hartu zutenek aukera hori baliatu ahal izango dute, baldin eta eskabidean idatziz adierazten badute hori egin nahi dutela; horretarako, betiere, txanda berean parte hartu behar dute.

Eskubide hori baliatzeko, hautaprobetan parte hartzeko eskabidea aurkeztu beharko dute eta dagokion tasa ordaindu. Aukera hori baliatu duen izangaiak deialdi honetako azterketa egiten badu, bi prozesuetan lortutako kalifikazioetatik altuena emango zaio zuzenean. Eskubide hori baliatu eta azterketa ez egiteko aukera behin bakarrik erabili ahal izango da, eta eskubidea baliatu ondoren egiten den hurrengo deialdian azterketa osoa egin beharko da.

b) Bigarren ariketan, «gai» edo «ez gai» kalifikazioa emango zaie derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten plazak lortu nahi dituztenei. Gainerako kasuetan, honako banaketa honen araberako kalifikazioa emango da, egiaztatutako maila kontuan hartuta:

- I. hizkuntza-eskakizuna: 1,25 puntu
- II. hizkuntza-eskakizuna: 2,5 puntu
- III. hizkuntza-eskakizuna: 3,75 puntu

Ezingo da eskuratu lortu nahi den lanpostuaren hizkuntza-eskakizunari dagokiona baino goragoko puntuaziorik.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

### 6. Lan-poltsa

Hautaketa-prozesu honetatik lan-poltsa sortuko da lehenengo ariketako lehenengo zatia (teorikoa) gainditzen dutenekin, bosgarren oinarrian xedatutakoaren arabera.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

III. ERANSKINA

PLAZA ARRUNTETARAKO MEREZIMENDUEN BAREMOA

ESPEZIALITATEA: ADMINISTRARIA

1. Edozein administrazio publikotan ADMINISTRARI kategorian (C taldea, C1 titulazio-azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,084 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere hirurogei hilabete (60 hilabete) 5 puntu

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira administrazio publikotzat: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikuluetan jasotako erakundeak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 2.1 eta 2.3 artikuluetan jasoak. Orobat zenbatuko dira zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan egindako zerbitzuak, baina inola ere ez izaera publikoko beste erakunde batzuetan egindakoak, baldin eta enpresa, merkataritza-sozietate, fundazio edo elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa badute.

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbitzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatikirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

Nolanahi ere, zerbitzua lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legearen 20.1.c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientzia baloratzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ere: lehenik, zenbat denbora egon den izangaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen izangaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

IV. ERANSKINA

PLAZA ARRUNTETARAKO GAIAK

I. zatia

ADMINISTRAZIO-ZUZENBIDE OROKORRA ETA BEREZIA ETA FORU-ZUZENBIDE PUBLIKOA

1. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Prozeduran interesdun direnak (I. titulua). Jarduteko gaitasuna eta interesdun kontzeptua (I. kapitulua) 3-8 art. (artikulu biok barne). Administrazio-prozeduran interesdunek beren burua identifikatzea eta sinatzea. (II. kapitulua) 9-12 art. (artikulu biok barne).

2. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Administrazio publikoen jarduera. (II. titulua). (I. kapitulua) Jarduketa-arau orokorrak, 13-28 art. (artikulu biok barne).(II. kapitulua) Epe-mugak eta epeak, 29-33 art. (artikulu biok barne).

3. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Administrazio-egintzak. (III. titulua).Administrazio-egintzen betekizunak. (I. kapitulua) 34-36 art. (artikulu biok barne). Egintzen efikazia (II. kapitulua) 37-46 art. (artikulu biok barne). Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna (III. kapitulua) 47-52 art. (artikulu biok barne).

4. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Administrazio-prozedura erkideari buruzko xedapenak (IV. titulua).Prozeduraren bermeak (I. kapitulua) 53. art. Prozeduraren hasiera (II. kapitulua). 2. atala - Administrazioak prozedura ofizioz hastea, 58-62 art. (artikulu biok barne). 3. atala - Prozedura interesdunak eskaturik hastea, 66-69 art. (artikulu biok barne). Prozeduraren antolamendua (III. kapitulua) 70. art.

5. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Administrazio-prozedura erkideari buruzko xedapenak. (IV. titulua). Prozeduraren instrukzioa (IV kapitulua) 75-80 art. (artikulu biok barne). Prozedura amaitzea (V. kapitulua) 84-86-93-94-95 art. Ebazpenak betearaztea (VII. kapitulua) 97-105 art. (artikulu biok barne).

6. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Egintzak administrazio-bidetik berrikustea. (V. titulua). Ofiziozko berrikuspena (I. kapitulua) 106-110 art. (artikulu biok barne). Administrazio-errekurtsoak. II. kapitulua. Xedapen orokorrak. 114-120 art. (artikulu biok barne).Gora jotzeko errekurtsoa. 121-122

art. Aukerako berraztertze-errekurtsoa. 123-124 art. Berrikuspen-errekurtso berezia. 125-126 art.

7. gaia: Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa: xedapen orokorrak. Funtzionario-izaera lortzea eta galtzea. Funtzionario-kidegoak. Administrazio-karrera.

8. gaia: Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa: administrazio-egoerak. Funtzionarioen eskubideak eta eginbeharrak. Ordainsariak.

9. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora: xedea eta aplikazio-eremua. Legearen Atariko Tituluaren I. kapituluko 1. atala: 1-3 artikuluak (biak barne) eta 2. atala Legearen aplikazio-eremutik kanpo utzitako negozioak eta kontratuak: 4. artikulua - Legearen aplikazio-eremutik kanpo utzitako negozio juridikoei aplikatzekoa den araubidea.

10. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora: Kontratuak prestatzea: kontratazio-espedientea, administrazio-klausula partikularren agiriak eta baldintza teknikoen agiriak. Legearen bigarren liburuko I. tituluko I. kapituluaren 1. atala: 115. artikulua kenduta; honako hauek sartuko lirateke: 1. azpiatala (kontratazio-espedientea): 116-120 artikuluak. (artikulu biok barne) eta 2. azpiatala (administrazio-klausulen agiria eta baldintza teknikoena): 121-130 artikuluak (biok barne).

11. gaia: 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa. I. titulua: Bizkaiko Batzar Nagusiak: izaera, eskumenak eta osaera. 4-9 artikuluak. Eraketa, antolaketa eta jardunbidea. 10. artikulua. Foru-organoen hautapen, antolaketa, araubide eta jardunbideari buruzko foru-arauak eta dekretu arauemaileak. 11. artikulua.

12. gaia: 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa (jarraipena). II. titulua. II. kapitulua: Ahaldun Nagusia: 1. atala: izendaketa, izendapena, izaera eta estatutua. 21-29 artikuluak. 2. atala: Karguzketa eta ordezkapena. 30-33. art. III. kapitulua: Foru-diputatuak: 1. atala: izendaketa eta karguzketa. 34-38. art. 2. atala Foru-diputatuen funtzioak. 39-40 art. IV. kapitulua: Foru Aldundiko goi-karguak. 41-43 artikuluak. V. kapitulua: Funtzio-eskuordetzea.

II. zatia

1. ADMINISTRAZIO-ZUZENBIDE OROKORRA ETA BEREZIA

13. gaia: Administrazioaren Legearekiko eta Zuzenbidearekiko menpekotasuna. Zuzenbide Publikoaren iturriak. Legea: lege-motak.

14. gaia: Erregelamendua: kontzeptua eta motak. Erregelamenduak egiteko prozedura. Erregelamendu-ahalaren mugak eta legez kontrako erregelamenduen aurkako babesa. Instrukzioak eta zirkularrak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

15. gaia: Administrazio Publikoaren posizio juridikoa. Administrazioaren ahalak. Ahal diskrezionala eta ahal arautua.

16. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Legegintza-ekimena eta erregelamenduak eta bestelako xedapenak emateko ahala. (VI. titulua). 127-131 art. (artikulu biok barne).

17. gaia: Espainiako toki-araubidea: Konstituzio-printzipioak. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea: xedapen orokorrak. Foru-lurraldeen eskubide historikoak.

18. gaia: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa: IX. titulua - Zehapen-araubidea (70-71 artikuluak eta 77. artikulua), X. titulua - Eskubide digitalen bermea, eskubideen aipamen orokorra eta xedapen gehigarriak: 1., 2. eta 8.a. 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa: II. titulua - Datuak Babesteko Euskal Bulegoa (10. artikulua eta 14-17 artikuluak) eta III. titulua - Zehatzeko araubidea (24. artikulua).

19. gaia: 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzekoa: atariko titulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa: atariko titulua. II. titulua: Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-sektore publikoan genero-ikuspegia txertatzeko neurriak.

20. gaia: 1/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa, Bizkaiko Gardentasunari buruzkoa. Publikotasun aktiboa: Aplikazio-eremua (2. art.) eta kontzeptua eta dimentsioak (5. art.). Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea: kontzeptua (18. art.) eta mugak (21. art.). Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordea (28. eta 29. art.).

2. AUTONOMIA-ESTATUTUA, EUSKAL ETA FORU-ZUZENBIDE PUBLIKOA

21. gaia: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua. Aurrekari historikoak. Atariko titulua. 1-9 artikuluak. I. titulua: Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenak: esklusiboak, legeak garatu eta betearaztekoak, eta betearaztekoak. 10-23 artikuluak.

22. gaia: Autonomia Estatutua (jarraipena). II. titulua: Euskal Autonomia Erkidegoaren botereak. Eusko Legebiltzarra. Eusko Jaurlaritza. Lehendakaria. Justizia Administrazioa Euskal Autonomia Erkidegoan. 24-36 artikuluak.

23. gaia: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (jarraipena). Lurralde historikoetako erakundeak. Ogasuna eta ondarea. Estatutuaren erreforma. 37-47 artikuluak. Xedapen gehigarriak eta iragankorrak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

24. gaia: 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanei buruzkoa. Atariko titulua: xedapen orokorrak. 1-5 art. I. titulua: II. kapitulua: Lurralde historikoen eskumenak: esklusiboak, legeak garatu eta betearaztekoak, eta betearaztekoak. 7. artikulua. Lurralde historikoen ahalak. 8-10 artikuluak. III. kapitulua. Xedapen bereziak: goi-ikuskaritza, eskumenen transferentzia eta eskuordetzea. 11-13. artikuluak.

25. gaia: 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanei buruzkoa (jarraipena). II. titulua: Autonomia finantzarioa eta aurrekontu-autonomia. 14-16 artikuluak. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusia. 17. artikulua. Foru-ogasunak. 18. artikulua. Ogasun Nagusiaren eta toki-ogasunen arteko baliabideen banaketa. 20., 21., 22. artikuluak. Herri-Dirubideen Euskal Kontseilua. 26, 28 eta 29 artikuluak. Herri Kontuen Euskal Epaitegia. 30. artikulua.

26. gaia: 12/2002 Legea, maiatzaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onesten duena. Aurrekariak. Arau orokorrak: lurralde historikoetako erakundeen eskumenak, printzipio nagusiak, zerga-harmonizazioa, lankidetza-printzipioa eta Estatuarenak bakarrik diren eskumenak. 1-5 artikuluak (artikulu biok barne). Finantza-harremanak: printzipio orokorrak eta kupoa (kontzeptua). 48. eta 49. artikuluak.

27. gaia: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera arauzkotzeko oinarrizkoa: atariko titulua. I. titulua: Herritarren eta Herri Agintaritzaren eskubide eta eginbeharrak hizkuntzaren alorrean.

28. gaia: 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa (jarraipena). II. titulua I. kapitulua: Bizkaiko Foru Aldundia: 1. atala: izaera, osaketa eta karguzketa. 12-16 artikulua. 2. atala: eskumenak, eskurantzak eta funtzionamendua. 17-20 artikuluak.

29. gaia: 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa (jarraipena). III. titulua: Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren arteko harremanak: I. kapitulua: xedapen orokorrak. 46-47 artikuluak. II. kapitulua: Foru Aldundiaren erantzukizuna. 48-52 artikuluak. III. kapitulua: Foru-arauen proiektuak egiteko prozedura. 53-56 artikuluak. IV. titulua: Foru-administrazioa: II. kapitulua: Foru-administrazioa: izaera orokorreko xedapenak eta administrazio-ebazpenak.

III. zatia

OGASUN PUBLIKOA ETA TRIBUTU-ZUZENBIDEA

30. gaia: Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Araua: I. titulua: Zerga-ordenamenduaren xedapen orokorrak: I. kapitulua: printzipio orokorrak. II. kapitulua:

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Zergei buruzko arauak. II. titulua: Zerga-betebehar materialak: 19. artikulua. Zerga-betebehar nagusia.

31. gaia: Zergen foru-administrazioaren tributuak (zergak, tasak eta kontribuzio bereziak). Kontzeptua. 4/1990 Foru Araua, ekainaren 26koa, Bizkaiko Foru Administrazioaren Tasa, Prezio Publiko eta Bestelako Tributu Baliabideei buruzkoa: Prezio publikoak: Kontzeptua

32. gaia: 13/2013 Foru Araua, abenduaren 5ekoa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa. I. titulua: Zergaren izaera eta aplikazio-eremua. 1-5 artikulua. II. titulua: Zerga-egitatea. 6-9 artikulua. III. titulua: Zergadunak. 10-12 artikuluak.

33. gaia: 4/2015 FORU ARAUA, martxoaren 25ekoa, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzkoa. I. titulua: Izaera eta eremua. 1-3 artikuluak. II. titulua: Zerga-egitatea. 4-12 artikuluak. III. titulua: Zergadunak eta erantzuleak. 13-16 artikuluak.

34. gaia: 11/2013 Foru Araua, abenduaren 5ekoa, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa. I. titulua: Izaera eta aplikazio-eremua. 1-7 artikuluak. II. titulua: Zerga-egitatea. 8-10 artikulua. III. titulua: Subjektu pasiboa. 11-14 artikuluak.

35. gaia: 1/2011 Foru Araua, martxoaren 24koa, Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzkoa. Atariko titulua: Izaera eta edukia. Aplikazio-eremua. I. titulua: Ondare-eskualdaketak: zerga-egitatea; subjektu pasiboa. (9-11 art., artikulu biok barne).

36. gaia: 7/1994 Foru Araua, azaroaren 9koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzkoa. Atariko titulua: Izaera eta aplikazio-eremua. 1-3 artikuluak. I. titulua: Zerga-egitatearen mugatzea. 4-19 artikuluak.

37. gaia: Toki-zergapetze beregaina, Bizkaiko foru-araudia: Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren eta Hiri Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergaren izaera, zerga-egitatea eta subjektu pasiboa.

38. gaia: Toki-zergapetze beregaina, Bizkaiko foru-araudia: Ekonomia-jardueren gaineko Zergaren, Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko Zergaren eta Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergaren izaera, zerga-egitatea eta subjektu pasiboa.

IV. zatia
KONSTITUZIO-ZUZENBIDEA

39. gaia: Espainiako 1978ko Konstituzioa: atariko titulua. 1-9 artikuluak (artikulu biok barne).

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

40. gaia: Espainiarren oinarrizko eskubide eta betebeharrak. I. titulua. 10-30 artikuluak (artikulu biok barne).

41. gaia: Gorte Nagusiak: III. titulua: I. kapitulua: Ganberak. II. kapitulua: Legegintza. III. kapitulua: Nazioarteko tratatuak.

42. gaia: Gobernuaren eta Gorte Nagusien arteko harremanak. V. titulua.

43. gaia: Botere judiziala Espainiako Konstituzioan: VI. Titulua.

44. gaia: Estatuaren lurralde-antolaketa. Autonomia-estatutuak: esanahia. Eskumenak Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean banatzeko sistema. VIII. titulua. 147-151 artikuluak (artikulu biok barne).

45. gaia: Europar Batasuna. Europako erakundeak: Parlamentua, Batzordea, Europar Batasuneko Kontseilua eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegia. Legegintza-jarduera, zuzenbidearen iturriak. Kontzeptua: erregelamenduak, zuzentarauak eta erabakiak.

HAUTAKETA-PROZESURAKO DEIALDIA, KARRERAKO FUNTZIONARIO SARTZEKO ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAN. BASO-AGENTEA: EGONKORTZE-PLAZAK ETA ARRUNTAK

LEHENENGOA: EGONKORTZE-PLAZAK

1.Deialdian eskainitako plazak

Deialdia egiten da BASO-AGENTEen bi (2) plaza betetzeko (C taldea, C1 titulazio-azpitaldea), txanda irekitik derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna dutenak, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan ezarritakoaren babesean.

2. Titulazioa

.- Batxilergoko titulua edo teknikari-titulua.

.- Bigarren Mailako Lanbide Heziketa (LH2)- Baso ustiapenak.

.-Baso Aprobetxamenduetako eta Natura Kontserbazioko teknikari espezialista.

.- Lorezaintzako teknikari espezialista.

.- Natura eta Paisaia Baliabideen Kudeaketa eta Antolamenduko goi-mailako teknikaria.

.- Basoa eta Natura Ingurunea Kudeatzeko goi-mailako teknikaria.

.- Baso Ustiapeneko teknikari espezialista (Nekazaritza adarra).

3. Baldintza espezifikoak

Urriaren 30eko 5/2015 ELDaren 56.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, baldintza espezifikoa izango da IT txartel hau edukitzea: Word oinarrizkoa (baliodunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010). Word aurreratuaren IT txartelak Word oinarrizkoarena baliozkotuko du.

Ziurtagiria eskuratzeko proba egin ahal izateko, egiaztatutako zentro batean eman beharko da izena. Zentroen zerrenda osoa helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke: www.it-txartela.net.

Izen-ematea www.it-txartela.net helbidean egin daiteke. Informazioa eskura daiteke aipatutako helbide elektronikoan eta bide hauetakoren bat erabilita:

a) Aurrez aurre, egiaztatutako edozein zentrotara joanda.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

b) Telefonoz, 902 25 25 95 zenbakira deituta.

Baldintza espezifiko hau betetzeko, aipatutako txartelak ez dituztenei bi (2) hilabeteko epea ematen zaie, deialdi hau BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Izangaiek ez dute agiririk aurkeztu beharko, Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten.

Txartelok epe horretan eskuratzen ez dituen izangaia hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko da.

4.Gaitasun fisiko-psikikoa

Bigarren oinarri orokorreko 1.c) apartatuan xedatutakoaren arabera, izangaiek ezin izango dute eduki eurei dagozkien eginkizunak betetzea eragozten dien akats fisiko edo psikikorik; hori egiaztatzeko, Osasuneko Unitateak batzorde mediko baten bitartez espezialitate honetako bazterketen laukian (I. eranskina) xedatutakoarekin bat etorriz egindako egiaztagiria aurkeztu beharko da.

5. Hautaketa-prozedura

5.1. OPOSIZIO-FASEA

Oposizio-faseak bi (2) ariketa izango ditu, guztiak nahitaezkoak eta baztertzaileak.

5.1.a) Lehenengo ariketak bi zati izango ditu:

a) Lehenengo zatia, teorikoa: 60 minutuan, hogeita hamar (30) galderako test bat egin beharko da —gehi erreserbako bost (5) galdera—. Galderak III. eranskineko gaiei buruzkoak izango dira, eta aukerako zenbait erantzun izango dituzte, baina bat baino ez da zuzena izango. Erantzun zuzenak hiru (3) puntu balioko du eta ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik, zuriz utzitakoengatik edo bi marka dituztenengatik.

b) Bigarren zatia, praktikoa, bi zati izango dituena:

.- Lehenengoan, epaimahaiak kasu batzuk proposatuko ditu, eta, azterketa egin baino lehentxeago, ausaz aukeratuko dira haietariko bat edo batzuk, hogeita hamabost minutuan (35) ebazteko. Kasu horiek III. eranskineko gaiekin loturik egongo dira.

.- Bigarrenean, proba praktiko batzuk egin beharko dira idatzizko erantzunen bidez, gehienez ere, hogeita hamabost (35) minutuan. Proba horiek gai hauetako bati edo batzuei buruzkoak izango dira (epaimahaiak zehazten dituen proba guztien balorazioa berdina izango da):

• Neurketak eta landa-lanak.

• Izurrite eta gaixotasunen identifikazioa.

• Flora- eta fauna-espezieak ezagutzea.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

• Arau-hausteak identifikatzea eta salaketak idaztea.

• Norbera babesteko ekipamenduak basoko lanetan eta suteetan.

Erantzun anitzeko galderak dituen galdetegi batean aukeratu beharko dira erantzunak. Erantzun zuzenak puntu bat (1) balioko du eta ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik, zuriz utzitakoengatik edo bi marka dituztenengatik.

5.1 b) Bigarren ariketa:

Euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailea izango da; betiere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da III. hizkuntza-eskakizunari dagokion mailan.

Bizkaiko Foru Aldundian III. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Halakoetan, parte-hartzaileak baimen espresua emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala ere, aurkeztu egin beharko dituzte azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta egon badauden, baina erregistro horretan sartuta ez dauden gainerako euskara-titulu edo -ziurtagiriak; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Izangaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean egiaztatu nahi badute III. hizkuntza-eskakizuna, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko da.

5.2 LEHIAKETA

Lehiaketan, izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) dagozkion puntuak emango zaizkio.

## 6. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

6.1. Merezimenduen baremoaren arabera (II. eranskina) emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketaren kalifikazioa.

6.2. Oposizio-fasea:

a) Lehenengo ariketan, zero (0) eta hogei (20) puntu arteko kalifikazioa jarriko da, honela banaturik: a) zatian, zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa jarriko da; b) zatian, zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa jarriko da. Zati bietako emaitzen batuketa aritmetikoa eginez jarriko dira kalifikazioak. Ariketa gaindituko dute bi zatien artean hamar

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

(10) puntu lortzen dituztenek, betiere zatietako bakoitzean gutxienez bi puntu eta erdi (2,5) lortzen badituzte.

b) Bigarren ariketari (proba fisikoa) «gai» edo «ez gai» kalifikazioa emango zaio eta «gai» kalifikazioa lortzen ez dutenak kanpoan geldituko dira automatikoki.

c) Hirugarren ariketan (euskara), «gai» edo «ez gai» izango da kalifikazioa.

6.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

7. Lan-poltsa

Egonkortzeko hautaketa-prozesutik ez da lan-poltsarik sortuko.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

I. ERANSKINA

BAZTERKETA DAKARTEN ARRAZOI MEDIKOAK
ORAINDIK ZERBITZU MEDIKOAK EGIAZTATU GABE

1. Bazterketa orokorra.

Izangaiak ezin du inolako gaixotasun organikorik izan, ez inolako istripu-ondoriorik, ez lanpostuan jardutea eragozten duen urritasun fisiko edo psikikorik, ezta norbera babesteko ekipamenduak erabiltzea eragozten edo zailtzen duen anomalia edo patologiarik ere.

Era berean, exogenoen ziozko pozoidura kronikoaren egoera adierazten duten sintoma edo aztarna kliniko-biologiko frogatuak dituzten izangaiak berez baztertuta geratuko dira.

2. Bazterketa espezifikoak.

Klausula orokorrean xedatutakoa gorabehera, honako hauek ere izango dira baso-agenteen egінkizunak betetzetik baztertzeko arrazoi espezifikoak:

LOKOMOZIO-APARATUA

— Mugikortasuna mugatzen duen patologia muskuloeskeletikoa, baso-agentearen eginkizunak zailtzen dituena.

— Goiko zein beheko gorputz-adarren muga funtzionala dakarren anatomia-galera.

— Bizkarrezurraren errotazio edo flexio arrunta eragozten duen edozein patologia.

— Garezur eta aurpegiaren anomaliak, lanbideari berezkoak zaizkion norberaren babeserako ekipamendu eta baliabideen erabilera eragotzi edo oztopatzen dutenak.

— Oinaren funtzionamendu arrunta zaildu edo laneko botak janztea eragozten duen oinaren patologia.

ARNAS APARATUA

— Baso-agentearen zereginak zaildu edo eragozten dituzten edo haietan eragin negatiboa duten arnas prozesuak.

APARATU KARDIOBASKULARRA

— Bihotzeko patologia.

- Bihotz-gutxiegitasuna.
- Kardiopatia iskemikoa.
- Arritmia garrantzitsuak, flutterra eta fibrilazio aurikularra.
- Wolf Parkinson White-ren aldez aurreko eszitazio-sindromeak.
- 2. edo 3. mailako blokeo aurikulobentrikularra.
- Estrasistole patologikoak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

— Baso-agentearen zereginak zaildu edo eragozten dituzten edo haietan eragin negatiboa duten prozesu baskularrak.

EGOERA MENTALA

— Baso-agentearen zereginak zaildu edo eragozten dituzten edo haietan eragin negatiboa duten nortasunaren nahasmenduak.

— Eskizofrenia eta beste nahasmendu psikotiko batzuk.

— Nahasmendu obsesibo-konpultsibo larriak.

— Adimen-atzeratasuna: mota guztiak.

— Toxikomaniak, alkoholismoa barne.

IKUSMENA

— Basozainaren eginkizunak zailtzen dituen patologia oftalmologikoa.

— Gutxienez, 0,5eko ikusmen-zolitasun binokularra eduki behar da, baita lente zuzentzaileekin ere, halakorik behar izanez gero.

— Diplopia.

NERBIO-SISTEMA

— Nerbio-sistema zentral edo periferikoaren gaixotasunak, funtzio motorren, sentsorialen edo koordinaziokoen galera edo murrizketa larria, gertakari sinkopalak, dardarak eta espasmoak eragiten dituztenak.

— Epilepsiak.

— Bertigoak.

— Sekuelak dituzten istripu iskemiko iragankorrak eta istripu iskemiko errepikatuak.

BESTE BATZUK

— Eguzki-erradiazioarekin okerrera egin dezakeen patologia dermatologiko larria.

— Baso-agentearen eginkizunak betetzea zailtzen duen sistema hematopoietikoaren edo endokrinologikoaren patologia.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

DEIALDIKO BAZTERTZEEN TAULARI BURUZKO FROGA MEDIKOAK EGITEKO BAIMENA

Izen-deiturak: ........................................................................................................................................................

NAN zk.: ..............................................................

Adina:..............................

Honen bitartez, baimena ematen diot Bizkaiko Foru Aldundiko Lan Arriskuen Prebentziorako eta Lan Osasunerako Zerbitzuko Lan Osasunerako Atalari bertan sartzeko azterketa mediko berezia egiteaz arduratzen dena, hala nola, sute-erretena duen baso-agentea, beharrezko mediku-azterketak egin diezazkidan, odola eta gernua atera eta aztertzeko, parametro hauei dagoki enez: Sute-erretenari atxikitako baso-agenteen osasun-zaintzarako berariazko protokoloa.

Odol-analisia:
Hemograma osoa, leukozitoformula, plaketak, VSG. Biokimika: Glukosa, Urea, Kreatinina, Gl omerulu-iragazketa, Azido Urikoa, Kolesterola, HDL, kolesterola, LDL kolesterola, Triglizeridoak, Tra nsaminasak: GOT (AST), GPT (ALT), Gamma Fosfatil Transalkalasa.

Serologia: Coxiella burnetti, Chlamydia psittaci, Leptospira interrogans, Brucella, Borrelia

Gernu-analisia:
Dentsitatea, pH, anormalak eta sedimentua.

Era berean, adierazten dut botika hauek hartzen ditudala: ………………………………………………………………………………………. (adierazi botiken izen k omertziala edo botiken konposizioa).

Eta hala jasota gera dadin, baimen hau sinatzen dut.

..................(e)n, 20...(e)ko ................aren .......(e)(a)n

Sinadura:

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

II. ERANSKINA

EGONKORTZE-PLAZETARAKO MEREZIMENDUEN BAREMOA

ESPEZIALITATEA: BASO-AGENTEA

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan eta azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat:

1.-Esperientzia; gehienez ere 13 puntu, honela banatuta:

1.a) Edozein administrazio publikotan BASO-AGENTEA kategorian (C taldea, C1 titulazio-azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,0434 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere ehun (100) hilabete 4,34 puntu

1.b) Aurreko atalean adierazitako esperientziatik bereizirik, modu espezifiko eta osagarrian, Bizkaiko Foru Aldundian BASO-AGENTEA kategorian (C taldea, C1 titulazio-azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,0868 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere ehun (100) hilabete. 8,68 puntu

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira administrazio publikotzat: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikuluetan jasotako erakundeak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 2.1 eta 2.3 artikuluetan jasoak. Orobat zenbatuko dira zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan egindako zerbitzuak, baina inola ere ez izaera publikoko beste erakunde batzuetan egindakoak, baldin eta enpresa, merkataritza-sozietate, fundazio edo elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa badute.

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbitzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatikirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

Nolanahi ere, zerbitzua lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legearen 20.1.c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientzia baloratzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ere: lehenik, zenbat denbora egon den izangaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen izangaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

III. ERANSKINA

EGONKORTZE-PLAZETARAKO GAIAK

BASO-AGENTEA

1. gaia.- Bizkaiko geografia: 1. Hedadura. 2. Orografia: elementu geografiko, mendigune eta mendi garrantzitsuenak. 3. Klima: ezaugarriak. 4. Landarediaren mapa, azalerak eta erabilerak: basoa, larreak, sastrakak, nekazaritzako laborantza, hiri-lurzoruak eta industria-lurzoruak.

2. gaia.- Hostozabalen espezieak Bizkaian: 1. Espezie nagusiak: *Fagus*, *Quercus* eta *Eucaliptus* generoak: ezaugarri botanikoak, ekologikoak, banaketa geografikoa, inbentarioen araberako azalerak, bilakaera. 2. Basoberritzea hostozabalekin: erabilitako espezieak. Espezie bakoitzerako: landaketaren dentsitatea, baso-lanak, mozketa-txandak eta etekinak. 3. Espezie bakoitzaren egurraren erabilerak.

3. gaia.- Koniferoen espezieak Bizkaian: 1. Espezie nagusiak: *Pinus radiata* eta beste konifero batzuk: ezaugarri botanikoak, ekologikoak, banaketa geografikoa, inbentarioen araberako azalerak, bilakaera. 2. Basoberritzea koniferoekin: erabilitako espezieak. Espezie bakoitzerako: landaketaren dentsitatea, baso-lanak, mozketa-txandak eta etekinak. 3. Espezie bakoitzaren egurraren erabilerak.

4. gaia.- Zuraren aprobetxamendua: 1. Baso-produktuak ateratzea. 2. Baso-mozketako lanen plangintza eta antolaketa. 2. Seinalatzea, diametroak eta altuerak neurtzea. 3. Neurri-unitateak: m3-a, estereoa, metro lineala eta tona. Neurketa-sistemak eta baliokidetasunak. 4. Zuhaitzak ipurditik mozteko eta basotik ateratzeko erabilitako makinak.

5. gaia.- Basoberritzea: 1. Basoberritzerako teknikak: ereitea eta landatzea. Basoa prestatzeko egin beharreko lanak. 2. Erabili beharreko makinak eta tresnak. 3. Landaketetan erabili beharreko landareen adina, tamaina eta egokitzapena. 4. Landaketaren ondoren egin beharreko mantentze-lanak.

6. gaia.- Baso-pistak eta -bideak: 1. Bideen sailkapena. 2. Bide-sare optimoa. Bide-mota: 2.1. Sare optimoaren sailkapena. 2.2. Gutxi gorabeherako dentsitateak. 2.3. Eraikuntza-ezaugarriak. 3. Egungo egoera: 3.1. Egungo egoeraren sailkapena. 3.2. Bidearen mantentze-egoera. 4. Lehentasuna emateko irizpide teknikoak.

7. gaia.- Baso-suteak Bizkaian: 1. Arrisku-faktoreak eta baso-suteak eragiten dituzten arrazoiak. 2. Arrisku-garaiak Bizkaian. 3. Baso-suteen aurka egiteko prebentzio-neurriak. Suari eraso egiteko metodoak. 4. Segurtasuna eta prebentzioa su-itzaltzean. Norbera babesteko ekipamenduak. 10 segurtasun-arauak. 18 arrisku-egoerak. OACEL protokoloa.

8. gaia.- Mendiei eta Babespeko Naturaguneen Administrazioari buruzko ekainaren 2ko 3/1994 Foru Araua, martxoaren 20ko 3/2007 Foru Arauak aldatua. 1. Mendien legezko

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

kontzeptua, sailkapena eta erregimen juridikoa. 2. Herri-onurako mendien kargak eta atzemateak. 5. Herri-onurako mendien zedarriketa eta mugarriketa.

9. gaia.- Bertoko Zenbait Zuhaitz Motaren Araubide Bereziari buruzko urriaren 14ko 1997/11 Foru Araua: 1. Oinarrizko alderdiak eta arauak babesten dituen baso-espezieak. 2. Espezie desberdinen kopuruak, indarreko baso-inbentarioaren arabera. 3. Haien aprobetxamenduen arauketa. 4. Arau-hausteak eta zehapen-araubidea.

10. gaia.- Euskadiko Ehizaren legea: 1. Ehizaren definizioa eta ehizan jarduteko bete beharreko baldintzak. 2. Ehiza espezieei buruz. 3. Ehiza-lurrei buruz.

11. gaia.- Arrantza kontinentala Bizkaian: 1. Arrantza daitezkeen espezieak. 2. Arrantzarako epeak, orduak eta egunak. 3. Harrapaketa-kupoak eta gutxieneko neurriak. 4. Arrantza-tresnak eta bestelako arrantza-lagungarriak. 5. Karnatak, amuak eta pitak. 6. Arrantzan egiteko behar diren agiriak.

12. gaia.- 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena. 1. Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta behar duten baso-proiektuak: D1 taldea, D9 taldea, D 10 taldea. 2. Gune babestuetan gauzatzen diren proiektuak. 3. Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua behar duten proiektuak: E1 taldea, E9 taldea (bestelako proiektuak).

13. gaia.- Fauna (bisoi europarra, arrain hiruarantza, ubarroi mottoduna eta europar ekaitz-txoria) Bizkaiko Lurralde Historikoan kudeatzeko planak: aplikazio-eremuak; interes bereziko eremuak; espezieen aldi kritikoak; debekuak; mehatxuak eta espezieen bilakaera baldintzatzen duten faktoreak; haien habitata hobetzeko jarraibide orokorrak.

14. gaia.- Bizkaian Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak kudeatzeko baterako plana: 1. Definizioak, aplikazio-eremua, aldi kritikoak, debekuak eta mehatxuak. 2. Haien habitata hobetzeko jarraibide orokorrak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

IGARRENA: PLAZA ARRUNTAK

1. Deialdian eskainitako plazak

Deialdia egiten da BASO-AGENTEen zortzi (8) plaza betetzeko (C taldea, C1 titulazio-azpitaldea), txanda irekitik derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna dutenak.

2. Titulazioa

.- Batxilergoko titulua edo teknikari-titulua.

.- Bigarren Mailako Lanbide Heziketa (LH2)- Baso ustiapenak.

.-Baso Aprobetxamenduetako eta Natura Kontserbazioko teknikari espezialista.

.- Lorezaintzako teknikari espezialista.

.- Natura eta Paisaia Baliabideen Kudeaketa eta Antolamenduko goi-mailako teknikaria.

.- Basoa eta Natura Ingurunea Kudeatzeko goi-mailako teknikaria.

.- Baso Ustiapeneko teknikari espezialista (Nekazaritza adarra).

3. Baldintza espezifikoak

Urriaren 30eko 5/2015 ELDaren 56.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, baldintza espezifikoa izango da IT txartel hau edukitzea: Word oinarrizkoa (baliodunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010). Word aurreratuaren IT txartelak Word oinarrizkoarena baliozkotuko du.

Ziurtagiria eskuratzeko proba egin ahal izateko, egiaztatutako zentro batean eman beharko da izena. Zentroen zerrenda osoa helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke: www.it-txartela.net.

Izen-ematea www.it-txartela.net helbidean egin daiteke. Informazioa eskura daiteke aipatutako helbide elektronikoan eta bide hauetakoren bat erabilita:

a) Aurrez aurre, egiaztatutako edozein zentrotara joanda.

b) Telefonoz, 902 25 25 95 zenbakira deituta.

Baldintza espezifiko hau betetzeko, aipatutako txartelak ez dituztenei bi (2) hilabeteko epea ematen zaie, deialdi hau BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Izangaiek ez dute agiririk aurkeztu beharko, Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten.

Txartelok epe horretan eskuratzen ez dituen izangaia hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko da, baita osatuko den lan-poltsatik ere.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

4.Gaitasun fisiko-psikikoa

Bigarren oinarri orokorreko 1.c) apartatuan xedatutakoaren arabera, izangaiek ezin izango dute eduki eurei dagozkien eginkizunak betetzea eragozten dien akats fisiko edo psikikorik; hori egiaztatzeko, Osasuneko Unitateak batzorde mediko baten bitartez espezialitate honetako bazterketen laukian (IV. eranskina) xedatutakoarekin bat etorriz egindako egiaztagiria aurkeztu beharko da.

5. Hautaketa-prozedura

5.1 OPOSIZIO-FASEA

Oposizio faseak hiru (3) ariketa izango ditu, guztiak nahitaezkoak eta baztertzaileak.

5.1.a) Lehenengo ariketak bi zati izango ditu:

a) 1) Lehenengo zatia, teorikoa: ehun eta berrogeita hamar (150) minutuan, hirurogeita hamabost (75) galderako test bat egin beharko da —gehi erreserbako hamar (10) galdera—. Galderak VI. eranskineko gaiei buruzkoak izango dira eta aukerako zenbait erantzun izango dituzte, baina bat baino ez da zuzena izango. Erantzun zuzenak hiru (3) puntu balioko du, eta puntu bat (1) kenduko da oker erantzundako galdera bakoitzeko.

b) Bigarren zatia, praktikoa, bi zati izango dituena:

— Lehenengoan, gehienez ere hirurogeita hamabost (75) minutuko epean, zenbait kasu praktiko ebatzi beharko dira, VI. eranskineko I. eta II. zatiei buruzkoak. Kasu horiek ausaz aukeratuko ditu epaimahaiak, berak proposatutakoen artetik, ariketa hasi baino lehentxeago.

— Bigarrenean, proba praktiko batzuk egin beharko dira idatzizko erantzunen bidez, gehienez ere, hirurogeita hamabost (75) minututan. Proba horiek gai hauetako bati edo batzuei buruzkoak izango dira (epaimahaiak zehazten dituen proba guztien balorazioa berdina izango da):

• Neurketak eta landa-lanak.

• Izurrite eta gaixotasunen identifikazioa.

• Flora- eta fauna-espezieak ezagutzea.

• Arau-hausteak identifikatzea eta salaketak idaztea.

Norbera babesteko ekipamenduak basoko lanetan eta suteetan. EPIS en trabajos forestales e incendios

Lehengo ariketaren bi zatiak egun berean egingo dira, bata bestearen ostean; epaimahaiak atsedenaldia eman ahal izango die izangaiei zatien artean.

5.1.b) Bigarren ariketa:

Ariketa hau izangaien gaitasun fisikoa egiaztatzeko da; horretarako, proba hau egingo da: Ibilaldia mendian, 5 kilometrokoa, 8 kiloko gainkarga (+/- 100g) duen motxila bat aldean dela —pisu hori da deialdian bete beharreko lanpostuetan laneko ekipamenduak eta norbera babesteko ekipamenduak duten pisua—. Horretarako denbora: gizonek, 32 minutu gehienez eta emakumeek, 38 minutu gehienez.

5.1.c) Hirugarren ariketa:

Euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailea izango da; betiere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da III. hizkuntza-eskakizunari dagokion mailan.

Bizkaiko Foru Aldundian III. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Halakoetan, parte-hartzaileak baimen espresua emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala ere, aurkeztu egin beharko dituzte azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta egon badauden, baina erregistro horretan sartuta ez dauden gainerako euskara-titulu edo -ziurtagiriak; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Izangaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean egiaztatu nahi badute III. hizkuntza-eskakizuna, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko da.

5.2 LEHIAKETA

Lehiaketan, izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera (V. eranskina) dagozkion puntuak emango zaizkio.

**6.Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa.**

6.1 Merezimenduen baremoaren arabera (V. eranskina) emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketaren kalifikazioa.

6.2 OPOSIZIO-FASEA

a) a) Lehenengo ariketan, zero (0) eta hogei (20) puntu arteko kalifikazioa jarriko da, honela banaturik: a) zatian, zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa jarriko da; b) zatian, zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa jarriko da. Zati bietako emaitzen batuketa

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

aritmetikoa eginez jarriko dira kalifikazioak. Ariketa gaindituko dute bi zatien artean hamar (10) puntu lortzen dituztenek, betiere zatietako bakoitzean gutxienez bi puntu eta erdi (2,5) lortzen badituzte.

Hala ere, gainditutako pertsonen kopurua ez bada iristen 24ra, puntuaziorik handiena lortu duten 24 pertsonak- parte teorikoan- parte praktikora igaroko dira; horretarako, parte-hartzeko txanda guztiak hartuko dira kontuan. Noten mozketa-puntuan berdinketa gertatuz gero, mozketa-notaren pareko nota duten izangai guztiek gaindituko dute ariketa hau.

Izangaiek deialdi honen ostean deitzen den hurrengo deialdirako gorde ahal izango dute ariketa honetako parte teorikoaren kalifikazioa, baldin eta deialdi horretan hala ezartzen bada; horretarako, betiere, bi deialdietan txanda berean parte hartu behar dute.

Bizkaiko Ahaldun Nagusiaren abenduaren 1eko 167/2017 Foru Dekretuaren bidez egindako deialdian (abenduaren 14ko BAO, 237. zk.) parte hartu zutenek aukera hori baliatu ahal izango dute, baldin eta eskabidean idatziz adierazten badute hori egin nahi dutela; horretarako, betiere, txanda berean parte hartu behar dute.

Eskubide hori baliatzeko, hautaprobetan parte hartzeko eskabidea aurkeztu beharko dute eta dagokion tasa ordaindu. Aukera hori baliatu duen izangaiak deialdi honetako azterketa egiten badu, bi prozesuetan lortutako kalifikazioetatik altuena emango zaio zuzenean. Eskubide hori baliatu eta azterketa ez egiteko aukera behin bakarrik erabili ahal izango da, eta eskubidea baliatu ondoren egiten den hurrengo deialdian azterketa osoa egin beharko da.

b) Bigarren ariketari (proba fisikoa) «gai» edo «ez gai» kalifikazioa emango zaio.

c) Hirugarren ariketan (euskara), «gai» edo «ez gai» izango da kalifikazioa.

7. Lan-poltsa

Hautaketa-prozesu honetatik lan-poltsa sortuko da lehenengo ariketako lehenengo zatia (teorikoa) gainditzen dutenekin, bosgarren oinarrian xedatutakoaren arabera.

cve: BAO-2022a248-(I-1216)

IV. ERANSKINA

BAZTERKETA DAKARTEN ARRAZOI MEDIKOAK
ORAINDIK ZERBITZU MEDIKOAK EGIAZTATU GABE

1. Bazterketa orokorra.

Izangaiak ezin du inolako gaixotasun organikorik izan, ez inolako istripu-ondoriorik, ez lanpostuan jardutea eragozten duen urritasun edo egoera fisiko edo psikikorik, ezta norbera babesteko ekipamenduak erabiltzea eragozten edo zailtzen duen anomalia edo patologiarik ere.

Era berean, exogenoen ziozko pozoidura kronikoaren egoera adierazten duten sintoma edo aztarna kliniko-biologiko frogatuak dituzten izangaiak berez baztertuta geratuko dira.

2. Bazterketa espezifikoak.

Klausula orokorrean xedatutakoa gorabehera, honako hauek ere izango dira baso-agenteen eginkizunak betetzetik baztertzeko arrazoi espezifikoak:

LOKOMOZIO-APARATUA

— Mugikortasuna mugatzen duen patologia muskuloeskeletikoa, baso-agentearen eginkizunak zailtzen dituena.

— Goiko zein beheko gorputz-adarren muga funtzionala dakarren anatomia-galera.

— Bizkarrezurraren errotazio edo flexio arrunta eragozten duen edozein patologia.

— Garezur eta aurpegiaren anomaliak, lanbideari berezkoak zaizkion norberaren babeserako ekipamendu eta baliabideen erabilera eragotzi edo oztopatzen dutenak.

— Oinaren funtzionamendu arrunta zaildu edo laneko botak janztea eragozten duen oinaren patologia.

ARNAS APARATUA

— Baso-agentearen zereginak zaildu edo eragozten dituzten edo haietan eragin negatiboa duten arnas prozesuak.

APARATU KARDIOBASKULARRA

— Bihotzeko patologia.

 – Bihotz-gutxiegitasuna.
 – Kardiopatia iskemikoa.
 – Arritmia garrantzitsuak, flutterra eta fibrilazio aurikularra.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

- Wolf Parkinson White-ren aldez aurreko eszitazio-sindromeak.
- 2. edo 3. mailako blokeo aurikulobentrikularra.
- Estrasistole patologikoak.

— Baso-agentearen zereginak zaildu edo eragozten dituzten edo haietan eragin negatiboa duten prozesu baskularrak.

EGOERA MENTALA

— Baso-agentearen zereginak zaildu edo eragozten dituzten edo haietan eragin negatiboa duten nortasunaren nahasmenduak.

— Eskizofrenia eta beste nahasmendu psikotiko batzuk.

— Nahasmendu obsesibo-konpultsibo larriak.

— Adimen-atzeratasuna: mota guztiak.

— Toxikomaniak, alkoholismoa barne.

IKUSMENA

— Basozainaren eginkizunak zailtzen dituen patologia oftalmologikoa.

— Gutxienez, 0,5eko ikusmen-zolitasun binokularra eduki behar da, baita lente zuzentzaileekin ere, halakorik behar izanez gero.

— Diplopia.

NERBIO-SISTEMA

— Nerbio-sistema zentral edo periferikoaren gaixotasunak, funtzio motorren, sentsorialen edo koordinaziokoen galera edo murrizketa larria, gertakari sinkopalak, dardarak eta espasmoak eragiten dituztenak.

— Epilepsiak.

— Bertigoak.

— Sekuelak dituzten istripu iskemiko iragankorrak eta istripu iskemiko errepikatuak.

BESTE BATZUK

— Eguzki-erradiazioarekin okerrera egin dezakeen patologia dermatologiko larria.

— Baso-agentearen eginkizunak betetzea zailtzen duen sistema hematopoietikoaren edo endokrinologikoaren patologia.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

DEIALDIKO BAZTERTZEEN TAULARI BURUZKO FROGA MEDIKOAK EGITEKO BAIMENA

Izen-deiturak: ........................................................................................................................................

NAN zk.: ........................................................

. Adina:..................................

Honen bitartez, baimena ematen diot Bizkaiko Foru Aldundiko Lan Arriskuen Prebentziorako eta Lan Osasunerako Zerbitzuko Lan Osasunerako Atalari bertan sartzeko azterketa mediko berezia egiteaz arduratzen dena, hala nola, sute-erretena duen baso-agentea, beharrezko mediku-
azterketak egin diezazkidan, odola eta gernua atera eta aztertzeko, parametro hauei dagoki enez: Sute-erretenari atxikitako baso-agenteen osasun-zaintzarako berariazko protokoloa.

Odol-analisia:
Hemograma osoa, leukozitoformula, plaketak, VSG. Biokimika: Glukosa, Urea, Kreatinina, Gl omerulu-
iragazketa, Azido Urikoa, Kolesterola, HDL, kolesterola, LDL kolesterola, Triglizeridoak, Tra nsaminasak: GOT (AST), GPT (ALT), Gamma Fosfatil Transalkalasa.

Serologia: Coxiella burnetti, Chlamydia psittaci, Leptospira interrogans, Brucella, Borrelia

Gernu-analisia:
Dentsitatea, pH, anormalak eta sedimentua.

Era berean, adierazten dut botika hauek hartzen ditudala: ............................................................................................................ (adierazi botiken izen k omertziala edo botiken konposizioa).

Eta hala jasota gera dadin, baimen hau sinatzen dut.

..................(e)n, 20...(e)ko ................aren .......(e)(a)n

Sinadura:

cve: BAO-2022a248-(I-1216)

V. ERANSKINA

PLAZA ARRUNTETARAKO MEREZIMENDUEN BAREMOA

ESPEZIALITATEA: BASO-AGENTEA

1. Edozein administrazio publikotan BASO-AGENTEA kategorian (C taldea, C1 titulazio-azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,084 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere hirurogei (60) hilabete. 5 puntu

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira administrazio publikotzat: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikuluetan jasotako erakundeak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 2.1 eta 2.3 artikuluetan jasoak. Orobat zenbatuko dira zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan egindako zerbitzuak, baina inola ere ez izaera publikoko beste erakunde batzuetan egindakoak, baldin eta enpresa, merkataritza-sozietate, fundazio edo elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa badute.

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbitzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatikirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

Nolanahi ere, zerbitzua lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legearen 20.1.c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientzia baloratzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ere: lehenik, zenbat denbora egon den izangaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen izangaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA BAO


VI. ERANSKINA

PLAZA ARRUNTETARAKO GAIAK

BASO-AGENTEA

I. ZATIA

1. gaia.- Bizkaiko geografia: 1. Hedadura. 2. Orografia: elementu geografiko, mendigune eta mendi garrantzitsuenak. 3. Klima: ezaugarriak. 4. Landarediaren mapa, azalerak eta erabilerak: basoa, larreak, sastrakak, nekazaritzako laborantza, hiri-lurzoruak eta industria-lurzoruak.

2. gaia.- Hostozabalen espezieak Bizkaian: 1. Espezie nagusiak: *Fagus*, *Quercus* eta *Eucaliptus* generoak: ezaugarri botanikoak, ekologikoak, banaketa geografikoa, inbentarioen araberako azalerak, bilakaera. 2. Basoberritzea hostozabalekin: erabilitako espezieak. Espezie bakoitzerako: landaketaren dentsitatea, baso-lanak, mozketa-txandak eta etekinak. 3. Espezie bakoitzaren egurraren erabilerak.

3. gaia.- Koniferoen espezieak Bizkaian: 1. Espezie nagusiak: *Pinus radiata* eta beste konifero batzuk: ezaugarri botanikoak, ekologikoak, banaketa geografikoa, inbentarioen araberako azalerak, bilakaera. 2. Basoberritzea koniferoekin: erabilitako espezieak. Espezie bakoitzerako: landaketaren dentsitatea, baso-lanak, mozketa-txandak eta etekinak. 3. Espezie bakoitzaren egurraren erabilerak.

4. gaia.- Zuraren aprobetxamendua: 1. Baso-produktuak ateratzea. 2. Baso-mozketako lanen plangintza eta antolaketa. 2. Seinalatzea, diametroak eta altuerak neurtzea. 3. Neurri-unitateak: m3-a, estereoa, metro lineala eta tona. Neurketa-sistemak eta baliokidetasunak. 4. Zuhaitzak ipurditik mozteko eta basotik ateratzeko erabilitako makinak.

5. gaia.- Basoberritzea: 1. Basoberritzerako teknikak: ereitea eta landatzea. Basoa prestatzeko egin beharreko lanak. 2. Erabili beharreko makinak eta tresnak. 3. Landaketetan erabili beharreko landareen adina, tamaina eta egokitzapena. 4. Landaketaren ondoren egin beharreko mantentze-lanak.

6. gaia.- Baso-pistak eta -bideak: 1. Bideen sailkapena. 2. Bide-sare optimoa. Bide-mota: 2.1. Sare optimoaren sailkapena. 2.2. Gutxi gorabeherako dentsitateak. 2.3. Eraikuntza-ezaugarriak. 3. Egungo egoera: 3.1. Egungo egoeraren sailkapena. 3.2. Bidearen mantentze-egoera. 4. Lehentasuna emateko irizpide teknikoak.

7. gaia.- Baso-suteak Bizkaian: 1. Arrisku-faktoreak eta baso-suteak eragiten dituzten arrazoiak. 2. Arrisku-garaiak Bizkaian. 3. Baso-suteen aurka egiteko prebentzio-neurriak. Suari eraso egiteko metodoak. 4. Segurtasuna eta prebentzioa su-itzaltzean. Norbera babesteko ekipamenduak. 10 segurtasun-arauak. 18 arrisku-egoerak. OACEL protokoloa.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

8. gaia.- Mendiei eta Babespeko Naturaguneen Administrazioari buruzko ekainaren 2ko 3/1994 Foru Araua, martxoaren 20ko 3/2007 Foru Arauak aldatua. 1. Mendien legezko kontzeptua, sailkapena eta erregimen juridikoa. 2. Herri-onurako mendien kargak eta atzemateak. 5. Herri-onurako mendien zedarriketa eta mugarriketa.

9. gaia.- Bertoko Zenbait Zuhaitz Motaren Araubide Bereziari buruzko urriaren 14ko 1997/11 Foru Araua: 1. Oinarrizko alderdiak eta arauak babesten dituen baso-espezieak. 2. Espezie desberdinen kopuruak, indarreko baso-inbentarioaren arabera. 3. Haien aprobetxamenduen arauketa. 4. Arau-hausteak eta zehapen-araubidea.

10. gaia.- Euskadiko Ehizaren legea: 1. Ehizaren definizioa eta ehizan jarduteko bete beharreko baldintzak. 2. Ehiza espezieei buruz. 3. Ehiza-lurrei buruz.

11. gaia.- Arrantza kontinentala Bizkaian: 1. Arrantza daitezkeen espezieak. 2. Arrantzarako epeak, orduak eta egunak. 3. Harrapaketa-kupoak eta gutxieneko neurriak. 4. Arrantza-tresnak eta bestelako arrantza-lagungarriak. 5. Karnatak, amuak eta pitak. 6. Arrantzan egiteko behar diren agiriak.

12. gaia.- 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena. 1. Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta behar duten baso-proiektuak: D1 taldea, D9 taldea, D 10 taldea. 2. Gune babestuetan gauzatzen diren proiektuak. 3. Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua behar duten proiektuak: E1 taldea, E9 taldea (bestelako proiektuak).

13. gaia.- Fauna (bisoi europarra, arrain hiruarantza, ubarroi mottoduna eta europar ekaitz-txoria) Bizkaiko Lurralde Historikoan kudeatzeko planak: aplikazio-eremuak; interes bereziko eremuak; espezieen aldi kritikoak; debekuak; mehatxuak eta espezieen bilakaera baldintzatzen duten faktoreak; haien habitata hobetzeko jarraibide orokorrak.

14. gaia.- Bizkaian Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak kudeatzeko baterako plana: 1. Definizioak, aplikazio-eremua, aldi kritikoak, debekuak eta mehatxuak. 2. Haien habitata hobetzeko jarraibide orokorrak.

II. ZATIA

15. gaia.- Bizkaiko baso-masetako izurriak: 1. Pinu-beldarra (*Thaumatopoea pityocampa*). 2. Eskolitidoak (*Ips*, *Tomicus*). 3. *Hylobius*. 4. Hiruretarako: antzematea, biologia, ikusten diren sintomak, kalteak eta tratamendua.

16. gaia.- Baso-patologiak: Bizkaiko basoetako onddo-gaixotasun nagusiak. 1. *Fusarium*. 2. Banda azikularrak. 3. *Armillarea mellea*. 4. Guztietarako: biologia, sintomak, kalteak eta tratamendua.

17. gaia.- Mendiei eta Babespeko Naturaguneen Administrazioari buruzko ekainaren 2ko 3/1994 Foru Araua, martxoaren 20ko 3/2007 Foru Arauak aldatua. 1. Erabilera publikoa:

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

75, 76, 76 bis eta 76 ter artikuluak. Arauketa. 2. Baimenak, arau-hausteak eta zehapen-araubidea. 3. Aisialdiko jarduerak eta haien arauketa, mendi-ibilbideak, mendiko txirrindularitza, motordun ibilgailuak, atsedenlekuak.

18. gaia.- Ehiza-jardueraren kontrola Euskadiko Ehizaren Legean: 1. Segurtasuna eta eranzukizun zibila. 2. Arau-hausteak eta zehapenak: zaintza.

19. gaia.- Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentaraua, maiatzaren 21ekoa, habitat naturalen eta basoko fauna eta floraren kontserbazioari buruzkoa . 1. Natura 2000 sarearen helburu orokorrak: BGL eta KBE tokiak. 2. Espezieen babesa.

20. gaia.- Jabari publiko hidraulikoa. 1. Jabari publiko hidraulikoa: ibai-ibilguak, ibaiertzak eta ibai-bazterrak. 2. Ur-emari ekologikoen araubidea, ur-emari ekologikoen araubidearen mantentzea eta ur-emari ekologikoen kontrola eta jarraipena.

21. gaia.- Segurtasuna eta laneko arriskuen prebentzioa baso-jardueretan. 1. Arrisku nagusiak baso-jardueretan. 2. Norbera babesteko ekipamenduen erabilera basoko lan eta zeregin desberdinetan. 3. Motozerraren eta esku-motosegaren erabilera segurua eta erabilera horretarako prebentzio-neurriak.

22. gaia.- Bizkaiko parke naturalak eta kontserbazio bereziko eremuak (KBE): Urkiola, Gorbeia eta Armañon: kokapen geografikoa, kontserbazio-helburuak, zonakatzea eta basogintza-erabilera.

23. gaia.- Ehiza-jarduera Bizkaiko Lurralde Historikoan: 1. Baimen bereziak behar dituzten ehiza-modalitateak. 2. Fauna orokorrean babestea. 3. Kontrolatutako ehiza-eremuak eta ehiza-barrutiak. 4. Bizkaiko Lurralde Historikoan arautdo pase-lerroetan, uso eta birigarro migratzaileak ehizatzeko arauak.

24. gaia.- Bizkaian baimendutako ehiza xeheko espezieak: 1. Deskribapena, biologia eta ohiturak, elikadura, habitata, banaketa eta populazioak. 2. Espezie horien ehiza-araubidea Bizkaian.

25. gaia.- Basogintzako laguntza-plana, basoetako azpiegituretan inbertsioak egiteko eta basoen bideragarritasuna garatu eta hobetzeko. BFAren 2022ko maiatzaren 10eko 69/2022 Foru Dekretua. 1. Helburuak eta lehentasunak. 2. Diruz lagun daitezkeen jarduerak eta pertsona eta erakunde onuradunak. 3. Aurretik bete behar diren baldintzak eta betekizunak. 4. Moduluak eta dirulaguntzak.

III. ZATIA

26. gaia.- Espainiako 1978ko Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubide eta betebeharrak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

27. gaia.- Estatuaren lurralde-antolamendua. Printzipio orokorrak. Udalerria, probintzia eta autonomia-erkidegoak. Autonomia-estatutuak.

28. gaia.- Euskal Herriaren Autonomia Estatutua. Atariko titulua. Euskal Herriaren eskumenak. Euskal Herriaren botereak: Eusko Legebiltzarra. Eusko Jaurlaritza eta lehendakaria. Justizia Administrazioa Euskal Herrian. Lurralde historikoetako erakundeak. Ogasuna eta ondarea.

29. gaia.- 12/2002 Legea, maiatzaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duena. Aurrekariak. Arau orokorrak: lurralde historikoetako erakundeen eskumenak, printzipio nagusiak, zergak harmonizatzea, lankidetza-printzipioa eta Estatuarenak bakarrik diren eskumenak. Finantza-harremanak: printzipio nagusiak eta kupoa (kontzeptua).

30. gaia.- 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidegoko instituzio erkideen eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzkoa. Xedapen orokorrak. Lurralde historikoen eskumenak: esklusiboak, legeak garatu eta betearaztekoak, eta betearaztekoak.

31. gaia.- Espainiako toki-araubidea. Konstituzio-printzipioak eta erregulazio juridikoa.

32. gaia.- Administrazio-egintza. Kontzeptua. Administrazio-egintza motak. Administrazio-egintzaren osagaiak.

33. gaia.- Administrazio-prozedura orokorraren faseak. Interesdunak.

34. gaia.- Administrazio-errekurtsoak. Motak. Araubide juridikoa.

35. gaia.- Sektore publikoko kontratuak. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora: xedea eta aplikazio-eremua.

36. gaia.- 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Aurrekontuei buruzko 2006ko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duena. Atariko titulua: xedapen orokorrak (xedea eta aplikazio-eremua eta eskumenak). I. titulua: Bizkaiko Foru Ogasunaren araubidea (printzipio orokorrak, eskubide ekonomikoak eta betebehar ekonomikoak). II. titulua: Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorrak (printzipio orokorrak eta aurrekontu-programazioa, edukia eta onarpena).

37. gaia.- Funtzionario publikoak: kontzeptua eta motak. Euskal Emplegu Publikoari buruzkoa: funtzionarioen eskubide eta betebeharrak eta funtzionarioen ordainsari-araubidea.

38. gaia.- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa: atariko titulua. I. titulua: herritarren eskubideak eta herri-aginteen betebeharrak hizkuntzaren alorrean.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

39. gaia.- 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa. Bizkaiko Batzar Nagusiak. Izaera, eskumenak eta osaera. Eraketa, antolaketa eta jardunbidea. Bizkaiko Foru Aldundia. Izaera, osaera eta kargua uztea. Eskumenak.

40. gaia.- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzekoa: zioen adierazpena eta atariko titulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa: atarikoa eta atariko titulua. II. titulua: Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-sektore publikoan genero-ikuspegia txertatzeko neurriak.

41. gaia.- 1/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa, Bizkaiko Gardentasunari buruzkoa. Aplikazio-eremua (2. art.); publikotasun aktiboa: kontzeptua eta dimentsioak (5. art.); informazio publikoa eskuratzeko eskubidea: kontzeptua (18. art.), mugak (21. art.); Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordea (28. eta 29. art.).

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

HAUTAKETA-PROZESURAKO DEIALDIA, KARRERAKO FUNTZIONARIO SARTZEKO ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAN, ZERBITZU BEREZIEN AZPIESKALAN, ZEREGIN BEREZIETAKO PLAZAK, HERRILANETAKO ZELATARIA: EGONKORTZE-PLAZAK ETA ARRUNTAK

LEHENA: EGONKORTZE-PLAZAK

1.Deialdian eskainitako plazak

Deialdia egiten da HERRILANETAKO ZELATARIen sei (6) plaza betetzeko (C taldea, C1 titulazio-azpitaldea) txanda irekitik derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna dutenak.

2. Titulazioa

Batxiler edo teknikari titulua, Bigarren Mailako Lanbide Heziketakoa edo baliokidea.

3. Baldintza espezifikoak

3.1. Lanpostuek baldintza hauek dituzte:

- B gidabaimena (lehen B1 zena).

3.2. Urriaren 30eko 5/2015 ELDaren 56.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, baldintza espezifikoa izango da IT txartel hau edukitzea: Word oinarrizkoa eta Excel oinarrizkoa (baliodunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010). Word aurreratuaren eta Excel aurreratuaren IT txartelek Word oinarrizko txartela eta Excel oinarrizkoarena baliozkotuko dituzte, hurrenez hurren.

Ziurtagiria eskuratzeko proba egin ahal izateko, egiaztatutako zentro batean eman beharko da izena. Zentroen zerrenda osoa helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke: www.it-txartela.net.

Izen-ematea www.it-txartela.net helbidean egin daiteke. Informazioa eskura daiteke aipatutako helbide elektronikoan eta bide hauetakoren bat erabilita:

a) Aurrez aurre, egiaztatutako edozein zentrotara joanda.

b) Telefonoz, 902 25 25 95 zenbakira deituta.

Baldintza espezifiko hau betetzeko, aipatutako txartelak ez dituztenei bi (2) hilabeteko epea ematen zaie, deialdi hau BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Izangaiek ez dute agiririk aurkeztu beharko, Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten.

Txartelok epe horretan eskuratzen ez dituen izangaia hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko da.

4. Hautaketa-prozedura

4.1. OPOSIZIO-FASEA

Oposizio faseak bi (2) ariketa izango ditu; biak derrigorrezkoak eta baztertzaileak.

4.1.1. Lehenengo ariketak bi zati izango ditu:

a) Lehenengo zatia, teorikoa: 60 minutuan, hogeita hamar (30) galderako test bat egin beharko da —gehi erreserbako bost (5) galdera—. Galderak II. eranskineko gaiei buruzkoak izango dira, eta aukerako zenbait erantzun izango dituzte, baina bat baino ez da zuzena izango. Erantzun zuzenak hiru (3) puntu balioko du eta ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik, zuriz utzitakoengatik edo bi marka dituztenengatik.

b) Bigarren zatia, praktikoa: epaimahaiak kasu batzuk proposatuko ditu, eta, azterketa egin baino lehentxeago, ausaz aukeratuko dira haietariko bat edo batzuk, hogei (20) minutuan ebazteko. Kasu horiek II. eranskineko gaiekin loturik egongo dira, eta ariketak hamar (10) galdera —gehi erreserbako galderak— izango ditu. Erantzun anitzeko galderak dituen galdetegi batean aukeratu beharko dira erantzunak. Erantzun zuzenak puntu bat (1) balioko du eta ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik, zuriz utzitakoengatik edo bi marka dituztenengatik.

Lehengo ariketaren bi zatiak egun berean egingo dira, bata bestearen ostean; epaimahaiak atsedenaldia eman ahal izango die izangaiei zatien artean.

4.1.2 Bigarren ariketa

Euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailea izango da; betiere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da III. hizkuntza-eskakizunari dagokion mailan.

Bizkaiko Foru Aldundian III. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Halakoetan, parte-hartzaileak baimen espresua emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala ere, aurkeztu egin beharko dituzte azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta egon badauden baina erregistro horretan sartuta ez dauden gainerako euskara-titulu edo -ziurtagiriak; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Izangaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean egiaztatu nahi badute III. hizkuntza-eskakizuna, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko da.

4.2. LEHIAKETA

Lehiaketan, izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) dagozkion puntuak emango zaizkio.

### 5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1. Merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketaren kalifikazioa.

5.2. Oposizio-fasea:

a) Lehenengo ariketan, zero (0) eta hogei (20) puntu arteko kalifikazioa jarriko da, honela banaturik: a) zatian, zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa jarriko da; b) zatian, zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa jarriko da. Zati bietako emaitzen batuketa aritmetikoa eginez jarriko dira kalifikazioak. Ariketa gaindituko dute bi zatien artean hamar (10) puntu lortzen dituztenek, betiere zatietako bakoitzean gutxienez bi puntu eta erdi (2,5) lortzen badituzte.

b) Bigarren ariketan (euskara), «gai» edo «ez gai» izango da kalifikazioa.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

### 6. Lan-poltsa

Hautaketa-prozesu honetatik ez da lan-poltsarik sortuko.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

I. ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOA EGONKORTZEA

ESPEZIALITATEA: HERRILANETAKO ZELATARIA

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan eta azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat:

1.- Esperientzia; gehienez ere 13 puntu, honela banatuta:

1.a) Edozein administrazio publikotan HERRILANETAKO ZELATARIA kategorian (C taldea, C1 titulazio-azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,0434 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere ehun (100) hilabete. 4,34 puntu

1.b) Aurreko atalean adierazitako esperientziatik bereizirik, modu espezifiko eta osagarrian, Bizkaiko Foru Aldundian HERRILANETAKO ZELATARIA kategorian (C taldea, C1 titulazio-azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,0868 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere ehun (100) hilabete 8,68 puntu

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira administrazio publikotzat: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikuluetan jasotako erakundeak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 2.1 eta 2.3 artikuluetan jasoak. Orobat zenbatuko dira zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan egindako zerbitzuak, baina inola ere ez izaera publikoko beste erakunde batzuetan egindakoak, baldin eta enpresa, merkataritza-sozietate, fundazio edo elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa badute.

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbitzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatikirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

Nolanahi ere, zerbitzua lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legearen 20.1.c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientzia baloratzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ere: lehenik, zenbat denbora egon den izangaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen izangaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

II. ERANSKINA

EGONKORTZE-PLAZETARAKO GAIAK

HERRILANETAKO ZELATARIA

1 Babes-eremuak. Eraikuntza-lerroa. Zerbitzu orokorren lerroa. Laugunearen kanpoko ertza. Galtzadaren kanpoko ertza. Kasu bereziak. Erabilera eta eraikuntza baimenduak. Eraikuntza-lerroak; lanak eta instalazioak eraikuntza-lerroaren barruan.

2 Errepidearen funtzionaltasuna: Errepideen erabilera. Zirkulazioari ezarritako mugak. Garraio bereziak. Kirol-probak. Betelanak, zabortegiak eta indusketak. Baso-lanak.

3 72/96 Foru Dekretua, maiatzaren 14koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko errepideetako babesguneetan zarraketak ezarri eta eraikitzea arautzen duena.

4 Sarbideak: Definizioa. Zuzeneko sarbideen eta maila bereko bidegurutzeen debekua. Sarbideak mugatzea eta berrantolatzea. Sarbide-baimenak emateari, aldatzeari, aldi baterako nahiz behin betiko eteteari buruzko araubide juridikoa. Ebazpenaren ondorioak. Baldintza teknikoak: geometria, ikuspena eta mugimenduen mugapena. Beste sarbideekiko distantzia. Autobietarako sarbideak. Errepide arruntetarako sarbideak.

5 Baimen eta legeztapenen araubide orokorra Bizkaian: Aldi baterako baimenak. Geldiarazteak. Arau-hausteak eta zehapenak. Kalteak eta galerak ordaina.

6 Lubetak; material-motak, nola erabiltzen diren (gunearen araberako erabilera, trinkotzea), obren exekuzioa (azalera prestatzea, geruzak hedatzea, trinkotzearen kontrola), exekuzioaren mugak, neurketa eta ongarria.

7 Errepideetako drainatzea. I. Plataformaren eta ertzen drainatzea: Proiektuen oinarrizko irizpideak eta irizpide bereziak. Lur gaineko drainatzearen elementuak.

8 Errepideetako bide-zoruak I. Zagorrak: definizioa. Obrak egiteko beharrezko ekipoa. Obren exekuzioa. Amaituriko unitatearen espezifikazioak. Onartzeko eta baztertzeko irizpideak.

9 Errepideetako bide-zoruak IV. Errodadura-geruzetarako nahaste bituminosoak: nahasketa drainatzaileak eta etenak. Nahasketen izendapena. Obrak egiteko beharrezko ekipoa. Amaituriko unitatearen espezifikazioak. Onartzeko eta baztertzeko irizpideak.

10 Seinale bertikalak.~~II.~~ Autobideak eta autobiak: Elementuen ezaugarriak (dimentsioak, koloreak). Ezarpen-irizpideak (luzetarakoa, zeharkakoa, altuera). Errepide arruntak. Elementuen ezaugarriak (dimentsioak, koloreak). Ezarpen-irizpideak (luzetarakoa, zeharkakoa, altuera).

11 Obretako seinaleak: Printzipio orokorrak. Zirkulazioa antolatzea obra finkoak daudenean. Abiadura-muga: justifikazioa, abiadura mugatzeko bitartekoak, hurbiltze-abiadurak eta abiadura mugatua. Erreiak zirkulaziorako ixtea eta behin-

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

behineko erreietara desbideratzea. Seinaleztatze-, balizatze- eta defentsa-elementuak.

12 Ibilgailuei eusteko sistema: motak, segurtasun-hesien eta petrilen portaera eta sailkapena, segurtasun-hesiak eta petrilak erabiltzeko irizpideak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

LEHENA: PLAZA ARRUNTAK

1.Deialdian eskainitako plazak

Deialdia egiten da HERRILANETAKO ZELATARIen bost (5) plaza betetzeko (C taldea, C1 titulazio-azpitaldea) txanda irekitik III. hizkuntza-eskakizuna dutenak; haietariko lauk (4) derrigorrezkoa eta batek (1) ez-derrigorrezkoa.

2. Titulazioa

Batxiler edo teknikari titulua, Bigarren Mailako Lanbide Heziketakoa edo baliokidea.

3. Baldintza espezifikoak

3.1. Lanpostuek baldintza hauek dituzte:

- B gidabaimena (lehen B1 zena).

3.2. Urriaren 30eko 5/2015 ELDaren 56.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, baldintza espezifikoa izango da IT txartel hau edukitzea: Word oinarrizkoa eta Excel oinarrizkoa (baliodunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010). Word aurreratuaren eta Excel aurreratuaren IT txartelek Word oinarrizko txartela eta Excel oinarrizkoarena baliozkotuko dituzte, hurrenez hurren.

Ziurtagiria eskuratzeko proba egin ahal izateko, egiaztatutako zentro batean eman beharko da izena. Zentroen zerrenda osoa helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke: www.it-txartela.net.

Izen-ematea www.it-txartela.net helbidean egin daiteke. Informazioa eskura daiteke aipatutako helbide elektronikoan eta bide hauetakoren bat erabilita:

a) Aurrez aurre, egiaztatutako edozein zentrotara joanda.

b) Telefonoz, 902 25 25 95 zenbakira deituta.

Baldintza espezifiko hau betetzeko, aipatutako txartelak ez dituztenei bi (2) hilabeteko epea ematen zaie, deialdi hau BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Izangaiek ez dute agiririk aurkeztu beharko, Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten.

Txartelok epe horretan eskuratzen ez dituen izangaia hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko da, baita osatuko den lan-poltsatik ere.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

4. Hautaketa-prozedura

4.1. OPOSIZIO-FASEA

Oposizio faseak bi (2) ariketa izango ditu; biak derrigorrezkoak eta baztertzaileak.

4.1.1. Lehenengo ariketa

Lehenengo ariketak bi zati izango ditu:

a) Lehenengo zatia, teorikoa: ehun eta berrogeita hamar (150) minutuan, hirurogeita hamabost (75) galderako test bat egin beharko da —gehi erreserbako hamar (10) galdera—. Galderak IV. eranskineko gaiei buruzkoak izango dira eta aukerako zenbait erantzun izango dituzte, baina bat baino ez da zuzena izango. Erantzun zuzenak hiru (3) puntu balioko du, eta puntu bat (1) kenduko da oker erantzundako galdera bakoitzeko.

2) Bigarren zatia, praktikoa: epaimahaiak kasu batzuk proposatuko ditu, eta, azterketa egin baino lehentxeago, ausaz aukeratuko dira haietariko bat edo batzuk, laurogeita hamar minutuan (90) ebazteko. Kasu horiek IV. eranskineko gaitegiko I. eta II. zatiarekin loturik egongo dira. Erantzun anitzeko galderak dituen galdetegi batean aukeratu beharko dira erantzunak. Erantzun zuzenak puntu bat (1) balioko du, eta -0,20 puntu kenduko da oker erantzundako galdera bakoitzeko.

Lehengo ariketaren bi zatiak egun berean egingo dira, bata bestearen ostean; epaimahaiak atsedenaldia eman ahal izango die izangaiei zatien artean.

4.1.2 Bigarren ariketa

Euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailea izango da derrigorrezko II. eta III. hizkuntza-eskakizunak ezarrita dituzten lanpostuei lotutako plazetara aurkezten diren izangaientzat eta borondatezkoa eta ez-baztertzailea derrigorrezkoak ez diren II. eta III. hizkuntza-eskakizunak ezarrita dituzten lanpostuei lotutako plazetara aurkezten direnentzat; betiere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da dagokion mailan.

Bizkaiko Foru Aldundian II. eta III. hizkuntza-eskakizunak egiaztatuta dituztenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Halakoetan, parte-hartzaileak baimen espresua emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala ere, aurkeztu egin beharko dituzte azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta egon badauden baina erregistro horretan sartuta ez dauden gainerako euskara-titulu edo -ziurtagiriak; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Izangaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean egiaztatu nahi badituzte II. eta III. hizkuntza-eskakizunak, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko da.

4.2 LEHIAKETA

Lehiaketan, izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera dagozkion puntuak emango zaizkio (III. eranskina).

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1. Merezimenduen baremoaren arabera (III. eranskina) emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketaren kalifikazioa.

5.2 Oposizio-fasea:

a) Lehenengo ariketan, zero (0) eta hogei (20) puntu arteko kalifikazioa jarriko da, honela banaturik: a) zatian, zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa jarriko da; b) zatian, zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa jarriko da. Zati bietako emaitzen batuketa aritmetikoa eginez jarriko dira kalifikazioak. Ariketa gaindituko dute bi zatien artean hamar (10) puntu lortzen dituztenek, betiere zatietako bakoitzean gutxienez bi puntu eta erdi (2,5) lortzen badituzte.

Hala ere, gainditutako pertsonen kopurua ez bada iristen 15era, puntuaziorik handiena lortu duten 15 pertsonak -parte teorikan- parte praktikora igaroko dira; horretarako, parte-hartzeko txanda guztiak hartuko dira kontuan. Noten mozketa-puntuan berdinketa gertatuz gero, mozketa-notaren pareko nota duten izangai guztiek gaindituko dute ariketa hau.

Izangaiek deialdi honen ostean deitzen den hurrengo deialdirako gorde ahal izango dute ariketa honetako parte teorikoaren kalifikazioa, baldin eta deialdi horretan hala ezartzen bada; horretarako, betiere, bi deialdietan txanda berean parte hartu behar dute.

Izangairen batek lehen ere parte hartu bazuen Bizkaiko Ahaldun Nagusiaren 2010eko ekainaren 10eko 177/2010 Foru Dekretuaren bidez egin zen deialdian, (2010eko 111. BAO, ekainaren 14koa), aukera hori baliatzeko modua izango du, baldin eta idatziz adierazten badu hori eskabide-orrian eta txanda berean parte hartzen badu.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Eskubide hori baliatzeko, hautaprobetan parte hartzeko eskabidea aurkeztu beharko dute eta dagokion tasa ordaindu. Aukera hori baliatu duen izangaiak deialdi honetako azterketa egiten badu, bi prozesuetan lortutako kalifikazioetatik altuena emango zaio zuzenean. Eskubide hori baliatu eta azterketa ez egiteko aukera behin bakarrik erabili ahal izango da, eta eskubidea baliatu ondoren egiten den hurrengo deialdian azterketa osoa egin beharko da.

b) Bigarren ariketan, «gai» edo «ez gai» kalifikazioa emango zaie derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten plazak lortu nahi dituztenei. Gainerako kasuetan, honako banaketa honen araberako kalifikazioa emango da, egiaztatutako maila kontuan hartuta:

- I. hizkuntza-eskakizuna: 1,25 puntu
- II. hizkuntza-eskakizuna: 2,5 puntu.
- III. hizkuntza-eskakizuna: 3,75 puntu

Ezingo da eskuratu lortu nahi den lanpostuaren hizkuntza-eskakizunari dagokiona baino goragoko puntuaziorik.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

6. Lan-poltsa

Hautaketa-prozesu honetatik lan-poltsa sortuko da lehenengo ariketako lehenengo zatia (teorikoa) gainditzen dutenekin, bosgarren oinarrian xedatutakoaren arabera.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA BAO



III. ERANSKINA

PLAZA ARRUNTETARAKO MEREZIMENDUEN BAREMOA

ESPEZIALITATEA: HERRILANETAKO ZELATARIA

1. Edozein administrazio publikotan ZELATARI kategorian (C taldea, C1 titulazio-azpitaldea) egindako zerbitzuengatik: 0,084 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere hirurogei (60) hilabete. 5 puntu

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira administrazio publikotzat: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikuluetan jasotako erakundeak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 2.1 eta 2.3 artikuluetan jasoak. Orobat zenbatuko dira zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan egindako zerbitzuak, baina inola ere ez izaera publikoko beste erakunde batzuetan egindakoak, baldin eta enpresa, merkataritza-sozietate, fundazio edo elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa badute.

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbitzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatikirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

Nolanahi ere, zerbitzua lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legearen 20.1.c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientzia baloratzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ere: lehenik, zenbat denbora egon den izangaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen izangaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

IV. ERANSKINA

PLAZA ARRUNTETARAKO GAIAK

HERRILANETAKO ZELATARIA

I. ZATIA

1. Babes-eremuak. Eraikuntza-lerroa. Zerbitzu orokorren lerroa. Lagunearen kanpoko ertza. Galtzadaren kanpoko ertza. Kasu bereziak. Erabilera eta eraikuntza baimenduak. Eraikuntza-lerroak; lanak eta instalazioak eraikuntza-lerroaren barruan.
2. Errepidearen funtzionaltasuna: Errepideen erabilera. Zirkulazioari ezarritako mugak. Garraio bereziak. Kirol-probak. Betelanak, zabortegiak eta indusketak. Baso-lanak.
3. 72/96 Foru Dekretua, maiatzaren 14koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko errepideetako babesguneetan zarraketak ezarri eta eraikitzea arautzen duena.
4. Sarbideak: Definizioa. Zuzeneko sarbideen eta maila bereko bidegurutzeen debekua. Sarbideak mugatzea eta berrantolatzea. Sarbide-baimenak emateari, aldatzeari, aldi baterako nahiz behin betiko eteteari buruzko araubide juridikoa. Ebazpenaren ondorioak. Baldintza teknikoak: geometria, ikuspena eta mugimenduen mugapena. Beste sarbideekiko distantzia. Autobietarako sarbideak. Errepide arruntetarako sarbideak.
5. Baimen eta legeztapenen araubide orokorra Bizkaian: Aldi baterako baimenak. Geldiarazteak. Arau-hausteak eta zehapenak. Kalteak eta galerak ordaina.
6. Lubetak; material-motak, nola erabiltzen diren (gunearen araberako erabilera, trinkotzea), obren exekuzioa (azalera prestatzea, geruzak hedatzea, trinkotzearen kontrola), exekuzioaren mugak, neurketa eta ongarria.
7. Errepideetako drainatzea. I. Plataformaren eta ertzen drainatzea: Proiektuen oinarrizko irizpideak eta irizpide bereziak. Lur gaineko drainatzearen elementuak.
8. Errepideetako bide-zoruak I. Zagorrak: definizioa. Obrak egiteko beharrezko ekipoa. Obren exekuzioa. Amaituriko unitatearen espezifikazioak. Onartzeko eta baztertzeko irizpideak.
9. Errepideetako bide-zoruak IV. Errodadura-geruzetarako nahaste bituminosoak: nahasketa drainatzaileak eta etenak. Nahasketen izendapena. Obrak egiteko beharrezko ekipoa. Amaituriko unitatearen espezifikazioak. Onartzeko eta baztertzeko irizpideak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

10. Seinale bertikalak.II. Autobideak eta autobiak: Elementuen ezaugarriak (dimentsioak, koloreak). Ezarpen-irizpideak (luzetarakoa, zeharkakoa, altuera). Errepide arruntak. Elementuen ezaugarriak (dimentsioak, koloreak). Ezarpen-irizpideak (luzetarakoa, zeharkakoa, altuera).

11. Obretako seinaleak: Printzipio orokorrak. Zirkulazioa antolatzea obra finkoak daudenean. Abiadura-muga: justifikazioa, abiadura mugatzeko bitartekoak, hurbiltze-abiadurak eta abiadura mugatua. Erreiak zirkulaziorako ixtea eta behin-behineko erreietara desbideratzea. Seinaleztatze-, balizatze- eta defentsa-elementuak.

12. Ibilgailuei eusteko sistema: motak, segurtasun-hesien eta petrilen portaera eta sailkapena, segurtasun-hesiak eta petrilak erabiltzeko irizpideak.

II. ZATIA

13. Errepideak: motak, hierarkizazioa eta sailkapena. hiriko tarteak eta zeharbideak: definizioa eta baimenak.

14. Publizitatea: Debekuak. Salbuespenak. Informazio-kartelak. Zerbitzu-seinaleak. Turismo-seinaleak. Merkataritza- edo industria-establezimenduetako errotuluak. Aldi baterako errotuluak. Elebitasuna. Indarraldia.

15. Abiadura-murriztaileak: definizioa, ezartzeko irizpideak, kokapena, mugak.

16. Alertako zeharkako bandak: definizioa, ezarpen-irizpideak, kokapena.

17. Errepideetako drainatzea II. Zeharkako drainatzea: zeharkako drainatze-obrak.

18. Errepideetako bide-zoruak II. Zementuarekin trataturiko materialak. Zementu-zorua eta zementu-legarra.

19. Errepideetako bide-zoruak III: Obrak egiteko beharrezko ekipoa. Amaituriko unitatearen espezifikazioak. Onartzeko eta baztertzeko irizpideak.

20. Errepideetako bide-zoruak IV. Nahaste bituminosoak, hormigoi bituminosoaren erakoak: definizioa. Nahaste bituminosoen izendapena.

21. Errepideetako bide-zoruak V: Obrak egiteko beharrezko ekipoa. Amaituriko unitatearen espezifikazioak. Onartzeko eta baztertzeko irizpideak.

22. Seinaleztapen bertikala I. Oinarrizko printzipioak. Errepideak sailkatzea. Definizioak

23. Bide-markak: xedea. Kolorea. Taldeak: talde bakoitzeko bide-marka mota bakoitzaren funtzioa eta esanahia.

24. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa: IX. titulua - Zehapen-araubidea (70-71

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

artikuluak eta 77. artikulua), X. titulua - Eskubide digitalen bermea, eskubideen aipamen orokorra eta xedapen gehigarriak: 1., 2. eta 8.a. 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa: II. titulua - Datuak Babesteko Euskal Bulegoa (10. artikulua eta 14-17 artikuluak) eta III. titulua - Zehatzeko araubidea (24. artikulua).

III. ZATIA

25. Espainiako 1978ko Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubide eta betebeharrak.

26. Estatuaren lurralde-antolamendua. Printzipio orokorrak. Udalerria, probintzia eta autonomia-erkidegoak. Autonomia-estatutuak.

27. Euskal Herriaren Autonomia Estatutua. Atariko titulua. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenak. Euskal Herriaren botereak: Eusko Legebiltzarra. Eusko Jaurlaritza eta lehendakaria. Justizia Administrazioa Euskal Autonomia Erkidegoan. Lurralde historikoetako erakundeak. Ogasuna eta ondarea.

28. 12/2002 Legea, maiatzaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duena. Aurrekariak. Arau orokorrak: lurralde historikoetako erakundeen eskumenak, printzipio nagusiak, zergak harmonizatzea, lankidetza-printzipioa eta Estatuarenak bakarrik diren eskumenak. Finantza-harremanak: printzipio nagusiak eta kupoa (kontzeptua).

29. 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanei buruzkoa: Xedapen orokorrak. Lurralde historikoen eskumenak: esklusiboak, legeak garatu eta betearaztekoak, eta betearaztekoak.

30. Espainiako toki-araubidea. Konstituzio-printzipioak eta erregulazio juridikoa.

31. Administrazio-egintza. Kontzeptua. Administrazio-egintza motak. Administrazio-egintzaren osagaiak.

32. Administrazio-prozedura orokorraren faseak. Interesdunak.

33. Administrazio-errekurtsoak. Motak. Araubide juridikoa.

34. Sektore publikoko kontratuak. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora: xedea eta aplikazio-eremua.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

35. 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onesten duena. Atariko titulua: Xedapen orokorrak (xedea eta aplikazio-eremua eta eskumenak). I. titulua: Bizkaiko Foru Ogasunaren araubidea (printzipio orokorrak, eskubide ekonomikoak eta betebehar ekonomikoak). II. titulua: Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorrak (printzipio orokorrak eta aurrekontu-programazioa, edukia eta onespena).

36. Funtzionario publikoak: kontzeptua eta motak. Euskal Enplegu Publikoa: funtzionarioen eskubide eta betebeharrak eta funtzionarioen ordainsari-araubidea.

37. 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa: Atariko titulua. I. titulua: herritarren eskubideak eta herri-aginteen betebeharrak hizkuntzaren alorrean.

38. 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa. Bizkaiko Batzar Nagusiak. Izaera, eskumenak eta osaera. Eraketa, antolaketa eta jardunbidea. Bizkaiko Foru Aldundia. Izaera, osaera eta kargua uztea. Eskumenak.

39. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzekoa: zioen adierazpena eta atariko titulua.

    Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa: atarikoa eta atariko titulua. II. titulua: Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-sektore publikoan genero-ikuspegia txertatzeko neurriak.

40. 1/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa, Bizkaiko Gardentasunari buruzkoa. Aplikazio-eremua (2. art.); publikotasun aktiboa: kontzeptua eta dimentsioak (5. art.); informazio publikoa eskuratzeko eskubidea: kontzeptua (18. art.), mugak (21. art.); Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordea (28. eta 29. art.).

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

HAUTAKETA-PROZESURAKO DEIALDIA, KARRERAKO FUNTZIONARIO SARTZEKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALAN, E TALDEKO LANBIDE-TALDEA, BEHARGINA: EGONKORTZE-PLAZAK

1.Deialdian eskainitako plazak

Deialdia egiten da BEHARGINen hiru (3) plaza betetzeko ondoren adierazten den moduan banaturik, kontuan hartuta Bizkaiko Foru Aldundiaren Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Lehen Programaren Bosgarren Jarduketa Zikloa, 2021eko abenduaren 21ean onartua.

. - Txanda irekia:

Plaza bat (1) ibilgailuen mekanikari, gidari eta banatzailea lanpostuari lotua, derrigorrezkoa ez den I. hizkuntza-eskakizunarekin.

Plaza bat (1) foru-eraikinak mantentzeko behargina lanpostuari lotua, derrigorrezkoa ez den I. hizkuntza-eskakizunarekin.

. - Desgaitasuna dutenentzako txanda:

Plaza bat (1) foru-eraikinak mantentzeko behargina lanpostuari lotua, derrigorrezkoa ez den I. hizkuntza-eskakizunarekin.

Deialdi hau 2008ko uztailaren 9ko Erabakia aplikatuz egiten da, Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Sailaren (gaur egungo Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren) Egitura Organikoaren Erregelamendua onartzen duen otsailaren 19ko 14/2008 Foru Dekretuaren 4. artikulua betez, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko lehen Programako Jarduketen Bosgarren Zikloa aplikatuz (2021eko abenduaren 21ean onartu zen).

2. Titulazioa

Ez da titulaziorik eskatzen.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

3. Baldintza espezifikoak

3.1. Lanpostu batzuek baldintza hauek dituzte:

.- Ibilgailuen mekanikari, gidari eta banatzailea lanpostuak C gidabaimena (lehengo C2 gidabaimena).

.- Ibilgailuen mekanikari, gidari eta banatzailea lanpostuak salgaien garraiorako GPA.

3.2. Urriaren 30eko 5/2015 ELDaren 56.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, baldintza espezifikoa izango da IT txartel hau edukitzea: Word oinarrizkoa (baliodunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010). Word aurreratuaren IT txartelak Word oinarrizkoarena baliozkotuko du.

Ziurtagiria eskuratzeko proba egin ahal izateko, egiaztatutako zentro batean eman beharko da izena. Zentroen zerrenda osoa helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke: www.it-txartela.net.

Izen-ematea www.it-txartela.net helbidean egin daiteke. Informazioa eskura daiteke aipatutako helbide elektronikoan eta bide hauetakoren bat erabilita:

a) Aurrez aurre, egiaztatutako edozein zentrotara joanda.

b) Telefonoz, 902 25 25 95 zenbakira deituta.

Baldintza espezifiko hau betetzeko, aipatutako txartelak ez dituztenei bi (2) hilabeteko epea ematen zaie, deialdi hau BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Izangaiek ez dute agiririk aurkeztu beharko, Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten.

Txartelok epe horretan eskuratzen ez dituen izangaia hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko da.

4. Hautaketa-prozedura

4.1. OPOSIZIO-FASEA

Oposizio-faseak bi (2) ariketa izango ditu: lehenengoa nahitaezkoa eta baztertzailea, eta bigarrena, euskara proba, borondatezkoa eta ez-baztertzailea.

4.1.1. Lehenengo ariketak bi zati izango ditu:

a) Lehenengo zatia, teorikoa: hogeita hamar (30) minutuan, hamabost (15) galderako test bat egin beharko da. Galderak II. eranskineko gaiei buruzkoak izango dira, eta aukerako zenbait erantzun izango dituzte, baina bat baino ez da zuzena izango. Erantzun zuzenak hiru (3) puntuko balioa izango du, eta ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik, zuriz utzitakoengatik edo erantzun bi markatzeagatik, eta erreserbako galderak egongo dira.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

b) Bigarren zatia, praktikoa: hogei (20) minutuan, ariketa hasi baino lehentxeago epaimahaiak zehaztutako hamar (10) galderako galdera-sorta erantzun beharko da. Galderak II. eranskineko gaiei buruzkoak izango dira. Erantzun anitzeko galderak dituen galdetegi batean aukeratu beharko dira erantzunak. Erantzun zuzenak puntu bat (1) balioko du, eta ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik, zuriz utzitakoengatik edo erantzun bi markatzeagatik, eta erreserbako galderak egongo dira.

Lehengo ariketaren bi zatiak egun berean egingo dira, bata bestearen ostean; epaimahaiak atsedenaldia eman ahal izango die izangaiei zatien artean.

Peoien eta/edo zerbitzuetako langileen kategoriei dagozkien ariketak ere egin nahi dituzten izangaiek horren berri eman beharko dute eskabidean, eta ariketa guztiak batera egingo dituzte egun berean, bakoitzari dagokion denborarekin.

4.1.2. Bigarren ariketa:

Euskara-proba: borondatezkoa eta ez-baztertzailea izango da; betiere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da I. hizkuntza-eskakizunari dagokion mailan.

Bizkaiko Foru Aldundian I. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Halakoetan, parte-hartzaileak baimen espresua emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala ere, aurkeztu egin beharko dituzte azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta egon badauden baina erregistro horretan sartuta ez dauden gainerako euskara-titulu edo -ziurtagiriak; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Izangaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean egiaztatu nahi badute I. hizkuntza-eskakizuna, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko da.

4.2. LEHIAKETA

Lehiaketan, izangaiek aurkeztu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) dagozkion puntuak emango zaizkio.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1. Merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketa-fasearen kalifikazioa.

5.2. Oposizio-fasea:

a) Lehenengo ariketan, zero (0) eta hogei (20) puntu arteko kalifikazioa jarriko da, honela banaturik: a) zatian, zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa jarriko da; b) zatian, zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa jarriko da. Zati bietako emaitzen batuketa aritmetikoa eginez jarriko dira kalifikazioak. Ariketa gaindituko dute bi zatien artean hamar (10) puntu lortzen dituztenek, betiere zatietako bakoitzean gutxienez bi puntu eta erdi (2,5) lortzen badituzte.

b) Bigarren ariketan, euskarazko proban hain zuzen ere, puntuazio hau emango da, egiaztatutako hizkuntza-eskakizunaren arabera:

- I. hizkuntza-eskakizuna: 1,25 puntu

Ezingo da eskuratu lortu nahi den lanpostuaren hizkuntza-eskakizunari dagokiona baino goragoko puntuaziorik.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

6. Lan-poltsa

Hautaketa-prozesu honetatik ez da lan-poltsarik sortuko.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

I. ERANSKINA

EGONKORTZE-PLAZETARAKO MEREZIMENDUEN BAREMOA

ESPEZIALITATEA: BEHARGINA

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan eta azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat:

1. Esperientzia; gehienez ere 13 puntu, honela banatuta:

1.a) Edozein administrazio publikotan BEHARGIN kategorian edo EPOELTBren seigarren xedapen gehigarrian aipatutako gainerako lanbide-taldeetako edozeinetan (E titulazio-taldea) egindako zerbitzuengatik: 0,0434 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere ehun (100) hilabete. 4,34 puntu

1.b) Aurreko atalean adierazitako esperientziatik bereizirik, modu espezifiko eta osagarrian, Bizkaiko Foru Aldundian BEHARGIN kategorian, (E titulazio-taldea) egindako zerbitzuengatik: 0,0868 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere ehun (100) hilabete 8,68 puntu

Ondorio horietarako, Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Sailaren (gaur egungo Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren) Egitura Organikoari buruzko Araudia onesten duen otsailaren 19ko 14/2008 Foru Dekretuaren 4. artikulua betez hartutako 2008ko uztailaren 9ko Erabakian ezarritakoa aplikatuz, kategoria hauetan emandako zerbitzuak zenbatuko dira: MENPEKOA, ZERBITZARI-GARBITZAILEA eta JAGOLE GARBITZAILEA.

Halaber, eta aintzat harturik zer ezartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Lehen Programaren Bosgarren Jarduketa Zikloaren Erabakiak, 2021eko abenduaren 21ean onartuak, kategoria hauetan emandako zerbitzuak zenbatuko dira: GIDARIA, BEHARGINA, ZERBITZUETAKO LANGILEA eta MENPEKOA.

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira administrazio publikotzat: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikuluetan jasotako erakundeak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 2.1 eta 2.3 artikuluetan jasoak. Orobat zenbatuko dira zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan egindako zerbitzuak, baina inola ere ez izaera publikoko beste erakunde batzuetan egindakoak, baldin eta enpresa, merkataritza-sozietate, fundazio edo elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa badute.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbitzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatikirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan egindako zerbitzu-aldi guztiak lanaldi osoan egindakotzat joko dira.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legearen 20.1.c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientzia baloratzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ere: lehenik, zenbat denbora egon den izangaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen izangaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

II. ERANSKINA

BEHARGINEN EGONKORTZE-PLAZETARAKO GAIAK

1. gaia.- Automobila: 1.1 Definizioa; 1.2 Ibilgailu bat osatzen duten elementuak; 1.3 Motorra; 1.4 Enbragea; 1.5 Abiadura-kaxa; 1.6 Transmisioa; 1.7 Diferentziala; 1.8 Gurpilak; 1.9 Frenatze-sistema; 1.10 Direkzioa; 1.11 Txasisa eta karrozeria; 1.12 Esekidura; 1.13 Sistema elektrikoa.

2. gaia.- Ibilgailuen mantentze-lanak: 1.1 Aldizkako zaintzak eta kontrolak; 1.2 Funtzionamenduak eragindako higadura naturalaren ondorioz ordeztu behar diren elementuak. 2. Matxura ohikoenak. Konponketak. 2.1 Motorreko matxurak; 2.2 Ibilgailuaren esekiduran izaten diren matxurak; 2.3 Ibilgailuaren direkzioan izaten diren matxurak; 2.4 Enbrageko matxurak; 2.5 Abiadura-kaxako matxurak; 2.6 Atzeko zubiko matxurak; 2.7 Frenoetako matxurak. 3. Ibilgailuen ikuzketa eta garbiketa: 3.1 Ibilgailu berrien garbiketa; 3.2 Turismo, kamioi eta makinen kanpoko garbiketa; 3.3 Turismo, kamioi eta makinen barruko garbiketa; 3.4 Motorraren eta laneko elementuen garbiketa.

3. gaia.-Iturgintza: Sarrera. Instalazioak. Hodiak. Osagarriak. Balbulak. Erremintak eta tresnak. Praktikak. Iturgintzako matxura arrunten konponketari buruzko ezagutza.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

HAUTAPROBETARAKO DEIALDIA, KARRERAKO FUNTZIONARIO SARTZEKO ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAN. E TALDEKO LANBIDE-TALDEA, PEOIA: EGONKORTZE-PLAZAK.

1.Deialdian eskainitako plazak

Deialdia egiten da PEOI plaza bat (1) betetzeko (E titulazio-taldea), txanda irekitik derrigorrezkoa ez den I. hizkuntza-eskakizuna duena, kontuan hartuta Bizkaiko Foru Aldundiaren Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Lehen Programaren Bosgarren Jarduketa Zikloa, 2021eko abenduaren 21ean onartua.

Deialdi hau 2008ko uztailaren 9ko Erabakia aplikatuz egiten da, Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Sailaren (gaur egungo Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren) Egitura Organikoaren Erregelamendua onartzen duen otsailaren 19ko 14/2008 Foru Dekretuaren 4. artikulua betez, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko lehen Programaren Bosgarren Jarduketa Zikloa aplikatuz (2021eko abenduaren 21ean onartu zen).

2. Titulazioa

Ez da titulaziorik eskatzen.

3. Baldintza espezifikoak

3.1. Lanpostuak baldintza hau dauka:

.- B gidabaimena (lehengo B1 gidabaimena)

3.2. Urriaren 30eko 5/2015 ELDaren 56.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, baldintza espezifikoa izango da IT txartel hau edukitzea: Word oinarrizkoa (baliodunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010). Word aurreratuaren IT txartelak Word oinarrizkoarena baliozkotuko du.

Ziurtagiria eskuratzeko proba egin ahal izateko, egiaztatutako zentro batean eman beharko da izena. Zentroen zerrenda osoa helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke: www.it-txartela.net.

Izen-ematea www.it-txartela.net helbidean egin daiteke. Informazioa eskura daiteke aipatutako helbide elektronikoan eta bide hauetakoren bat erabilita:

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

a) Aurrez aurre, egiaztatutako edozein zentrotara joanda.

b) Telefonoz, 902 25 25 95 zenbakira deituta.

Baldintza espezifiko hau betetzeko, aipatutako txartelak ez dituztenei bi (2) hilabeteko epea ematen zaie, deialdi hau BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Izangaiek ez dute agiririk aurkeztu beharko, Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten.

Txartelok epe horretan eskuratzen ez dituen izangaia hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko da.

4. Hautaketa-prozedura

4.1. OPOSIZIO-FASEA

Oposizio-faseak bi (2) ariketa izango ditu: lehenengoa nahitaezkoa eta baztertzailea, eta bigarrena, euskara proba, borondatezkoa eta ez-baztertzailea.

4.1.1. Lehenengo ariketak bi zati izango ditu:

a) Lehenengo zatia, teorikoa: hogeita hamar (30) minutuan, hamabost (15) galderako test bat egin beharko da. Galderak II. eranskineko gaiei buruzkoak izango dira, eta aukerako zenbait erantzun izango dituzte, baina bat baino ez da zuzena izango. Erantzun zuzenak hiru (3) puntu balioko du, eta ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik, zuriz utzitakoengatik edo erantzun bi markatzeagatik, eta erreserbako galderak egongo dira.

b) Bigarren zatia, praktikoa: hogei (20) minutuan, ariketa hasi baino lehentxeago epaimahaiak zehaztutako hamar (10) galderako galdera-sorta erantzun beharko da. Galderak II. eranskineko gaiei buruzkoak izango dira. Erantzun anitzeko galderak dituen galdetegi batean aukeratu beharko dira erantzunak. Erantzun zuzenak puntu bat (1) balioko du, eta ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik, zuriz utzitakoengatik edo erantzun bi markatzeagatik, eta erreserbako galderak egongo dira.

Lehengo ariketaren bi zatiak egun berean egingo dira, bata bestearen ostean; epaimahaiak atsedenaldia eman ahal izango die izangaiei zatien artean.

Beharginen eta/edo zerbitzuetako langileen kategoriei dagozkien ariketak ere egin nahi dituzten izangaiek horren berri eman beharko dute eskabidean, eta ariketa guztiak batera egingo dituzte egun berean, bakoitzari dagokion denborarekin.

4.1.2. Bigarren ariketa:

Euskara-proba: borondatezkoa eta ez-baztertzailea izango da; betiere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da I. hizkuntza-eskakizunari dagokion mailan.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Bizkaiko Foru Aldundian I. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Halakoetan, parte-hartzaileak baimen espresua emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala ere, aurkeztu egin beharko dituzte azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta egon badauden baina erregistro horretan sartuta ez dauden gainerako euskara-titulu edo -ziurtagiriak; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Izangaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean egiaztatu nahi badute I. hizkuntza-eskakizuna, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko da.

4.2. LEHIAKETA

Lehiaketan, izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) dagozkion puntuak emango zaizkio.

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1. Merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketaren kalifikazioa.

5.2. Oposizio-fasea:

a) Lehenengo ariketan, zero (0) eta hogei (20) puntu arteko kalifikazioa jarriko da, honela banaturik: a) zatian, zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa jarriko da; b) zatian, zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa jarriko da. Zati bietako emaitzen batuketa aritmetikoa eginez jarriko dira kalifikazioak. Ariketa gaindituko dute bi zatien artean hamar (10) puntu lortzen dituztenek, betiere zatietako bakoitzean gutxienez bi puntu eta erdi (2,5) lortzen badituzte.

b) Bigarren ariketan, euskarazko proban hain zuzen ere, puntuazio hau emango da, egiaztatutako hizkuntza-eskakizunaren arabera:

- I. hizkuntza-eskakizuna: 1,25 puntu

Ezingo da eskuratu lortu nahi den lanpostuaren hizkuntza-eskakizunari dagokiona baino goragoko puntuaziorik.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

6. Lan-poltsa

Hautaketa-prozesu honetatik ez da lan-poltsarik sortuko.

I. ERANSKINA

EGONKORTZE-PLAZETARAKO MEREZIMENDUEN BAREMOA

ESPEZIALITATEA: PEOIA

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan eta azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat:

1. Esperientzia; gehienez ere 13 puntu, honela banatuta:

Edozein administrazio publikotan PEOI kategorian edo EPOELTBren seigarren xedapen gehigarrian aipatutako gainerako lanbide-taldeetako edozeinetan (E titulazio-taldea) egindako zerbitzuengatik: 0,0434 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere ehun (100) hilabete 4,34 puntu

1.b) Aurreko atalean adierazitako esperientziatik bereizirik, modu espezifiko eta osagarrian, Bizkaiko Foru Aldundian PEOI kategorian (E titulazio-taldea) egindako zerbitzuengatik: 0,0868 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere ehun (100) hilabete. 8,68 puntu

Ondorio horietarako, Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Sailaren (gaur egungo Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren) Egitura Organikoari buruzko Araudia onesten duen otsailaren 19ko 14/2008 Foru Dekretuaren 4. artikulua betez hartutako 2008ko uztailaren 9ko Erabakian ezarritakoa aplikatuz, kategoria hauetan emandako zerbitzuak zenbatuko dira: MENPEKOA, ZERBITZARI-GARBITZAILEA eta JAGOLE GARBITZAILEA.

Halaber, eta aintzat harturik zer ezartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Lehen Programaren Bosgarren Jarduketa Zikloaren Erabakiak, 2021eko abenduaren 21ean onartuak, kategoria hauetan emandako zerbitzuak zenbatuko dira: GIDARIA, BEHARGINA, ZERBITZUETAKO LANGILEA eta MENPEKOA.

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira administrazio publikotzat: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikuluetan jasotako erakundeak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 2.1 eta 2.3 artikuluetan jasoak. Orobat zenbatuko dira zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan egindako zerbitzuak, baina inola ere ez izaera publikoko beste erakunde batzuetan egindakoak, baldin eta enpresa, merkataritza-sozietate, fundazio edo elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa badute.

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbitzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatikirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan egindako zerbitzu-aldi guztiak lanaldi osoan egindakotzat joko dira.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legearen 20.1.c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientzia baloratzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ere: lehenik, zenbat denbora egon den izangaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen izangaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

II. ERANSKINA

PEOIAREN EGONKORTZE-PLAZARAKO GAIAK

1. gaia.- Igeltserotza: Materialak. Tresnak. Eraikuntza-elementuak. Teknikak. Glosarioa. Igeltserotzako matxura arrunten konponketari buruzko ezagutza.

2. gaia.- Iturgintza: Sarrera. Instalazioak. Hodiak Osagarriak. Balbulak. Erremintak eta tresnak. Praktikak. Iturgintzako matxura arrunten konponketari buruzko ezagutza.

3. gaia.- Arotzeria: Kontzeptu orokorrak. Arotzeriako oinarrizko tresnak eta erremintak. Arotzeriako oinarrizko teknikak. Egur-motak. Mantentze- eta konponketa-lan ohikoenak. Altzariak eta tresnak konpontzea eta mantentzea.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

HAUTAKETA-PROZESURAKO DEIALDIA, KARRERAKO FUNTZIONARIO SARTZEKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALAN. E TALDEKO LANBIDE-TALDEA, ZERBITZUETAKO LANGILEA: EGONKORTZE-PLAZAK

1.Deialdian eskainitako plazak

Deialdia egiten da ZERBITZUETAKO LANGILEEN bi (2) plaza betetzeko (E titulazio-taldea), txanda irekitik derrigorrezko II. hizkuntza-eskakizuna dutenak, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan ezarritakoaren babesean.

Deialdi hau 2008ko uztailaren 9ko Erabakia aplikatuz egiten da, Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Sailaren (gaur egungo Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren) Egitura Organikoaren Erregelamendua onartzen duen otsailaren 19ko 14/2008 Foru Dekretuaren 4. artikulua betez, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko lehen Programaren Bosgarren Jarduketa Zikloa aplikatuz (2021eko abenduaren 21ean onartu zen).

2. Titulazioa

Ez da titulaziorik eskatzen.

3. Baldintza espezifikoak

Urriaren 30eko 5/2015 ELDaren 56.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, baldintza espezifikoa izango da IT txartel hau edukitzea: Word oinarrizkoa (baliodunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010). Word aurreratuaren IT txartelak Word oinarrizkoarena baliozkotuko du.

Ziurtagiria eskuratzeko proba egin ahal izateko, egiaztatutako zentro batean eman beharko da izena. Zentroen zerrenda osoa helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke: www.it-txartela.net.

Izen-ematea www.it-txartela.net helbidean egin daiteke. Informazioa eskura daiteke aipatutako helbide elektronikoan eta bide hauetakoren bat erabilita:

a) Aurrez aurre, egiaztatutako edozein zentrotara joanda.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

b) Telefonoz, 902 25 25 95 zenbakira deituta.

Baldintza espezifiko hau betetzeko, aipatutako txartelak ez dituztenei bi (2) hilabeteko epea ematen zaie, deialdi hau BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Izangaiek ez dute agiririk aurkeztu beharko, Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten.

Txartelok epe horretan eskuratzen ez dituen izangaia hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko da.

4. Hautaketa-prozedura

4.1. OPOSIZIO-FASEA

Oposizio faseak bi (2) ariketa izango ditu; biak derrigorrezkoak eta baztertzaileak.

4.1.1. Lehenengo ariketak bi zati izango ditu:

a) Lehenengo zatia, teorikoa: hogeita hamar (30) minutuan, hamabost (15) galderako test bat egin beharko da. Galderak II. eranskineko gaiei buruzkoak izango dira, eta aukerako zenbait erantzun izango dituzte, baina bat baino ez da zuzena izango. Erantzun zuzenak hiru (3) puntu balioko du, eta ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik, zuriz utzitakoengatik edo erantzun bi markatzeagatik, eta erreserbako galderak egongo dira.

b) Bigarren zatia, praktikoa: hogei (20) minutuan, ariketa hasi baino lehentxeago epaimahaiak zehaztutako hamar (10) galderako galdera-sorta erantzun beharko da. Galderak II. eranskineko gaiei buruzkoak izango dira. Erantzun anitzeko galderak dituen galdetegi batean aukeratu beharko dira erantzunak. Erantzun zuzenak puntu bat (1) balioko du, eta ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik, zuriz utzitakoengatik edo erantzun bi markatzeagatik, eta erreserbako galderak egongo dira.

Lehengo ariketaren bi zatiak egun berean egingo dira, bata bestearen ostean; epaimahaiak atsedenaldia eman ahal izango die izangaiei zatien artean.

Peoien eta/edo beharginen kategoriei dagozkien ariketak ere egin nahi dituzten izangaiek horren berri eman beharko dute eskabidean, eta ariketa guztiak batera egingo dituzte egun berean, bakoitzari dagokion denborarekin.

4.1.2. Bigarren ariketa:

Euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailea izango da; betiere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da II. hizkuntza-eskakizunari dagokion mailan.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Bizkaiko Foru Aldundian II. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Halakoetan, parte-hartzaileak baimen espresua emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala ere, aurkeztu egin beharko dituzte azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta egon badauden baina erregistro horretan sartuta ez dauden gainerako euskara-titulu edo -ziurtagiriak; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Izangaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean egiaztatu nahi badute II. hizkuntza-eskakizuna, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko da.

4.2. LEHIAKETA

Lehiaketan, izangaiek aurkeztu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Horretarako, hautagai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera dagozkion puntuak emango zaizkio (I. eranskina).

### 5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1. Merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketaren kalifikazioa.

5.2. Lehenengo ariketan, zero (0) eta hogei (20) puntu arteko kalifikazioa jarriko da, honela banaturik: a) zatian, zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa jarriko da; b) zatian, zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa jarriko da. Zati bietako emaitzen batuketa aritmetikoa eginez jarriko dira kalifikazioak. Ariketa gaindituko dute bi zatien artean hamar (10) puntu lortzen dituztenek, betiere zatietako bakoitzean gutxienez bi puntu eta erdi (2,5) lortzen badituzte.

Bigarren ariketan (euskara), «gai» edo «ez gai» izango da kalifikazioa.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

### 6. Lan-poltsa

Hautaketa-prozesu honetatik ez da lan-poltsarik sortuko.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

I. ERANSKINA

EGONKORTZE-PLAZETARAKO MEREZIMENDUEN BAREMOA

ESPEZIALITATEA: ZERBITZUETAKO LANGILEA

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan eta azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat:

1.- Esperientzia; gehienez ere 13 puntu, honela banatuta:

1.a) Edozein administrazio publikotan ZERBITZUETAKO LANGILEA kategorian edo EPOELTBren seigarren xedapen gehigarrian aipatutako gainerako lanbide-taldeetako edozeinetan (E titulazio-taldea) egindako zerbitzuengatik: 0,0434 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere ehun (100) hilabete. 4,34 puntu

2.b) Aurreko atalean adierazitako esperientziatik bereizirik, modu espezifiko eta osagarrian, Bizkaiko Foru Aldundian ZERBITZUETAKO LANGILEA kategorian (E titulazio-taldea) egindako zerbitzuengatik: 0,0868 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere ehun (100) hilabete. 8,68 puntu

Ondorio horietarako, Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Sailaren (gaur egungo Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren) Egitura Organikoari buruzko Araudia onesten duen otsailaren 19ko 14/2008 Foru Dekretuaren 4. artikulua betez hartutako 2008ko uztailaren 9ko Erabakian ezarritakoa aplikatuz, kategoria hauetan emandako zerbitzuak zenbatuko dira: MENPEKOA, ZERBITZARI-GARBITZAILEA eta JAGOLE GARBITZAILEA.

Halaber, eta aintzat harturik zer ezartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Lehen Programaren Bosgarren Jarduketa Zikloaren Erabakiak, 2021eko abenduaren 21ean onartuak, kategoria hauetan emandako zerbitzuak zenbatuko dira: GIDARIA, BEHARGINA, ZERBITZUETAKO LANGILEA eta MENPEKOA.

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira administrazio publikotzat: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikuluetan jasotako erakundeak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 2.1 eta 2.3 artikuluetan jasoak. Orobat zenbatuko dira zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan egindako zerbitzuak, baina inola ere ez izaera publikoko beste erakunde batzuetan egindakoak, baldin eta enpresa, merkataritza-sozietate, fundazio edo elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa badute.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbitzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatikirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan egindako zerbitzu-aldi guztiak lanaldi osoan egindakotzat joko dira.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legearen 20.1.c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientzia baloratzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ere: lehenik, zenbat denbora egon den izangaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen izangaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

II. ERANSKINA

ZERBITZUETAKO LANGILEEN EGONKORTZE-PLAZETARAKO GAIAK

1. gaia.- 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa. Bizkaiko Batzar Nagusiak. Izaera, eskumenak eta osaera. Bizkaiko Foru Aldundia: izaera, osaera eta kargua uztea. Eskumenak.

2. gaia.- Administrazio-prozedura erkidea. Administrazio-prozedura erkidearen faseak: hasiera, antolamendua, instrukzioa eta amaiera.

3. gaia.- 31/1995 Legea, laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa. Definizioak. (4. artikulua) Laneko arriskuen aurrean babesa izateko eskubidea. Prebentzio-ekintzaren printzipioak. (14. eta 15. artikuluak.). Larrialdi- eta ebakuazio-planei buruzko oinarrizko ezagutzak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

HAUTAKETA-PROZESURAKO DEIALDIA, KARRERAKO FUNTZIONARIO SARTZEKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALAN. E TALDEKO LANBIDE-TALDEA, HAINBAT ZERBITZUTARAKO LANGILEA: EGONKORTZE-PLAZAK ETA ARRUNTAK

LEHENENGOA: EGONKORTZE-PLAZAK

1.Deialdian eskainitako plazak

Deialdia egiten da HAINBAT ZERBITZUTARAKO LANGILEen plaza bat (1) txanda irekitik betetzeko (E titulazio-taldea), derrigorrezko II. hizkuntza-eskakizuna duena, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan ezarritakoaren babesean.

Deialdi hau 2008ko uztailaren 9ko Erabakia aplikatuz egiten da, Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Sailaren (gaur egungo Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren) Egitura Organikoari buruzko Araudia onesten duen otsailaren 19ko 14/2008 Foru Dekretuaren 4. artikulua betez, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Lehen Programaren Bosgarren Jarduketa Zikloa aplikatuz (2021eko abenduaren 21ean onartu zen).

2. Titulazioa

Ez da titulaziorik eskatzen.

3. Baldintza espezifikoak

Urriaren 30eko 5/2015 ELDaren 56.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, baldintza espezifikoa izango da IT txartel hau edukitzea: Word oinarrizkoa (baliodunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010). Word aurreratuaren IT txartelak Word oinarrizkoarena baliozkotuko du.

Ziurtagiria eskuratzeko proba egin ahal izateko, egiaztatutako zentro batean eman beharko da izena. Zentroen zerrenda osoa helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke: www.it-txartela.net.

Izen-ematea www.it-txartela.net helbidean egin daiteke. Informazioa eskura daiteke aipatutako helbide elektronikoan eta bide hauetakoren bat erabilita:

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA BAO
248. zk. 2022, abenduak 30. Ostirala 333. orr.

a) Aurrez aurre, egiaztatutako edozein zentrotara joanda.

b) Telefonoz, 902 25 25 95 zenbakira deituta.

Baldintza espezifiko hau betetzeko, aipatutako txartelak ez dituztenei bi (2) hilabeteko epea ematen zaie, deialdi hau BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Izangaiek ez dute agiririk aurkeztu beharko, Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten.

Txartelok epe horretan eskuratzen ez dituen izangaia hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko da.

## 4. Hautaketa-prozedura

### 4.1. OPOSIZIO-FASEA

Oposizio faseak bi (2) ariketa izango ditu; biak derrigorrezkoak eta baztertzaileak.

4.1.1. Lehenengo ariketak bi zati izango ditu:

a) Lehenengo zatia, teorikoa: hogeita hamar (30) minutuan, hamabost (15) galderako test bat egin beharko da. Galderak II. eranskineko gaiei buruzkoak izango dira, eta aukerako zenbait erantzun izango dituzte, baina bat baino ez da zuzena izango. Erantzun zuzenak hiru (3) puntu balioko du, eta ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik, zuriz utzitakoengatik edo erantzun bi markatzeagatik, eta erreserbako galderak egongo dira.

b) Bigarren zatia, praktikoa: hogei (20) minutuan, ariketa hasi baino lehentxeago epaimahaiak zehaztutako hamar (10) galderako galdera-sorta erantzun beharko da. Galderak II. eranskineko gaiei buruzkoak izango dira. Erantzun anitzeko galderak dituen galdetegi batean aukeratu beharko dira erantzunak. Erantzun zuzenak puntu bat (1) balioko du, eta ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik, zuriz utzitakoengatik edo erantzun bi markatzeagatik, eta erreserbako galderak egongo dira.

Lehengo ariketaren bi zatiak egun berean egingo dira, bata bestearen ostean; epaimahaiak atsedenaldia eman ahal izango die izangaiei zatien artean.

Peoien, beharginen eta/edo zerbitzuetako langileen kategoriei dagozkien ariketak ere egin nahi dituzten izangaiek horren berri eman beharko dute eskabidean, eta ariketa guztiak batera egingo dituzte egun berean, bakoitzari dagokion denborarekin.

4.1.2. Bigarren ariketa:

Euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailea izango da; betiere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da II. hizkuntza-eskakizunari dagokion mailan.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Bizkaiko Foru Aldundian II. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Halakoetan, parte-hartzaileak baimen espresua emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala ere, aurkeztu egin beharko dituzte azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta egon badauden baina erregistro horretan sartuta ez dauden gainerako euskara-titulu edo -ziurtagiriak; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Izangaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean egiaztatu nahi badute II. hizkuntza-eskakizuna, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko da.

4.2. LEHIAKETA

Lehiaketan, izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) dagozkion puntuak emango zaizkio.

## 5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1. Merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketaren kalifikazioa.

5.2. Lehenengo ariketan, zero (0) eta hogei (20) puntu arteko kalifikazioa jarriko da, honela banaturik: a) zatian, zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa jarriko da; b) zatian, zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa jarriko da. Zati bietako emaitzen batuketa aritmetikoa eginez jarriko dira kalifikazioak. Ariketa gaindituko dute bi zatien artean hamar (10) puntu lortzen dituztenek, betiere zatietako bakoitzean gutxienez bi puntu eta erdi (2,5) lortzen badituzte.

Bigarren ariketan (euskara), «gai» edo «ez gai» izango da kalifikazioa.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

## 6. Lan-poltsa

Hautaketa-prozesu honetatik ez da lan-poltsarik sortuko.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

I. ERANSKINA

EGONKORTZE-PLAZETARAKO MEREZIMENDUEN BAREMOA

ESPEZIALITATEA: HAINBAT ZERBITZUTARAKO LANGILEA

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan eta azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat:

1.- Esperientzia; gehienez ere 13 puntu, honela banatuta:

1.a) Edozein administrazio publikotan HAINBAT ZERBITZUTARAKO LANGILEA kategorian edo EPOELTBren seigarren xedapen gehigarrian aipatutako gainerako lanbide-taldeetako edozeinetan (E titulazio-taldea) egindako zerbitzuengatik: 0,0434 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere ehun (100) hilabete. 4,34 puntu

2.b) Aurreko atalean adierazitako esperientziatik bereizirik, modu espezifiko eta osagarrian, Bizkaiko Foru Aldundian HAINBAT ZERBITZUTARAKO LANGILEA kategorian (E titulazio-taldea) egindako zerbitzuengatik: 0,0868 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere ehun (100) hilabete. 8,68 puntu

Ondorio horietarako, Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Sailaren (gaur egungo Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren) Egitura Organikoari buruzko Araudia onesten duen otsailaren 19ko 14/2008 Foru Dekretuaren 4. artikulua betez hartutako 2008ko uztailaren 9ko Erabakian ezarritakoa aplikatuz, kategoria hauetan emandako zerbitzuak zenbatuko dira: MENPEKOA, ZERBITZARI-GARBITZAILEA eta JAGOLE GARBITZAILEA.

Halaber, eta aintzat harturik zer ezartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Lehen Programaren Bosgarren Jarduketa Zikloaren Erabakiak, 2021eko abenduaren 21ean onartuak, kategoria hauetan emandako zerbitzuak zenbatuko dira: GIDARIA, BEHARGINA, ZERBITZUETAKO LANGILEA eta MENPEKOA.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira administrazio publikotzat: urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateginaren 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikuluetan jasotako erakundeak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 2.1 eta 2.3 artikuluetan jasotakoak. Halaber, zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan egindako zerbitzuak zenbatuko dira, baina inola ere ez izaera publikoko beste erakunde batzuetan egindakoak, baldin eta enpresa, merkataritza-sozietate, fundazio edo elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa badute.

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbitzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatikirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan egindako zerbitzu-aldi guztiak lanaldi osoan egindakotzat joko dira.

Era berean, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.1.c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientzia baloratzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ere: lehenik, zenbat denbora egon den izangaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen izangaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

EGONKORTZE-PLAZETARAKO GAI-ZERRENDA

KATEGORIA: HAINBAT ZERBITZUTARAKO LANGILEA

1. gaia.- 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa. Bizkaiko Batzar Nagusiak. Izaera, eskumenak eta osaera. Bizkaiko Foru Aldundia: izaera, osaera eta kargua uztea. Eskumenak.

2. gaia.- Administrazio-prozedura erkidea. Administrazio-prozedura erkidearen faseak: hasiera, antolamendua, instrukzioa eta amaiera.

3. gaia.- 31/1995 Legea, laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa. Definizioak. (4. artikulua) Laneko arriskuen aurrean babesa izateko eskubidea. Prebentzio-ekintzaren printzipioak. (14. eta 15. artikuluak.). Larrialdi- eta ebakuazio-planei buruzko oinarrizko ezagutzak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

BIGARRENA: PLAZA ARRUNTAK

1.Deialdian eskainitako plazak

Deialdia egiten da HAINBAT ZERBITZUTARAKO LANGILEen (E titulazio-taldea) hamasei (16) plaza txanda irekitik betetzeko, ondoren adierazten den moduan banaturik, kontuan hartuta Bizkaiko Foru Aldundiaren Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Lehen Programaren Bosgarren Jarduketa Zikloa, 2021eko abenduaren 21ean onartua.

. - Lehendakaritzako gidari-txofer lanpostuari lotutako plaza bat (1), derrigorrezkoa ez den I. hizkuntza-eskakizunarekin.

. – Mendeko lanpostuari lotutako bederatzi (9) plaza, II. hizkuntza-eskakizunarekin; haietariko zazpitan (7) derrigorrezkoa eta bitan (2) ez-derrigorrezkoa.

. - Mantentze-lanetako behargin-gidaria lanpostuari lotutako bost (5) plaza, derrigorrezkoa ez den I. hizkuntza-eskakizunarekin.

. - Ibilgailuen mekanikari, gidari eta banatzailea lanpostuari lotutako plaza bat (1), derrigorrezkoa ez den I. hizkuntza-eskakizunarekin.

Deialdi hau Bizkaiko Foru Aldundiaren Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Lehen Programaren Bosgarren Jarduketa Zikloaren Erabakian ezarritakoa aplikatuz egiten da (2021eko abenduaren 21ean onartu zen).

2. Titulazioa

Ez da titulaziorik eskatzen.

3. Baldintza espezifikoak

3.1. Lanpostu batzuek baldintza hauek dituzte:

. - Lehendakaritzako gidari-txofer lanpostuak eta ibilgailuen mekanikari, gidari eta banatzailea lanpostuak C gidabaimena (lehengo C2 gidabaimena).

. - Mantentze-lanetako behargin-gidaria lanpostuak B gidabaimena (lehengo B1 gidabaimena).

. - Ibilgailuen mekanikari, gidari eta banatzailea lanpostuak salgaien garraiorako GPA.

3.2. Urriaren 30eko 5/2015 ELDaren 56.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, baldintza espezifikoa izango da IT txartel hau edukitzea: Word oinarrizkoa (baliodunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010). Word aurreratuaren IT txartelak Word oinarrizkoarena baliozkotuko du.

Ziurtagiria eskuratzeko proba egin ahal izateko, egiaztatutako zentro batean eman beharko da izena. Zentroen zerrenda osoa helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke: www.it-txartela.net.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Izen-ematea www.it-txartela.net helbidean egin daiteke. Informazioa eskura daiteke aipatutako helbide elektronikoan eta bide hauetakoren bat erabilita:

a) Aurrez aurre, egiaztatutako edozein zentrotara joanda.

b) Telefonoz, 902 25 25 95 zenbakira deituta.

Baldintza espezifiko hau betetzeko, aipatutako txartelak ez dituztenei bi (2) hilabeteko epea ematen zaie, deialdi hau BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Izangaiek ez dute agiririk aurkeztu beharko, Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten.

Txartelok epe horretan eskuratzen ez dituen izangaia hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko da, baita osatuko den lan-poltsatik ere.

4. Hautaketa-prozedura

4.1. OPOSIZIO-FASEA

Oposizio-faseak bi (2) ariketa izango ditu: lehenengoa nahitaezkoa eta baztertzailea izango da; bigarrena nahitaezkoa eta baztertzailea izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten plazetarako, eta borondatezkoa eta ez-baztertzailea gainerako plazetarako.

4.1- Lehenengo ariketak bi zati izango ditu:

a) Lehenengo zatia ariketa teorikoa izango da, eta, ehun (100) minutuan, berrogeita hamar (50) galderako test bat egin beharko da, gehi erreserbako berrogeita hamar (50) galdera. Galderak II. eranskineko gaitegian jasotzen diren gaiei buruzkoak izango dira, eta aukerako zenbait erantzun izango dituzte, baina bat baino ez da zuzena izango. Erantzun zuzenak hiru (3) puntu balioko du, eta puntu bat (1) kenduko da oker erantzundako galdera bakoitzeko.

b) Bigarren zatia praktikoa izango da, eta hirurogei (60) minutuan, ariketa hasi baino lehentxeago epaimahaiak zehaztutako hogeita hamar (30) galderako galdera-sorta erantzun beharko da. Galderak II. eranskineko gai-zerrendako gaiei buruzkoak izango dira. Erantzun anitzeko galderak dituen galdetegi batean aukeratu beharko dira erantzunak. Erantzun zuzenak hiru (3) puntu balioko du, eta puntu bat (1) kenduko da oker erantzundako galdera bakoitzeko.

Lehengo ariketaren bi zatiak egun berean egingo dira, bata bestearen ostean; epaimahaiak atsedenaldia eman ahal izango die izangaiei zatien artean.

4.2- Bigarren ariketa:

Euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailea izango da derrigorrezko II. hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten lanpostuei lotutako plazetara aurkezten diren izangaientzat eta borondatezkoa eta ez-baztertzailea derrigorrezko ez den II. hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten lanpostuei lotutako plazetara aurkezten direnentzat; betiere, euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko da dagokion mailan.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

Bizkaiko Foru Aldundian I. eta II. hizkuntza-eskakizunak egiaztatuta dituztenek ez dute berriro halakorik egiaztatu beharko parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Halakoetan, parte-hartzaileak baimen espresua emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala ere, aurkeztu egin beharko dituzte azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta egon badauden baina erregistro horretan sartuta ez dauden gainerako euskara-titulu edo -ziurtagiriak; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Izangaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean egiaztatu nahi badituzte I. eta II. hizkuntza-eskakizunak, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko da.

4.2. LEHIAKETA

Lehiaketan, izangaiek aurkeztu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta balioztatuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera dagozkion puntuak emango zaizkio.

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1. Merezimenduen baremoaren arabera (I. eranskina) emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketa-fasearen kalifikazioa.

5.2. Oposizio fasea

a) Lehenengo ariketan, zero (0) eta hogei (20) puntu arteko kalifikazioa jarriko da, honela banaturik: a) zatian, zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa jarriko da; b) zatian, zero (0) eta hamar (10) puntu arteko kalifikazioa jarriko da. Zati bietako emaitzen batuketa aritmetikoa eginez jarriko dira kalifikazioak. Ariketa gaindituko dute bi zatien artean hamar (10) puntu lortzen dituztenek, betiere zatietako bakoitzean gutxienez bi puntu eta erdi (2,5) lortzen badituzte.

Hala ere, gainditutako pertsonen kopurua ez bada iristen 57ra, puntuaziorik handiena lortu duten 57 pertsonak- parte teorikan- parte praktikora igaroko dira; horretarako, parte-hartzeko txanda guztiak hartuko dira kontuan. Noten mozketa-puntuan berdinketa gertatuz gero, mozketa-notaren pareko nota duten izangai guztiek gaindituko dute ariketa hau.

Izangaiek deialdi honen ostean deitzen den hurrengo deialdirako gorde ahal izango dute ariketa honetako parte teorikoaren kalifikazioa, baldin eta deialdi horretan hala ezartzen bada; horretarako, betiere, txanda berean parte hartu behar dute.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)

b) Bigarren ariketan, «gai» edo «ez gai» kalifikazioa emango zaie derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten plazak lortu nahi dituztenei. Gainerako kasuetan, honako banaketa honen araberako kalifikazioa emango da, egiaztatutako maila kontuan hartuta:

- I. hizkuntza-eskakizuna: 1,25 puntu

- II. hizkuntza-eskakizuna: 2,5 puntu.

Ezingo da eskuratu lortu nahi den lanpostuaren hizkuntza-eskakizunari dagokiona baino goragoko puntuaziorik.

6. Lan-poltsa

Hautaketa-prozesu honetatik lan-poltsa sortuko da lehenengo ariketako lehenengo zatia (teorikoa) gainditzen dutenekin, bosgarren oinarrian xedatutakoaren arabera.

I. ERANSKINA

PLAZA ARRUNTETARAKO MEREZIMENDUEN BAREMOA

ESPEZIALITATEA: HAINBAT ZERBITZUTARAKO LANGILEA

Edozein administrazio publikotan HAINBAT ZERBITZUTARAKO LANGILEA kategorian edo EPOELTBren seigarren xedapen gehigarrian aipatutako gainerako lanbide-taldeetako edozeinetan (E titulazio-taldea) egindako zerbitzuengatik: 0,084 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko, eta gehienez ere hirurogei (60) hilabete. 5 puntu

Ondorio horietarako, aintzat harturik zer ezartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Lehen Programaren Bosgarren Jarduketa Zikloaren Erabakiak, 2021eko abenduaren 21ean onartuak, kategoria hauetan emandako zerbitzuak zenbatuko dira: GIDARIA, BEHARGINA, ZERBITZUETAKO LANGILEA eta MENPEKOA.

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira administrazio publikotzat: urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateginaren 2.1, 2.3 eta 4 a), b) eta c) artikuluetan jasotako erakundeak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 2.1 eta 2.3 artikuluetan jasotakoak. Halaber, zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan egindako zerbitzuak zenbatuko dira, baina inola ere ez izaera publikoko beste erakunde batzuetan egindakoak, baldin eta enpresa, merkataritza-sozietate, fundazio edo elkarte nahiz korporazio publikoen forma juridikoa badute.

Egindako zerbitzuak hiletan zenbatuko dira. Ondorio horietarako, egindako zerbitzu-aldi guztietako egunak batuko dira eta batura zati hogeita hamar egingo da; emaitzan zatikirik ateratzen bada, hilabete oso gisa zenbatuko da.

Nolanahi ere, zerbitzua lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira.

Era berean, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.1.c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientzia baloratzeko, kontuan hartuko dira honako hauek ere: lehenik, zenbat denbora egon den izangaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen izangaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta, hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.

cve: BAO-2022a248-(I-1216)

II. ERANSKINA

HAINBAT ZERBITZUTARAKO LANGILEEN PLAZETARAKO GAIAK: PLAZA ARRUNTAK

1. gaia.- Espainiako 1978ko Konstituzioa: Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubide eta betebeharrak.

2. gaia.- Euskal Herriaren Autonomia Estatutua. Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Ekonomia Ituna:

3. gaia.- 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa. Bizkaiko Batzar Nagusiak. Izaera, eskumenak eta osaera. Bizkaiko Foru Aldundia: Izaera, osaera eta kargua uztea. Eskumenak.

4. gaia. - Administrazio-prozedura erkidea. Administrazio-prozedura erkidearen faseak: hasiera, antolamendua, instrukzioa eta amaiera.

5. gaia.- Automobila: 1.1 Definizioa; 1.2 Ibilgailu bat osatzen duten elementuak; 1.3 Motorra; 1.4 Enbragea; 1.5 Abiadura-kaxa; 1.6 Transmisioa; 1.7 Diferentziala; 1.8 Gurpilak; 1.9 Balazta-sistema; 1.10 Direkzioa; 1.11 Txasisa eta karrozeria; 1.12 Esekidura; 1.13 Sistema elektrikoa.

6. Gaia.- Ibilgailuen mantentze-lanak: 1.1 Aldizkako zaintzak eta kontrolak; 1.2 Funtzionamenduak eragindako higadura naturalaren ondorioz ordeztu behar diren elementuak. 2. Matxura ohikoenak. Konponketak. 2.1 Motorretako matxurak; 2.2 Ibilgailuaren esekidurako matxurak; 2.3 Ibilgailuaren direkzioko matxurak; 2.4 Enbrageko matxurak; 2.5 Abiadura-kaxako matxurak; 2.6 Atzeko zubiko matxurak; 2.7 Balaztetako matxurak. 3. Ibilgailuen ikuzketa eta garbiketa: 3.1 Ibilgailu berrien garbiketa; 3.2 Turismo, kamioi eta makinen kanpoko garbiketa; 3.3 Turismo, kamioi eta makinen barruko garbiketa; 3.4 Motorraren eta laneko elementuen garbiketa.

7. gaia.- Igeltserotza: Materialak. Tresnak. Eraikuntza-elementuak. Teknikak. Glosarioa. Igeltserotzako matxura arrunten konponketari buruzko ezagutza.

8. gaia.- Iturgintza: Sarrera. Instalazioak. Hodiak. Osagarriak. Balbulak. Erremintak eta tresnak. Praktikak. Iturgintzako matxura arrunten konponketari buruzko ezagutza.

9. gaia.- Arotzeria: Kontzeptu orokorrak. Arotzeriako oinarrizko tresnak eta erremintak. Arotzeriako oinarrizko teknikak. Egur-motak. Mantentze- eta konponketa-lan ohikoenak. Altzariak eta gauzak konpontzea eta mantentzea.

10. gaia.- Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legea. Definizioak. (4. artikulua) Laneko arriskuen aurrean babesa izateko eskubidea. Prebentzio-ekintzaren printzipioak. (14. eta 15. artikuluak.). Larrialdi- eta ebakuazio-planei buruzko oinarrizko ezagutzak.

eek: BAO-2022a248-(I-1216)